



Soziolinguistika

aldizkaria




EUSKALTZALETASUNAREN
AKTIBAZIOA
(II)



bat Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

**EUSKALTZALETASUNAREN
AKTIBAZIOA (II)**





● **HELBURUA**

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hautzat bere jardura esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● **EDUKIA**

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaioren disziplinarrekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren laneak hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● **ARGITARATZAILEA**

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

● **ZUZENDARIA**

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

● **ARGITALPEN BATZORDEA**

Bartzordekideak

Estibaliz Amorrtutu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)

eamorrtu@fil.deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)

ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández

(UPV/EHUko irakaslea)

jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)

ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko

Ikastolen Elkarte)

inmunoa@ehi.ikastola.net

Koordinatzailea

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

b.uranga@soziolinguistika.eus

● **HARPIDETZA ETA SALMENTA**

ARDURADUNA

Isabel Godinez

i.godinez@soziolinguistika.eus

943 592 556

● **ALDIZKARIAREN**

DISEINATZAILEA

Txema Gartzia Urbina

zabalur@gmail.com

● **HARPIDETZAK**

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitetz harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● **WEBGUNEA**

Aldizkariaren aurreko aleak on-line dituzu

www.soziolinguistika.eus helbidean

Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.



HARREMANETARAKO

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

Martin Ugalde Kultur parkea

20140 ANDOAIN

b.uranga@soziolinguistika.eus

bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

943 592 556

ISSN: 1130-8435 — LEGE GORDAILUA:

SS120/90

INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Eneritz Albizu Lizaso, Goizane Arana Arexolaleiba, Iñaki Arruti Landa, Amaia Balda Etxarte, Idurre Eskisabel, Eneko Gorri, Arrate Illaro Etxebarria, Pello Jauregi, Imanol Larrea Mendizabal, Iker Martinez de Lagos Menique, Zesar Martínez García, Pablo Suberbiola.

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikuluak bi artikulu-ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**euskaltzaleen
topagunea**

idatzi baldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.



Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

Gozatu elhuyar

aldizkari berritua

Zientzia eta teknologiaren arloan gertatzen den guztia, eskura: gaurkotasuna, iritzia, analisia, istorioak, irudiak, hemengo ikerketa...

Urtean 16 euroren truke



Hiru hilez behin jasoko duzu etxean eta noiznahi eduki gehiago izango duzu webgunean

Harpidetu zaitez edo oparitu ezazu harpidetza, hemen:

<http://aldizkaria.elhuyar.eus/harpidetza>

107

EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)

> **HITZAURRE GISA**

Belen Uranga **007**

01. Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak

Idurre Eskisabel Larrañaga **011**

02. Erdaldunak aktibatzeke diskurtsoak. Mintzalasai eta
BAM! maila diskurtsiboan

Eneko Gorri **029**

03. Ahobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin
ateratzeko esperientzia bat

Iñaki Arruti Landa **045**

04. Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa

Arrate Illaro Etxebarria eta Iker Martinez de Lagos Menique **065**

05. Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa: hainbat gako

*Zesar Martínez García, Amaia Balda Etxarte
eta Imanol Larrea Mendizabal* **079**

06. Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik
euskarazkoetara lan-munduan

Pello Jauregi, Pablo Suberbiola **097**

I GUREAN ATALA

Bermeo eta Ondarroa, Hizkuntzaren garapenean
eragiten duten faktoreak

Eneritz Albizu Lizaso eta Goizane Arana Arexolaleiba **133**

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikuluko akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikuluen hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharra. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikuluen bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharra, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikuluen amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarritzko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epea. Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



Euskararen biziberritze-prozesuan bidegurutzean egotearen konstatazioa ez da gaur-gaurkoa. Horrela erakusten ari zaizkigu erakunde publiko zein sozialek azken urteetan egiten ari diren ekimen guztiek. Horietan, ordea, nabarmentzeko helburu bat gailentzen ari da besteren artetik, euskaltzaletasunaren aktibazioa, izaera pertsonaleko hautu kolektibo gisa.

Duela bi urte jada, gai horri eskaini genion BAT 98 zenbakia. 2016ko martxoan, Euskaltzaileen Topagunearekin elkar lanean prestatuturiko monografikoan abian jarritako *Euskaltzaletasunaren aktibazioa* propo-

samenari jarraipena emanez osatzera dator 2018ko BAT 107 zenbakia.

Jatorri desberdineko artikulua bildu ditugu kasu honetan: lehenengo biak 2018ko urtarrilaren 23an, Durangon izandako Topaldian jasotako Idurre Eskisabel eta Eneko Gorriren artikulua biltzen dira. Ondoren, euskal erakunde zein eragile sozialen aurtengoerronka nagusienetakoa den *Euskaraldiaren* inguruko hiru artikulua bildu dira. Lehen, Arrate Illarok eta Iker Martinez de Lagosek idatzitakoa da; bigarrena, ekimen horren abiapuntuetako bat izan zen Lasarte-Oriako esperientzia Iñaki Arrutiren lumatik, eta hirugarrena, maila teorikoagoan bada ere, tokian tokiko aktibaziorako gakoaren inguruan Zesar Martinezek, Amaia Baldak eta Imanol Larreak idatziriko artikulua. Gaiari amaiera emateko Pello Jauregik eta Pablo Suberbiolak lan-munduko hizkuntza-ohituren aldaketa gerta dadin kontuan izan beharreko aldagaien inguruan idatzi dute euren artikulua. Gai monografikotik kanpo geratuz, Gurean atalean, Eneritz Albizuk eta Goizane Aranek 2017ko HAUSNARTU sarietara aurkeztutako lanaren inguruko

artikulua publikatu dugu, Bermeoko eta Ondarroako udalerrietan euskararen garapenaren inguruko ikerketa-lanaren berri emanez.

Zehazki aipatzearren, zenbakiari hasiera emateko **Idurre Eskisabel** EHUKo irakasleak “Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak” artikulua idatzi du. Bertan, euskararen hautuaren aldeko diskurtsoak egokitu beharra azpimarratzen du, orain artekoak duela 50 urte garatutako pentsamenduan oinarritutakoak direlako eta, beraz, nekez izan daitezkeelako eraginkorrak egungo mundu globalizatuan. Eskisabelek, lehenagotik lantzen ari den bidea jorratuz, feminismoaren diskurtsotik baliatu daitezkeen ideien inguruko proposamen interesgarriak plazaratu ditu.

Bigarren artikuluan, gizartearen aktibazioaren bila Iparraldean eginiko bi ekimen oso interesgarrien berri eman du **Eneko Gorri** euskara teknikariak. “Erdaldunak aktibatzeke diskurtsoak *Mintzalasai* eta *BAM!* maila diskurtsiboan” artikuluan, ikerketa soziolinguistikoei erakusten duten egoera kezkarriaren aurrean gizartea planteatzen ari den hainbat ekimenen berri, izan ere, ezinbestekoa da euskararen aldeko mugimenduan eremu sozial berriak irabaztea, kasu honetan, euskararen aldeko erdaldunak. Horretarako, sendotasun handiarekin ari dira diskurtsoak berritzen eta egokitzen. Horien lekuko, estrategikoa den BAM eremu geografikoan (Baiona–Angelu–Miarritze) garatutako ekimenak eta *Mintzalasai* proiektua.

Iñaki Arrutik “Ahobizi, Belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat” artikulua idatzi du, aurkezteko, Lasarte-Orian 2016an egin zen “Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz!” ekimen sozialaren inguruko ikerketa-

lana. Ekimen horren helburu nagusia hizkuntza-ohituretan eragitea eta aldaketak sortzea izan zenez, esperientzia ezin estrategikoagoa bihurtu zen. Eta, besteak beste, hala ulertuta Euskal Herri mailan abian jarri da 2018ko udazkenean burutuko den *Euskaraldia* programa. Ikeerketa horren emaitza izenburu bereko liburuan argitara eman den arren, artikuluan tesuingurua deskribatzen da eta euskalgintzarentzat baliagarri izan daitezkeen ekin-tzarako gakoak identifikatzen Azkenik, emaitza nagusien inguruko hausnarketak ere eskaintzen ditu.

“Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa” ondorengo artikulua **Arrate Illarok** eta **Iker Martinez de Lagosek**, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimena aurkeztuz. Jakina den bezala, egitasmoak Euskal Herri osoko lurraldea hartu nahi du, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra doan 11 eguneko tartean, gizartea euskararen aldera aktibatzeke. Bere abiapuntua, lehen aipaturiko Lasarte-Orian eta beste leku hainbateko aktibazio sozialerako esperien-

tzietan du, eta, praktikan, *Eusle* metodologia erabiliko du.

Taldean idatzi dute **Zesar Martínezek**, **Amaia Baldak** eta **Imanol Larreak** “Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa: hainbat gako” artikulua. Bertan, euskararen inguruko aktibazioa eragiteko gakoak identifikatzeko eta aktibaziorako metodologia zehatz bat proposatzea helburu duen proiektu baten berri ematen dute egileek. Soziolinguistika Klusterra hainbat eragilerekin ari da egitasmoa lantzen, eta artikulua honetara ikerketaren lehen emaitzak eta ondorioak ekarri dituzte. Aztertu dira, besteak beste, herri aktibazioa lortu duten esperientziak eta horien arabera gakoak, horien artean honakoak: behar sozial bati erantzutea; talde eragile kohezionatua izatea, egitura irekiak eta horizontalak sortzeko borondatea izatea eta administrazioaren babesa izatea.

Pello Jauregik eta **Pablo Suberbiolak** “*Eusle* metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoe-tara lan-munduan” artikulua aurkezten da ondoren. *Euskaraldiaren* oinarri izango den *Eusle* metodologia lan-munduan zer nolako eragina izan dezakeen aztertu dute egileek. Izan ere, metodologia hori 2012an Aldahitz Ikerketa-proiektuaren baitan euren sortu zuten tresna bat da, hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak abian jartzeko. Artikuluan, 2013 eta 2016 artean

hainbat lantegitan egindako proiektuaren emaitzak eskaintzen dira, ikusteko, zenbateraino den eraginkorra metodologia zehatz hori, langileen hizkuntza-ohiturak euskararen aldera aldatu nahi dituzten taldeentzat.

Zenbakia amaitzeko, eta *Gurean Atalean*, “Bermeo eta Ondarroa, Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak” artikulua argitara eman da. **Eneritz Albizu** eta **Goizane Arana** UEMAko teknikariek eginiko ikerketa-lanean oinarritutako artikulua. Udalerri oso euskaldunak izan arren, euskararen aldeko atxikimendua oso desberdina duten bi udalerri horietako egoera soziolinguistikoa aztertu dute egileek: Bermeo eta Ondarroa, eta ikerketaren emaitzaren hausnarketan eraginkorrak izan daitezkeen lan-ildoak ere proposatu dute egileek artikulua honetan. •

bat dossierak





Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak

Idurre Eskisabel Larrañaga

EHU/UPVko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Kazetaritza Saila

idurre.eskisabel@gmail.com

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Oraindik orain, euskaraz bizitzea hautu bat da, berez datorrenaren kontrako erabaki kontziente bat, eguneroko bizi praktiketan erne eta adi jokatzeko eskatzen duena. Jendeok berez datorrenaren aurka aritzeko, erabaki horiei esanahia, zentzua eta balioa emango dien markoak behar ditugu; hau da, diskurtsoak. Diskurtso kontra-hegemonikoak. Horrenbestez, euskaltzaletasunak badu bere zoru diskurtsibo kontra-hegemonikoa. Joan den mendeko 50.ekoen amaieran zizelkatua da, ordea, eta, ondorioz, nekez egokitzen zaio egungo subjektibitate postmodernoari. Norberaren agentzia eta feminismoan egon daitezke diskurtsoa berritzeko zumeak. • **Hitz gakoak:** *euskaltzaletasuna; diskurtsoa; subjektibitatea; feminismoa.*

Abstract. Living in Basque is still a matter of choice in which a conscious decision is taken against whatever the consequences may be, a choice that calls for a vigorous and attentive attitude in everyday life. In order for these people to bear up against the consequences of such a decision, we need frameworks that give meaning, meaning, and value to those decisions, i.e., discourses that counter language hegemony. Consequently, the pro-Basque language movement has its own basis for a counter-hegemonic discourse. It was hammered out at the end of the 1950s, and, consequently, it is difficult to adapt to the current postmodern subjectivity. Personal agency and feminism might pave the way for a renewal of the discourse. • **Key words:** *pro-Basque movement; discourse; subjectivity; feminism.*

1. HAUTUA

I

Itxura batean, hutsaren hurrengo ekarpena egiten dute Pernandoren egiek. Hainbatetan gertatzen da, ordea, konplexutasunaren izenean ezabatu egiten ditugula errealitate esaten diogun horretatik, hau da, gertakarien, bizi praktiken eta haiei emandako balio eta esanahien matazatik. Guztiz kentzeraino, badirenik ere ahazteraino. Ondorioz, okerreko oinarrietatik abiatzen gara arazo, auzi eta gatazkei heltzerakoan. Euskararen arazo, auzi eta gatazkan halako zerbaite gertatzen zaigulakoan nago, Pernandoren egia bat kentzen dugula abiaburutik. Honakoa: gaur eta hemen oraindik hautu bat dela euskaraz bizitzea, hau da, denbora osoko euskaldun, euskaran ardaztutako pertsona eta herritar izatea¹. Eta, nago, Pernandoren egia hori ezabatzen dugunez nekez asmatzen dugula euskaltzaleok, gaur eta hemen, euskararen arazo, auzi eta gatazkari taxuzko heldulekurik ematen.

Zer esan nahi dut euskaraz bizitzea hautu bat dela diodanean? Ez dela berez datorren zerbaite, Valdemoron, Franconvillen edo Phoenixen gazteleraz, frantsesez edota ingelesez egitea den bezala, justu kontrara bai: berez datorrenaren aurka egiten den zerbaite dela. Eta, horrenbestez, norberaren erabakimenaren ahalegin erne, handi eta etengabea eskatzen duena, gaur eta hemen berez datorrena gazteleraz edo frantsesez bizitzea baita, nor bere burua gazteleran edota frantsesean ardaztea, herritartasuna gazteleraren edota frantsesaren bidez iristea.

Akaso, esango dit norbaitek gaur eta hemen zabalegia dela baieztapen kategoriko horretara iristeko. Esango dit zorionez gaur eta hemen badirela eremu oso euskaldunak, badirela arnaseguneak, esate baterako, 6-7 urterekin apenas gaztelerarik ez dakiten haurrak topa ditzakegun herriak –frantsesarekin ez dut uste halakorik gertatzen denik, eta gaztelerarekin ere zalantzak-. Baina hori hala izan arren, arnasegunerik arnaseguneeneko biztanle arnasegunetsuenak -baita kezka ezkuta ezina sorrarazten digun ume elebakar horrek ere- uneraren batean hautatu egin beharko du euskaraz ardaztutako pertsona eta herritar izatea, gazteleraren eta frantsesaren berezkitasuna eguneroko bizitzako aztura eta keinu txikienetaraino baitago sartuta. Arnasten dugun airean dago.

Horren adibide ekarriko dut Idurre Alonso Amezua literaturan doktore eta HUHEZiko irakasleak asko ez dela Parlantzua blog kolektiboan² idatzitako pasarte bat:

***Gaur eta hemen
oraindik hautu
bat da euskaraz
bizitzea, hau da,
denbora osoko
euskaldun,
euskaran
ardaztutako
pertsona eta
herritar izatea.***

**Beste aukerak
edo aukerek ekar
dezaketenaz
konturatu behar
dugu, neurtu egin
behar ditugu,
geure galbahe
indibidual eta
kolektiboan
iragazi, eta haien
aldeko hautua
egingo badugu,
berez
datorkigunaren
gainetik hobetsi.**

“Ama, zergatik dago beti Doraemon Etb3n? Clan eta “Disney Aintzane” ez ditut ulertzen, eta Doraemonekin aspertu egiten naiz. Denak ditut ikusita dagoeneko!” Amak ez daki zer erantzun. Herri honetako agintariek bultzatzen dute gure umeezko telebista gaztelaniaz ikustea, etengabe euskarazko marrazki bizidunak errepikatuz eta inoiz baino eskaintza urriagoa eginez. “Lasai, pitxin, laster ulertuko dituzu gaztelaniazko beste horiek ere”. Dagoeneko euskarazko DVD guztiak erosita eta ikusita baitituzte; telebista espainolez ulertu eta kontsumitzea bihurtu zaie irtenbide bakarra ume euskaldunei. Horixe da herri honen hizkuntza eta kultura politika.

“Aita, noiz joango gara zinemara? Noiz egongo da pelikularen bat euskaraz?” Aitak zinemara deitu du. “Hilabete barru emango omen dute zeozer. Ea gustatzen zaizuen, zeren ez baitago besterik”. Umearen hasperen etsia.

Bizipenak. Egunerokoak. Beren txikian ume-umetatik argi uzten dutenak zer den berezkoa eta zer ez.

Gainera, hemen eta orain zabal horretako leku gehienetan hautua ez da nor bere burua euskaraz ardaztea, euskaraz bizitzea. Hori baino estadio xumeagoetan hasten da hautua, oraindik orain, hautu kontziente eta ahalegintsua baita Euskal Herriko biztanle gehienentzat bizimoduko arlo guztietan euskaraz eroso aritzeko adinako trebezia funtzionala iris-tea eta hari eustea.

Kontua da, jendeok gauzak berez datorren horretatik kanpo egiteko – are, eta gehiago berez datorrenaren kontra ekiteko- prozesu oso bat behar izaten dugula. Lehendabizi, ohartu egin behar dugu ustez berez datorren horretaz bestekoa egiteko aukera badagoela, posible dela. Hain zuzen, ezarian datorren hori ez dela berezkoa, baizik eta aukeren arteko bat. Kontziente izan. Bigarren urrats batean, berriz, beste aukerak edo aukerek ekar dezaketenaz konturatu behar dugu, neurtu egin behar ditugu, geure galbahe indibidual eta kolektiboan iragazi, eta haien aldeko hautua egingo badugu, berez datorkigunaren gainetik hobetsi. Onurak topatu. Hau da, beste aukera edo aukerak entseatzeari, beste bidea hartzeari, esanahi bat eman beharko diogu, berez datorkigun horri ematen diogunaren gainetik aseko gaituena.

Eta horretarako, diskurtso bat eraiki behar da, indibidualki eragingo diguna baina, indibiduo besteekin eta sarean egiten garenez, aldi berean, dimentsio kolektiboa duena. Eraiki behar da diskurtso bat: gure erabakimenaren motorra izango den motibo eta esanahien ardatz bat.

2. DISKURTSOAZ

I

Diskurtsoa zer den zehazteko –edo nik proposamen honetarako nola ulertzen dudan argitzeko– nagusiki Michel Foucault filosofo frantziarraren ekarrietatik abiatuta zenbait ikerlarik egindako gogoetetan bermatuko naiz. Horrenbestez, diskurtsoa eguneroko esperientziak ulertzeko eta esanguratsu bihurtzeko marko gisa ulertzen dut, gertakari eta bizipenak lotu eta errealitate esaten diogun hori koherentziaz eraikitze lanabes. Badu parte bat lengoaiaren bidez osatzen dena eta beste bat bizi praktiken bitartez. Eta badu oso aintzat hartzeko beste ezaugarri bat: bizipen eta gertakariak ulertzeko eta haiei zentzua emateko markoa ez ezik, kontrol soziala gauzatzeko tresna ere badela.

Vivien Burr psikologo sozial britainiarrak honela laburbildu du: “[Diskurtsoa da] guztiak elkartuta gertakarien ikuspegi zehatz bat ematen diguten esanahi, metafora, irudikapen, irudi, istorio azalpen eta abarren multzoa” (1992). Bizi praktikak erantsiko nituzke multzo horretara.

Mary Bucholtz hizkuntzalari estatubatuarrek, berriz, garaian-garaian eta lekuan-lekuan jakintza, sinesmenak eta boterea antolatzearekin lotzen du diskurtsoa (2003).

Ildo bertsutik, Paul Baker hizkuntzalari britainiarrak zentzu komunarekin parekatzen du diskurtsoa; hau da, sinesmenekin eta tradizioarekin, gizarteko balio, ohitura eta tabuekin (2008). Zentzu komuna, funtsean, horixe baita, tokian tokiko eta unean uneko jende talde batek dakizkien, sinesten dituen, zilegi egiten zein arbuaitzen dituen ideia eta praktiken gaineko kontsentsua. Ustez inork esan gabe denek hala dela badakitena. Hau da, Antonio Gramsci filosofoaren ekarritik azken aldian bolada-boladako bihurtu den hegemonia terminoarekin adierazi nahi izaten dena. Santi Leone historialari nafarrak erabat hitz lauz, grazia handiz, baina, aldi berean, bikainki, zedarritu zuen zer den hegemonia Euskadi Irratirako egindako zutabe batean:

“Definizio simple bat emate aldera, hegemonia errealitatea ikusteko erabiltzen ditugun betaurrekoak izan liteke (betaurreko ikusezinak daramatzanarendako). Normalizat jotzen duguna, araua dena, errealitatearen gaineko gainerako ikuspuntuak baztertu eta anormal bihurtzen dituen ikusmoldea. Begi-bistakoa dena. Naturala dena. (...) Bertze definizio bat hau izaten ahalko litzateke: inork azaldu gabe, gure seme-alabek osmosi bitartez edo intuizioz ikasi eta barneratzen dutena, adin batetik aitzinat haurrak integratzen saiatzen baitira, taldeko parte izan nahi dute, eta, hortaz, antena finak izaten dituzte nonahi balio nagusiak zein diren igartzeko” (2013)³

Diskurtsoa eguneroko esperientziak ulertzeko eta esanguratsu bihurtzeko marko gisa ulertzen dut, gertakari eta bizipenak lotu eta errealitate esaten diogun hori koherentziaz eraikitze lanabes.

**Uler dezakegu
gaur eta hemen
egungo diskurtso
nagusiak -zentzu
komunak,
hegemoniak,
ideologia
nagusiak-
gaztelaraz edota
frantsesez
bizitzera
garamatzala,
geure burua
gaztelaraz edota
frantsesez
ardazten dugun
pertsonak
izatera,
herritartasuna
gaztelaraz edo
frantsesez
gauzatzen
dugunak.**

Diskurtsoa, beraz, zentzu komunaren eta hegemoniaren pareko. Are, gure ezagutza mendebaldarraren tradizioan laugarren termino batekin ere parekatuko litzateke: marxismotik jasotako ideologia kontzeptuarekin. Hala defendatzen dute, esaterako, arestian aipatutako Baker-ek eta Mary Bucholtz hizkuntzalari estatubatuarrek. Baker-ek, zehazki, honela dio: “*Ideologia ikus daiteke post-estrukturalismoak diskurtsoaz egiten duten erabileraren aitzindari kultural-materialista gisa; diskurtsoa, berriz, ideologiak ekarritako kontzeptu bezala*”.

Soka horretatik tiraka, eta hizkuntzaren gaineko diskurtsoez ari garenez, bereziki interesgarria iruditzen zait Deborah Cameron hizkuntzalari feministaren ekarpen bat: hizkuntz ideologia kontzeptua, alegia. Cameronek hizkuntz ideologia esaten duenean ohartarazten digu hizkuntza ez dela diskurtso edo ideologiak eraiki eta zabaltzeko tresna hutsa bakarrik, baizik eta, halaber, hizkuntza berari buruzko irudikapenen multzoak (edo beste era batera esanda, hizkuntz ideologiak) ideologiak sortzen dituela, hau da, mundua ulertzeko modu jakinak. Hots, hizkuntza baten sorrerari buruzko irudikapen multzoak, edo haren ezaugarriei buruzkoak, mundu ikuskera zabalagoa baldintzatuko duela.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da lan ideologikoa hizkuntzaren irudikapenen bidez gauzatzen dela, eta irudikapen horietako askoren oinarrian Cameronek *diskurtso bikoitza* izendatu duena dagoela. Hau da, hizkuntza da hizkuntza bera, eta, aldi berean, beste zerbaiten ordezkotzat sinbolikoa. Adibidez, hizkuntzaren erabilera zuzenari buruzko adierazpenek azaltzen dute hizkuntzan ordena jartzeko nahia, baina beste maila batean erakusten dute beste arlo batzuk kontrolatu eta ordenatzeko gogoia. Hizkuntza ordenatzeak mundua ordenatzea esan nahiko luke (Cameron, 2003.). Euskararen arazo, auzi eta gatazkara ekarrita, hizkuntzaren beraren ezaugarritzeak (hau da, eransten zaizkon *-tasun* eta *-keriak*, hala nola, funtzio komunikatibo batzuetarako erraztasun zein mugak,) euskararen gaineko ideologia bat osatuko lukete, eta, horrenbestez, jendeok hizkuntza horrekin egiten ditugun (edo ez ditugun) praktiketan eragin..

Abiaburuan aipatutako ikuspegi *foucaultiar* horren bidez, beraz, diskurtsoa, zentzu komunarekin, hegemoniarekin eta ideologia nagusiarekin parekatu dut. Hainz zuzen ere, atal honen hastapenean esan dut diskurtsoa egunerokotasuna ulertzeko eta esanguratsu egiteko markoa ez ezik, kontrol sozialerako tresna dela. Hain justu, Baker-ek azpimarratzen du hizkuntza dela diskurtsoak eraikitze eta ibilarazteko modu zentrala, eta sarkor izan daitezen behin eta berriz errepikatzen direla, finko

eta natural bihurtu arte. Zabaltze bide eta euskarriak, berriz, askotari-koak: hasi haurren kantuetatik eta pornografiaraino, zientzia zein kirol aldizkarietatik igarota (2008).

Horrenbestez, uler dezakegu gaur eta hemen egungo diskurtso nagusiak -zentzu komunak, hegemoniak, ideologia nagusiak- gazteleraz edota frantsesez bizitzera garamatzala, geure burua gazteleraz edota frantsesez ardazten dugun pertsonak izatera, herritartasuna gazteleraz edo frantsesez gauzatzen dugunak. Hasierako atalean aipatzen duen ustez berez datorren horren zelaia da, azken batean, diskurtsoa; ustez berez datorren horretara katigatzeko tresna.

Baina ustez berez datorren horren kontrako hauturik egingo badugu, kontrako biderik hartuko, derrigorrez beharko dugu aukera horri gauzatzeko posibilitatea ez ezik esanahia eta balioa emango dion diskurtsoa, markoa. Burr-ek diskurtsoaz eginiko definizioa berreskuratzen badugu, premiazkoa zaigu gertakarien, esanahien, balioen, finean, errealitatearen beste ikuspegi bat mango diguten esanahi, metafora, irudikapen, irudi, istorio, azalpen eta bizi praktikak sortzea.

3. ZEIN DA EUSKALTZALETASUNAREN DISKURTSOA? NONDIK GATOZ?

I Pernandoren egia batetik abiatu naiz, esanez gaur eta hemen hautu bat dela euskaraz bizitzea. Baina euskara hautuarekin lotzeko derrigorren gaur hori oso luzea da hemen zabal honetan denean. Atzotik baino, herenegundik datorrena. Pentsa zenbat aldiz ez ote dugun errepikatu azken boladan euskararen misterio eta miraria ez dela haren jatorria baizik eta hain txiki izanik XXI. mende honen lehen laurdenean bizirik irautea.

Baina, nago, funtsean ez dela ez misterio, ez mirari: euskara Mendebalde zuriko parte honetan XXI. mendera iritsi bada milaka lagunek noizbait haren aldeko hautua egin dutelako izan dela. Eta, jakina, berez datorren kontrako hautu horrek halako hedadura izan badu gertatu da zoru diskurtsibo bat izan duelako eta badukeelako gaur egun ere, banakoen hautuetan eragin duen diskurtso kolektibo bat. Baina euskaraz bizitzeko hautuaren diskurtsoa ez da bat eta bakarra, ez denboran, ez lekuetan; are, denbora eta leku beretan ere ñabarduraz eta bidezidorrez mamitzen da indibiduoek gauzatzen duten heinean. Baina hala ere, uste dut marraz ditzakegula euskaltzaletasuna ezaugarritu duten bi aro eta aro bakoitzeko lerro diskurtsibo nagusi bat. Honakoak:

**Euskara
Mendebalde
zuriko parte
honetan XXI.
mendera iritsi
bada milaka
lagunek noizbait
haren aldeko
hautua egin
dutelako izan da.**

Galtzen ari den mundu bati eutsi nahiarekin. XIX. mende amaieran Sabino Aranak abertzaletasun modernoaren oinarriak jartzean trinkotuko da haren hedadura soziala. Diskurtso horretan, euskaltasunaren parte bat izango euskara, eta, horrenbestez, zaindu eta sustatu beharrekoa.

1. Lehen aroko euskaltzaletasuna. Euskaltasunak forma politiko modernorik ez zuen garaietan sustraitu eta euskaltasunaren lehen-dabiziko forma politiko modernoekin txirikordatzten den euskaltzaletasuna da. Erroa atzeragotik badator ere, aurreneko Euskal Pizkundearekin lotzen da, karlistadetako derrota eta foruen ezabatzeak eragindako galera bizipenarekin. Galtzen ari den mundu bati eutsi nahiarekin. XIX. mende amaieran Sabino Aranak abertzaletasun modernoaren oinarriak jartzean trinkotuko da haren hedadura soziala. Diskurtso horretan, euskaltasunaren parte bat izango euskara, eta, horrenbestez, zaindu eta sustatu beharrekoa. Baina, presente egon arren, ez da ardatza, geroago bezala. Diskurtso horretan, euskaltasuna eta baita euskara bera ere, agortzen ari den mundu bati eusteko bide izango dira. Gutxi asko, jendeon izatearen, identitatearen, ikuspegi esentzialista eta zurrun batekin lotuko da.

2. Bigarren aroko euskaltzaletasuna. Euskal Pizkundean kokatu dut lehen aroko euskaltzaletasunaren sorrera. Eten traumatikoa izan zuen dinamika hark, Espainiako Gerra Zibilak eta frankismoaren garaipenak eragindakoa. Baina, pixkanaka, 50.ekoen amaieran joan ziren argitara ateratzen mugimendu antifrankista askotarikoaren ernamuinak, haien artean entitate bereziz abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna. Alde batetik, gerra aurreko abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren segidak, bestetik, haien berpentsatze eta biziberritzea. Hizkuntzaren eta kulturaren arloari erreparatzen badiogu, bigarren Euskal Pizkundea gertatu zen. Hein batean, aurrekoaren segida, baina, halaber, berpentsatze eta biziberritzea.

Izan ere, urte haietan Euskal Herria eta euskal herritarrak goitik behera aldatu ziren, munduaren parte zabal bat eta mundutarren parte zabal bat aldatu ziren noranzko eta hein bertsuetan. “Gerra osteko urte amiltsu haietan gizakia eta bizitza bera ulertzeko modua aldatu zen”, idatzi du Alaitz Aizpuru garai eta gertakari haietan aditu den filosofia arloko ikerlariak (2015). Ez dira nolanahiko kontuak, funtsean, eredu sozioekonomiko, politiko eta kulturalaren bestelaketak: ondasunen ekoizpen, metatze eta zirkulatze eredu aldaketa, baita ondasuntzat hartzen diren horiena bera ere; hiritartzea; erlijioaren indar galera; ordura arte eguneroko bizitzari eusten zion instituzioena, besteak beste, familiarena; sexu/genero sistemaren adar batzuen eraldaketa... Aldaketa horiek norberetasun edota subjektibitate berri bat dute ezinbesteko bultzatzaile, eta, era berean, norberetasun berri bat da aldaketa horien emaitza.

Aizpururen hitzetara itzuliz, norberetasun berri horren muina giza ekintza da, hartatik eratorritako bi ardatzetan: batetik, giza ekintza gai zentrala bihurtzen da, ekintzaren bidez indibiduo bakoitza bere buruaren arduradun bihurtzen baita, delegaziorik gabe –eta, horrenbestez, hor bere herriaren edota nor bere hizkuntzaren arduradun, delegatu ezin diren zereginak horiek ere-. Bestetik, ekintza muinean jartzeak bestelakotu egiten ditu gizakiaren ezaugarriak: jada ez da izaki bukatua, alde aurretik definitua, determinatua eta itxia. Aitzitik, bere ekintzen bidez egingo du etorkizuna, hau da, bere burua. Hori dela eta, iraganean egindakoen emaitza da oraina, eta orainean egiten denaren emaitza izango da etorkizuna. Testuinguru horretan garrantzi berezikoak gertatzen dira *nondik gatoz, nora goaz* galderak; lehenaldiak bezainbat bustitzen du norbanakoa geroak.

Mundu aldaketa horrek eta subjektibitate berri horrek dena zeharkatzen du, baita euskaltzaletasunaren ulermena, eta, horrenbestez, euskararen gaineko diskurtsoa bera ere. Aurreneko Euskal Pizkundearen oinordeko den diskurtsoarekin apurtzen du, hain zuzen, pentsamendu lerro haren bi adar nagusietan: batetik, arestian aipatu dut euskaltasun eta euskaltzaletasun hark iragana zuela miran, galtzen ari zen mundu bati eutsi nahia motibo, nostalgia zela ardatza. Norberetasun berri horretatik abiatuta, euskaltasun eta euskaltzaletasun berriak, ostera, etorkizunean jarriko du jomuga: etorkizuneko Euskal Herria du desira eta helburu, oraingo, momentuko, ekintzen bidez egiten doan Euskal Herria. Gizakia bukatua ez den bezalaxe, Euskal Herria ere ez da jada izate amaitu, definitu, zurrun eta itxia, baizik eta norbanakoen ekintza eta erabakiz egiten, eraikitzen eta bilakatzen joango dena. Azken batean, euskaltasuna etorkizunera begira jartzen da; hala jartzen da, halaber, euskaltzaletasuna, hala jarri behar du euskarak.

Bestetik, linguistikako ekarri berrien ildotik, euskaltasunaren zentralitatea hartzen du euskarak –ahaztezina, esaterako, arlo honetan Txillardegiren ekarpena-. Ondorioz, euskaltasunaren definizio berriak sortzen dira, iraganetik ez ezik, esentzietatik askatzen dira. Hori dela eta, euskaldun izatea arrazarekin edota etnizitatearen ordura arteko ohiko ikuspegiekin lotzeari utziko zaio, eta Euskal Herria euskararen herriarekin zein euskalduna euskaraz dakienarekin parekatzea etorriko da, besteak beste.

Bi aroen artean euskaltzaletasunaren diskurtsoaren haustura nabarmena den arren, badago, ordea, bi garaiak sendo lotzen dituen hari bat ere.

***Euskaltasunaren
definizio berriak
sortzen dira,
iraganetik ez
ezik,
esentzietatik
askatzen dira [...]
Euskaldun izatea
arrazarekin
edota
etnizitatearen
ordura arteko
ohiko
ikuspegiekin
lotzeari utziko
zaio.***

***Euskal Herria
euskararen
herriarekin zein
euskalduna
euskaraz
dakienarekin
parekatzea
etorriko da.***

**Laburbilduz,
izate aldakor,
galkor eta
poliedrikoen
garaia da, eta
askatasunaren
ulermen erabat
indibidualizatua
osterantzeko
esanahi zentzu-
emaileen
gainetik
nagusitzen den
balioa.**

Aizpururengana itzuliko naiz berriro: haren idatzietan jaso da nola 50.ekoen amaieran Bigarren Euskal Pizkundea ekarri zuen belaunaldi hark askotan adierazi duen gazte-gaztetatik izan zuela debekatua, zapaldua, galtzear zen kultura eta herri baten kide zirenen sentipena. Gerra aurreko belaunaldiak ere bazuen galtzearen sentipen hori. Galearren transmisioa dago belaunaldi bien artean. Eta galearen sentipenaren transmisioa dagoen hein berean, dago eusteko nahi eta premiaren transmisioa; batzuek zein besteez, salbamendu eta misio ikuspegi bat izango dute euskaltasunaren zein euskaltzaletasunaren gainean. Lehen belaunaldiak galtzen ari den izaten bati eutsi nahi dio; bigarrenak, galtzen ari den izate horri eutsi nahi dio, eta, gainera, berriro etorkizuneko tresna izan dadin. Mundu eta ikuspegi aldaketek eten adina, soka bereko egiten ditu misio edo egitekoaren zentzuak diskurtso biak.

Gutxi asko, bigarren aroko euskaltzaletasunaren diskurtsoa da egundaino iritsi dena, ñabardurak ñabardura, egun indarrean dagoena. Bigarren belaunaldikoa, baina arestian aipatutako hizkuntzaren (eta askorentzat, halaber, kultura/herriaren) salbamenduaren ikuspegi hori lehendabizikoarekin partekatzen duena.

4. ZER GERTATU DA AZKEN MENDE ERDIAN?

I

Hainbatetan entzun dut esaten euskara –eta, horrenbestez, euskaltzaletasuna– inoizko ondoen egokitu direla modernitatearen txirikordatzeek ekarritako azken aldaketetara. Normalean, horren ostean, informazio eta komunikazio teknologia berrien eta globalizazioaren ondoriozko kultur/hizkuntz askotarikotasunaren kudeaketarena aipamena etortzen da. Esaterako, nola euskaraz (ere) ari diren sare sozialak edota hezkuntzako eleaniztasun programetan txapeldun garen. Jakina, egiatik asko dute horiek denek. Eta, egia izateaz gain, dagoeneko euskaltzaletasunaren diskurtsoaren parte dira.

Nago, ordea, egokitze horretan sakon-sakoneko arazoa dugula: hain zuzen ere, euskararen gaineko diskurtsoa, euskaltzaletasunarena, ez zaiola behar bezala doitu azken urteetako mundu eta pentsamolde itzulikatze handiari. Lehenxeago azaldu dudan bezala, uste dut oraindik 50.ekoen amaieran bere egindako zoru diskurtsiboarekin dabilela euskaltzaletasuna. Izan ere, herri honetan bizi izan ditugun zirkunstantziengatik –batez ere, guzti-guztia aparteko logika batzuetan ipini eta ibilarazi duen gatazka armatuagatik– oraintsu arte apenas pentsatu da aldaketa horiek kultura, herri, hizkuntza arloko diskurtsoei zekarkien lastaz, edo, gutxienez, eszena-toki berriaz. Eta, aldi berean, oinarritzko

gauza batek bere horretan segitzen du, batere aldatu gabe: euskaraz bizitzeak hautu bat izaten jarraitzen du, berez datorrenaren kontrakoa, eta, ondorioz, kontrako noranzkoan aritzeko hautu horri zentzua eta balioa emango dion diskurtso kontra-hegemoniko indartsu baten premiak ere hor dirau, premia larri.

Gerra aurreko belaunalditik gerra ondorengora mundu arrakala bat gertatu bazen, beste horrenbeste gertatu da 50.ekoen amaieratik gaur egunera. Ordukoaz bestelako norberetasun edo subjektibitate berriak sortzeraino. Hots, gerra osteko belaunaldian gizakia eta bizitza ulertzeko ikuspegia bera aldatu bazen, beste horrenbeste gertatu da azken mende erdian.

Ildo horretan, Modernitateko aldaketa handiena izan da jainkoa(k) hiltzea eta norbanako (ustez) beregaina sortzea, mendeetako prozesuan gertatutako indibiduoaren ekoizpena, *ni*-aren indartzea. Jainkoen (edo haien ordezkari lurtarren, hala nola, erregeen edo elizen) meneko eta araberrakozko izaki izatetik, norbanakoen erabakimena indartzea izan da prozesua. Humanoa erdigunean jartzekoa.

Baina Modernitatean zentzu kolektibo bat du: gizakia berritzeko, hobetzeko eta boteretzeko garaia da. *GIZAKIA*. Letra larriz eta singularrean, *gizakia* baita helburu, mundu berrien eragile izango den gizaki berria. Utopia kolektiboaren aroa da. Eta iragan mendeko utopia kolektibo horien muinean gizatasun berriaren ametsa dago, gizaki berri kate eta zama guztietatik askatua.

Modernitatearen azken aldaeran (dei diezaiogun postmodernitate, dei diezaiogun hipermodernitate), ordea, *GIZAKIA gizakia(k)* bihurtzen da. Batetik, utopia kolektiboak amildu dira, hainbat faktore direla tarteko, baina, haien arteko bat da utopia horien saiakera mamituak hertsatzaile gertatu zaizkiola emantzipazio kolektiboan ez ezik, askatze indibiduala ere bere egin duen subjektibitate berriari. Utopia kolektiboaren amilduraren heina aztertzeke egungo imajinario kolektibo globala zizelkatzen duten narratiba nagusiei erreparatzea besterik ez dago -adibidez, entretenimendu jardun bainoago ariketa intelektual gisa irensten ditugun telesailai- ohartzeko distopia beltzek ordezkatu dituztela garai bateko sen utopikoak, eta, harekin batera, baita mundu berri horren eragile izango zen gizaki berri perfektuaren (ia jainkozko) ametsa ere. Ondorioa da, egungo *statu quo* globala denik eta onentzat jotzea, eta, halaber, indibidualitatean sakontzea.

Gainera, utopien amiltzearekin batera, identitate finkoak eraikitzeke testuingurua ezabatu egin da, sozioekonomikoki zein kulturalki. Hau

***Gerra aurreko
belaunalditik
gerra
ondorengora
mundu arrakala
bat gertatu
bazen, beste
horrenbeste
gertatu da
50.ekoen
amaieratik gaur
egunera. [...] Gerra osteko
belaunaldian
gizakia eta
bizitza ulertzeko
ikuspegia bera
aldatu bazen,
beste horrenbeste
gertatu da azken
mende erdian.***

**Bigarren aroko
euskaltzaletasun
aren diskurtsoa
da egundaino
iritsi dena,
ñabardurak
ñabardura, egun
indarrean
dagoena.
Bigarren
belaunaldikoa,
baina arestian
aipatutako
hizkuntzaren (eta
askorentzat,
halaber,
kultura/herriaren)
salbamenduaren
ikuspegi hori
lehendabizikoa-
rekin
partekatzen
duena.**

da, gero eta zailagoa da enplegu, bizibide eta bizileku iraunkorrak izatea, merkantilizatu eta kontsumo ikuspegirik gabeko harreman eta bizipenak, jende zein lekuetara errotuko gaituzten baldintzak eskuratzea. Utopiak bezala, amildu egin dira noberatasunari zentzua ematen zioten egiturak. Horrenbetez, Zygmunt Bauman soziologoari jarraiki, norbera izatea da egungo jendeen lanik handiena, identitateak eratzea eta kudeatzea.

Laburbilduz, izate aldakor, galkor eta poliedrikoen garaia da, eta askatasunaren ulermen erabat indibidualizatua osterantzeko esanahi zentzu-emaileen gainera nagusitzen den balioa.

Aldaketa horrek, gutxi-asko, Mendebaldeko parte honetan bizi garen guztiok busti eta iragazi gaitu. Indibidualitatearen muturreko adiera hori da gure arkitektura ideologiko-emozionala zimendatzen duena, gure subjektibitatea.

Ondorioz, zama pisutsuak gertatzen zaizkigu misio kolektiboetan, salbamendu konpromisoetan, oinarritzen diren diskurtsoak –are eta gehiago, sakrifizio kutsurik badute-. Badakigu zerbait horretaz ohiko euskaltzaletasuna muineraino sartuta dugun belaunaldietako kideok talka hori gorpuzten baita sarri, esaterako, egungo haur eta gazteengana misio horren erreleboa egitera hurreratzen garenean.

Egun, norbanakoari abantaila eskaintzea omen edozein motibatze diskurtsoren gakoa, eta horretan ere saiatu gara gogotik azken bolada luzean, limurtze saio amaigabeetan, baina egungo balio parametro nagusietan euskaraz bizitzeak eskaintzen dituen sariak gutxi dira, bestela galdetu Idurre Alonsok apatzen zuen bezala Doraemon kiribilean ikustera zigortuta bizi diren gure haurrei.

5. NORA JOAN GAITEZKE?

I

Orain arte errazena egin dut: gertakariak eta aldaketak behatu, eta hutsuneak seinalatu. Honakoa da, ordea, galdera zaila eta ezinbestekoa: nolako diskurtsoa (akaso, diskurtsoak) eratu behar du euskaltzaletasunak (akaso, euskaltzaletasunek) gaur eta hemen honetan euskaraz bizitzeari zoru emateko? Are, euskaraz bizitzeak kontrako hautua izateari laga diezaion eta berez gerta dadin? Edo beste era batera esanda euskaltzaletasunaren diskurtsoa XXI. mendeko Mendebalde zuri honetako jendeon bizipen, autoerrekonozimendu tresna eta emozioen arkitektura hobeto egokitzeko? Posmodernitako subjektibitatera doitzeko?

Bistan da ez daukadala erantzun oso, kategoriko eta borobilik. Baina bai, ordea, baliagarri iruditzen zaizkidan nondik norako batzuen intuitzioa, eta haiek eztabaidatzeko eta besteenekin osatzeko mahai gainean jartzeko gogoia. Hona bada:

5.1 Indibidualkeriatik norberaren agentziara: balio aldaketa baten formulazio positiboa

Jendarteko arlo guztietan asmo eraldatzaileak dituzten/ditugun norbanako eta erakundeak etsiak jotzen gaitu azkenaldi luzean jendarte aldaketari eta jendeon subjektibitate berriari begira jartzen garenean. Utopia handien amiltzea, indibidualizazioa... Galga zaizkigu. Balirudike esanahi eta balio haietan, hau da, diskurtso haietan, soilik dela posible eraldaketa. Baina oso kontuan izatekoa iruditzen zait utopia haien erorketan indibiduoei sentitutako hertsaduraren eragina. Edo beste era batera esanda, proposamen kolektibizatzaileei erantsitako egite hierarkiko zein norbanakoen autonomia murriztailearen eta norberaren erabakimena indartzeko premiaren artean izandako talka. Horrenbestez, bizi izan dugun balio aldaketa sarritan egiten dugun bezala *utopia kolektibotatik indibidualkeriara* izendatu ordez formula genezake *delegatutako erabakimenetik norberaren agentziara*.

Uste dut, herrigintzaren arloan gertatzen ari dela ziaboga hori. Hau da, esanahi eta balioen ardatza, diskurtsoaren ardatza, ez dago jada *Herriaren* gisako kolektibitate abstraktu batean, baizik eta norbanakoen erabakimenean. Hots, norbanako bakoitzaren borondatean, erabakimenean, burujabetzan hasten da erabakitzeko eskubide kolektiboa. Hortik eraikitzen da *Herria*. Alegia, ez du inola auzitan jartzen utopia kolektiboa, baizik eta eraiki egiten du. Eraikitzen du, ordea, subjektibitate berriekin, norbanakoen askatasuna lehenestearekin, kasu, bat datozen tresnekin. Demokratizazioaren ulermena ere parametro horietan ezarri da, honezkero.

Nago, euskalgintzak eta euskaltzaletasunak ere baduela hortik zer edan, eta jada ari dela edaten.

5.2 Feminismoa, nor izate banakoetan gorpuztuaren aldeko borroka eta askapen kolektibo baten aldeko borrokaren uztardura⁴

Azken aldian maiz entzuten den zera da feminismoa boladan dagoela. Beste egitasmo eraldatzaile batzuk gainbehera, edo, gutxienez, lugorritan, sumatzen ditugunez, miresmenetik eta harriiduratik esaten da sarritan hori, hainbatetan feminismoaren sekretua non dagoen asmatu nahirik.

**Azken aldian
maiz entzuten
den zera da
feminismoa
boladan dagoela.
[...]
Miresmenetik eta
harriiduratik
esaten da
sarritan hori,
hainbatetan
feminismoaren
sekretua non
dagoen asmatu
nahirik.**

**Hizkuntz gatazka
eta hautuari
dagokiola,
euskara izan
daitekeela
zenbaitetan
zapalkuntza zein
pribilegiorako
bide.**

Esango nuke, arrakasta hori gertatzen ari dela, besteak beste, feminismoak postmodernitateko subjektibitateko ondo egokitzen den diskurtsoa duelako. Hots, egunero-egunero, nor izate indibidualetan, gorputz zehatzetan, tentsioz eta gatazkaz, mamitzen diren auziez ari delako: emakume izateak feminitate mandatuaren bidez ezarritako jokabide/izateen eta haietatik eratorritako funtzio sozialen kontra, sexualitate aukerak zein sexu/genero identitateak zabaltzen. Identitate arazo bat eraldatzen. Norberaren askatasunaren eremukok ulertzen ditugun auzietan eragiten.

Baina, aldi berean, feminismoak ez du borroka kolektiboaren zantzua galdu. Are, auzi identitario bat, partikular bati dagokiona –askotariko emakumeetan gorpuzten den *Emakumea*-ri, nolabait adieraztearren-, demokrazia auzi bat bihurtu du, unibertsal bat, demokrazia eta justizia sozialaz arduratzen diren denei dagokiena. Are, emantzipazio kolektiboan ematen dio feminismoak bere buruari zentzua, eta emantzipazio kolektibo sakonekoan jartzen du helburua.

Alde horretatik, aurreko atalean norbanakoen erabakimenaren eta herri-gintzaren inguruan esandakoarekin erabat lotzen da feminismoaren ekarpena, indibiduoaren nor izatearen eta nor izate kolektiboaren arteko uztardura den heinean.

Hizkuntza nor izatearen parte oinarritzkoa da. Nor izate kolektiboarena ez ezik, baita indibidualarena ere. Egunero gure gorputzen praktiken bidez gauzatzen den nor izatearena –Txillardegi ere ari zen bere garaian hortaz, baina unearen eraginez, nor izate kolektiboak hartu zuen pisa-; erabakimen eta burujabetza ariketa oinarritzkoenaren ardatz funtsezko. Egun, norbanakoen erabakimenean zutointzen den eskubide, askatasun eta demokraziaren diskurtsoekin bat egiten duen inork nekez jarriko du auzitan sexu/genero identitatearen gaineko burujabetza oinarritzko eskubidea dela, nor izatearen funtsezko atala. Hizkuntz hautua ere ezpal ber-berekoa da, kultur-herri-nazio auziak bezala. Gehiago, oraindik, nor izatearen ardatzetakoa den neurrian eta identitatearen eraikuntza erabat boterearekin lotuta dagoenez, auzi politikoa goitik behera. Norbanakoen erabakimen eta burujabetza aukerari lotua, demokraziaren zein justizia sozialaren parte eta arazo. Denoi dagokiguna.

Pertsonala politikoa dela da feminismoaren beste irakaspen nagusietako bat. Arestian adierazi bezala, egunerokotasunean eta etengabe gurutzatzen garen gorputzen bizi praktiketan, eta gurutzatze horietan sortzen dira kideztzak baina baita ere gatazkak. Egunerokotasun intimoeneraino

iristen diren gatazkak ikusgarri egitea izan da feminismoaren bete ekarpenetako bat, esparru “txikienean” ere botere eta pribilegioen banaketa nolakoa den azalaraztea eta berbanaketa justuagorako bideak proposatzea. Pertsonala politikoa den heinean, interpelazio hori harreman sareko esparru guztietara eraman du, jakina, baita banakoen artekora ere.

Egunerokotasuneko gurutzaketetan jotzen dira, halaber, hizkuntz kidetza zein gatazkak –bai, hizkuntz gatazkak; gal diezaiozun beldurra hitzari, bestela ez gara gertakariak behar bezala izendatzeko gai, eta, horrenbestez, ezta behar bezala bideratu eta konpontzeko ere-. Horrenbestez, arlo horretako pribilegioak non dauden ikusteko egunerokotasun “txikian” ere jarri beharko genuke begia, eta baita harreman sareko esparru guztietara eraman ere, banako zehatzak interpelatzeraino.

Jakina, ondo aztertu beharrekoa da interpelazio hori nola egin⁵, baina feminismoa horretan ere argigarri zaigu, begirada intersektionala dabilen heinean. Hau da, ohartarazten digu botere sarea konplexua dela –batez ere, genero, arraza/etnizitate/bertakotasun eta klase parametroek zedarritua- eta sare horretan pribilegiatu eta menderatu ez direla posizio finkoak. Hau da, pribilegio/menderakuntza aldagai bati dagokionez azpiratu dena, izan daitekeela zapaltzaile beste bati dagokionez. Hizkuntz gatazka eta hautuari dagokiola, euskara izan daitekeela zenbaitetan zapalkuntza zein pribilegiarako bide.

Feminismoaren tradizioan dago, halaber, bizipenak mahai gainean jartzea ezagutza sortzeko eta gatazken konponketarako bide gisa. Gorpuztetatik abiatutako narrazioak sortzen, partekatzen eta josten joatea botere sare konplexu horren egituratze justurik eratuko bada.

Azken batean, zoru diskurtsiboa berritzeko eta lantzeko oso neurrikoak zaizkion ideia, esanahi, balio eta praktika multzoa dauka eskura euskaltzaletasunak feminismoan. Are, esango nuke ohartu dela horretaz eta horren zantzuak gero eta gehiago ari garela ikusten.

6. LARRIALDIKO EGITEKOAK

I Amaitzeko, labur bada ere, arlo diskurtsiboan larrialdiko egiteko gisa ikusten ditudanak aipatu nahi nituzke, batik bat, kezkatuta nagoelako azken aldian euskararen aurkako joera erasokorrak suspertzen sumatu ditudalakoan, eta haien aurreko erreakzioak inoiz baino neutralizatuago. Bi puntu hauetan laburbilduko nituzke larrialdiko egiteko diskurtsibo horiek.

Zoru diskurtsiboa berritzeko eta lantzeko oso neurrikoak zaizkion ideia, esanahi, balio eta praktika multzoa dauka eskura euskaltzaletasunak feminismoan.

**Gaur eta hemen
euskaraz
bizitzeko hautua
berez
datorrenaren
kontra egitea
baita, berdin dio
abiaburuan izan
euskaldun zahar
edo euskaldun
berri. Arazoa nor
bere burua
euskaraz
ardazteak
eragiten du,
herritartasuna
euskaraz gauzatu
nahi izateak.**

6.1 Inposizio eta diskriminazioaren diskurtso faltsu eta maltzurra desegin. Oinarrizko hitzarmen baten bidez marra gorriak ezarri

Oraindik orain, “Zer duzu nahiago: medi euskalduna ala mediku ona?”, esaldian laburbiltzen den logika diskurtsiboa da gaur eta hemen hizkuntz gatazkaren gainean nagusi dena. Hots, gutxiengo esentzialista baten apetaz hizkuntza bat inposatzen zaiola gehiengoari, arrazionalitatearen, justiziaren eta demokraziaren kontra. Datu eta egitateei erreparatzen badiegu aldrebesko mundua deskribatzen duen diskurtsoa, baina eragingarria dena, besteak beste, alderdi batzuk gezur horretatik probetxu ateratzen ikusten ditugulako etengabe, ariketa populista batean, migrantei buruzko uste faltsuekin probetxu ateratzen den bezala. Eta, eragingarri da, nire ustez, besteak beste, sektore euskaltzaleek ez dutelako oinarrizko hitzarmen baten bidez egiazko marra gorriarik ezarri. Beste era batera esanda, bere buruan euskaltzaletzat duten alderdi, erakunde eta bestelako eragileek inposizioaren diskurtso faltsua haizatzen dutenen aurrean halakorik onartzen ez dutela adieraziz jarrera tinko, konstante eta bateratua hartzeko gai ez direlako izan orain arte.

Azkenaldian, kezkaz entzun dudana beste diskurtso bat *euskaldunzahar pribilegiatuarena* da, zeina teorian euskaltzaletasunetik abiatzen den, eta euskarara iristeko borondatea bai baina zailtasun “objektiboak” omen dituztenen babeserako eratzen den. Lehenago aipatu dut, dudarik gabe, ezinbestekoa dela begirada intersektzionala bere egitea euskaltzaletasunaren diskurtsoak, beti oso kontuan izatea zapalkuntzarako tresna ere izan daitekeela. Baina, nago, diskurtso orokortzaileago honen oinarrian inposizioaren diskurtso leundua dagoela, funtsean, eta hura bezala deseraiki beharrekoa, euskaldun zaharrak pribilegioak baino dezente gehiago baititu lastak, bere hautua euskaraz bizitzea bada.

6.2 Prestigiatze diskurtsoa

Aurrekoaren beste ertz bat da, oraindik orain, gaur eta hemen, lotsa eta konplexurako bide baita –eta desabantaila sozioekonomiko eta kultural ugaritarako– gazteleraz eta frantsesez trebeziaz ez moldatzea. Euskarak ez du inondik gaztelerak, frantsesak (edota ingelesak) duten prestigio bera. Horren ondorio, gazteleraz edota frantsesez (eta orain ingelesez) arlo eta erregistro guztietarako formatzeari ematen zaion arreta eta garrantzia (etxeetan bezala hezkuntza sistemetan), eta haien ondoan euskaraz taxuz eta noranahirako trebatzearekin erabat axolagabe jotatzea (etxeetan bezala hezkuntza sistemetan). Azkenaldian, euskara batuaren

premia eta egitekoa gutxietsiz, edota haren plastikotasun eza zein artifizialtasuna azpimarratuz aditu ditudan mezu askok honekin erabateko lotura dutelakoan nago.

Halaber, azkenaldian, han eta hemen ari da osatzen euskaldun berrien ekarriaren gaineko narrazio bat, zeinak aintzat hartzen dituen euskaraz jabetzeko prozesuan milaka lagunek izandako zailtasun eta ezintasunak⁶. Euskaltzaletasunaren diskurtsoak, dudarik gabe, jaso du behar du osagai hori. Baina prestigioatze bide horretan –eta baita justuak izatekotan ere– ezinbestekoa iruditzen zait diskurtso hori euskaldun zaharren narratibarekin osatzea; hau da, urteetan nor izatearen eta kapital kultural oso baten galera izan duten milaka lagunen kontakizunarekin, eta, oraindik orain, gaur eta hemen, nor izateko, derrigorrez gaztelera edota frantsesez trebatzeko prozesuko zailtasun eta ezintasunak bizi izan eta bizi dituzten beste milaka lagunen errelatoarekin.

Jakina, bi narraitiba horiek ezin dira kontrajarrita, eta, gutxiago oraindik, elkarren kontra ulertu, elkarren berme eta osagarri baizik. Gaur eta hemen euskaraz bizitzeko hautua berez datorrenaren kontra egitea baita, berdin dio abiaburuan izan euskaldun zahar edo euskaldun berri. Arazoa nor bere burua euskaraz ardazteak eragiten du, herritartasuna euskaraz gauzatu nahi izateak. ●

OHARRAK

1. Segitu aurretik, zehaztapen bat: *euskaldun=euskaraz dakiena* zabal horrekin berdintzen dugu. Beharbada termino berriak pentsatu behar genituzke euskararen bizi-praktika askotarikoak zehatzago eta finago izendatzeko. Esaterako: bere burua euskaraz ardazten duena; euskara ba dakiena baina zirkustantzialki darabilena; ez dakiena, edo ez bederen, bere burua euskaraz ardazteko lain, baina aldeko jarrera aktibo bat duena eta prest dagoena bere burua euskaraz ardazten duenari testuinguru egoki bat emateko. Pentsatzeko terminoak, errealitatea eta pentsamendua egokiago joste aldera.

2. <http://parlantzua.eus/2018/01/22/zuena-indarkeria-da/>

3. <https://zuzeu.eus/kultura/gure-semeak/>

4. Feminismoaren eta euskalgintzaren arteko uztarduraren gaineko gogoetak (eta beste hainbat) egiteko Lorea Agirre izan dut bidelaguin ezinbesteko.

5. Lutxo Egiak 2015ean hilabetez Bilbon gaztelera erabili gabe biziz egindako performance-a interpelazio horretan kokatuko nuke, eta baita haren ildotik aurrena Donostiako Egia auzoan eta gero beste leku batzuetan euskaldunek beste hizkuntzei uko eginez abian jarritako dinamika ere. Euskaraldiarekin lotutako Aho Bizi eta Belarri Prest-ek ere badute interpelazio horretatik.

6. Ildo horretan, ulertzen dut, adibidez, Mari Luz Esteban antropologoak azkenaldian ekarri duen euskalduntasun maketoaren aldarrikapena.

BIBLIOGRAFIA

- Aizpuru, Alaitz: *Baginen eta bagara nor*. In: 'Jakín aldizkaria (208): Herria, nazioa, estatua... eta euskararekin zer?', Jakín 2015.
- Baker, Paul: 'Sexed Texts. Language, Gender and Sexuality'. Equinox, 2008.
- Bulchotz, Mary: *Theories of Discourses as Theories of Gender: Discourse Analysis in Language and Gender Studie*. In: 'The handbook of language and gender' / edited by Janet Holmes and Miriam Meyerhoff. Blackwell Publishing, 2003.
- Cameron, Deborah: *Gender and Language Ideologies*. In: 'The handbook of language and gender' / edited by Janet Holmes and Miriam Meyerhoff. Blackwell Publishing, 2003.
- Esteban, Mari Luz: Ikuspegi feminista makettoa eta euskaltzalea herri-tartasun berri baten alde. In: 'Jakín aldizkaria (222): Hizkuntza, ngeroa, klasea eta jatorria elkargunean'. Jakín 2017.

berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukera ondoen datorkizuna:

BERRIALaguna

Hilean 10€ edo urtean 100€

Abantailak:

- BERRIA PDFn.
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea izatea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak eskuratzea.

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik-igandera Hilean 36€

Asteartetik-ostiralera Hilean 23€

Ostiraletik-igandera Hilean 21,3€

Asteburukoa Hilean 15€

Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn.
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea izatea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak eskuratzea.



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria *laguna***
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45



berria
#BERRIAk15

* Ordainketak: urtekoa, bi zatitan, edo lau zatitan

2

Erdaldunak aktibatzeako diskurtsoak *Mintzalasai eta BAM! maila* diskurtsiboan

Eneko Gorri

Euskara teknikaria eta Mintzalasai eta BAM elkarteetako kide

euskara@biarritz.fr

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Azken inkesta soziolinguistikoak agerian eman du Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %80a ez dela euskalduna eta euskararen kale-erabilera sekulan neurtu ez den indize apalenean kokatzen dela (%5). Egoera horren aitzinean, eremu sozial berriak irabaztearen premia agerikoa da; diskurtso berritu eta egokituek hortan lagundu dezakete. Baiona – Angelu – Biarritze hiri-eremua dentsitate handiko lurra izateaz gain, euskararentzat perimetro zail eta estrategikoa da. Bertan errotu diren bi dinamikei buruz, erdaldunak erakartzeko eta euskaltzaletzeko diskurtsoak dimentsio praktikotik aztertuko dira, bai eta etorkizuneko erronka batzuk agerian emanen ere. • **Hitz gakoak:** *aktibazioa, erdaldunak, diskurtsoak, motibazioa.*

Abstract. The latest sociolinguistic survey reveals that 80% of the population of the North Basque Country is not Basque -speaking and that Basque language use is at its lowest point (5%). In face of this situation, there is an evident need to gain new social spaces ; Upgrading and adapting discourses can help them. The Baiona-Angelu-Miarritze (Bayonne - Anglet - Biarritz) area , besides being a high density population area, is a difficult and strategic area for Basque. As for both dynamics that have been dealt with, discourses to attract non-Basque speakers and to get them interested in Basque will be analyzed from a practical angle and some of the future challenges will be discussed as well. • **Key words:** *activation, non-Basque speakers, discourses, motivation.*

ATARIKOA

I Diskurtoaren egituratzea eta berritzearen premia asko aipatzen dira azken urteetan. Diskurtsoa ez da komunikazio hutsa, hori baino gehiago da: arrazoinamendua eta pentsaera antolatuko du, ekintza eta jarrera bideratuko duen bezala. Horregatik rol handia bete dezake aldaketa prozesu batean.

Ipar Euskal Herrian, euskararen inguruan eraiki diskurtsoak jendea euskararen kontra (edo indiferente) izatetik alde izatera pasatzeko helburua izan dute. Progresiboki, bilakaera bat nabari da alde izatetik alde egitera da erronka berria. Baina biztanleriaren gehiengoa oraindik euskaratik urrun dagoen lurralde batean, diskurtsoak aktiboki indartu behar du berreskuratze prozesua.

Esperientziak aztertu

Aurtengo Topaldiaren kariatara pausatua izan zaigun ariketa, erdaldunak euskaltzaletzeko diskurtsoak angelu praktikotik aurkeztea izan da. Aitzineko mintzaldietan, hizlari desberdinek koadro teorikoa molde ezin egokiagoan pausatu zuten. Gure aldetik, oroz gainera ekarpen praktikoa egiten dugu, ia-ia teknikoa. Baina giltza teoriko batzuk pausatu ditugu hala ere, Ipar Euskal Herriko egoera ulertzeko bideak izan daitezkeelako.

Erdaldunak nola euskaltzaletu? Praktiken analisitik teoria ekoizten saiatuko gira beraz, barnetik bizi izandako bi esperientzia oinarritzat hartuz: MINTZALASAI eta BAM. Erdaldunekiko zein diskurtso eraiki dute Mintzalasai eta BAMEk? Diskurtso hori nola transmititzen dute, dimentsio tekniko-praktikoan?

Bi egitasmo hauek ez dira baitezpada erdaldunak euskaltzaletzeko zerreginean ereduagarrienak, ez eta eraginkorrenak ere. Baina auto-analisisa ariketa bati esker gogoetarako baliagarriak izan daitezkeen pista batzuk ateratzen saiatuko gara ondoko lerroetan.

BI DINAMIKA DESBERDIN, BAINA OSAGARRI

I MINTZALASAI eta BAM bi tresna dira. Bi hitzez erranda, lehena euskararen hilabeteari konpara daiteke eta bigarrena Egia, Agurain edo Lasarte-Orian garatu den aktibazio ereduari. Lurraldea eta euskara dira biak batzen dituzten ezaugarriak. Ibilbide, estetika, funtzio, diskurtso... ikuspegietatik hartuta aldiz, erabat desberdinak dira. Desberdinak baina osagarriak.

Ipar Euskal Herrian, euskararen inguruan eraiki diskurtsoak jendea euskararen kontra (edo indiferente) izatetik alde izatera pasatzeko helburua izan dute. [..] Diskurtsoak aktiboki indartu behar du berreskuratze prozesua.

Mintzalasai funtzio **inpaktatzailea** duen **sedukziorako** tresna da. BAM aldiz funtzio **konpaktatzailea** betetzen duen **ahalduntzerako** tresna. Lehena positiboa, koloretsua, alaia, bateratzailea delarik, bigarrena aktibatzailea, boteretzailea, grafikoki xumea izatera mugatzen da.

Bukatzeo, garrantzitsua da zehaztea bi dinamikak nagusiki euskaldunei zuzenduak direla. Baina berantago ikusiko dugun bezala, lurraldearen errealitatea ikusirik, erdaldunekiko diskurtso espezifikoak garatzen dituzte ere.

MINZALASAI	BAM
Helburuak: • Erabilpenari eskaini egunak antolatu, bere molde guztietan. • Eragile desberdinak batu, euskararen inguruan. • Hizkuntza ikusgarria bilakarazi hirian.	Helburuak: • Hiztunak hain hizkuntza ohiturez ohartaraztea, aldaketa eragiteko. • Euskara erabiltzeko aukerak biderkatzea hiri eremu erdaldun batean. • Eskatera soziala agerian ematea.
Erreferentzia batzuk: • 2011an sortua • 1901 legepeko elkarte • Euskaingintza eta erakundeak • 75 hitz ordu • 6.850 parte hartzaile - %81eko betetzea. • 2 zango: elkarte munduaren ausardia – erakunde publikoen baliabideak.	Erreferentzia batzuk: • 2017an sortua • Kolektibo irekia • Autokudeaketa parte hartzailea • 7 egun euskaraz • 806 Ahobizi eta Belarriprest • Auzolana herritarra, erakunde publiko eta eragile pribatuen esku sartzerik gabe.

NOLA ERAIKI DUGU GURE DISKURTSOA?

I Diskurtsoak eraikitzeo molde desberdinak badira. Hemen lau urrats desberdinduko ditugu: egoera analizatu – araberako estrategia kontziente batean sartu – tresnak egokitu – kolektiboki ekin. Eskema horren arabera antolatuko ditugu ondoko lerroak.

1) Egoera analizatu

Diskurtso bat beti kokatuko da testuinguru, ingurune sozial edo ekosistema batean. Horren ezagutza analitikoa garrantzitsua da nahi badugu diskurtsoa sustraitu dadin.

Zein lurraldetan lan egiten dugu? Zein da bere egoera soziolinguistikoa? Zein da hunkitu nahi dugun publikoa? Galdera xume hauei erantzun ondoren, errazago izanen zaigu diskurtso zedarritu eta eraginkorra eraikitzea.

A) Lurraldea: Nondik mintzo gira?

BAM eta MINTZALASAI Lapurdiko lurralde des-euskaldunduenean kokatzen dira: Baiona – Angelu – Miarritze hiri eremuan hain zuzen. Euskararen biziberritzearen ikuspegitik, perimetro horrek garrantzia handia du, hartan jotzen baita neurri handi batean euskararen geroa Ipar Euskal Herri mailan.

Zergatik? 21. mende hasiera huntan BAM hiri-eremuaren egoera sozio-linguistikoa mende erdian Lapurdi osoan izanen den aitzin-gasta bat baita. Urbanizazio mugimenduak kostaldetik barnealdera doaz, zonalde peri-urbanoetatik haratago.

Bestalde, eremu horretan metatzen da biztanleriaren gehiena eta euskaratik deskonektatuena:

- Ipar EHak 158 herri ditu eta biztanleriaren %40a 3 hiri hauetan bizi da (115.849 biztanle).
- Euskararen ezagutza %8koa da eta erabilera %2koa.
- Haurren %80ak ez du euskararik ikasten eskolan.
- Hizkuntza paisaia nagusiki elebakarra da.
- Biztanle gehienak sortzez ez dira Euskal Herritarrak.
- Familia transmisioa ia hutsekoa da.
- Konfigurazio urbano berezia du (plaza zentralik ez, arnagune funtzional gutti).

Datu gordinek ez dituzte gorde behar irria ezpainetan eta euskara ahoan bizi eta borrokatzen diren euskaltzaleak: ikastoletako gurasoak, gau eskoltako irakasleak, uda lekuko animatzaileak, gaztetxeetako gazteak, kultur elkarteetako militanteak... hein handi batean haiei zor zaie gaur arte euskararen alorrean lortutako guztia.

B) Erdaldunak: nortaz mintzo gira?

Lehen ohar gisa, probokazio kutsu txiki batekin, erran dezagun Ipar Euskal Herriko euskalgintzan - sozialean zein instituzionalean - ari garenok gaizki ezagutzen ditugula erdaldunak. Ez gira mundu beretan bizi, ez dugu bizipen berdina, gehienak haurtzaroan euskaldunduak izan gira eta euskal giro batean handitu ere. Baina okerrean behar bada ikerketa lanen eskasa da: gurean unibertsitate lan gutti eginak izan dira objektu soziologiko horren ezagutzeko eta baliabide publikoekin egiten diren ikerketa gehienak EAEko lurralde administratibora mugatzen dira (adb: 2009ko erdaldunek euskararekiko dituzten jarrera eta aurriritziak).ⁱ

***Ipar Euskal
Herriko
euskalgintzan -
sozialean zein
instituzionalean-
ari garenok
gaizki ezagutzen
ditugu
erdaldunak.***

**BAM eta
MINTZALASAI
Lapurdiko
lurralde des-
euskaldundue-
nean kokatzen
dira:
Baiona – Angelu
– Miarritze hiri
eremuan hain
zuzen. [...]
Perimetro horrek
garrantzia
handia du,
hartan jokutzen
baita neurri
handi batean
euskararen geroa
Ipar Euskal
Herri mailan.**

Erdaldunak gaizki ezagutzen ditugunez, intuizioz jokutzen dugu, gure ate aitzineko errealitatea hartu eta orokortuz: “Nire auzoa adibidez”, “nire lankidearen senarrak pentsatzen du...”. Objektibazio zientifiko eskas horrek diskurtsoa eraikitzea zailtzen du, besteak beste erdaldunak talde homogeneousat edukitzeko tendentzia dugulako.

Alta “erdaldun” izendapenaren gibelean, errealitate, iritzi, sentsibiltate eta publiko erabat desberdinak gordetzen deira. Publikoak ezagutu eta segmentatu behar dira Iñaki Martínez de Lunak Framing berriaz idaztean, populazioa ezagutzeko desmarxa zientifikoa merkatu azterketa-rekin konparatzen duen bezala.

C) Hitzunak lurraldean: nola bizi gira/dira?

Lapurdi, Baxe Nafarro eta Zuberoan, euskalgintza duela mende-erdi bat baino gehiago hasi zen bere baitarik antolatzen euskararen biziberritzeko. Duela 10 urte politika publikoak garatzen hasi dira, gazte belaunaldiak lehentasun eta hitzun osoak helburu. Bitartean, euskara beti a-legalitate egoera batean kokatua dugu, funtzio sozial eta prestigio hein minimo batekin.

Baiona - Angelu - Miarritze hiri-eremuan, euskaldunak egoera hiperdiglosiko batean bizi gira. Uros bizi daiteke egunez egun euskara menperatu gabe eta sekulan santan ezer ez galdu gabe. Eta nagusitasun hori gure espazioetan inposatzen da, euskara zokoratuz bere territorio libre izan beharko luketen tokietan. Funtsean, hori gertatzen da Gaztetxe batean garagardoa frantsesez manatzerakoan, Ikastolako bilkura osoa frantsesera lerrarazterakoan edo Kultur elkartean besteei euskaraz ari-tzea errespetu falta dela leporatzerakoan.

Euskaldunak aski antolatuak eta ahaldunduak ez gareno, arrunt ulergarria da erdaldunak eroso eta kontraesan sentimendurik gabe bizitzea. Jendetasunez edo formakuntza eskasez, gehienetan gu gira espaloitik jausten. Era berean, euskararen alde edozer antolatzen dugularik, euskaldunek euskaldunentzat, guttitan egiten da euskaratik eta euskaraz. De facto pentsaezina zaigulako erdaldunei ez pentsatzea, beti izaten da hor automatismo bat gauzak elebidunez egiteko. Hor ere badugu kolektibo moduan gogoetatzeko eta ekiteko beharra, asertibitatez erdaldunak gure aliatu eginez.

2) Estrategia definitu

A) Diskurtsoa: Zer dugu irabazteko?

Diskurtsoarekin bakarrik ez dugu ezer lortuko, baina diskurtsoarekin gaur asko dugu irabazteko. Lehen arrazoina da gaur egun ez dela euskararen kontrako diskurtsorik entzuten Ipar Euskal Herrian. Estatu zentralak (Parisek) hitzez eta legez ofentsiba eramaten segitzen du gure hizkuntzaren kontra, baina Nafarroan ez bezala Ipar Euskal Herrian adostasun politiko eta kontsentsu sozial bat eraiki da azken 10 urteetan euskararen inguruan. Beti badira erresistentzia guneak, krispazio puntuak eta kontrako jarrerak, baina gutxiengoan dira.

Diskurtso argi eta koherente bat eraikitzeke lehen urratsa mekanikoki, intuizioz eta ohituraz komunikatzen gelditu behar gira. Betiko hitz eta tresnekin, iraganeko diskurtsoak ditugu hedatzen. Diskurtso berriak jarrera kontziente neurtu batean zedarritzen dira. Diskurtsoa ez da familia bat euskararen aldeko bestara etorrazteko amua; hau komunikazioa da. Diskurtsoak hartzailearen arrazoinamendua eta pentsaera antolatuko du, ekintza eta jarrera bideratuko duen bezala.

Bigarren urratsa, beraz, gure buruak konkista estrategia batean kokatzea da, Baiona – Angelu – Miarritze hiri-eremuan bizi diren herrikideen %92a euskarara etorrazteko. “Erakartzearen estrategia” gaizki onartzen dugu, auto-justifikazioa edo kolonizatuaren sindromearekin lotzen dugulako. Baina eremu sozial berriak irabazi behar ditugu, gure diskurtsoa iristen ez den sektoreetan ere sartu behar da, orain eta arin.

B) Helmuga: euskaltzaletzea edo aktibazioa?

Euskaldun eta erdaldunen arteko harreman berriak eraikitze bidean, zamaren lekualdatze bat burutu behar dugu: gure lurraldean, hizkuntzen arteko gatazka bat bada, ez hiztunen artean. Has gaitezen beraz gaur berean hiztunen arteko bizikidetza harmoniatsua bermatuko duten espazioak gure baitarik sortzen, erdaldunak aktibatuz, euskaltzaletuz eta euskalduntze bidean emanez. Erdalduna izan daitekelako ikastolako gurasoa, saltegi baten seinaletika osoa elebidunduko duen komertziantek, euskara ikasi beharko duen funtzionarioa, gau eskolan izena emango duen heldua, erabakiak hartuko dituen hautetsia...

Azken inkesta soziolinguistikoak berriz agerian eman du Ipar Euskal Herrian, euskararen aldeko jarrerak gehiengoan direla (ñabardura askorekin, baina hemen lantzeko konplexuegiak). Azken batean, gure pre-

Euskaldun eta erdaldunen arteko harreman berriak eraikitze bidean, zamaren lekualdatze bat burutu behar dugu: gure lurraldean hizkuntzen arteko gatazka bat bada, ez hiztunen artean.

Azken inkesta soziolinguistikoak agerian eman du Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko jarrerak gehiengoan direla. Azken batean, gure premia handiena ez da erdaldunak euskararen kontra izatetik alde izatera pasaraztea, baina alde izatetik alde egitera.

mia handiena ez da erdaldunak euskararen kontra izatetik alde izatera pasaraztea, baina alde izatetik alde egitera. Diskurtsoak desmartxa proaktibo hori sustatu behar du; euskaltegiko bidera eraman, eskolatik kanpo euskarazko aisialdiak kontsumitzera bultzatu, zertxobait dakiena gehiago erabiltzera akuilatu, euskara jakin gabe ere prezioak elebitan afitxatzera konbentzitu...

Joxerra Gartzia entzundako esaldia berriz aterako dugu hemen: “haize onik ez da nora joan ez dakienarentzat”. Horregatik da garrantzitsua etapa hori.

3) Tresnak egokitu

A) Mintzalasai: diskurtsoak eta teknikak

Mintzalasai

Inpaktatzea eta bateratzea xede duen sedukzio masiborako arma da. 7 urteko ibilbidea du, 25 elkarteren espazio partekatua da eta egitasmoa 20 orrialdeko txosten batean idatzia dator. Baseak sendo eta argi ditu beraz.

Diskurtsoak

Bere diskurtsoa eta egitaraua nagusiki euskaldunei zuzendua bada ere, erdaldunei zuzentzeko hautua egin du. Diskurtso hori hiru urratsetan deklinatzen da: hizkuntza ekologia – euskara partekatua – bakoitzaren ardura.

— **Hizkuntza ekologia:** Euskara munduko aniztasun kulturalaren elementu gisa aurkezten zaie, beste edozein hizkuntza bezala historian egokituz joan dena, XXI. mendekoa. Unibertsaltasun hori goraki baieztatua da, ahal den neurrian auto-justifikazioan erori gabe. Denbora berean, estatuak frantsesa inposatzeko diskurtsoaren deseraikitze moldea ere da; eskolak eta autoritate politikoek belaunaldi oso bati transmititu diete “tokiko hizkuntzak” ez zutela modernitateari eta munduari irekitzeko baliorik. Estigma horien arrastoak oraindik astunak dira Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako jendartean, euskaldun zein erdaldunen artean.

— **Euskara partekatua:** Bigarren dimentsioak euskara jendarte oso batek partekatzen duen ondasun komuna dela dio, belaunaldien arteko harremanak azkartzeko bidea eta bizikidetzaren sendotzeko moldea. Erdaldunei gomita luzatzen zaie, eragozpenen gainetik zubiak agerian emanez. Gaurko erdalduna biharko euskaldun gisa aurkeztuz, halabeharrik ez dela existitzen agerian ematen du eta

euskaraduna izatea euskara ikasteko hautua egite soiletik datorrela oroitarazten du. Diskurtso horrek bi ustekizunei erreferentzia egiten die: euskara ikasteko zaila dela eta komunitate bati erreserbatutako hizkuntza dela.

— **Bakoitzaren ardura:** Azkenik, makro ikuspegi batetik beti ere mehatxatua den hizkuntza baten biziberritzeko, koherentzia indibidual eta kolektiboaren aldarria luzatzen du ere Mintzalasai. Eta erronka horretan erdaldunen parte hartzea ere garrantzitsutzat jotzen du, euskara jakin gabe ere asko egin daitekeelako. Ardura partekatze horrek bakoitza bere erantzukizunaren aitzinean kokatzen du, inertiaren kontra agertuz.

Hiru multzoak elkarren menpekoak dira eta aktibazioaren eskalan crescendo doaz: euskara munduko ondare den heinean, lurralde honetako biztanle guztiena da, eta denen esku dago horren biziberritzea.

Tresnak

Gure aldetik, uste dugu diskurtsoa erraten duguna eta hitz erdizka iradokitzen dugunaren artean osatzen dela. Hemen zerrendatuko ditugu diskurtsoa hedatzeko kanal batzuk.

— **Aitzin solasa:** Mintzalasaien diskurtsoa hedatzeko bide eraginkorrena, oinarrizkoena, zuzenena, urtero-urtero idazten duen aitzin-solasa da. 20 lerroko idazki horrek panfleto edo Biblia funtzioa betetzen du: hedabideetan berriz hartua da, webguneko lehen orrian agertzen da, esku-orria zabaltzerakoan irakurgai den lehen testua da. Hiztunari (euskaldun edo erdaldun) erran nahi dugunaren bilduma da.

Eta komunikazioa errepikatzea denez, 6 urtez mezu berdina errepikatu dugu, esaldi oso batzuk berdin-berdin idatziz. Hala nola, pasarte desberdinetan lehen aipatu 3 diskurtso multzoei erreferentzia egiten dieten aipamenak irakur daitezke:

- *Hizkuntza ekologia:* “Euskara, munduko beste 65000 hizkuntzak bezala...”
- *Euskara partekatua:* “Batzen duen hizkuntza”.
- *Bakoitzaren ardura:* “Gure hizkuntza hautuek beti badute eragin bat”.

Erran gabe doa, baina hizkuntza bakoitzean diskurtso desberdin bat garatu da, publikoari egokituz. Zentzu horretan, prentsak berriz hartuko dituen pasarteak desberdinak izanen dira eta Sud-Ouest egunkariak Mintzalasai ekimenaz idatziko duena ez da Berriak idatziko duena. Aitzin-solas asimetrikoaren beste funtzioa da euskal-

Makro ikuspegi batetik mehatxatuta den hizkuntza baten biziberritzeko, koherentzia indibidual eta kolektiboaren aldarria luzatzen du Mintzalasai. Erronka horretan erdaldunen parte hartzea ere garrantzitsutzat jotzen du.

**Mintzalasai-ren
diskurtsoa eta
egitaraua
nagusiki
euskaldunei
zuzendua bada
ere, erdaldunei
zuzentzeko
hautua egin du.
Diskurtso hori
hiru urratsetan
deklinatzen da:
hizkuntza
ekologia, euskara
partekatua eta
bakoitzaren
ardura.**

dunari informazio gehiago ematea, berak irakur dezakeelako euskaraz erran nahi izan dioguna eta frantses hiztunei begira garatu nahi dugun diskurtsoa ere. Logika beretik, frantses hiztun elebakarrak errez ulertuko du informazio partziala besterik ez duela izanen eta informazio parte bat galtzen duela euskara ez menperatuz. Kasu: diskurtso diferentziala egiteak ez du erran nahi kontraerrana dakarrenik.

Idazki horren apailatzerakoan, bi lanketa osagarri zaintzen dira: lanketa editoriala eta grafikoa. Ikuspuntu editorialetik, hitz bakoitzaren zentzua, karga, egokitasuna zaintzen dira, baita esaldien luzera, musikalitatea, efektu inpaktatzailea (punch line) ere. Grafikoki aldiz, irakurlea bidatzea bilatuko dugu: lehen nano-segundoan bere hizkuntza zein zutabetan aurkitzen den atzeman behar du, ondoko bi segundoetan bi hizkuntzetan gauza desberdinak idatziak direla ulertu behar du eta azkenik 5 segundoz hiru ideia-gako atera behar ditu. Hizkuntza bakoitzari kolore bat esleituz begia orientatzen da. Izenburu – arteko idazpuru – aipamenak agerian emanez, ideia nagusiak aterarazten dira.

— **Komunikazioa:** Bigarren kanala, komunikazioa da. Komunikatiboki egiten diren hautuak eta hedatu nahi diren diskurtsoak sin-tonia osoan dira. Aspektu estetikutik lehenik, argazkiek jendeen arteko batzea erakusten dute (eskuz esku), aniztasuna ageri da (belaunaldi artekoa), baita besta, plazera, aldarria ere. Koloreak bi-ziak dira, alaiak, ugariak. Idazkera borobila, irakurterraza, identifi-kagarria. Lema ere bi ataletan banatua da (euskaraz hasiera eta fran-tsesez segida): euskaldunak osotasuna jasotzen duen bitartean, erdaldunak lemaren parte bat baizik ez du ulertuko. Bitarteko guzi horiek diskurtsoa azkartzea dute xede.

— **Egitaraua:** Praktikak dira diskurtsoa koherentziaz janzteko eta beraz azkartzeko bide eraginkorrena. Bi orduko aktibitate batek dis-kurtso luze bat bezain balio duela konbentziturik, Mintzalasaiek 75 hitz orduen bidez, euskaldunei momentu pribilegiatu txikiez goza-tzeko aukera eman nahi die; euskaldunak ez direnei frustrazio txi-kiak ere eragiten die. Horregatik programazioa ikuspegi diskurtsibo batetik ere eraikitzen dugu, ahal den neurrian doako hitz orduak proposatuz, aktibitate berritzaileak, originalak eta atipikoak zainduz. Egitarauak parte hartzailea erabilera posizio batean kokatzen du, ez ikusle pasiboaren posizioan.

Hizkuntza ekologiaren diskurtsoa azkartzeko, adibidez, hitz ordu desberdinak landu dira urtez urte: auzo popular bateko hizkuntzen festa, dokumental berezi batzuen proiektzioa (Beltzean mintzo, Eus-

kara munduan...). Erdaldunei euskararen itzal handiko aspektu bat aitzinera emateaz gain, euskaldunentzat ere interes bat badu, auto-estimuan zuzenki eragiten baitio. Beste bide bat da ere praktika urbano eta modernoekin lotutako aktibitateak proposatzea: surf edo skate inimizazioak, ordenagailu bidezko musika ikastaroak, graffiti tailerrak... Alegia deus ez, euskararen erabilera normalizatzen da naturala ez den ingurune batean.

Euskara partekatua diskurtsoa hitz ordu batzuen bidez lantzen da (euskara inimizazioa aire librean adibidez), baina batez ere praktiken bidez. Hilabete amaierako besta handian, publikoa eta tabernari-laguntzaileen arteko solasak euskaraz bideratzeko tresnak sortuak izan dira: boluntarioentzat, publikoaren harrera euskaraz bermatzeko gida praktikoa (laguntzaile hau euskalduna izan edo ez) eta publikoarentzat iruditegi pedagogiko eta ilustratuen bidez edariak eta janaria euskaraz manatzeko kartel erraldoiak. Jendeak joko bat bezala hartzen du, horrekin, euskaraz aritzea. Hitz bakar bat euskaraz ahoskatzen ausartuko ez litzatekeen jendea hasten da esaldi batzuk eraikitzen, lagundu ditugulako. Naturaltasuna eraikitzen da, eta prefabrikatutako hizkuntza ohitura berriak denbora-rekin natural bilakatzen dira.

Bakoitzaren ardura, bukatzeko, bereziki haur euskaldunen guraso erdaldunei zuzendutako aktibitateekin bideratzen da. Haur-Guraso arteko tailer partekatuak antolatzen dira, bertan animatzaileak euskara hutsean hitza hartzen duelarik. Haurrak du itzultzaile-laguntzaile funtzioa betetzen bere aita-amarentzat, euskararen jakintza balioztatuz eta gurasoa dependentzia posizio batean kokatuz. Hor helduak barneratzen du eskolaz kanpoko jardueren garrantzia euskara osoki menperatzeko (besteak beste).

Frustrazio sanoak

Azken dimentsio bat aipatzeko, erran dezagun Mintzalasai frustrazio sano eta aktibatzaileak sortzeko bidea izan dela. Eta beharbada hartan du lorpen handiena. Xehekeria txiki bat dirudi, baina badakigu herritar batzuk gaur egun gau eskolako ikasle direla Mintzalasai ezagutu ondoren. 6 urtez izandako lorpen bakarra balitz ere, uste dugu hainbeste energia emateak merezi zuela. Hori, lehen aipatutako frustrazio sano eta aktibatzaileen bidez lortzen dela. Erdaldunak euskaraz izateagatik ez du bere burua baztertuta sentitu behar, aldiz bai zerbait galtzen duela. Euskarari balio eta funtzio sozial bat ematea da hori, euskararen balio erantsia nolabait.

**Erdaldunak
euskaraz
izateagatik ez du
bere burua
baztertuta sentitu
behar, aldiz, bai
zerbait galtzen
duela. Euskarari
balio eta funtzio
bat ematea da
hori, euskararen
balio erantsia
nolabait.**

**Hizkuntza
ekologiaren
diskurtsoa
azkartzeko hitz
ordu desberdinak
landu dira urtez
urte: auzo
popular bateko
hizkuntzen festa,
dokumental
berezi batzuen
proiektzioa
(Beltzean mintzo,
Euskara
munduan...),
Erdaldunei
euskararen itzal
handiko aspektu
bat aitzinera
emateaz gain,
euskaldunentzat
ere interes bat
badu,
autoestimuan
zuzenki eragiten
baitio.**

Urte guziz arno dastaketa inimizazioa antolatzen dugu koadro atsegin batean, prezio biziki merke batean eta enologo on batekin. Eta urtero jendeak deitzen du izena emateko eta segurtatzeko tailerra elebiduna izanen dela; alegia, frantsesezko itzulpena segurtatuko dugula. Eta guk ezetz! Tailerra segitu ahal izateko euskalduna izan behar dela. Euskarak espazio hegemonikorik ez duen lurralde batean, behin behineko arnasmune funtzional horiek funtzio azkarra betetzen dute.

Bigarren anekdota gisa, 2016an Miarritzeko eskulturen bisita gidatua antolatu genuenean gertatutakoa konda dezagun: Zizelkari ospetsu eta karismatiko batek zuen bisita segurtatzen, bere jakintzaz eta umorez publikoari bisita gidatu originala proposatuz. Jende askok izena emana zuen eta erdaldun asko gibelera igorri behar izan genituen. Egunean berean, 20 izan beharrean, 55 lagun pasa bildu ziren eta hauen artean 6 erdaldun. Antolatzaileok erran genien ezin zutela gurekin jarraitu, tokirik ez zela autobusean eta euskara hutsean izango zela. Eta delako zizelkariak “ezetz, denentzat tokia bazegoela eta gure lagun erdaldunak ez genituela baztertuko, prefosta! Frantsesez ere egingen zuela”. Euskara hutsezko hitz ordu bat bisita elebiduna bilakatuko zela ikusirik, biziki kexu hasi genuen bisita antolatzaileok; baina laster ikusi genuen jukutria: eskultura bakoitzaren aitzinean, euskaraz hasten zen umorezko kontakizuna egiten, anekdota gatz-piperdun eta beste txiste finekin. Publiko guzia irriz karkailaka, edo hobeki erran euskaldun guziak irriz eta erdaldunak haien itzulpenaren zain. Eta frantsesera pasatzerakoan, eskulturaren aurkezpen faktuala egiten zuen, labur-labur. Eta bidea segitzen genuen hol-hola. Nehor ez zen kexatu, baina erdaldunek ulertu zuten, egun hortan, momentu goxoagoa pasako zutela beste 49 pertsonekin irriz euskara ulertu izan balute. Epe luzera begira lorpen handiak dakarten gauza tikiak dira.

B) BAM: diskurtsoak eta teknikak

BAM!

Konpaktatzea eta boteretzea xede duen aktibazio masiborako tresna da. Euskaldunek euskaldunentzat euskaratik eta euskaraz muntatutako herri dinamika dugu, auzolanean, molde horizontalean eta urratsez urrats bere baitarik egina. Erdalduna eta elebidun hartzailearen tokia luzaz eztabaidatuak izan dira. Hasieran, Belarriprest figura ez zen aurreikusia. Taldean eztabaidatuz eta datuak ikusiz egin diogu tokia.

Diskurtsoak

Erdaldunei begira diskurtso minimalista hedatzen du BAMEk, baina funtsezkoa. Hasteko, ezin da ulertu erdaldunei begira hedatzen den diskurtsoa, euskaldunei luzatzen zaiona azaldu gabe: Ahobizi zein Belarriprestak asertibitate estrategia batean murgildu dira, euskara ezezagunekin partekatzeraz gomitatzuz, irria ezpainetan, lasai eta pozik. Pairean, erdaldunen partetik itxoiten zen erreakzioa lasaitasun berarekin harrera egitea da. Euskara ulertu gabe ere, agresio bat bezala sentitzeko orde, luzatutako gomita bat bezala hartzea funtsean.

Hedatutako mezua argia da: euskara ez da Baiona – Angelu – Miarritze hiri-eremuan bigarren mailako hizkuntza bat. Euskaldunek beren hizkuntza denekin partekatzeko gogoia dute eta erdaldunei ere gomita luzatu nahi diete. Euskara jakin gabe ere, erdaldunek uste baino gehiago ulertzen dute eta elkar ulertu nahi duen jendeak beti atzemanen ditu hartarako bideak.

Hor bada bizikidetza harmoniatsua eraikitzeak saiakera ederra. Euskaldunek irriarekin eta erdaldunek pazientziarekin jokatzuz gero, komunikazioa lor daiteke (euskaraz ere). Elkarriketa elebidun asimetrikoen kontzeptua lantzen hasteko aukera izan zen BAM. Ondoko urteetan sakondu beharreko bidea, dudarik gabe.

Sakontzekoa

BAMen bilanak erakutsi du Belarriprestak eta erdaldunek zailtasunak izan dituztela beren tokia atzemateko. Denbora berean, Ahobizi askok aitortu dute biziki zaila zitzaiela euskaldun berri edo euskara ikasten duen batekin euskaraz eustea. Hor bada lantzeko desafio ederra.

Funtsean, zergatik gau eskolara doa norbait 6 orduz astean, euskaldunekin mintzatzeko ez bada? Eta guk, gure zailtasunak aurpegiratzen badizkiegu eta frantsesez lerratzen bagira ustez bere laguntzeko, zein mezu transmititzen ari gatzaizkie? Zer da zailena? Denbora librean 6 ordu gau eskolan hizkuntza bat ikastera joatea edo euskaldun berri batekin bere hitz jariora eta hiztegia egokitzea?

Mugak

Erdaldunei begira diskurtso bat garatzeko intentzioa dugunean, askotan masa hunkitu behar dugula argi dugu. Eta masarengana iristeko, masazko baliabideak erabili behar omen dira. Baina horrek suposatuko luke energia, diru eta dedikazioaren parte handi bat hartara bideratzea.

BAM!

**Konpaktatzea eta
boteretzea xede
duen aktibazio
masiborako
tresna da.**

**Euskaldunek
euskaldunentzat
euskaratik eta
euskaraz
muntatutako
herri dinamika
dugu,
auzolanean,
molde
horizontalean eta
urratsez urrats
bere baitarik
egina.**

**BAMen bilanak
erakutsi du
Belarriprestek
eta erdaldunek
zailtasunak izan
dituztela beren
tokia atzemateko.
Denbora berean,
Ahobizi askok
aitortu dute
biziki zaila
zitzaiela
euskaldun berri
edo euskara
ikasten duen
batekin euskaraz
eustea. Hor bada
lantzeko desafio
ederra.**

Sekulan ez dugu ahaztu euskaldunak zirela lehentasun eta horrek hautu komunikatiboetan ere gauzatu behar du: iragarki guziak euskal hedabideetan erosten ditugu, horrek ondorio gisa erdaldunak ez ditugula hunkituko badakar ere. Era berean, grafikoki beti lehenetsiko dugu euskara, horrek eragiten badu ere erdaldunek ez irakurtzeko arriskua. Hitz batez, erdaldunei begirako diskurtsoa garatzea bai, baina zein puntutaraino zainduz.

4) Kolektiboki ekin

A) Elkarrekin sortzen

Baiona – Angelu – Miarritze hiri-eremuan, euskararen biziberritzean lan egiten duten bi espazio xume besterik ez dira BAM eta MINTZALASAI. Ez dira erreferentzialenak, ez eta eraginkorrenak. Euskararen eragile guziek egiten duten lanaren osagarri dira, haien txikitasunean. Hori erratea ez da umiltasun faltsuan aritzea, garatzen dituzten diskurtsoen mugak agerian ematea baizik. Askotan gure proiektuak gartzetakoan, autozentratuegiak bukatzen dugu; gibelatasuna beti da beharrezkoa horretaz babesteko.

Horregatik partekatzea garrantzitsua da. Bi egitasmoetan, adimen kolektiboan asko sinesten da. Bakarrik azkar egiten dugu lan, baina taldean urrun goaz. Eta euskararen biziberritzean azkar aritzea garrantzitsua bada ere, urrun joatea da premiazkoa.

Beraz garrantzitsua da diskurtsoa ere kolektiboki sortzea, eztabaidatzea, kontrastatzea. Taldean hobeki neurtzen da hitz edo pentsamendu bakoitzaren pisua, joera baten oreka, analisisia baten zuzentasuna. Lehen 4 urteetan, aitzin solasaren hitz bakoitza, paragrafo bakoitza, taldean eztabaidatua zen Mintzalasaien antolaketa batzordean. Horrela iristen ginen oreka puntu egoki batera. Mahai inguruan biltzen den kide bakoitzak ekartzen zion bere dimentsioa idazkiari: kritikoa, optimista, salaketa... Pertsona bakar batek sekulan lortuko ez lukeen emaitza ahalbidetzen du, maiz, kolektiboak.

B) Partekatuz aitzinatzen

Diskurtsoak, barneratua izateko, bateratua izan behar du. Euskalgintzako eragile bakoitzak bere diskurtso propioa eta besteekiko antagonikoa garatzen badu, konfusioa eta kakofonia sortzen dira. Lehen erran bezala, Mintzalasai eta BAM! bi gertakari xume dira. Garatzen dituzten diskurtsoak, mugatuak dira.

Horregatik garrantzitsua agertu zaigu, 2014tik goiti, diskurtsoa partekatzeo saiakerak egitea. Erregulariki antolatu ditugu formakuntza momentu batzuk, euskalgintza sozial eta instituzionaleko ordezkariak mahai beraren inguruan biltzeko eta elkarrekin gogoetatzeko. Herrigintza-Instituzio arteko lankidetzak izan zen lehen gogoeta saioa, euskararen inguruko diskurtsoak bestea, euskararen erronkak eta paradigma berria azkena. Partekatze horietatik sor daitezke etorkizuneko sinergiak.

C) Beti zalantzan ematen

Azkenik, diskurtso bat beti zalantzan ematen eta galdekatzen jakin behar da. Egonkortasuna eta errepikapena garrantzitsuak badira ere, garatzen dugun diskurtsoak errealitatearekin bat egiten duen segurtatu behar da.

Bi adibidek gure praktikak egokitzea bultzatu gaituzte berriki. Lehenak euskara eta hiria lotzeko, uste genuen gazteei begira aktibitate urbanoak garatu behar genituela: surfa, gaurko musika, skatea... Euskarari irudi moderno eta erakargarria emateko bide naturala zela uste genuen, eta bai gazteek bai gurasoek hori preziatuko zutela. Baina azkenean, gurasoak entzunez, ohartu gira haien euskara zela Euskal Herriko kultura ulertzeko giltza bat lehenik, gure munduan sartzeko ate bat lehentasunez. Hau ulertzerakoan, gure programak erabat berrikusi ditugu eta tradizioen transmisioan eman dugu indarra: kantuak, praktika kulturalak, tradizioak, ospakizunak (Olentzero, Santa Agate, Inauteri...). Zentzua berreskuratze eta 21. mendeko hirien deshumanizazioari aurre egiteko molde berriak jorratu ditugu, haur eta gurasoen plazererako.

Beste adibidea, Ipar Euskal Herrian agertzen hasi den sentimendu batetik dator. Mintzalasaiak beti izan du diskurtso positibo eta bateratzailea. Baina azken urteetan ahots batzuk entzuten hasten dira euskara egoera onean dela, baliabide publiko sobera mobilizatzen dela euskararentzat, euskararen gainbehera faktore naturalei lotua dela... Horren aitzinean batere kontsentsuala ez den diskurtso mota bat garatzen hasi gira 2017an: erreparazioarena. Administrazioak desegin duena, berreraiki behar duela hain zuzen. Euskal elkargoaren sortzearekin eta inkesta soziolinguistikoaren aurkezpena bete-betean genituen eta fundamentuak oroitaraztea beharrezkoa iruditzen zitzaigun.

Euskarari irudi moderno eta erakargarria emateko bide naturala zela uste genuen [...] baina azkenean, gurasoak entzunez, ohartu gira haien euskara zela Euskal Herriko kultura ulertzeko giltza bat lehenik, gure munduan sartzeko ate bat lehentasunez. Hau ulertzerakoan, gure programak erabat berrikusi ditugu eta tradizioen transmisioan eman dugu indarra.

AZKENA BIDEKO

Ipar Euskal Herriko hiri-eremu jakin batean garatu diren bi egitasmok erdaldunei buruz eraiki duten diskurtsoa aztertzea izan da mintzaldi (eta idazki) horren xedea. Hego Euskal Herritik ikusita, hau da, lau hamarkadaz hizkuntza politikak garatzen ibili den lurralde batetik, basikoa agertu daiteke. Baina den bezala hartu behar da: intentzio onarekin baina baliabide gutxirekin, auzolanean eraiki den egitasmoak dira biak.

MINTZALASAI eta BAMen diskurtsoak desberdinak dira, baina osagarriak. Batak bestea indartzen du. Batak besteari esker hobeki funtzionatzen du. Diskurtso hau polimorfikoa da, sartzeko ate desberdinak eskaintzen dituelako. Bortxaz, agregatzailea da ere, batzea, erakartzea, aktibatzea duelako xede. Orain, falta zaiona polifonikoa izate da: ahots desberdinek hedatua, bakoitzak bere tonalitatean, baina denak zentzu berean.

Hauek guziak usteak dira eta erran zaharrak dioen moduan, usteak erdi ustel. ●

OHARRA

1. Salbuespena Urko Ikardo azken Hausnartu saria irabazi berri du “Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean”.

3

Ahobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat

Iñaki Arruti Landa

Lasarte-Oriako Udaleko euskara-zerbitzuko arduraduna

i.arruti@lasarte-oria.eus

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lasarte-Oriako Udalaren artean argitaratu berri dute EHUko irakaslea den Pello Jauregi Etxanizek idatzitako “Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz! Herri-erronka: ikerketaren emaitzak” liburua. Ikerketak izen berekoa izan zen ekintza du ikergai eta Lasarte-Oria 2016. urtean egin zen eta hizkuntza-ohiturak astintzeko helburua izan zuen esku-hartze sozialaren emaitzak jasotzen ditu. Artikulu honetan, liburuan jasotako elementu asko ekartzea ezinezkoa izan arren, liburuak aztergai duenaren testuingurua deskribatzen da eta “Egia estiloa”ren barruan kokatzen den eta euskalgintzarentzat bide berri bat iradoki dezakeen ekintzaren gako eta emaitza nagusiak nabarmentzen dira alde batetik, eta horien gaineko hausnarketa batzuk gehitzen dira beste alde batetik. Bereziki ekintzaren protagonista izandako ahobizi eta belarriprest roletan aritutako hiztunek utzitako testigantzak azpimarratzen dira eta, horiek oinarri hartuta, pedagogia soziala egiten jarraitzearen beharra azpimarratzen da. • **Hitz gakoak:** *Euskararen Maratoia, erronka, jaia, irten armairutik, ahobizi, belarriprest, hizkuntza-ohiturak, aldaketa.*

Abstract. The Provincial Government of Gipuzkoa and the Lasarte-Oria City Council have just published the book, “Come out of the closet! The 40 day long Basque challenge! A Town challenge: results from the research”, written by Pello Jauregi Etxaniz, lecturer at the University of the Basque Country. The object of the research had the same name as the research project and was carried out in Lasarte-Oria in 2016. It includes the results of social intervention that aimed to “shake up” language habits. The article says that, although it is not possible to bring forward many of the elements contained in the book, the book describes the context in which it is analyzed and the key to the action that may be categorized as “Egia style” and that it suggests a new way for the Basque language movement with the main results being highlighted on one hand while, on the other, some reflections on those points are added. The testimonies left by the speakers who have protagonized the ahobizi (talker) and belarriprest (listener) roles have been especially highlighted and, on that basis, the need to continue with the social pedagogy has been emphasized. • **Key words:** *Basque language marathon, challenge, party, coming out of the language closet, occasions, belarriprest, language habits, change..*

Ez da erraza 2016an Lasarte-Orian “Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz!” izenburupean egin genuen herri-erronkaren partea ematea, bertan parte izan ez denari. Lehenago ere pasa izan zaigu, handik edo hemendik deitu eta ustez barruan zer kontatua izan arren, kanpoan da-goenari, egoera bizitu gabe, ongi komunikatzeko moduarekin asmatzea zaila dela sumatu izana.

Ziurrenik, ekintzen deskribapen hutsetik haratago, bizitutakoa transmititzeak duen ezaugarria, duen berezko zailtasuna, izango da. Alegia, bizitutakoa indartsua baldin bada, horrek ematen duen indarra eta, aldi berean hori deskribatzearen zailtasuna, bizitzen ez den bitartean. Beste gauza askorekin ere halaxe gertatzen delakoan nago.

Urrutirago joan gabe, erronka horren oinarri den Euskararen Maratoiak berak ere, ezaugarri horiek ditu. Webean dagoen aurkezpenak (www.euskararenmaratoia.eus) honela dio:

*Euskararen Maratoia lasarteoriatar askok euskaldun izateko dugun nahia sinbolizatzen duen jai bat da. 1986an hasi eta lau urtez behin egiten, ospatzen, dugun jai bat. 40 ordu, etenik gabe, irauten duen jai bat. Eguneroko maratoia, benetakoa, elikatzen laguntzen digun jai. Euskararen Maratoia larunbatean goizeko 8:00etan hasten da eta igande-
dean gaueko 12:00etan amaitu. Bitartean, maratoia 5 minutu baino handiagoko isilunerik izan ezin dezakeen etengabeko mikrofono bat da.*

40 orduak herriko plazan hezurmamitzen dira eta oholtza zortzikote batek dinamizatzen du, umorea ardatz duten ekitaldiak berariaz prestatuz eta herritarrek prestatuta dituzten emankizunei bide emanez (parte hartzeko baldintza da Lasarte-Orian jaio, bizi edo lan egitea). Maratoiaren ardatza euskara da eta bere baliorik kuttunenetakoa, berriz, herriko euskaltzaleak, beren tira-bira ideologikoen gainetik, jaiaren inguruan biltzea. Maratoia da, korritu gabe, oso ongi esplika ezin daitekeen zerbait.

2016koa Euskararen 9. Maratoia izan da. Herritar askok edizio hau, aurreko gehienen antzera, bizi izan du asko estimatzen duten zerbait (euskara) modu arrakastatsu batean bizi izanak sortu ohi duen zirrara horrekin, poz horrekin.

Edozein kasutan, euskara indarberritzeko prozesuan eragile izan den jendeak, dena delako esperientzia horrek asebetetzeko, osoa izateko, osagai emozionalaz gain (“ederra izan da” edo “zenbat jende...”), osagai logikoa, arrazoi linguistikoa, kontzienteagoa (“lortu dugu hau edo beste hura”) ere behar ohi du, dugu.

**Ez da erraza
2016an Lasarte-
Orian “Irten
armairutik!
Baietz 40 egun
euskaraz!”
izenburupean
egin genuen
herri-erronkaren
partea ematea,
bertan parte izan
ez denari.**

**2016koa
Euskararen 9.
Maratoia izan
da. Herritar
askok bizi izan
du asko
estimatzen duten
zerbait (euskara)
modu
arrakastatsu
batean bizi
izanak sortu ohi
duen zirrara
horrekin, poz
horrekin.**

Hizkuntza-komunitatearen elementu gehienek, aldiz, ez dute (hain) beharrezko logika/koherentzia linguistiko hori eta, gehienetan, lehenengo osagaia nahikoa izan ohi dute zera hori asebetetzeko.

Ez naiz ni gai sentitzen hortik aurrera gaian gehiago sakontzeko, baina uste dut hausnarketarako hari interesgarri bat idatzita utzi zuela aspaldi Txepetxek (1989) berak “Los espacios de la desigualdad: patología social y conciencia lingüística” artikuluan.

Lasarte-Orian Euskararen Maratoia bizitu dugun hainbat eragilek (beste herri batzuetan beste hainbat dinamikekin beste hainbatek bizitu dutenen antzera seguruenik), uste dut sentitu dugula asebetetze hori, ekintza erakargarri horren emozioaz gain, logika linguistikoaren ikuspegitik aurrerapauso bat sentitu eta bizitu izanari dagokiona. Gurean, uste dut lehendabiziko Euskararen Maratoi horietan inflexio-puntu bat lortu genuela, hainbestetan aipatu izan ohi dugun elkarlanaren esperientzia nolabait teoriatik praktikara eramanda, eta neurri batean, axaleko izatetik, gorpuztu eta egunerokoa izatea bihurtuz. Neurri batean, hori ere.

Eta hasierako saio haiek hizkuntzaren berreskurapena hizkuntza komunitatearen berrosatzearen ikuspegitik bideratzeko lagungarri izan ziren bezala (oso politikoa eta aldi berean batere alderdikoia ez den ikuspegi horretatik), azken edizio honek hiztunek euskara gehiago erabiltzeko praktika soziolinguistiko berri batekin asmatu izanaren logika linguistikoa utzi digula esango nuke, hori ere neurri batean.

LIBURUA

I

Alperrik da luze eta sakon azaldua dagoena hona ekarri eta sakon, baina motz, adierazi nahi izaten ahalegintzea. “Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz” herri-erronka izan dena eta batez ere eman duena ezagutu nahi duenak, jatorrira, izen bereko liburura (Jauregi 2017), jotzea du egokiena.

Agian, horrelako ekintza batetik liburu bat sortu izanak berak adierazten digu, neurri batean behintzat, ekintzaren ez-ohikotasuna. Ez da gurean oso ohikoa (ez eta ere oso erraza!) ekintza antolatzeak berak berekin dakarren lanaz gain, hori ondo jaso eta transmititzeko tresna bat sortzeko modua egitea. Are gehiago, liburuak, ekintzaren beraren deskribapenaz gain, ekintza aldi berean ikertua ere izan baldin bada eta ikerketa horrek eman dituen emaitzak jasotzen baldin baditu.

Beraz, liburuak berak adierazten duena da dinamika horren atzean badaudela oinarri batzuk eta, sarri nahikoa baloratzen ez baditugu ere, horiek falta direnean jabetu ohi gara haien gabeziaz.

Dinamika honek badu atzean, beraz, euskara elkarte sendo bat, ahalegin handiak egiten dituen herrian euskararen aldeko mugimendu osasuntsu eta erakargarri bat sortzen; badu udal bat hainbat giza eta diru-baliabide eskaintzen dituen dinamika hori egingarri gerta dadin laguntzen dutenak; badira euskalgintzako beste hainbat erakunde (eskola, euskaltegi...) elkarrekin lan egitera ohituta daudenak eta badira baita ere herrian hainbat pertsona esanguratsu indar horiek artikulatzen asmatu izan dutenak. Oraingoan gainera, ikertzaile prestu baten (Pello Jauregi Etxaniz) eta ikerketa finantzatu duen Aldundi baten (Gipuzkoako Foru Aldundiaren) sinergia ere energia izan dira.

Dinamika horrek baditu baita ere ahulgune eta hutsune nabarmenak (horiek ez ditugu hemen kontatuko). Edozein kasutan, oinarri horiek ez dauden tokira begiratzerakoan (bai Euskal Herri barruan eta baita ere kanpoan) jabetu ohi gara lurra oinak jartzeko prestatuta egotearen eta ez egotearen aldeaz.

ERREGAIAK

I

Argi dugu kerik ez dugula asmatu. Gehienera, seinale batzuk ematera iritsi den su txiki bat sortuko genuen. Erregaiak hor zeuden eta elkarrekin jarri, astindu, berotu, putz egin eta... seinaren bat eman dute, gehienera.

Suaren erregai praktiko nagusiak, herrian ordura arte ondutakoa (labur esatera Euskararen Maratoia bera eta herrian euskara indarberritzeko dagoen dinamika) eta Egia auzoko “Egian euskaraz” esperientziatik ikasitakoa izan dira. Erregai teorikoak, berriz, “Sortir de l’armari linguïstic” liburua (edo nahi bada TELP, “Taller de l’espai linguïstic personal”, tailerren bidez garatutako hizkuntza asertibitatea) eta Soziolinguistika Klusterrak garatutako Eusle metodologia izan dira, bereziki.

Artikulu honen irakurleak baditu bideak erreferentzi horietara jotzeko eta beraz, horretan, aipatu hutsean, utziko ditugu.

Badira sua sortzeko ahalegin horretan beste bi osagai, ustez behintzat, lagungarri gertatu direnak. Bata erronka da eta bestea jaia.

Euskararen Maratoia ideia (ero) batetik jaioetako erronka bat izan zen: “Lasarte-Oriako euskaldunok 40 ordu euskaraz etengabe egiteko gauza

**Hasierako saio
haiek
hizkuntzaren
berreskurapena
hizkuntza
komunitatearen
berrosatzearen
ikuspegitik
bideratzeko
lagungarri izan
ziren bezala,
azken edizio
honek hiztunek
euskara gehiago
erabiltzeko
praktika
soziolinguistiko
berri batekin
asmatu izanaren
logika
linguistikoa utzi
digula esango
nuke.**

garela adieraztea". Hasierako edizioak ere lelo horren jiran ibili ziren (1986: 40 ordu baietz!, 1988: Baietz 40 ordu berriz!, 1992: 40 ordu? Errex!, 1996: 40 ordu gogoz!), erronkak berak zentzu logiko-arrazionala galdu zuen arte (40 ordu betetzea erraza izatera iritsi zen heinean), nahiz eta jaiaren osagai alai eta erakargarri hori izaten jarraitu zuen herritar askorentzat.

Ondorengo edizioetako izenburuek argi adierazten duten modura, erronkaren osagairik gabe, mezu nagusia beste bat bihurtu zela: 2000n *Eguneroko plazerra*, 2004an *Bero-bero euskaraz orain eta gero*, 2008an *Korritzeko modukoa* eta 2012an: *Bihotzetik plazara*.

9. edizioaren prestaketak, ordea, izan zuen intuizio hori eta erronka kutsua berreskuratu beharra mahai gaineratu zen. Esango nuke, berriz ere, erronka biziberritzearen intuizio horrek bazuela alde afektibo-emozional bat (ahalik eta jende gehien erakartzeko pizgarri izan nahiarena) eta beste alde efektibo-arrazionalago bat.

Hain zuzen ere, efektiboagoa eta arrazionalagoa den intuizioaren zati horrek, erronkari zentzu linguistiko eguneratua eman beharra azpimarratzen zuen, alegia, ekintza euskaldunak konpaktatzeari begira jarri ordez (hasierako erronken muina), euskaldunen praktika soziolinguistiko berriak aktibatzeari begira jarritz, eta horretarako, euskaldunek euskaraz egiteari eustea, gaztelaniara lerratu gabe, euskaraz egiteko gero eta ugariago ditugun egoeretan. Hau da, erabilerak bidea egitea ulermenak bideragarri egiten duen guztietan, gaztelaniara lerratu gabe.

Bestalde, erronka definitu zen aldi berean pertsonala ("Baietz astebete euskaraz") eta kolektiboa ("Baietz 40 egun euskaraz"), nahi zuten guztien artean egitekoa. Bien kasuan erabileran aurrerapauso bat egitea helburu izanik, alegia, epe horietan eguneroko harremanetan beti euskaraz egitea, solaskidea euskaraz ulertzeko gai zenean eta lehen hitza euskaraz egitea ezezagun orori.

Jaia, berriz, gure kasuan, ez genuen asmatu beharrik izan, zain genuen. Lau urtez behineko hitzordua egina zegoen eta haren hurbiltasunak, eta erabilitako iruditeriak (leloa, armairua, ahobizi eta belarriprest...), erronkaren erakargarritasuna handitu egin zuen. Lehen ere antropologiaren begietatik aztertu izan da gaia (Hernandez 2007), baina, berriz ere, jai giroaren transgresioak (kasu honetan hizkuntzaren armairutik ateratzean sinbolizatuta) katalizatzaile funtzioa bete duela eta mezua askoz hobeto transmititzen lagundu duela esango nuke.

GAKO BATZUK

I

Erronka, jaia..., hainbat osagai, erregai, izan dira txinparta atera eta sua sortzeko baldintzak bildu zituztenak. Kontu denak ez dira zuriak ala beltzak izaten, baina egokiena izango da hona ekartzea Pello Jauregik liburuan bertan (123-124 orrialdeetan), “helburua eskuratzen gehien lagundu duten alderdiak” izenburupean bildu dituen gakoak, hainbat pasarte nabarmentzeko lizentzia hartuta ekarri baditut ere (azpimarrak nireak dira):

1. Maratoiarekin egin den lotura izan da arrakastaren giltzetako bat, hots, 40 orduetik 40 egunera jauzi egitea. Hasteko, Maratoia zela-eta festa giroan emandako hasierak ikaragarri lagundu zion jendeari hasierako bultzadaxoa ematen. Maratoiak alderdi emozional edo afektiboa erantsi zion ekimenari: alaitasuna, poza, dantza, festa, jende desberdina elkar hartuta ibiltzea. Maratoiko zortzikotearen¹ egitekoa funtsezkoa izan da lotura hau ziurtatzeko. Haiei esker lotu dira Maratoiko alaitasuna eta Erronkaren seriotasuna, oso modu naturalean. Osagai hauek gabe, ekimena hotz samarra izan zitekeen. Maratoiaren aldarrikapen eta festa izaeratik esperimendu soziologikoaren formatura pasatzeak ikuspegi erreala, sentitua eta bizi-bizia eman die partaideei.

2. Herrian euskalgintzaren eta udalaren artean dagoen sinergia eta tradizio luzeak eragile nagusien arteko **konfiantza dakar**. Herrira zabaltzen da eragile desberdinen arteko elkarlana posible dela, eta batasun giroak indartu egiten du jendearen gogoia.

3. Izena emateko **aurrelana izugarria** izan da (zortzikotearen kanpaina informatzailea, armairua hara eta hona ibiltzea, bideo tutorialak, eta abar). Mobilizazio hori sistematikoa eta masiboa izan da. Horri esker lortu da jendeari mezua toki, bitarteko eta eragile ezberdinen bidez iristea. Bitarteko teknikoak ere ongi landuak izan dira (diptikoak, bideoak, prentsa, eta abar).

4. Belarripresten zeregina funtsezkoa izan da. Lehenengo hitza euskaraz egiteko ingurune seguru bat sortu dute, bai ezezagunekin bai ezagunekin (**euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen duten pertsonak deskubritzeko modu bat izan da**). Ahobiziei heltzen zaien mezua belarripresten jokaerarekin: “Zuk nirekin euskaraz egin dezakezu (agian orain arte egin ez dugun bezala), nik ulertzen dut-eta” ikaragarria da. Horrek ahobiziei ate zabal bat ireki die. Ahobiziek senti-

**Horrelako
ekintza batetik
liburu bat sortu
izanak berak
adierazten digu,
neurri batean
behintzat,
ekintzaren ez-
ohikotasuna.**

**Suaren erregai
praktiko
nagusiak,
herrian ordura
arte ondutakoa
eta Egia auzoko
“Egian euskaraz”
esperientziatik
ikasitakoa izan
dira.**

tzen dute euskaraz jokatzeko baimena dutela edo bere jokaera zilegi dela, eta horrek euskaraz ez hitz egiteko mekanismo ugari bertan behera uzten ditu.

Bestetik, eta ezezagunekiko harremanei dagokienez, **belarriprest txapa pertsonak darama eta ez espazioak**. Beraz, hizkuntzaren erabilera ez dago une horretan espazio horretan dagoen langilearen mende (adb. ‘hemen euskaraz egiten da’ edo antzekoak ikusten diren denda eta bulegoetan, batzuetan euskaraz hitz egiten da segun eta nor dagoen). Horrek erraztu egiten du lehenengo hitza euskaraz egitea.

5. Ahobizien zeregina ere funtsezkoa izan da. Txapa soinean eramateak aitzakia ematen zuen hizkuntza ohituretan urradurak egiteko eta hainbat tokitan edo pertsonarekin lehenengo hitza euskaraz egiteko. Nolabait, **zilegitasun berri baten jabe** sentitzen ziren ahobiziak, eta horrek erraztu egiten zien euskaraz egitea. Horri esker, euskaldunak ikusgarri egin dira herrian, eta euskal mundutik urrutitxo dagoen herritar askok ere nabarituko zuten haien presentzia bizia.

6. **Ele biko elkarriketaren kultura zabaltzen hastea** oso puntu interesgarria izan da. Horrek ahalbidetu egiten du elkarriketa batean partaide bakoitzak bere euskara mailari eustea: dakienak dena euskaraz eta besteak ulertzeko ahalegina eginez esaterako, edo maila baxukoek, ahal zutena euskaraz eginez eta ezina etorritakoan baimena izatea beste hizkuntza batean aritzeko. Horrek aukera ematen du komunikazioari eusteko euskarari bizkarra eman gabe, euskarazko gaitasun mota guztiei etekina ateraez.

7. Txapen erabilera ere puntu funtsezkoa izan da. Rolak banatzeko balio izan zuen, pertsona bakoitza txapa batekin identifikatzen baitzen. Oso ondo zeuden rolak markatuta, baita dena ondo kontrolatuta ere edozein galderaren aurrean. Txapak jendeariadore, indar eta motibazioa eman dio bere zereginari ekiteko. Horri esker, jendeak kontzientzia edo ardura handiagoa sumatzen zuen. Txapak erakusten zion jendeari zein den norberaren konpromisoa, eta **itun sozial baten gisa funtzionatzen zuen**. Bestalde, kolektibo sentsazioa ematen zion zermanari, eta jendearen artean konplizitateak eta gertutasuna ekarri.

8. Masiboa izatea izan da ekimenaren beste giltzarrietako bat, hau da, **estrategia kolektiboa** izatea, eta ez norbanakoaren bizkarrean

geratzen dena soilik. Kanpaina-ikerketan jende asko eta ezaguna – zein ezezaguna– dagoela ikusteak, taldetasuna sustatzen du ahobizi eta belarriprestentzat: “Ez nago bakarrik; herrian jende mordoa gara eta ikusgarri gara (txapa dugu)”.

9. Jarduerak aldi berean ikerketa izateak indartu egin du ekimenaren ahalmena. Ohiko kanpainatik harago joateak statusa eman dio jendea egiten ari zenari. Kasu honetan jendeari berari (ahobiziei nahiz belarriprestei), partaideak jakitun baitziren datuak argitaratu eta publikoak izango direla. Jendea, nolabait, esperientzia urratzaile baten partaide sentitu da, eta horrek eragin positiboa izan du bere motibazioan. **Ikerketa bat izateak eta ostiraleko elkarteak, bakoitzak bere papera serio betetzea eragin du, seguru asko.**

10. Ekimenari eman zaion kutsu humano eta bizipenezkoak ere bere eragin positiboa izan du. Hala, esaterako, ahobizien txanda aldaketan hainbat kidek anekdotak eta **testigantzak** aipatzen zituzten, edo Txintxarri aldizkarian agertzen ziren pertsonen kontakizunak. Horrek guztiak gertutasun kutsu erakargarria eman zion ekimenari.

EMAITZAK

I

Ekintza ikergai izateak, besteak beste, egindakoa neurtzeko eta interpretatzeko bidea eman digu. Emaita kuantitatiboen iturria galdetegiak izan dira. Alde batetik ahobiziek erronkaren astea hasi aurretik, bukatu berritan eta handik hiru hilabetera betetakoak, eta beste alde batetik belarriprestek 40 eguneko erronka bukatu berritan betetakoak.

Informazio kualitatiboaren iturria ahobiziek erronkaren astea bukatu berritan osatutako testigantzen koadernoak izan da.

Iturri horietatik jasotakoa honela laburbildu du Pello Jauregik liburuan (119-121 orrialdeetan) (azpimarrak nireak dira):

1. Aurrena, parte hartze handia azpimarratu behar da. Ahobizietan, 621 lagunek jaso zuten txapa, 957 lagunek izena eman bazuten ere². Hasieran helburua 300 ahobizi eskuratzea baldin bazen ere, azkenean kopuru hori bikoiztu egin zen. Belarriprestetan, 1.927 lagunek eman zuten izena. Hasierako helburua 3.000 lagunen parte hartzea sustatzea zen, baina heren bat falta izan zitzaigun horretara iristeko. Nolanahi ere, oso kopuru handietara iristea lortu da, eta horrek ingurune sozial indartsu eta ikusgarria sorrarazi du. Hala ere, **badirudi mezua errazago iritsi dela ahobiziengana belarriprestengana**

**Badira sua
sortzeko ahalegin
horretan beste bi
osagai, ustez
behintzat,
lagungarri
gertatu direnak.
Bata erronka da
eta bestea jaia.**

***Festa izaeratik
esperimentu
soziologikoaren
formatura
pasatzeak
ikuspegi erreala,
sentitua eta bizi-
bizia eman die
partaideei.***

baino. Uste baino jende gehiagok hartu du konpromisorik handiena (ahobiziena), eta horrek adieraziko luke euskaldun asko dagoela praktika soziolinguistiko berrira jauzi egiteko prest eta gogoz, baldintza egokiak eskaintzen zaizkionean. Jende askok belarriprest izateko konpromisoa agertu badu ere, gehiago nahi genuen. Hauen egitekoa zen ahobiziei bidea erraztea, euskarazko komunikaziorako gutxieneko baldintzak sorraraziz. Bide horretan asko aurreratu da, baina ez nahi adina.

Belarriprest figura eta haren egitekoa berria da euskalgintzan. Belarripresten figurak ordezkatzeko duen sektore sozial handia urrutitu da orain arte euskalgintzaren zereginetatik, bereziki euskaraz ulertu arren hitz egiteko zailtasunak dituzten horiek. Sektore sozial horien eta euskalgintzaren artean egon den –eta dagoen– distantziak zaildu egin du mezua haiengana era zabalean iristea. Eta ekimen honen baliorik handienetakoa distantzia hori laburtu eta sektore horri protagonismo berezi bat ematea izan den arren, **bada oraindik lan handia esparru horretan mezua zabaltzeko eta erakargarri bihurtzeko.**

2. Badaude datu kuantitatiboak eta kualitatiboak baieztatzeko ahobiziek bezala belarriprestek ere seriotasun eta erantzukizun handiz heldu dietela ekimenak eskatutako eta beraiek onartutako konpromisoei. Hona hemen datu batzuk. Ahobizi txapa jaso zuten 621 lagunetatik 460k (alegia, %74,1ek) ziklo osoa bete du, hau da: erronka aurreko eta ondorengo saioetara etorri, ikerketari begirako galdetegi guztiak bete, eta testigantzak idatzi. Belarripresterako izena emandako 1.927 lagunetatik %44k erantzun zion erronka bukatutakoan galdetegiari, eta %30ek erronka bukatu eta hiru hilabetera egindakoari. Belarripresten %90ek txapa soinean eraman du “gehienetan” edo “askotan” erronkan zehar. Bestalde, ahobizien testigantzek argi eta garbi adierazten dute jendeak zeinen bihotzetik hartu duen emandako hitza, eta nola egin duen aurrera, tarteka zailtasunak agertu arren. Zalantzarik gabe esan dezakegu **parte hartzaile gehienak lotu egin zaizkiola praktika soziolinguistiko berriari.**

3. Praktika soziolinguistiko berriaren aplikazioak berekin ekarri du ahobizien euskararen erabilera 21,4 puntu igotzea, erronkan zehar, eta horri eustea denboran zehar, erronka bukatu eta gero ere. Izan ere, erronka bukatu eta handik hiru hilabetera egindako neurketan soilik 2,6 puntu galdu dira aurreko igoerarekin alderatuta. Beraz, **hizkuntza jokaeran aldaketa esanguratsuak eman dira eta, ikusten**

denez, iraunkorrak izan dira. Aldaketaren iraunkortasuna azal liteke bikoteen hizkuntza bilakaerari erreparatzen zaionean. Horiek horrela, ikusten da hizkuntza aldaketa bereziki gertatu dela “ia beti” euskaraz egiten duten bikoteetan. Halako bikoteen kopuruak 24,8 puntu egin du gora erronkan zehar, eta erronka bukatu eta hiru hilabetera egindako neurketan 3,2 puntu baino ez dute galdu. Bikote tipologia honek ordezkatzan du “euskaraz jarduteko ohitura” duen edo erdietsi duen bikote mota. Beraz, iraunkortasuna bereziki zor zaio aldaketa gehiena “euskarazko ohitura” bihurtu izanari.

4. Ahobizien euskarazko jardunak ekarri du berekin belarriprestek ere “modu simetrikoan” erantzutea. Alegia, belarripresten euskararen erabilera %90ekoa izan da ahobiziek euskaraz egin dietenean. Beraz, **oso era nabarmenean bete da “hizkuntza simetriarako” printzipioa**. Eta hori horrela gertatu da belarripresten %91,6k euskaraz “ongi” edo “nahiko ongi” hitz egiteko gaitasuna zuelako, eta hortaz, ez zuen gaitasun-arazo handirik ahobizien hizkuntzara moldatzeko. Bestela esanda: ahobizien jokaerak indarra izan du belarripresten jokaera euskararen aldera era naturalean gerturatzeko. Oso egoera desberdina eman da ahobizien solaskideak ulertu arren hitz egiteko zailtasunak zituenean, eta hortaz, ahobiziak euskaraz hitz eginda ere, solaskideak erdaraz erantzuten zuenean. Halakoe-tan, euskaraz jarraitzeko modu bakarra zen ele biko elkarrizketei eustea. Datu kuantitatiboek bezala kualitatiboek ere garbi ematen dute aditzera zailtasun nabariak izan dituztela ahobiziek jarduer a mota honi heltzeko.

Ezezagunekiko harremanei dagokienez, modu hau ez da inoiz ahobizien artean joera nagusi izatera iritsi, eta gutxi izan dira era sistematikoan (“ia beti”) eutsi diotenak. Hiru neurketetan ez da igartzen aldaketa edo hobekuntza esanguratsurik. Ezagunekiko harremanetan modu hori zertxobait gehiago garatu dela ematen du eta erdizkako puntuazioetara iritsi da. Beraz, eta **ele biko elkarrizketei dagokienez**, zerbait aurreratu bada ere –bereziki gertuko harremanetan–, **bada oraindik zer aurreratu**. Are gehiago, euskararen normalizazioaren **eragin-eremua lehen aipatutako belarriprest sektore handi horretara eraman behar badugu** (bereziki go-goan izanda belarriprestak, euskaraz ulertu arren, hitz egiteko zailtasunak dituztenak izan daitezkeela).

5. Datu guztiak ekimenaren barnekoak dira, parte hartzaileek era aitortuan emandakoak. Ez daukagu, ordea, ekimenetik kanpoko

***Txapak
erakusten zion
jendeari zein den
norberaren
konpromisoa, eta
itun sozial baten
gisa
funtzionatzen
zuen.***

***Eraitza
kuantitatiboan
iturria
galdetegiak izan
dira. Informazio
kualitatiboaren
iturria ahobiziek
erronkaren astea
bukatu berritan
osatutako
testigantzen
koadernoak izan
da.***

adierazlerik ekimenaren ikusgarritasuna eta eraginkortasuna neur-
tzeko. Ez dakigu, hortaz, ekimenak nola eta zein neurritan lagundu
duen, lagundu badu, herrian euskararen erabilera suspertzen. Ba-
dakigu ahobizien eta belarripresten artean zer gertatu den, baina
ez dakigu horrek zer isla izan duen herri osoan.

Eta halaxe izan zen. Ibili genuen buruan urtero egin ohi dugun euska-
raren erabileraren kaleko neurketa bat egitea erronkak irauten zuen 40
eguneko epearen barruan, baina ez ginen gauzatzerira iritsi. Urtero egin
ohi dugun kale-neurketaren emaitzetan ere ez dugu aldaketa esangu-
ratsurik sumatu. 2016an %17,2 eman zuen neurketak eta 2017an %17,7.

Irakurketa errazak egitea tentagarria izan daiteke, baina ez ditugu egin.
Agian erronka aurreko urtetik erronka osteko urtera puntu mordoxka
bat igo izan bazen, hasiko ginateke kausa-efektu erlazioak egiten, baina
ez da kasua izan eta horretaraino iritsi gara. Gaiak, zenbakiez haratago,
horrelako esku-hartzeen eta euskararen kaleko erabileraren arteko er-
lazio edo erlazio ezaz (gure hasierako hausnarketak zentzu horretan
joan dira) gehiago sakontzea eskatzen du.

Izan ditu eraitza gehiago ere esperientziak. Bat azpimarratzearen,
ahobiziek betetako koaderno horiei darian baikortasuna izan daiteke.
Logikoa izan daiteke iritzi baikorra izatea ondo samar atera den edozein
esperientziaren ondoren, baina uste dut intentsitate hori izan duen eta
eguneroko hizkuntza-ohituretan eragitea helburu izan duen praktika
soziolinguistiko eraldatzaile baten ondoren emandakoa izan den iritzia
izanik, oso dela baloratzekoa.

Baikortasun hori galdetegietako hainbat galderari emandako erantzun-
netan ikus daiteke (adibidez, %84ak esperientzia baloratzeko eskainitako
erantzun posible jasoena, “Oso ongi” eman zioten) eta testigantzen ko-
adernoan ere bai, adibidez, ahobizi ia guztiek (%87ak) hurrengo batean
berri ere horrelako erronka batean parte hartzeko azaldutako gogoan.

Ez da baztertzekoa, ezta ere, bereziki aldizkari honen irakurle posibleak
gogoan izanik, antolatzaileek eurek ekimena 8,7ko balorazio orokorra-
rekin puntuatu zutela jakitea, eta arrazoi nagusien artean, “bide berria
ireki izanaren sentrazioa, bai herrirako eta bai Euskal Herrirako” eta
“Gogo-pizgarri suertatu izana” aipatu zituztela gogoraraztea.

Zenbakitan eman ezin bada ere, koadernoari lotuta, merezi du azpima-
rratzea erronkak iraun zuen 6 asteetan, ostiralero egindako txanda al-
daketen hitzorduak ekimenari (eta noski ikerketari) emandakoa. Has-

teko, antolamenduaren ikuspegitik, luzea zen epean (40 egun) gaia, eta pertsonak, bizirik eta komunikatiboki aktibo mantentzea ondorioztatu zuen (komunikazio-lan handia eginez).

Beste alde batetik, ahobizi bakoitzaren ikuspegitik, esperimentu gune eta une antolatu baten hitzordua izan zen jende askoren kasuan, zeinean, dinamizatzaileek³ gidatuta, norberak astean zehar bizitutakoa kontatu, konpartitu eta ikerketarako ematen zuen (galdetegiak betez, koadernoan testigantza idazteko pentsatzen jarritz...). Esan daiteke hizkuntza-kontuetan oso ez-ohikoa den dinamika bat bizitu zutela seguruenik ahobizi askok.

Hutsune batzuk ere izan zituen, noski, ahaleginak, baina lehentasuna eman nahiko nieke sentsazio eta bizipen positibo horiei guztiei. Berezik daude ongi jasoak ahobizien testigantzetan eta argigarriak dira oso. Pello Jauregik liburuan azertuak ditu eta horietatik ondorioztatu ditu bai esperientziaren alderdi indartsuenak, zailtasun nagusiak eta ahobiziek eurek egindako proposamenak (78-116 orrialdeak).

PEDAGOGIA GEHIAGO

I Horretan utzi nahi ez eta, testigantza horiek oinarri, euskara-zerbitzuak “Armairutik atera ginenekoa” liburuxka argitaratu berri du, hizkuntza-ohiturak astintzearen gaineko pedagogia soziala egiten jarraitzeko asmoarekin.

Hizkuntzaren armairutik ateratzea banan-banan egiteko zeregina izango da seguruenik. Hala ere, ekimen honetan ikusi dugu errazagoa dela armairutik ateratzea armairutik kanpo baldintza sozial egokiak daudenean. Horrek, gauzatu ahal izateko, gauza asko eskatzen ditu eta bat behintzat, diskurtso eta praktika berrien pedagogia egiten jarraitzea da. Luze eta zabal. Diskurtsoa eta praktika zabalduz, espazioan (ahalik eta bazter gehienetan) eta denboran (ez da kanpaina batek irauliko duen kontu bat).

Idea horri lotuz, liburuxka honen helburua izan da, testigantzetatik abiatuta Pello Jauregik liburuan jasotako hainbat kontu modu errazagoan eta didaktikoagoan ematea eta, eskematikoki esanda, ikasgai hauek daude jasota:

a) Alderdi indartsuak

“Gogo lokartua esnatu dit”

Hizkuntza ohitura batek, edozein ohiturak bezala, oso sustrai sakonak ditu pertsona baten jokabide automatiko eta inkontzientean. Horregatik, askotan,

**Badirudi mezua
errazago iritsi
dela
ahobiziengana
belarriprestengana
baino. [...] Belarriprest
figura eta haren
egitekoa berria
da euskalgintzan.**

**Belarripresten
euskararen
erabilera
%90ekoa izan da
ahobiziek
euskaraz egin
dietenean. [...]
Eta hori horrela
gertatu da
belarripresten
%91,6k euskaraz
“ongi” edo
“nahiko ongi”
hitz egiteko
gaitasuna
zuelako.**

kanpotik etorri behar izaten du norberarentzat beharrezkoa den bultzadak, indarrak, ekimenak eta babesak.

“Talde sentitu gara”

Erronkak GU subjektu kolektibo zabal, bizi, kopurutsu, indartsu, ikusgarri eta erakargarria sortu du. Ahobiziek eta belarriprestek, eginkizuna nork bere eremuan gauzatu behar bazuten ere, hori egitean, funtsean ez ziren egile bakanak, baizik eta ekimen sozial indartsu baten kide, ordezkari edo parte har-tzaileak.

“Txaparen eragina”

Jende gehienarentzat txapa eramatea harrotasun, indar, ausardi eta babes emaile bihurtu da. Txaparen bidez, ekimen kolektibo indartsu eta handi baten parte sentitzeak indarra ematen zion haietako bakoitzari, erronkaren zailtasunei aurre egiteko hauspoa.

Belarripresten kasuan, txapa eramateak, ulertzeko gaitasuna duela adierazten du. Eta ulertzeko gaitasunak balio askatzailea du, euskarazko komunikazioaren atea zabaltzeko giltza baitu berekin. Ulermena giltza izateak ez du esan nahi, ordea, ezinbestean atea zabalduko denik. Baina ulermenaren giltzarik gabe, ezin aterik ireki.

“Konturatu naiz...”

Ez datoz beti bat hautemateak eta jokaerak. Ustez bakarrik ezagutzen ditugu geure buruaren motiboak eta ezaugarriak. Horregatik, jokaera berri bati heltzen diogun arte, ez dakigu zinez hari heltzeko gauza izango garen ala ez, zer ahultasun eta zer indar-gune aurkituko ditugun geure baitan edota besteen jokaeran.

“Ze indarra ematen duen hizkuntzari eustekak!”

Agian, ahobizi batzuek egin duten aurkikuntzarik handienetakoa izan da ele biko elkarriketen balio eraldatzailea. Gako nagusietako baten aurrean gaude. Batzuentzat ele biko elkarriketak izan dira zailtasunik agerikoenak. Zorionez, beste batzuentzat esperientziak balio izan du konturatzeko ele biko elkarriketei eusteko gauza direla, eta jokaera horren emaitzak, besteen euskararen erabilera sustatzeko, oso nabarmenak direla.

“Jo! Hasieran... baina gero... Hemendik aurrera”

Definizioz, ohitura bat aldatzea, eta haren barruan hizkuntza ohitura bat ere bai, jakina, erosotasun-eremutik ateratzea da. Ohitura berria finkatzerakoan,

itzuli egiten gara erosotasun-eremu batera. Baina deseroso eta arrotza izan ohi da bi ohituren arteko iraganbidea. Prozesuak aurrera egiten du, ordea, subjektuak jokoan jarritako bitartekoak baliagarri suertatu direnean bidean agerturiko zailtasunak gainditzeko. Prozesu arrakastatsu bat lorpen txiki ugari beterik dago. Lorpen txiki horiek etengabe pizten diote ari den subjektuari gogoa, auto-estimua eta motibazioa.

Ahobizi askok inflexio puntu bezala bizi izan du prozesu labur hau, eta gogotsu agertzen da berriro ere jokabide berari heltzeko. Ahobizi askok “hemendik aurrera” esapidearen bidez adierazi du inflexio ideia hau.

***Ez dakigu
ekimenak nola
eta zein
neurritan
lagundu duen,
lagundu badu,
herrian
euskararen
erabilera
suspertzen.***

b) Zailtasunak

- “Lagunak erdaraz eta nik euskaraz: posible ote?”

Egia esan, ziurgabetasun ikaragarria sortzen du ez jakiteak solaskideak ulertu duen ala ez. Horregatik, hizkuntza ohitura aldaketa bati ekiterakoan, funtsezkoa da komunikazioa ziurtatu beharra. Nolanahi ere, gure hizkuntza-portaera elastikoa izatea komeni da, batzuetan tenkatuz (euskarari eutsiz) eta beste batzuetan lasaituz (gaztelaniaz eginez ezinbestekoa denean), baina berriro ere euskara itzuliz. Ez dadila plastikoaren antzekoa izan, alegia, tenkatze-lasaitze horretan ez dadila euskararako joera lasaitu eta gaztelanian gogortu.

- “Arroztasunetik harroztasunera”

Arrotza izaten da, nola ez bada, beti modu batean egiten dena bat-batean beste modu batez egitea. Jokaera berria den bitartean arrotza da, baina, behin eta berriz egitearen ondorioz ohiko eta natural bihurtzen da. Ez dago misteriorik horretan. Horren aurrean, batzuek onartu egiten dute arroztasun sentsazioa pasa beharreko egoera dela beste hizkuntza ohitura berrira iritsi ahal izateko, eta normalean gainditu egiten dute. Harro sentitzeko modukoa da, zalantzarik gabe.

- “Ezezagunekiko harremana”

Gehienentzat, ezezagunekiko harremana neutro edo arazorik gabea izan da, eta beste askok ustekabe politak jaso dituzte, ez baitzuten espero zenbait pertsonak euskaraz ulertzea edota hitz egitea.

- “Errespetua, edukazioa... askatu beharreko korapiloa”

Batzuek, kanpoan baino gehiago, barrenean sumatu dituzte zailtasunak. Alegia, ezezagunen erantzun desatseginak baino gehiago, norbere beldurrek eragotzi diela euskaraz egitea. Eta errespetuari dagokionez, gure ustez, errespetua solaskidea ulertzeko gaitasuna izatetik hasten da; hori da abiapuntua. Izan ere,

**Antolatzaileek
eurek ekimena
8,7ko balorazio
orokorrarekin
puntuatu zuten,
eta arrazoi
nagusien artean,
"bide berria ireki
izanaren
sentsazioa, bai
herrirako eta bai
Euskal
Herrirako" eta
"Gogo-pizgarri
suertatu izana"
aipatu zituzten.**

horrela bakarrik errespetatu daiteke bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egiteko eskubidea.

GOGOETA BATZUK

I

1. Euskalgintzaren azken aldiko hausnarketetako bat da bidegurutze (errotonda?) batean gaudela/gabiltzala eta egun egiten ari garena, behintzat berrikusi egin behar dugula. Orain arteko tresneriarekin gauza batzuk lortu ditugu eta beste batzuk galdu. Seguruenik paradigma aldaketa bat ere abian jarri beharrekoa izango da. Eta hitz handi horiek guztiak mahai gainean izanik, bistakoa da lan-ildo honek ez dituela aje denak konponduko.

Edozein kasutan, uste dut oso ongi egokituta datorrela euskal gizarteak egun dituen ezaugarrietara eta bereziki urte luzez euskarazko gaitasuna hedatzen egin dugun inbertsioa erabileran kapitalizatzen laguntzeko. Bereziki ulermena (euskaldunak + ia euskaldunak) gehitzeko egin den ahalegin historikoa (ikus Argia aldizkariak argitaratutako ulermenaren mapa, 2.543 zenbakia, 2017/04/26) erabileran kanalizatzen laguntzeko giltza nagusietako bat izan daiteke.

Mus karta-jokoarekin alderaketa egingo bagenu, esango genuke, hasteko, joko-arauak aldatzeko proposamena egiten duela, jokoan parte hartzeko heldua (16 urte) izan behar den heinean eta karta nagusiak ahobiziak eta belarriprestak diren heinean. Karta gehiago ere badira, baina balio (eta errespetu) gutxiago dute. Bakoitzaren jokoa askea da (nahi den hizkuntza erabiltzea) eta horretarako, bakoitzak nahi duena esateko, besteak dioena ulertu beharra dago (hori da hain justu errespetua).

2. "Egia estilo"ko esperientzietatik Euskaraldira eman den jauzia, oraindik gauzatzeke baldin badago ere, azpimarratzekoa da, hain epe laburrean, kontzeptualki eta harremanetan, eman diren aldaketak garrantzitsuak izan baitira.

Udallerri-mailan egin diren esperientzia guztiak ez dira berdinak izan, baina esperientziaren oin bat euskara-elkarte bat edo euskararen aldeko gizarte eragile bat izan da eta uste dut oso izan dela mesedegarria bai ekintzarentzat berarentzat eragile horrek eman-dakoa, bai alderantziz, ekintzak berak gizarte eragile horri eman-dakoa, hiztunak aktibatze bide berriak urratzeari dagokionean, behintzat.

Beste oina udala izan da kasu gehienetan. Udalei dagokienean, berriz, esperientziak ere desberdinak dira, baina uste dut onuragarria izan dela oso erantzukizuna hartzea eta horrelako dinamika batean buru-belarri aritzea.

Are gehiago, eta aurrera begira, kontuan hartzekoa da 2016an onetsi zen Udal Legeak (2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak) udalen posizio instituzionala indartu eta erantzukizuna gehitzen diela. Askoz azterketa (eta garapen) sakonagoa eskatzen du gaiak (eta legeak berak ere bai), baina balio bezate adierazi nahi denaren adibidetzat legearen hitzaurreko paragrafo hauek diotena:

“...Horregatik, toki-administrazioak etsenplu eta gidari izan behar du euskara erabat berreskuratzearen arloan, eta horretarako beharrezkoa da administrazio horrek apustu argi bat egitea bere jarduna gero eta gehiago euskalduntzen joateko...”

“Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana, Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik, euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratu eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz. Hala, lege honek, zeinak uneoro errespetatzen baitu toki-araubidea, aldeztu du, kasuan kasuko toki-erakundeak hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea. Era berean, modu berariazko, funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek eskumenak edukitzea euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, bai «ad extra», hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan, bai «ad intra», hau da, toki-erakundean bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin.”

Gehiago ere esan daiteke, baina lan gehiago izango dugu esaten baino, esaten duena betetzen. Aurrerapauso handiak daude egiteko, bai udal barruetan (hor ere ulermena orokortzen den heinean ahobizi eta belarriprestak erabilerarako joko arauak onartu eta elkarri aitortuz gero, aurrerapauso asko eman daitezke), bai udalaz kanpo, udalerrian gauzatzen diren espazio soziofuntzionalak euskalduntzeko garatu beharreko hizkuntza-politikan. Aurrerapausuak bai mamiari eta bai elkarrekin aritzeko moduei dagokienez:

“7.4. artikulua: udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduerak planak onartuz.

**Testigantza
horiek oinarri,
euskara-
zerbitzuak
“Armairutik
atera ginenekoa”
liburuxka
argitaratu berri
du, hizkuntza-
ohiturak
astintzearen
gaineko
pedagogia soziala
egiten jarraitzeko
asmoarekin.**

***“Egia estilo”ko
esperientzietatik
Euskaraldira
eman den jautzia,
oraindik
gauzatzeke
baldin badago
ere,
azpimarratzekoa
da, hain epe
laburrean,
kontzeptualki eta
harremanetan,
eman diren
aldaketak
garrantzitsuak
izan baitira.***

7.5 artikulua: toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.”

Museko karta-jokoa ere gehienetan bikoteka denez, han bezala hemen, garrantzitsua da ekipoa osatzea eta elkar ondo ulertzea, keinu eta guzti.

3. “Egia estilo”ko esperientzia hauek pertsonen borondatean oinarritutako ekimenak dira (*“txikira” jokatzeko dela esango luke norbaitek eta egia da ez direla partida irabazteko karta onenak, baina gure eskura eta momentuz dauzkagunak, horiek dira*). Hizkuntza-ohituren aldaketetan neurri sozialek izugarrizko garrantzia dute. Eta oraindik diseinu fasean dagoela esan beharko badugu ere, egia da baita ere pertsonen borondateari neurri sozialak gehitzea Euskaraldiaren lan-ildo honen bigarren pareta dela. Aurreikusia 2019rako dago, baina aurreikusia badago.

Paretik parera alde handia dago, baina txikia eta dupleak bilduz gero, partidak beste traza bat har dezake.

4. Neurri sozialez ari garela, Udal Legeak ere aukera handiak zabaltzen dizkio erabilera lehenestera eta aktibatzerazuzendutako lan-ildo berri honi, bai zerbitzu-hizkuntzan, bai lan-hizkuntzan ere. Mundua nola doan, eta munduarekin gure hizkuntza-inertziak nola doazen ikusita, luzera, partida irabazteko, seguruenik beste karta handi (*errege, zaldi, txoteko...*) horietako batzuk, behintzat, beharko ditugu. Ea eskuratzen ditugun!

Karta handiez dihardugula, Hermes aldizkarian argitaratutako artikulua batean nioen eskuartearen dugun gaia oso dela handia eta estatus gaia izateaz gain, estatu gaia (karta) ere badela, izatera iritsi behar duela. Alegia, gai honek euskalgintzaren eremutik haratago joan behar duela. Iritsi behar duela herritar kopuru handiagoetara eta iritsi behar duela, euskalgintzatik haratago, botere-gune handiagoe-tara. Aldizkari honen irakurleak badaki, ordea, Irlanda hor dagoela eta, handirako kartak eskutan izan arren, partida ihes egiten ari zaiola. Guk ere, beste muturreko egoerari erreparatuz, luzera, badakigu ezingo dugula nahikoa indarberritu euskara, adibidez, Iparraldean bertan dugun lege-babesarekin soilik. Hala ere, bitartean, karta-jokoak darraien bitartean, eskutan ditugun kartak dira ondo jokatu beharrekoak, eta ahal bada, eta ahal den heinean, jokoaz gozatuz. ●

OHARRAK

1. Zortzikotea, zortzi lagunez osaturiko taldea da eta Euskararen Maratoiaren **jendaurreko dinamizazioaz** arduratzen da. Maratoiaren bihotza eta erreferentzia nagusitzat har daiteke. Beraiek koordinatzen, lotzen, bizitzen eta askotan pentsatu ere egiten dituzte 40 orduetan zehar oholdza gainean antolatzen diren ehunka ikuskizunak. Aurten, Maratoiari berez loturiko eginkizunez gain, ardura hartu dute herri erronkaren mezuak etengabe zabaltzeko, jakinarazteko eta ulertarazteko. Haien ezaugarri nagusietako bat da gaitasuna dutela mezuak era afektibo eta alaitsuan jendeari helarazteko. Hona hemen zortzi kideak: Rebeka Garzes, Oihana Fu Otaegi, Enara Ieregi, Joxe Mari Agirretxe, Joxe Mari Azkonobieta, Estitxu Garmendia, Agustín Mujika eta Mikel Izquierdo.
2. Gogoratu behar da jendeak aurrena izena eman behar zuela, eta ondoren, erronka has-teko unean, txaparen bila hurbildu behar zuela antolatzaileek esandako tokietara.
3. 10 kide aritu ziren dinamizatzaile lanetan: Asier Huegun, Inma Muñoa, Naiara Mujika, Kontxesi Berrio-Otxoa, Pello Jauregi, Izaskun Tolosa, Garazi Belaunzaran, Leire Santamaria, Marifer Gorostiza eta Aitor Unanue.

ERREFERENTZIAK

Argia aldizkaria. "Egia estiloa" ren inguruan landutako saila.

<http://www.argia.eus>

Arruti Landa, Īñaki (2017). "Bizkaia maite". Hermes aldizkaria, 57.
zenbakia. Sabino Arana fundazioa."

Euskaraldia ren weba: <https://euskaraldia.eus>

Eusko legebiltzarra (2016). 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei
buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2016/04/14).

Hernández García, Jone Miren. (2007). Euskara, comunidad e identidad:
Elementos de transmisión, elementos de transgresión. Madrid: Mi-nisterio de Cultura (447-461).

Jauregi Etxaniz, Pello eta Suberbiola Unanue, Pablo (2015). Aldahitz
ikerketa 2014 - Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa
lan munduan. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.

Jauregi Etxaniz, Pello eta Suberbiola Unanue, Pablo (2017). Aldahitz
ikerketa. Eusle metodologia: esperientzien emaitzak 2013-2016. So-ziolinguistika Klusterra. Andoain.

Jauregi Etxaniz, Pello (2017). "Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz.
Herri erronka: ilkerketaren emaitzak" Lasarte-Oriako Udala eta Gi-puzkoako Foru Aldundia. Bertsio digitala: (http://administrazioa.lasarte-oria.eus/ficherosFTP/eu/Aldizkariak/Irten_armairutik/in-dex.html#p=1)

Lasarte-Oriako Udala, euskara-zerbitzua (2016). "Euskararen 9. Maratoia.
Irten armairutik! 40 egun euskaraz!" DVDa. Lasarte-Oriako Udala.

Lasarte-Oriako Udala, euskara-zerbitzua (2016). "Armairuaren zirrikututik.
Lasarte-Oriako euskalgintza 1966-2016" DVDa. Lasarte-Oriako Udala.

Lasarte-Oriako Udala, euskara-zerbitzua (2018). "Armairutik atera gi-nenekoa". Lasarte-Oriako Udala.

**"Egia estilo"ko
esperientzia
hauek pertsonen
borondatean
oinarritutako
ekimenak dira.
[...] Eta oraindik
diseinu fasean
dagoela esan
beharko badugu
ere, egia da baita
ere pertsonen
borondateari
neurri sozialak
gehitzea lan-ildo
honen bigarren
parea dela**

- Sanchez Carrión, J.M. (1989). "Los espacios de la desigualdad: patología social y conciencia lingüística", in Hezkuntza hizkuntza (1990). EHU eta Eibarko Udala (13-51).
- Suay, F. i Sanginés, G. (2010). Sortir de l'armari lingüístic. Barcelona. Angle editorial.
- Udaltop topaketak, 2017ko edizioa: Aterako gara euskal herritarrok hizkuntzaren armairutik? Nola uztartu gizartearen aktibazioa eta hizkuntza-ohituren aldaketa? <http://www.udaltop.eus>
- Unanue Zudupe, Aitor (2006). Administrazioako atal elebidunetako langileen hizkuntza ohituretan eragiteko plana. Lasarte-Oria. Lasarte-Oriako Udala.
- Zubiria Kamino, Pello (2017). "Zenbatek ulertzen du euskara? 'Egia ereduak' dakarren iraultzak badu mapa berria". Argia aldizkaria, 2.543 zenbakia (2017/04/26).

ARGIA



**Zer emateko
prest zaude?**

**Eta zer jaso
nahi duzu?**

INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

4

Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa

Arrate Illaro Etxebarria

Topagunea

arrate@topagunea.eus

Iker Martinez de Lagos Menique

Topagunea

iker@topagunea.eus

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. 2018ko azaroaren 23a eta abenduaren 3aren artean Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimena egingo da Euskal Herri osoan aldi berean, hizkuntza-ohiturak aldatu eta inertziak apurtzea helburu duen ariketa soziala. Ekimena 2016tik aurrera herriz-herriz hedatzen joan diren aktibazio sozialeko esperientzietan du jatorria eta Eusle metodologian oinarria. Artikuluan ekimenaren aurrekariak aztertzen dira, berau posible egin duten faktoreak aletuz. Gainera, Euskaraldiaren helburu, ezaugarri eta xede-taldeen xehetasunak azaltzen dira, prestaketa prozesuan kontuan hartzen ari diren eginkizunak eta parte hartzen ari diren eragileen berri emanez. Azkenik, Euskaraldiaren oinarriak diren aktibazioa eta hizkuntza-ohituren aldaketa aztertzen dira. • *Hitz gakoak:* erabilera, hizkuntza-ohiturak, inertziak, aktibazioa, ulermena, aldaketa.

Abstract. Between November 23rd and December 3 of 2018, Euskaraldia (literally, Basque period, Basque time) : 11 days in Basque will be carried out throughout the Basque Country, a social exercise aimed at changing language habits and breaking the inertia involved. The initiative is based on social activation experiences that have been spreading throughout the country since 2016 and which is the basis of Eusle's methodology. The article explores the precedents of the initiative by detailing the factors that made it possible. In addition, the details of the objectives, characteristics and target groups of Euskaraldia are explained, by providing information about the tasks undertaken in the preparation process and those participating. Finally, we shall analyze the basis for activating Basque usage by Euskaraldia and the change in language habits. • *Key words:* use, language habits, inertia, activation, comprehension, change.

SARRERA

I

Hizkuntza-ohiturak aldatu eta inertziak apurtzeko ekimen modura aurkeztu dugu, euskalgintzako hainbat eragilek eta Euskal Herriko eremu administratibo guztietako erakundeek, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den Euskaraldia. Hizkuntza praktika eraldatzaileak bultzatzearekin batera, euskaltzaleen aktibazioa da ekimenaren oinarria. Ariketa sozial handi bat izatea nahi dugu, Euskal Herri osoan herritarrak beren hizkuntza portaeren azterketa egitera bultzatu nahi dituen, era guztietako inertziak apurtzeko helburua duena eta ikerketa bere baitan izango duena.

Nondik gatozen

Sei urte, gutxienez, pasa dira euskara eta euskalgintza bidegurutze edo biribilgune baten aurrean zeudela zabaltzen hasi zenetik. Lehenago ere izan ziren antzerako iritzi eta gogoetak, baina 2011ko inkesta soziolinguistikoa eta kale erabileraren neurketaren emaitzak aurkezterakoan zabaldu ziren asko irudiok euskalgintzako jardunean. Orduko txostenetan irakur genitzake *“duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta”* edo *“egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilerak goia jo du”* moduko esaldiak, euskararen normalizazio prozesuan ziklo baten bukaera iragarri eta gogoeta beharra bistartzen zuten esaldiak.

Ordurako Euskaltzaleen Topaguneak bere baitan biltzen duen mugimenduak egin zuen bere lehen Kongresua eta onartua zuen *“XXI. Mendeko euskaldunon elkartek. Oinarriparak”* txostena (2011ko otsaila). Euskara elkarten mugimenduaren hausnarketa horretan *“egin eta eragin”*, *“motibazioa”*, *“nahia elikatzea”*, *“portaera asertiboak”*, *“hiztunen planoa berreskuratzea”*, *“ezagutza zientifikoa”* eta *“eragile arteko lan-kidetzak”* moduko kontzeptuek garrantzia handia izan zuten. Horregatik, 2011ko ikerketen datuak ezagutzerakoan, ziklo aldaketarako prestatu beharraz eta ziklo berrirako klabe nagusiez egin genuen ekarpena Topagunetik (Martínez de Lagos, 2012). Ondoko eginkizunak aipatu genituen: estrategien berrikusketa, ikerketan oinarritutako etorkizuneko bisio partekatua sortzea, estrategia kuantitatiboetatik kualitatiboagoetara pasatzea (motibazioa, harrotasuna, portaera asertiboak, ardura), erdal komunitateekin lan egin beharra eta eragileen arteko harremanen berrikusketa.

Ez dago sobera, *Euskaraldia* aurkeztea helburu duen artikulu honetan, orain arte aipatu ditugunak gogoratu eta azpimarratzea, 2012 urtetik

***Sei urte,
gutxienez, pasa
dira euskara eta
euskalgintza
bidegurutze edo
biribilgune baten
aurrean zeudela
zabaltzen hasi
zenetik.***

**“Eguno
baldintza
soziolinguisti-
koekin
euskararen
erabilerak goia jo
du” moduko
esaldiak,
euskararen
normalizazio
prozesuan ziklo
baten bukaera
iragarri eta
gogoeta beharra
bistaratzeko zuten
esaldiak.**

Euskaraldia antolatzen hasi garenera arte, aipatutako dokumentu eta artikuluetan zehaztutako oinarriak izan baitira urteotan guztietan gidatu gaituztenak. Urteotako ibilbidean ondokoak izan dira Topagunearen egiteko nagusiak: euskaltzaleen mugimendua indartu eta biziberritzea, herrietako euskalgintza aktibatzea, mugimenduaren funtzioak berraztertzea, hiztunak ahalduentzea, ikerketa bultzatzea, diskurtsoa berritzea eta era guztietako eragileekin elkarlan dinamikak bultzatzea (euskalgintzako beste hainbat erakunde ere hausnarketa eta norabide berdinsuetan egon dira azken urteotan). Elementu horietako asko daude Euskaraldian ere.

Beste hiru iturri ere izan dira Topagunearentzat *Euskaraldiaren* oinarriak zehazteko ezinbesteko:

- Topalabe taldeak argitaratutako Berrikasi eta berrikusi hausnarketan euskararen garapen sozialerako zehaztutako zazpi zutabeetan jasotzen direnak.
- Azken hiru urteotako Topaldia jardunaldietan landutako edukiak (euskaltzaleen aktibazioaz 2016an, zubigintzaz 2017an eta diskurtsoetaz 2018an).
- Euskaraldiaren ideia 2017ko Udaltop jardunaldian aurkezteko proposamena lantzen aritu zen batzordearen ekarpena.

Ezer ez da hutsetik sortzen

Euskaraldia faktore eta esperientzia askoren gurutzaketatik sortu den ekimena da, ez da ezerezetik sortua. Hauetako batzuk aipatuko ditugu, beste asko ere badaudela jakinik:

- Giro bat da *Euskaraldiaren* aurretik egondako aktibazio ekimenak azaltzen dituen lehen faktorea: euskaltzaleen artean dagoen gauza berriak probatzeko gogoia. Euskararen ezagutza emandako urratsek kale-bizitzan eta euskaraz bizitzeko aukeretan pareko isladarik izan ez dutela ikusirik, nolabaiteko frustrazioa sortu dute euskaldungoaren zati batean. Proposamen berritzaileek lurzoru egokia aurkitu dute estrategia berri bila ari zen euskaltzalegoan.
- Gaur egun ditugun ezagutza datuek eta ulermenerako gaitasunak ere baimendu dute Euskaraldia moduko ekimenak martxan jarri ahal izatea.
- Euskaldunok ahalduentzeko eta portaera asertiboak lantzeko proposamen berriek bide oparoa egin dute azken urteotan euskaltzaleen artean, bestetik. Ferran Suay eta Gemma Sanginnes-ek sortutako TELP tailerrak (Taller d’Espai Lingüístic Personal) eta ildo beretik

landu diren bestelako proposamenak ('Zergatik ez?', 'Eusliderrak' eta antzerako tailerrak) erraz txertatu dira euskalgintzaren ohiko zirkuituetan eta hedapen handia izan dute azken urteetan. Aktibazio ekimenek tailerretako edukia modu kolektiboan lantzeko aukera eman dute.

— Euskaltzaleen mugimenduan aspaldi barneratutako "inoren zain egon gabe, sor ditzagun geuk euskaraz bizitzeko aukerak" filosofia osatuz, ahalduntzeaz feminismotik eta bestelako gizarte mugimenduetatik ikasitakoak ere kontzientzia indartu du azken urteetan. 19. Korrikako leloa ('Euskahaldundu') eta mezua ondorengo hila-beteetan martxan jarritako ekimenen inspiratzaile izan ziren.

— Lutxo Egiak, hain zuzen, ahalduntzea izan zuen oinarri modura 2015eko udan Bilbon egindako *Transitoak* performancean. Eta ondoren, Donostiako Egia auzoko euskara batzordeak, performance hura izan zuen lehen aktibazio ekimena prestatzeko eredu. Gerora, "Egia eredu" modura ezagutu dena garatzen joan da, tokian tokiko berezitasunak gehitu eta osatuz, Euskaraldira iritsi arte.

— Ikerketa da aipatu beharreko beste faktore garrantzitsuetako bat, batez ere Pello Jauregik Soziolinguistika Klusterraren eskutik zuzendutako Eusle metodologiaren bueltako Aldahitz ikerketa. Hau izan da Lasarte-Oriako 'Baietz 40' egun euskaraz herri erronkaren erreferentzia nagusia, partaideen rola zein funtzioak zehaztu eta bereiztu dituen.

— Euskaltzaleen Topagunea mugimenduaren Euskarak 365 egun dinamikak egindako ibilbidea ere izan da Euskaraldia martxan jartzeko beste faktore nabarmen bat.

— Eta azkenik, euskalgintzan eta euskararen normalizazioan ardura duten erakundeetan dagoen konplizitate berriak eraikitze gogo eta apustua ere izan da Euskaraldia martxan jartzeko faktoreetako bat. Horren erakusgarri dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskaltzaleen Topaguneak lehenik abiatutako elkarlana eta euskararen lurraldeko gainontzeko eremuetako erakundeek (Nafarroako Gobernua eta Euskal Elkargoak) zein euskalgintzako hainbat eragilek sustatzaile modura hartutako konpromisoak.

Euskaraldia ezin daiteke aurretik aipatutako faktore eta esperientzia hauek gabe ulertu. Faktore askok eragin duten prozesu batetatik sortu da ekimena eta herriz-herri hedatzen eta osatzen joan den esperientzia izango da.

***Euskalgintzan
eta euskararen
normalizazioan
ardura duten
erakundeetan
dagoen
konplizitate
berriak
eraikitze gogo
eta apustua ere
izan da
Euskaraldia
martxan jartzeko
faktoreetako bat.***

***Euskaldunok
ahalduntzeko eta
portaera
asertiboak
lantzeko
proposamen
berriek bide
oparoa egin dute
azken urteotan
euskaltzaleen
artean. Ferran
Suay eta Gemma
Sanginnes-ek
sortutako TELP
tailerrak erraz
txertatu dira
euskalgintzaren
ohiko
zirkuituetan eta
hedapen handia
izan dute azken
urteetan.***

AKTIBAZIOA: NORBANAKOAREN ETA KOLEKTIBOAREN ARTEAN JOAN-ETORRIAN

I Hizkuntza-ohituren aldaketa eta aktibazioa. Horiek dira Euskaraldiaren eta aurrekari izan dituen ekimen guztien oinarri nagusiak. Hizkuntza-ohiturena hizkuntza hautua baldintzatzen duen eta, beraz, erabileran eragiten duen faktore garrantzitsuetako bat da. Aktibazioa berriz, portaeran eragiteko beharrezkoa den aurre-baldintza da, pertsonaren edo kolektiboaren urratsa edo mugimendua eragiten duena.

Euskalgintzako eragileen artean azken urteotan aktibazioa izan da hitz gakoetako bat. Euskalgintza aktibatzeke edo berraktibatzeke beharraz asko hitz egin eta idatzi da. Aktibatzea talde edo kolektiboari lotuta egon da gehienetan, beraz, gogoeta horietan. Euskaraldian bi geruza eman nahi zaizkio aktibazioari, azken bi urteetan herriz-herri zabaldu diren ekimenetan egin den modura.

Norbanakoaren mailan, hizkuntza-ohitura eta inertzien aldaketa erabaki pertsonal batetik abiatzen da, bakoitzak aldaketa egiteko hartzen duen erabakitik. Baina erabaki edo konpromiso horrek gauzapena ere behar du benetako aktibazio bihurtzeko eta horretarako, beste elementu garrantzitsu bat behar du norbanako bakoitzak: tresnak behar ditu urratsa eman eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Aktibazioa konpromisotik abiatzen da beraz, baina ahalduntzea (tresnak izatea, prestatuta egotea) behar-beharrezkoa da guztiz gauzatzeko aldaketa.

Euskaraldiaren aurkezpenetan sarri aipatu izan dugu konpromisoetatik lorpenetara pasatzeko garaia dela, eta aktibazioak ideia hori jasotzen du barruan: mugimendua sortzeko (hizkuntza ohitura aldatzeko, urratsa emateko, inertziak apurtzeko) ez da nahikoa konpromisoa, norberaren burua prestatu eta mugimendua eragin behar da.

Hizkuntza-ohituren aldaketa norbanakoen arteko harremanean gauzatzen bada ere, eta beraz, norbanakoen erabaki eta ekimenetik sortu badaiteke ere, kolektiboaren babesarekin egingarriagoa da. Beraz, aktibazioa maila kolektiboan ere landuko da Euskaraldian. Orain arte egin diren ekimen guztietan azpimarratu da ariketa kolektiboa izateak eta ekimenaren ikurrak erabiltzeak erraztu egin duela parte hartzaile bakoitzaren portaera eraldatzailea. Lasarte-Orian egindako ikerketan jasotako bizipenetan behin baino gehiagotan agertzen den ideia da hau (Jauregi, 2018, 81-83)

Bigarren norabide bat ere badu maila kolektiboko aktibazioak. Herriz-herri ilusio berrituz zabaltzen ari den ekimena da Euskaraldia (aurretik

horrela hedatu dira orain arteko esperientzia guztiak ere) eta euskaltzale aktiboen mugimenduari arnas berria ekar dakioke herri askotan. Orain arte egin diren esperientzietan parte hartu duen lagun kopurua oso kontuan hartzekoa da, baita hauen ezaugarriak ere: adina, hizkuntza-gaitasuna,... (Trenor, I., 2017,). Han-hemen Euskaraldia aurkezteko egi-ten ari diren saioetan eta, nabarmentzen ari da ekimenari buruzko ja-kin-minarekin jende asko ari dela hurbiltzen eta herrietako batzordeetan parte hartzea zabala izaten ari dela.

Aktibaziorako tresna ilusionagarriak eskainita, parte hartzeko gogo- badagoela argi ikusten ari da.

EUSKARALDIA, HERRITARRAK AKTIBATUTA HIZKUNTZA-OHITURAK ALDATZEKO ARIKETA

I
Aipatutako aurrekari guztiok kontuan hartuta, zer izango da 2018ko Euskaraldia? Euskaltzaleen mugimenduak azken bost urteetan martxan izan duen *Euskarak 365 egun* lan ildoak herritarrak aktibatu eta euska- raren erabilera areagotzea du xede. Egiteko horren baitan kokatzen da Euskaraldia, azken bi urteetako aktibazio ekimenetan oinarrituta osatu den proposamena. Lehen edizioa 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean izango da, *11 egun euskaraz* leloa izango duena.

Aurreko atalean azaldutakoak gogora ekarriz: herritarrak aktibatuta, hiz- kuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzea da Euskaraldia ekimenaren 2018ko helburu nagusia. Pertsonen urratsak sustatzeko lan ho- rretan, bi gako nabarmendu daitezke. Alde batetik, hizkuntza-ohiturak al- datzeko, herritarren eremu naturaletan eragin nahi dugu: lagunekin, seni- deekin, lankide edo ikaskideekin, zein ezagunekin. Pello Jauregik Lasarteko *Irten Armairutik* ekimenaren oinarri teorikoetan jasotzen duenez, “*ohiko ha- rremanetan hizkuntza-ohiturak iraultzea da jardun soziolinguistikoaren gakoa*” (Jauregi, 2018). Izan ere, finkatuta dauden harremanak dira egunerokoan nagusi, eta (gutxiengoa diren) harreman berrietako hizkuntza joerek gertu- koen arteko geroko jokaerak baldintzatzen dituzte. Hori dela eta, Euskaraldia ez dator euskaraz bizitzeko espazio berriak sortzera (beste kasu batzuetan beharrezkoak direnak), dauden harreman eta espazioetan eragitera baizik.

Erabilera sustatzeko eta gertukoekin hizkuntza-ohiturak aldatzeko, baina, pertsonak motibatu eta ahaldunduko dituen ekimena ezinbeste- koa da. Eta badirudi azken urteetan Lasarte-Orian, Donostiako Egia auzoan, Agurainen, Lizarran eta beste zenbait herritan sortu den olatua ari dela handitu eta zabaltzen.

**Erabilera
sustatzeko eta
gertukoekin
hizkuntza-
ohiturak
aldatzeko,
pertsonak
motibatu eta
ahaldunduko
dituen ekimena
ezinbestekoa da.**

**Hizkuntza-
ohiturena
hizkuntza
hautuan eta
erabileran
eragiten duen
faktore
garrantzitsuetako
bat da.
Aktibazioa
berriz, portaeran
eragiteko
beharrezkoa den
aurre-baldintza
da, pertsonaren
edo
kolektiboaren
urratsa edo
mugimendua
eragiten duena.**

Euskaraldiak baditu bestelako helburuak ere. Besteak beste, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea, praktika linguistikoak erraztuko dituzten neurriak sustatu eta herritar euskaldunak martxan jar ditzaten. Ekimena herrian garatzea erabaki eta elkartu diren euskaltzaleen dozenaka batzorde berri ikusten ari gara azken hilabeteetan; izan dadila, bada, elkarlanean aritu eta saretzeko aitzakia. Eta, posible bada, balia dezagun aukera kide berriak euskaltzale antolatuen mugimendura ilusioz gerturatu eta bestelako esparrutan ari diren pertsonak aliatzeko. Era berean, herrietan sortzen ari den mugimendu hori edukiz eta praktika berriz janztea lagungarria izango da, eta prestakuntza eskaintza zabala antolatzen ari gara. Horretarako, BAM ekimeneko esperientzia zabaltzea interesgarria da: parte hartzaileen herenak jaso zuen *ahobizi* eta *belarri-prestentzako* sortutako tailerra (BAM, 2018).

Jakina da, ordea, pertsonen euskaraz aritzeko ahaleginak baldintza egoiak behar dituela. Lantokian aritzen gara hizketan, kiroldegian zein medikuaren kontsultan. Beraz, herritarren urratsekin batera, era guztietako entitateek euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten babes neurriak hartzea eta oztopo diren egoerak arintzea eta bideratzea beharrezkoa da. Horregatik, Euskaraldia ekimenak pertsonak eta entitateak ditu ardatz, biak. Eta, entitateen atzean pertsonak daudenez, batzuk hasiak dira, ekimenarekin bat eginda, erabilera erraztuko dituzten neurriak lantzen.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra gertatuko dena ariketa soziala izango da. Inertziak apurtu eta ohiturak aldatzeko praktika kolektiboa egingo dute izena ematen duten herritarrek, eta saiakera horrek badu aurrera begirako asmoa: ekimenetik abiatuta emango diren urrats berriak eta sortuko diren euskarazko harremanak ekimenaren ostean mantentzea. Entitateei dago-kienez, hamaika egunetarako neurri bereziak definitu ordeztu, emankorragoa izango da hartzen dituzte neurriak, txikiak izanda ere, hamabigarren egunetik aurrera mantentzea. Izan ere, Euskaraldia ez da kanpaina bat izango, euskararen erabileran eragiteko eman nahi den urrats praktikoa baizik.

Goian aipatutako helburuak betetzeko, malgutasuna behar du Euskaraldiak ezaugarri. Tokian tokiko antolaketa batzordeek beren errealitate soziolinguistikoetara moldatu dute ekimena, eta horren adibide da UEMAk udalerrri euskaldunei luzatu dien proposamena (UEMA, 2018). Edonola ere, aurreko urteetako aktibazio ekimenek erakutsi dute oinarria egokia dela euskararen erabilera handiagoa zein txikiagoa den eremuentzat. Azken finean, ezagutza eta erabileraren arteko aldea dagoen leku guztietan da aplikagarria. Kontua bakoitzaren uneko abiapuntutik aurrera pausoak ematea da, konparaketarik egin gabe.

PARTAIDEAK: BELARRIPREST ETA AHOBIZI

I

Orain arte ezkutuan zegoen figura bat eman zuten ezagutzera Lasarte-Oriako Irten Armairutik ekimenean: *belarriprest*. Kideari euskaraz aritzeko gonbitea egiten dion pertsona da *belarriprest*, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren. Izan liteke ulertu bai baina euskaraz hitz egiteko gaitasunik edo konfiantzarik ez duen herritarra; eta izan liteke euskaraz bizi nahi dutenen eskubideak errespetatu nahi dituen kidea, erdaraz eroso aritzen dena. Arrazoia edo egoera edozein dela ere, hizkuntza ulertzen du *belarriprest* denak.

“Ulermenaren balio askatzailea” (Jauregi, 2018) da lasartearrek baliatu zuten uste teoriko nagusietako bat, Eusle metodologia abiapuntu izan zuena, eta orain Euskaraldia elikatzen duena. Eta honek ahalbidetzen du gero aipatuko dugun *txip* aldaketa: ondoko kideak ulertzea da norberak euskaraz egiteko baldintza bakarra.

Argiak Aztikerren laguntzarekin egin eta argitaratutako ulermenaren mapak¹ indar handia eman dio uste horri. Herriz herri euskara ulertzeko gai den 16 urtez gorako herritarren datuek erakusten dute uste baino gehiago egin dezakegula euskaraz, uste baino gehiagorekin, kontuan izanda, gainera, eguneko elkarrizketa asko oso laburrak direla.

Belarriprestarena ezkutuan egon den figura dela diogu, kasu askotan ikusezina izan baita euskara ulertu baina egiten ez duen pertsona hori. Orain arteko aktibazio ekimenetan parte hartutako zenbait kidek aitortu dute harriuraz hartu dutela hau, hori eta hura beraiei ulertzeko gai izatea.

Ahobizi perfila, berriz, euskaltzale aktiboek bete izan dute. Ulertzen duten guztiei euskaraz egiten dien pertsona da *ahobizi*, ezezagunei ere euskaraz egiten diena (lehen hitzak, gutxienez). Ekimen bateratu eta deigarri baten bidez, orain arte aktiboak izan diren horien multzoa handitzea du egiteko *Euskaraldiak*. Hain zuzen, ulermenaren balioa baliatuko bada, pertsona batzuek hitz egiteko urratsa eman dutelako izango da; “*mintzamenaren balio gauzatzailea*” esan dio Pello Jauregik (2018).

Aipatu bezala, *ahobizi* izateak ezezagunekin lehen hitza euskaraz egitea eskatzen du. Zenbait eremutan jokaera urratzailea da hori, *estres linguistikoa* eragiten duena. Baina jakina da bi pertsonaren artean sortzen den lehen komunikazio ereduak arrisku eta aukera asko dituela denboran egonkortzeko. Gainera, estres hori desagertzen da ondoko kideak *belarriprest* gisa jokatzeko duenean edo gizartean pentsaera aldaketa gertatzen denean.

Euskaltzaleen mugimenduak azken bost urteetan martxan izan duen Euskarak 365 egun lan ildoak herritarrek aktibatu eta euskararen erabilera areagotzea du xede.

**Azaroaren 23tik
abenduarien 3ra
gertatuko dena
ariketa soziala
izango da.
Inertziak apurtu
eta ohiturak
aldatzeko
praktika
kolektiboa egingo
dute izena
ematen duten
herritarrek, eta
saiakera horrek
badu aurrera
begirako asmoa.**

BERRIKUNTZA

I

Hamaika eguneko ariketa sozialak norbanakoen hizkuntza-ohituretan eragitea du xede, lehenago esan bezala. Baina herritarrek borondatez inertziak apurtzea askoz errazagoa da kanpoko faktoreen laguntza baldin badute. Hori dela eta, Euskaraldiak (lehenago martxan egon diren ekimenek bezala) berrikuntza eragin nahi du egiteko moduetan, harremanak izateko moduetan eta uste kolektiboetan.

Egiteko modu berri bat

Lehenago ere aipatu dugu euskararen normalizazioak urrats esanguratsuak behar dituela, eta indarrak batzeko premia dagoela. Horregatik egin dugu elkarlanean aritzeko apustua, sinestuta helmuga konpartitzeak baduela behar beste indar eta garrantzia. Horrek ez du esan nahi erraza denik, hizkuntza-ohituretan bezala, egiteko moduetan ere nork bere inertziak dituelako eta elkarlanak konfiantza esparru egoki bat eskatzen duelako, etengabe landu beharrekoa.

Helburu zehatz baten bueltan elkarlanean aritzeak, ordea, ez du esan nahi eragile bakoitzak bere egitekoak eta funtzio propioak ez dituenik. Garrantzitsua da bata bestearen funtzioak aitortzea, elkarrekin eraikitzea, erabakiak kontsentsuz hartzea, aldean autonomia zaintzea eta elkarlan eremu horretatik kanpo dauden zereginak errespetatzea.

Euskaraldia lantzen ari garen eragileok argi dugu elkarlanarekin galtzeko baino gehiago dugula irabazteko. Erakunde publikoek baliabideak eta jende multzo handi batengana heltzeko gaitasuna dute. Euskalgintzako gizarte eragileek ere, gizartean eragin eta motore izateko funtzioa dute. Eta, aurrekoez gain, euskararekiko ardura duten bestelako entitateen beharra ere badugu. Ahaleginak partekatua izan behar du, erantzukizuna ere halakoa delako. Baina herritarrek jarri behar ditugu zentroan, euskaltzale norbanakoak baitira euskaraz bizitzeko beharra, gogoia eta borondatea dituztenak.

Harremanak izateko modu berri bat

Ulertzen duen edozeinekin euskaraz egin dezakegula erabakitzen badugu, elkarriketa eredu berri bati irekitzen diogu atea. Elkarriketa elebidunek aukera ematen diete *ahobizi* denari euskaraz egiteko eta *belarriprest* denari euskara jasotzeko. Euskaraz aritzeko tartea bikoizten da nolabait batarentzat zein bestearentzat. Tarte laburretarako baliagarriak dira elkarriketa asimetrikoak, baina ahalegin handia eskatzen

dute harreman luzeetan, deserosoak baitira. Hala ere, euskarari dagokionez, interesgarria da hori. Lasarte-Oriako ikerketaren emaitzak azaltzen duenez, bertako esperientzian, *belarriprest* zirenen %90ak euskaraz erantzuteko joera zuen *ahobizi* batek euskaraz hitz egiten zirenean (Jauregi, 2018).

Horrelako praktikan elkarrizketa elebakarretik elebidunera jauzia egiten denean, erdaratik erdara/euskarara egiten da aldaketa. Balantzak orekatzeko joera hartzen badu, oreka hori erdarara zein euskarara izan daiteke. Eta aukera hori ez zegoen bi kideak elkarrekin erdaraz aritzen zirenean.

Edonola ere, elkarrizketa asimetrikoak probokatzeko bi kide edo jende multzo behar dira: urratzailea (*ahobizi*) eta babeslea (*belarriprest*). Lehen kideak aldaketa egitean bigarrenaren babesa badu, nolabaiteko adostasuna badago, erosoago eta seguruago emango du urratsa, etengabe korrontearen kontrako borrokan aritu gabe.

Pentsatzeko modu berri bat

Gizartean errotuta dauden usteetan eragitea da atal honetako azken berritasuna. Pello Jauregik *Irtan Armairutik* dinamikako uste teorikoetan jaso zuenez, “*erdarazko jokaera ohikoa den harreman batean, euskaraz aritzea ohitura-araulege inplizitu baten haustura eta urradura da*” (Jauregi, 2018). Hasieran arrotza, deserosoa izango dena *arau sozial* bihurtzeko ariketa ere bada Euskaraldia; *txip* aldaketa probokatzeko. Nola, baina?

— Hamaika egunetako ahalduntze kolektiboan ulertzen dutenei beldurrik eta kezkarik gabe euskaraz egiteko urratsa emanda. “*Nik euskaraz egingo dut, zuk egizu nahi duzun bezala, lasai*”.

— Euskaraz egin nahi dutenek gainontzeko herritarren babesa eta adostasuna dituztela azaleratuta. “*Niri egidazu euskaraz hala nahi baduzu, ulertzen dizut eta*”.

— “*Badaezbada gazteleraz egingo diot*” bezalako usteek lekurik eta beharrik ez dutela kontatuta.

— Parte hartzaileek, egitera doazena gertuko kideei aldeztu aurretik kontatuta. Inguruan bakoitzaren mikrodiskurtsoa zabalduta, euskaraz aritzeko arrazoiak eta diskurtsoak asko dira eta.

— Taldean eginda: Euskal Herri osoan eta elkarrekin. Herritar askok beren egunerokoan jadanik egiten duten ahalegin hori batu eta indartuta.

Helburua ez da, hala ere, euskararen erabilera praktikan *ahobizi* diren eta izan nahi duten horien erantzukizuna izatea. Kontrakoa da: erantzukizun hori euskaraz aritzen ez direnekin partekatzea, eta lehenen

Belarriprestarena ezkutuan egon den figura da, kasu askotan ikusezina izan baita euskara ulertu adina egiten ez duen pertsona hori. Ahobizi perfila, berriz, euskaltzale aktiboek bete izan dute. Ulertzen duten guztiei euskaraz egiten dien pertsona da ahobizi.

**Ulertzen duen
edozeinekin
euskaraz egin
dezakegula
erabakitzen
badugu,
elkarrizketa
eredu berri bati
irekitzen diogu
atea.
Elkarrizketa
elebidunek
aukera ematen
diete ahobizi
denari euskaraz
egiteko eta
belarriprest
denari euskara
jasotzeko.**

motxila arintzea. Norberak euskaraz egiteko ez da beharrezkoa parekoa ere euskaraz aritzea, *ahobizi* izatea; nahikoa da ulertzea.

Zergatik Euskaraldia?

Ezin ekimenaren balorazioa egin berau gauzatu aurretik, baina aurkezpen fasea baloratzuz gero, esan liteke Euskaraldiak harrera ona izan duela euskaltzaleen aldetik. Herriz herri gauzatu diren aurkezpenetan nabaritu da hori, ohikoak baino jendetsuagoak izan baitira asko. Lehenik, pentsa genezake euskaraz bizitzeko gogoia eta beharra dituztela euskaltzale askok, eta Euskaraldiak nahi horri erantzuteko ilusioa piztu duela. Ikusi behar zer emango duen 2018ak, baina izan duen harrera azaltzeko identifikatu ditugun zenbait gako zerrendatuko ditugu.

Euskararen normalizazioan lanean ari garen eragileen arteko elkarlana

Herritarrak ari dira ikusten egiteko modu berri bat jarri dugula martxan (dugula diogunean, eragile talde zabal bati buruz ari gara). Zenbait kasutan zalantzak sortu arren, aldeketasuna handia da. Elkarlana ez da Euskaraldian sortu, baina forma zehatza hartu du ekimen honekin eta hainbat norabidetan ari gara gauzatzen:

- Erakunde publikoen eta euskalgintzako gizarte eragileen artean.
- Tokian tokiko eta lurraldez gaindiko, zein lurralde desberdinetako eragileen artean.
- Euskararen sustapenean ari diren eta euskararekiko ardura duten bestelako eragileen artean.

Elkarlan horrek indarra ematen dio ekimenari, eta herritarrek hala jaso dute.

Euskal Herri osoko ekimena

Euskaraldia euskararen lurralde osoan gauzatuko da. Ez herri guztietan, baina bai indarra eta gogoia dituzten eremu guztietan. Eta euskalgintzako eragileekin batera Euskal Autonomi Erkidego, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko erakunde publikoak inplikatu izanak harrera ona izan du herrietan. Honek aukera ematen digu mugimendu indartsuagoa osatu eta olatuan herritar gehiago sartzeko.

Herriz herriko aktibazio ekimenen ondorio da Euskaraldia

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatuko dugun ekimena ez da hutsetik abiatzen. 2015etik hona zenbait tokitan abiatutako lanaren

ondorio da; esperientzia eta balorazio positiboak izan dira herrietan, eta horiekin elikatu da Euskaraldia. Lasarte-Oriako ikerketaren eta beste zenbait herritako bizipenen emaitzek indarra ematen diote ekimenari eta ilusioa nabari da. Inertziak apurka apurtu eta ohiturak aldatzea posible dela erakutsi digute herritarrek.

Guztiok dugu lekua Euskaraldian

Ekimen inklusiboa da, eta parte izan nahi duten herritar guztiek dute aukera, funtzio desberdinak izan arren. 2018an pertsona dituen oinarri, baina entitateek sustapen lana egin dezakete aurtun, eta hurrengo urterako urratsak eman ditzakete.

Euskaltzale aktiboen funtzioa gakoa da. Alde batetik, hamaika egunetan parte hartuta gainontzeko kideen erreferente eta gidari izan daitezke, aholkuak emanez, beren eguneroko lana ikusgarri bihurtzearekin batera. Multzo honetan sar ditzakegu euskaraz ondo moldatzen direnak zein euskalduntze bidean gogor eta gogoz lanean ari direnak (euskaltegietan, mintzalagun ekimenetan eta eguneroko ahaleginean ari direnak, adibidez). Baina, bestetik, herrietan Euskaraldia martxan jartzeko ezinbestekoak dira, izan batzordean parte hartuta, herritarrek prestatuta, ekintzak antolatuta zein herritarrei ekimenaren berri eman eta beren parte hartzea sustatuta.

Euskara jakin bai baina egunerokoan erabiltzen ez dutenek ere rol garrantzitsua dute. *Ahobizi* izatea erabakitzen dutenek erabilerarako urrats garrantzitsua emango dute, eta *belarriprest* direnek *ahobizi* direnen eskubideak eta nahiak errespetatzen dituztela adieraziko dute, babesa eman eta urratsa ematera gonbidatuta. Edozein erabaki da zilegi eta ongi etorria.

Euskarara murgiltzeko prozesuan dauden herritarrek, berriz, ikasitakoa beren eguneroko harremanetan praktikan jarri eta urratsa emateko aukera izango dute. Askok dira euskaltegitik pasa eta erabiltzeko aukera izan ez dutenak (hainbat arrazoi tarteko), edo eskola garaitik hizkuntza erabili ez eta berritzeko beharra dutenak. Ohikoa baino eremu erosoagoa izango dute euskaraz aritzeko, eta beren inguruko *ahobiziak* beren aukerez ohartuko dira. Elkarrikitasun elebidunak oso baliagarriak izan daitezke hauentzat konfiantza irabazi ahala euskaraz aritzen hasteko.

Euskara ulertzen ez duten herritar euskaltzaleek ere badute lekua ekimenean, funtzioa lehen lerroan egon ez arren. Beren jokabideak eta eza-gutzak ingurukoak baldintzatzen dituztela jakinda, har litzaketen jarrera

Aurkezpen fasea baloratzuz gero, esan liteke Euskaraldiak harrera ona izan duela euskaltzaleen aldetik. Pentsa genezake euskaraz bizitzeko gogoia eta beharra dituztela euskaltzale askok, eta Euskaraldiak nahi horri erantzuteko ilusioa piztu duela.

**Ekimen
inklusiboa da,
eta parte izan
nahi duten
herritar guztiek
dute aukera,
funtzio
desberdinak izan
arren. 2018an
pertsona ditu
oinarri, baina
entitateek
sustapen lana
egin dezakete
aurten, eta
hurrengo
urterako
urratsak eman
ditzakete.**

eta neurriei buruzko lanketa egitea eskainiko die ekimenak. Ez dira zuzeneko parte hartzaile izango, baina rol aktiboa dute elkarbizitzan.

Azkenik, euskara ulertu ez eta euskaltzale ez diren herritarrek ez dute ekimenean parte hartuko, baina *ahobizi* eta *belarriprest* izango diren horien jarrerak ez ditu baztertuko. Ulertzen duten guztiekin egingo dute euskaraz *ahobiziek*, baina ekimenari dagokionez, orain arte bezala, gaitz nontzeko kideekin erdaraz egingo dute. Eta interesa duten guztiak ongi etorriak izango dira aurreko multzoak egingo duen lanketa egiteko (beren rolari eta jarrerari buruzko gogoeta).

Helduok egingo dugu Euskaraldia

Ekimenak zuzeneko deia egiten die 16 urtetik gorako herritar guztiei. Herritar multzo zabalena gara helduak eta, norbaitek ohitura aldaketa egitekotan, guk egingo dugu. Umeek eta gazteek badituzte bestelako ekimenak, baina helduen erantzukizuna da *Euskaraldia*. Hamasei urtetik beherakoek helduak aktibatzeke egingo dute lan zenbait kasutan, baina nagusiagoen jarrerak ikusita landuko dituzte haienak.

Beste urrats bat

Duela bi urte Donostiako Egia auzoan abiatutako ekimena Euskal Herrira zabaltzeak sortu duen espektatiba eta ilusioa handia da, eta pozgarria. Euskaraldia ariketa bat da, erabileran eragiten duen faktoreetako batean (hizkuntza-ohituretan) aldaketak sortu nahi dituen. Hizkuntzaren normalizazioan eragiteko martxan dauden eta sortu behar ditugun beste ekimen askoren arteko bat, beste urrats bat. Baditu, gure iritziz, euskara eta euskalgintzaren ziklo berrirako garrantzitsuak diren ezaugarri asko eta horregatik ari gara gogoz eta ilusioz hedatzen. Emaitzek lagunduko digute hurrengo urratsak nolakoak izan behar duten irudikatzen. ●

BIBLIOGRAFIA

- BAM ekimena (2018). BAM (Baiona-Angelu-Miarritze). Memoria txostena Euskaltzaleen Topagunea (2012). XXI. mendeko euskaldunon elkarteak. Oinarriparrak.
- Jauregi, P. (2018). Baietz 40 egun euskaraz herri erronka. Ikerketaren emaitzak. Lasarte-Oria, Lasarte-Oriako udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Martínez de Lagos, I. (2012). "Ziklo berri baterako GPS-a", BAT sozio-linguistika aldizkaria, 84: 163-172
- Trenor, I. (2017a). Ekitea da kontua. Donostia, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Trenor, I. (2017b). Nola egin dute? Hizkuntza ohituretan eragiteko esperientzien bilduma. Donostia, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

UEMA (2018). Hamaika egun baino hamaika aldiz gehiago. Euskaraldia udalerrri euskaldunetan lantzeko proposamen osagarria.

Hainbaten artean (2015). “Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuago delako”. Topaberri aldizkaria, 66.

OHARRA

1. <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2543/zenbatek-ulertzen-du-euskara>

5

Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa: hainbat gako

Zesar Martínez García

Parte Hartuz Ikerketa Taldea (EHU)

zesar.martinez@ehu.eus

Amaia Balda Etxarte

Emun Koop. E.

amaiab@emun.eus

Imanol Larrea Mendizabal

Soziolinguistika Klusterra

i.larrea@soziolinguistika.eus

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Artikulu honetan Soziolinguistika Klusterra hainbat eragilerekin oraindik ere lantzen ari den ikerketa baten berri ematen da. Proiektu honen helburu nagusia hauxe da: herri eta eskualdeetan euskararen inguruko aktibazioa eragiteko gakoak identifikatzea eta aktibaziorako metodologia proposatzea. Herri aktibazioa lortu duten hainbat esperientzia aztertu ondoren, eta bi gunetan egiten ari garen ondorioz detektatutako gakoak aurkezten dira. Aktibaziorako bost gako nagusi hauek aurkezten dira: lehena, behar sozial bati erantzutea; bigarrena, talde eragile kohesionatua, trakzio-lana egiten duena; hirugarrena, oinarri teoriko-ideologiko landua eta sendoa, intuizioa edota bisioa; laugarrena, antolaketari begira egitura irekiak eta horizontalak sortzeko borondatea; eta bosgarrena, administrazioaren babesak.

• **Hitz gakoak:** hizkuntza aktibazioa, gizarte aktibazioa, biziberritzea.

Abstract. In this article, the Sociolinguistic Cluster is presenting a study that is still underway with several actors. The main objective of this project is to identify the keys to activating the Basque language in the different regions and regions and proposing a methodology for activation. After analyzing various experiences that have been activated by public activation, the keys detected as a result of the two sites are presented. These five core activation keys are presented: 1. responding to a social need 2. a cohesive operating group, which performs traction 3. a strong and thought-out theoretical and ideological base, intuition and/or vision 4. a willingness to create open and horizontal structures for the organization 5. sponsorship by government administration. • **Key words:** language activation, social activation, revitalization.

1. SARRERA

I Artikulu honetan Soziolinguistika Klusterra oraindik ere lantzen ari den ikerketa baten berri ematen da. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzaren ekimenez jarri zen abian 2016. urtean. Bertan partaide dira Soziolinguistika Klusterreko bazkide diren Donostiako Udala (Edurne Otamendi), Elhuyar (Helene Armentia), Emun (Amaia Balda) eta Euskaltzaleen Topagunea (Mikel Ozaita), Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera (Izaro Ugalde eta Joxean Amundarain), EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeko Zesar Martínezen aholkularitzarekin eta Soziolinguistika Klusterraren (Imanol Larrea) ko-ordinazioarekin.

Garapen taldeko partaide horiez gain, proiektu honetan ezinbestekoa da tokian tokiko eragileen parte hartzea. Hala, lehen fasean parte hartu dute Otxandioko Herri-Ola, Lasarte-Oriako Ttakun, Donostiako Egian Euskaraz, Gernikako Astra eta Emakumeen Mundu Martxa ekimenetako hainbat kidek. Bigarren fasean, berriz, parte hartzen ari dira Arrasateko Geike, Tolosaldeko Galtzaundi eta Eibarko Akebai ekimenetako eragileak. Guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu, proiektu hau eurei esker garatzen ari baita.

Azken hamarkadetan ahalegin ugari egin dira euskalgintzatik eta administrazio publikotik, bakoitza bere aldetik joanda edo elkarlanean, herrietan euskararen erabilera sustatzeko. Dena den, kasu askotan ez dira lortu nahi ziren emaitzak. Orain arte egindakoetatik ikasi eta aurrerantzean erabiliko diren lan egiteko modu berriak eraikitzea da ikerlan honen helburu nagusia, euskararen aldeko aktibazioa lortzeko tokian tokiko herritarren artean.

Artikulu honetan jasotzen da orain arte landutakoaren ondorioz proiektuan gizarte aktibaziorako detektatu diren gakoak inguruko informazioa.

2. IKERKETA GALDERAK ETA HELBURUAK

Proiektu honen helburu nagusia hauxe da: herri eta eskualdeetan euskararen inguruko aktibazioa eragiteko gakoak identifikatzea eta aktibaziorako metodologia proposatzea.

Bi ikerketa galdera nagusi hauek planteatzen dira azterlanean:

- **I. Zeintzuk dira herrietan euskararen erabilera sustatzeko aktibazio prozesuetako gakoak?**

Proiektu honen helburu nagusia hauxe da: herri eta eskualdeetan euskararen inguruko aktibazioa eragiteko gakoak identifikatzea eta aktibaziorako metodologia proposatzea.

**Detektatu diren
gakoak lantzeari
buruzko
ekarpena egingo
da metodologia
horren bidez;
aktibaziorako
bidea
irudikatuko da
eta urratsak,
zereginak eta
zaindu beharreko
aspektuak jasoko
dira.**

Zeintzuk dira eta nolako ezaugarriak dituzte Gipuzkoan herriko errealitate soziolinguistikoa eraldatu nahi duten erakunde publikoen, gizarte eragileen eta herritarren arteko lankidetzaz esperientzia egokiak?

• II. Zer metodologia da egokiena Gipuzkoan erakunde publikoen, euskalgintzaren, bestelako gizarte eragileen eta herritarren arteko lankidetzaz modu eraginkorrean antolatzeko tokian tokiko errealitate soziolinguistikoa eraldatu ahal izateko?

Detektatu diren gakoak lantzeari buruzko ekarpena egingo da metodologia horren bidez; hau da, aktibaziorako jorratu beharreko bidea irudikatuko da eta bide horrek dituen urratsak, zereginak eta zaindu beharreko aspektuak jasoko dira.

3. METODOLOGIA

Ikerketak bi fase nagusi ditu. Lehen fasean, hainbat arlotan herritarrak aktibatzea lortu duten bost esperientzia aztertu dira aktibazioa eragiteko gako nagusiak zeintzuk izan diren identifikatzeko. Bigarren fasean, berriz, bi gune aukeratu dira gako horiek eguneroko lanean kontrastatzeko.

Lehen fasea: esperientzien azterketa

Bost esperientzia ikertu ditugu, batzuk euskararekin loturikoak eta beste batzuk genero berdintasuna, herrigintza eta kultur arlokoak. Esperientzia horietan aztertu dugu administrazio publikoak, euskalgintzak, eta beste eremuetako gizarte eragileek eta herritarrek herri mailan elkarrekin nola jardun duten. Hau da, beraien arteko koordinazioa, botere harremanak, eragiletza edo parte hartzea nola egituratzen duten ikertu dugu.

Horretarako, esperientzietako hainbat eragilerekin elkarrizketak egin dira eta gako izan diren alderdiak jaso ditugu.

Hasteko, **aztertu beharreko esperientziak hautatu** ditugu irizpide hauei jarraiki:

- Hartzaile kopuru handia edukitzea
- Elkarrekintzan garatua izatea (erakunde publiko eta eragile sozialak elkarrekin)
- Ahalduntzea edo autoeraketa eragitea
- Prozesu edo ekintza iraunkorra izatea
- Eragina sortu izatea balioetan edo portaeretan
- Gipuzkoan garatua izatea eta euskara lantzea
- Ibilbide luzekoa izatea

Irizpide horien arabera, bost egitasmo aukeratu dira. Aztertutako esperientziak izaeraz ezberdinak dira: bi dira euskarari loturikoak, *Egian euskaraz bizi nahi dugulako* eta *Ttakun* euskara elkarteak. Gainerakoek feminismoarekin (*Emakumeen mundu martxa*), kulturarekin, okupazioarekin eta herri ekimenarekin (*Astra kultur fabrika soziala*) eta udalgintza eta herrigintzarekin (*Herri-ola*) dute lotura:

- Gernikako **Astra kulturarako fabrika soziala**: arlo publikoaren kudeaketan jendartearen parte-hartze zuzena bultzatzen duen espazio gisa definitzen dute euren burua. Berez ez da euskararekin lotutako proiektua, baina hizkuntzak izan du pisua eta erabilera ere izan du eragina.
- Lasarte-Oriako **Ttakun euskara elkarteak**: gerora txoko askotara hedatu den euskara elkarte eredu aitzindaria da, 1986an sortua. Dinamismo handia izan du urte askotan eta ekimen indartsuen sorburu izan da.
- Otxandioako **Herri-ola herrigintza egitasmoa**: otxandioarren bizitza kalitatea hobetzea helburu hartuta, herritarren parte-hartzearen bitartez garatutako ideia eta proiektuak lantzen ditu Udalaren ekimenez. Hala, komunitatea trinkotu, herrigintza sustatu, garapen eredu berriak martxan jarri eta kultura politiko berria daude mugimenduaren ardatzean. Egitasmoaren barruan lantzen den arloetarikoa bat hizkuntzarena da eta euskara da, hain zuzen ere, komunikazioko ohiko hizkuntza.
- Donostiako **Egian Euskaraz bizi nahi dugulako** ekimena: oihartzun handia lortu zuen 2016ko hasieran gauzatu zen esperientzia aitzindari honek. Hauxe izan zen, beste esperientzia batzuekin batera, *Euskaraldia* antolatzeke erreferentzietako bat.
- **Emakumeen mundu martxa**: Kanadan sortutako nazioarteko ekimena da, emakumeen aurkako indarkeria eta pobrezia salatzeke. Euskal Herrian garrantzi berezia eman zaio emakume etorkinen egoerari eta aniztasunari. Aldarrikapena, ospakizuna eta elkartasuna konbinatzen ditu. Euskara izan da ekimen honetako hizkuntzatariko bat.

Ekimen hauei seigarren esperientzia bat gehitu zaie 2018an, hain zuzen ere, Eibarren garatzen ari den *Akebai* ekimena. Urtearen lehen erdian jasoko da *Akebairi* buruzko informazioa. Ekimen hau Eibarko euskararen plan estrategikoaren baitan kokatzen da eta eragile desberdinen elkarlana originaltasunez lantzen ari dira.

Esperientzia horiek guztiek gai ezberdinak lantzen dituzte eta badute beste ezaugarri bereizgarri bat ere. Batzuk prozesu iraunkorrak dira,

Lehen fasean, herritarrek aktibatzea lortu duten bost esperientzia aztertu dira aktibazioa eragiteko gako nagusiak zeintzuk izan diren identifikatzeko. Bigarren fasean, berriz, bi gune aukeratu dira gako horiek eguneroko lanean kontrastatzeko.

**Aztertutako
esperientziak
izaeraz
ezberdinak dira:
Egian euskaraz
bizi nahi
dugulako eta
Ttakun euskara
elkartea
euskararekin;
feminismoarekin
(Emakumeen
mundu martxa),
kulturarekin,
okupazioarekin
eta herri
ekimenarekin
(Astra kultur
fabrika soziala)
eta udalgintza
eta
herrigintzarekin
(Herri-ola) dute
lotura**

hau da, egitasmo, lantalde, egitura eta ekintza ugariz osaturik daude: *Astra*, *Ttakun* eta *Herri-ola*. Horien baitan sortzen diren ekintzek hasiera eta amaiera dute, baina proiektua bera ez da desagiten, jarraipena du. Aztertutako beste batzuk, berriz, prozesu puntualak dira, nahiz eta biek izan nolabaiteko oinarri sendo eta iraunkorra: *Emakumeen mundu martxa* eta *Egian euskaraz bizi nahi dugulako*. Epe jakin baterako sortu ziren, eta, ekintza amaitutakoan, egiturak guztiz desagiten ez badira ere, intentsitate txikiagoko harremanak edo ekintzak geratzen dira.

Esperientziei buruzko informazioa biltzeko elkarrizketa sakonak egin dira esperientzia bakoitzeko bizpahiru lagunekin. Elkarrizketetarako, sorreran eta gaur egun dabiltzan lagunak aukeratu dira, proiektua ondo ezagutzen dutenak edota proiektuari buruzko iritzia kritikoa dutenak. Guztira 11 elkarrizketa egin dira 2016ko maiatza eta iraila bitartean. Gainera, esperientziei buruzko dokumentazioa ere aztertu da.

Bigarren fasea: gakoaren lanketa

Proiektuaren bigarren fasea oraindik ere itxi gabe dago artikulua hau idazterakoan. Hain zuzen ere, 2017ko urte hasieran bi gune hautatu ziren aktibaziorako gakoak lantzeko, bereziki interesgarriak iruditu zitzaizkigulako zuten ibilbideagatik eta aurrera begira zituzten asmoengatik. Gune horiek Arrasateko euskalgintzaren mahaia eta Tolosako Galtzaundi euskara taldea dira.

Arrasateko euskalgintzaren mahaiak aspalditik dihardu lanean herriko euskalgintzako erakundearen elkarlanerako gune gisa, Udala ere tartean dela. Hainbat saio egin dira bertako eragileekin aktibaziorako gakoak lantzeko. Proiektua bukatu aurretik eragile guztiak biltzen dituen Geike ize-neko gunearen oinarriak landuko dira eta 2018an Arrasaten egingo den *Euskaraldirako* oinarriak lantzeko prozesuan ere bidelagun izango gara.

Tolosako Galtzaundi euskara elkartearekin ere hainbat saio egin dira aktibaziorako gakoak lantzeko elkarte honek Tolosaldeko eskualdera hedatzeko duen asmoan baliagarriak izango direlakoan. Proiektua amaitu aurretik Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren sorrera prozesuan bidelagun izango gara.

Gune bakoitzean egindako saioez gain, beste saio batzuk egin dira Arrasateko, Tolosaldeko eta Eibarko euskalgintzako eragileekin batera guztioek elkar hobeto ezagutzeko eta elkarrekin lantzeko artikulua honetan aurkezten diren hainbat ideia.

4. HIZKUNTZA AKTIBAZIOAZ ETA BESTE

I Horrenbestez, ikerketa honen azterketa-gaia hizkuntza-aktibazioa nola sustatu eta nola erraztu. Hiztunak euskararen erabileran aktibatzekeo prozesua sustatzeko modua bilatzen da, edota, atxikimendu ideologikoaz haratago, hiztunen atxikimendu praktikoa lortzeko modua; hau da, zaharrak berri, **praktika bezala euskaraz aritzeak nagusitasun soziala izan dezan abiatzen dugun elkarlan prozesua burutzeko modua**. Horretaz ari gara hizkuntza-aktibazioaz ari garenean. Zaharrak berri esaten dugu, oso aspaldikoa baita euskara biziberritzeko lana euskalgintzaren alorrean, terminologia eta saiakera mota ezberdinekin izan bada ere. Hala ere, errealitate soziala etenik gabe aldatzen dela jakinik, momentu eta testuinguru bakoitzak bere saiakera propioak eskatzen ditu.

Herritarren aktibazioa eta eraldaketa sozialak sustatzeko interesgarriak iruditu zaizkigun esperientziak erreferentzia bezala hartuta, **ondorengo kontzeptu-mapa eta erreferentzia teorikoak ditugu bidelagun** ikerketa prozesu honetan: aktibazioa eta hizkuntza-aktibazioa, eraldaketa soziala, ezberdinen arteko elkarlan harremanak, elkarri entzutea eta ezberdintasunak onartzea, sormen prozesua, adostasunak eta lidergo partekatua, antolaketa prozesua, dinamika berria guk geuk gorpuztea, emozio positiboak, prozesu konplexua (inertziak, mesfidantzak, gorabeherak...), hiztunen ahalduntzea, prozesuak geu ere eraldatzea (gure erosotasuna, pertsona eta eragile bezala dugun identitatea...), jatorri, erritmo eta pertenezia ezberdinak nahastea eta hurbiltzea, eta, bukatzeko, ehun soziala konbinaketa berri batekin jostea eta saretzea.

Jarraian, kontzeptu horiek eta beraien arteko loturak aletuko ditugu. Has-teko eta behin, **aktibazio hitzak mugimenduarekin eta ekimen kolektiboa martxan jartzearekin du lotura**, alegia, gure kasuan hizkuntza-portaeran eragin nahi duen ekimen, mugimendu edo prozesu kolektiboarekin.

Horrelako prozesu baten abiapuntuan, **protagonismo soziala hartzeko prest dagoen talde heterogeneoa** irudikatzen dugu. Talde horrek bere **barne prozesua egiten du** elkarlana aktibatu ahal izateko, hau da, hizkuntza-errealitatearen irakurketa partekatua egiteko eta horren arabera ekintza-proposamen berritzaileak sortzeko. Ekimen publikorako antolatu eta ekintzak abiatu aurretik, taldeak egin beharreko barne prozesuan ipiniko dugu begirada, hainbat zailtasun eta erronka baitaude elkarlanerako prozesu horretan.

Hainbat kide eta eragile mota egon daitezke talde heterogeneo horietan edo inguru hurbilean: herritar euskaltzaleak eta euskara elkarteetako

**Esperientziei
buruzko
informazioa
biltzeko
elkarriketa
sakonak egin
dira esperientzia
bakoitzeko
bizpahiru
lagunekin.
Guztira 11
elkarriketa
esperientziei
buruzko
dokumentazioa
ere aztertu da.**

**Hiztunak
euskararen
erabileran
aktibatze
prozesua
sustatzeko
modua bilatzen
da, edota,
atxikimendu
ideologikoa
harago, hiztunen
atxikimendu
praktikoa
lortzeko modua.**

kideak (liberatuak zein aktibistak), administrazio euskara teknikariak, euskara zinegotziak eta bestelako arduradun politikoak, alderdi politikoetako euskara arduradunak, euskara planak garatzen dituzten erakundeetako kideak, bestelako aholkulari edo ikertzaileak, hezkuntza zentroetako kideak eta beste elkarte edo kolektiboetako kideak (aisialdi taldeak, kirol taldeak, gazte taldeak, emakume taldeak, kultur taldeak, enpresen arloko talde korporatiboak eta abar).

Kide eta eragile horietako bakoitzak bere abiapuntuko eremua, begirada ideologikoa, pertenezia-sentimendua, lan-erritmoa, lan egiteko modua eta besteekiko irudia, iritzia, aurreiritziak, etiketa, iraganeko esperientziak eta abarrekoak ditu. Horietako gehienak edo soilik bakar batzuk egonda ere, aktibazio prozesu bat eragin nahi dutenek erronka dute abiaburu ezberdin horietatik elkarrekin honako hauek eraikitzea: irakurketa partekatua eta helburuen inguruko adostasuna, inork patrimonializatuko ez duen protagonismo kolektiboa eta ingurua mugiarazteko moduko proposamenak.

Aztertutako esperientzien ikuspegitik, barne prozesu horretan ezinbestekoa izango da elkarri entzutea, elkar ezagutzea eta bestearen onarpena erraztuko duen **hartu-emanak izateko modu zaindua**. Hori funtsezkoa da elkarlanak behar duen konfiantza eta konplizitatea piztu ahal izateko. Ondorioz, zentralak bilakatzen dira elementu hauek, besteak beste: bilerak egiteko metodologia eta dinamizazio zaindua, mintzatzeko txanda orekatuak, hitz egiteko eta entzuteko modu irekia solasaldi formaletan zein informaletan, bestearen tokian jartzea eta bere baldintzapenak ulertzea, umorea eta irribarrea.

Aztertu ditugun esperientzietan antzeman dugunaren arabera, bilera, solasaldi eta harreman horiek inertziari edo inprobisazioari utzi barik, ondo prestatu eta zaindu behar dira. Horrenbestez, aktibatu nahi den dinamika sozial berriaren isla eta adibide izan behar du; hots, ilusioa, baikortasuna, irribarrea eta talka edo desadostasunen kudeaketa emankorra sortu nahi duen saiakera izan behar da. Gainera, dinamika berri batean gaudela barneratu behar da eta horren aldeko konpromiso pertsonala eta kolektiboa hartu. **Irekitasunez egin behar dira prozesu pertsonala eta talde-prozesua**, ondo kohesionatutako **oinarri sendoak adostu ahal izateko**.

Beraz, hizkuntza-praktikak aldatzeari begira egiteko modu berriak lortzeko, harreman ekosistema berritu beharko da. Indarra, alaitasuna eta giro erakargarria kutsatu beharko du ekosistema berri horrek, sustatu nahi ditugun praktika berrien babesle eta legitimatzailea den talde eta

ekimen kohesionatuak bultzatuta. Izan ere, **hizkuntza-praktika horiek gorpuzten dituzten hiztunen zilegitasun soziala indartzea da helburua, hiztunak ahalduntzea.**

Eragile ezberdinen arteko elkarlana, antolaketa eta ekintza ondo kohesionatutako eta saretutako talde motorrak burutzen duenean, giro sozial erakargarria sortuko da. Ekimenak bestelako balore eta praktiken inguruko atxikimendu efektiboak lortu nahi baditu, praktika horien aldeko giro bizia eta erakargarria piztu beharra dago.

Alabaina, ezberdinen arteko elkarlana zein inertiak gainditu eta bestelako hizkuntza-praktiken nagusitasuna lortzea ere **prozesu konplexuak dira**, alegia, **trabak, talkak eta erresistentziak dituzten prozesuak**. Mota askotako ezberdintasunek (ideologikoak, lan-dinamikak, erritmoak, etiketak, rolak...) sarritan mesfidantzak edota gatazkak sortzen dituzte eta, ondorioz, elkarlana zaildu. Izan ere, herri ekimenak eta mugimenduak bere kode, erritmo eta prozedura propioak ditu, eremu politiko-instituzionalak ere bai, eta merkatuaren logikan jarduten duten eragileek ere beste horrenbeste. Dena den, hainbat esperientzian herritarren mugimenduek eta administrazio publikoak lortu dute elkarlanean eta konplizitatez aritzea ere herritarren aktibazioa bultzatzeko.

Herritarren parte hartzeko esperientzien ikuspegitik, komunitateak egiteko eta eragiteko ahalmena garatzen du herritarren ekimenak gidaturiko behetik gorako prozesuak aktibatzen dituenean. Gainera, hori errazago lortzen da instituzio publikoek “egiten uzten” dutenean edota ekimenak behar dituen babes politikoa eta bitarteko materialak errazten dituztenean komunitatearen auto-eraketaren eta berrikuntza politiko eta sozialaren mesedetan. Horixe ikasi dugu Gernikako Astraren esperientziara hurbilduz, eta gako horren bueltan ari da birpentsatzen parte hartzea bai Euskal Herrian, baita beste testuinguruetan ere.¹

Herritarrek aktibatzea helburu izanik, beraz, funtsezkoa da herritarrek beraiek gidaturiko ekimen auto-eratuia izatea, eta erabilerara erakarri nahi ditugun hiztun mota edo hiztun identitate ezberdinengana hurbilduko den ekimena izatea (jatorri kulturalak, ideologikoak, klase sozialak eta adina kontuan hartuta, besteak beste). Hau da, hiztun ezberdin horien interesak, nahiak eta ezinak kontuan hartuz, euren zailtasun eta ahaleginen arabera **ekimena pentsatu behar da eta eurengana hurbildu. Prozesuko partaideok aniztasun eta konplexutasun horretan nahastu eta bustitzea ere beharrezkoa izango da, prozesu horrek gu eraldatzeraino** (alegia, gure erosotasunak eta ziurtasunak, pertenen-

**Protagonismo
soziala hartzeko
prest dagoen
talde
heterogeneoa
irudikatzen dugu.
Talde horrek bere
barne prozesua
egiten du
elkarlana
aktibatu ahal
izateko.**

**Barne
prozesuanezinbes
tekoa izango da
elkarri entzutea,
elkar ezagutzea
eta bestearen
onarpena
erraztuko duen
hartu-emanak
izateko modu
zaindua.**

**Irekitasunez egin
behar dira
prozesu
pertsonala eta
talde-prozesua,
ondo
kohesionatutako
oinarri sendoak
adostu ahal
izateko.**

tzia-etiketa, rolak...). Izan ere, nahasketa horretatik **lotura sozial berriak** jostea eta ehun sozialaren konbinaketa berriak **saretzea bilatzen dugu**.

Gainera, eraldaketa prozesuetan erronka da pertsonak, taldeak eta dinamikak berrasmatzea prozesuak harritzeko eta astintzeko efektua izan dezan, berrikuntzak eta aldaketak ez baitira etortzen identitate finko edo estankoen eskutik (Zibechi, 2007)². Ezberdinen artean nahasteko malgutasuna behar dugu, norbera izateari utzi gabe, hain zuzen ere, ezohikoak diren elementuak eta praktikak gure izateari gehitu behar zaizkio “gu” zabalagoak eraikitzeko.

Talde motorrean bilatzen duguna, baita ehun sozialaren eremuan sustatu nahi dugun nahasketa eta saretze horrek ez du zertan iraunkorra eta etenik gabekoa izan. **Batzuetan aktiboago egon daiteke eta beste batzuetan bareago, egonean**. Kontua da aktibatzen denean ikasteko aukera aberatsa eta emankorra sortzea, hondar edo zapore ona uztea. Hala izatean lortzen badugu, interesgarria izan liteke noizbait berriz aktibatzea sareko partaideren batek hala proposatzen duenean, bestelako aldarrikapen edo ekimenen inguruan bada ere.

Azken finean, eraldaketa soziala prozesu konplexu eta luzea da, indarrean dauden asimetriek eta aukera-ezberdintasunek gehienetan egiturazko sustrai historiko luzeak baitituzte, baita egunerokoan ezarri dituzten pribilegioek, erosotasunek eta inertziekin ere. Horien guztien ondorioz, eraldaketa prozesuak erresistentziak, kontraesanak eta gora-beherak ditu eta olatuen itxura du (batzuetan bizkorragoak, beste batzuetan motelagoak, baina beti gogortutako harriak urratzen). Hala, atzera pausuak egon badaudela jakitun, baikortasun kritikoarekin batera pazientzia historikoa ere beharrezkoa da. Unean uneko irakurketak egiteaz gain, historiaren denbora luzeko prozesu ikuspegia eduki behar da.

Aipaturiko kontzeptu eta planteamenduak gertu daude *Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala*³ topaketan eraldaketa sozialaren ezaugarri gisa plazaratu ziren elementuetatik:

- Auto-eraketa eta autogestioa du oinarri.
- Errealitatea aldatzea bilatzen du: justizia soziala hobetzeko, aukera berdintasuna bermatzeko, behar sozialak asetzeko, bizi kalitatea hobetzeko, hizkuntza eta kultura bizi-indartzeko eta abar.
- Kolektiboa da eta komunitatea du oinarri (komunitatea adiera zabalean: herri edo lurralde mailakoa, talde jakin batzuen...).
- Eraldaketa komunitarioa ez da lineala, olatuen itxura du, fase ezberdinez osatuta dago.

— Ekintzek ekosistema ikuspegia izan behar dute oinarri, baloreetan sustraituta daude eta mugimendu izaera dute. Proiektu ikuspegia ez da baliagarri, mugimenduan dagoen prozesua baita eraldaketa: ikasketa kolektiboa sustatzen du eta balioetan oinarritutako ekintza kolektiboa da.

— Prozesu partekatuak dira, eta prozesua bera da eraldatzailea. Proiektua partekatua ez bada, nekez izango da eraldatzailea. Gizarte proiektio handiagoa lortzen da prozesua partekatua denean.

— Komunitate edo erakunde mailan garrantzitsua da pertsonek sumatzea gauzak aldatzeko “baimen soziala” dagoela, aldaketa eta berrikuntza onuragarri ikusten den ekosistemak sortzea. Ekosistema edo kultura hori ez dagoen tokietan zailagoa da eraldaketarako jarrrera egotea.

5. GAKOEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA

I

Aztertutako bost esperientzietako elkarriketetan gehien nabarmendu diren alderdiak jaso ditugu atal honetan. Gure lantaldeak esperientzien gainean egindako azterketatik ateratako gakorik esanguratsuenak bildu ditugu.

Behar sozial bati erantzutea

Kritika, kezka edota ardura sortzen duen egoera batetik abiatutik, helburua izaten da zerbait hobetzea, alegia, helburu positiboa dago kasu guztietan. Esperientzia guztiek bilatzen dute egungo hutsuneak betetzea edo egungo joerak iraultzea eta, horretarako, paradigma aldatu eta beharrian horri erantzungo dion dinamika berria sortzea.

Izan ere, herritarrak aktibatu egiten dira kezkarria den zerbait eta desiragarria egiten den zerbait lortzeko aukera antzematen dutenean, eta horretan ekarpena egiteko bidea ikusten dutenean. Hala, aktibatu egiten dira **hobetu daitekeen zerbait hobetzeko beharra sentitzen dutenean, beharrian sentitua** agertzen denean. Beharra mota askotakoa izan liteke, esate baterako ingurunean euskararen presentzia eta erabilera handitzeko beharra, galera hori gelditzeko beharra, pentsatzen eta egiten dugunaren arteko kontraesana gainditzeko beharra, korapilo bat askatzeko beharra, joera negatibo bat gelditzeko eta alternatiba sortzeko beharra, bizi nahi dugun bezala bizitzeko beharra edo euskaraz bizitzeko beharra.

Beharrian ezberdinak egon daitezke, eta baliteke horiek **ikusarazi eta estimulatu beharra izatea ere, askoren edo batzuen beharrian horren zilegitasunak denon onarpenera izan dezan**. Erronka izaten da beharrian horien inguruan diskurtso propioa sortu eta portaerak aldatzeko hel-

Hiztun ezberdin horien interesak, nahiak eta ezinak kontuan hartuz, euren zailtasun eta ahaleginen arabera ekimena pentsatu behar da eta eurengana hurbildu. Prozesuko partaideok aniztasun eta konplexutasun horretan nahastu eta bustitzea ere beharrezkoa izango da, prozesu horrek gu eraldatzeraino.

**Aktibatu egiten
dira hobetu
daitekeen zerbait
hobetzeko
beharra sentitzen
dutenean**

dulekuak eskaintzea, hiztunek babesa eta ahalduntzea sentitu dezaten. Are gehiago, komenigarria da zilegi diren desio horiek beste askatasun edota eskubide aldarrikapenekin lotu eta zubi diskurtsiboak eta elkar-lanekoak eraikitzea beste mugimendu eta ekimenekin.

Beharrian horien inguruan ikusgarritasuna lortze aldera, kaleko presentzia eta espazio publikoak konkistatzeak lehen ez bezalako tokia hartu du eta, egun ere, hartzen dihardu esperientzia gehienetan. Azter-tutako kasuetan kaleetan egoteaz eta, besteak noiz etorriko zain egon barik, beste espazio eta kolektiboetara hurbiltzeaz hitz egiten da. Talde edo erakunde askok gaiak eta ekintzak kalera ateratzen dituzte fisikoki, hau da, ekintzak kalean gorpuzten dira eta gaiak sozializatu egiten dira, ikusgarri egiten dira.

Aipatu bezala, behar sozial batetik sortu dira aztertu ditugun esperientzia guztiak. **Egoera aldatzeko nahi horretan oinarri eta balio batzuk finkatu dituzte.** Esperientziok ondorengo balio hauen arabera eraiki dira:

1. Irribarrea, parte hartzea eta sormena (Egian euskaraz bizi nahi dut) .
2. Irekitasuna, kultur aniztasuna, parte hartzea eta ahalduntzea (Emakumeen mundu martxa)
3. Alderdikeriarik eza eta aniztasuna (adin aldetik eta politikoa) (Ttakun)
4. Iraunkortasuna, parte hartzea, elkartasuna, euskalduntasuna, auzolana eta herrigintza . (Herri-ola)
5. Auto-antolatua eta parte hartzea bultzatzen duena, sortzailea, euskalduna, feminista, kultur artekoa, iraunkorra, belaunaldien artekoa, antimilitarista, memoria historikoduna eta irabazi asmorik gabekoa. (Astra)

— *Talde eragile kohesionatua, trakzio-lana egiten duena.* Dinamika berri bat abiatzeko gogoia, freskotasuna eta jarrera irekia duten soslai ezberdinetako pertsonak dira partaide talde eragilean. Lehenagotik eskarmentua dutenak (“betikoak”) eta ez dutenak (“berriak”) nahasten dira, betiko dinamiketatik ateratzeko, baina eskarmentutik ikasteko jarrerarekin.

Taldean egin beharreko barne prozesua zaintzeko jarrera duten pertsonak eta horri begira formazioan parte hartzeko eta eskuzabaltasunez jokatzeko prestasuna dutenak nahastea komeni da, nagusi izan dadin desadostasunak, hanka sartzeak eta talkak apaltasunez eta zintzotasunez onartzeko eta soluzioa adostasunez bilatzeko jarrera. Hala nola, beste

sentsibiltate, aldarrikapen eta errealitateetara hurbiltzeko irekitasuna dutenak ere komeni dira, horrek ekar dezakeen kontraesan eta kuestionamenduak onartuz (adibidez, euskal gizartean baztertuen daudenek edo pobrezian bizi direnek, akonpainamendurik gabeko adin txikiko etorkinek kasu, nekezago dute euskararen aktibazioaren bueltan aritzea bestelako premiak eta beharrianak direla eta).

Elkarriketatuek, talde motorrak eta lider gisa jardun dutenen ezaugarriez aritzean, ondorengo ezaugarriak nabarmendu dituzte:

- konbentzimendua
- ausardia
- indarra
- aurre hartzeko gaitasuna
- ilusioa eta entusiasmoa
- lan efizientea
- sormena
- harreman berriak eraikitzeko prestasuna
- umorea
- kalitate humano eta profesional handia

Aktibazio prozesuen gako edo giltzarri honen barruan **aniztasuna eta ezberdintasunak modu irekian kudeatzeko ahalegin kontziente**a egin behar da. Hau da, talde eragilean eta prozesuan aktibatuko direnen artean ere bilatzen diren aniztasunak eta ezberdintasunak (adina, generoa, jatorria, ideologia, klase soziala, ezagutza-maila...) erronka izango direla jakitun, hori pertsonalki eta kolektiboki lantzeko prestasuna behar da.

Izan ere, botere-desorekak ez datoz soilik pertsonaren izaera partikularretik, kokapen sozial eta profesionalak ere eragina baitauka. Sarritan, nolabaiteko lidergoa hartzen dutenak talde hegemonikoetakoak dira (helduak, euskaltzale rola aspalditik dutenak, gizonak, euskalgintzako eremu sozialean edo instituzionalean profesionalki ari direnak...). Gainera, arlo publikoan protagonismoa hartzeko joera izan ohi dute eta batzuetan soslai horretan ez daudenak goitik behera begiratzeko edo gutxiesteko joera ere bai. Horrek zaildu egiten du guztiei berdin entzutea, tokia egitea eta protagonismoa zein ardurak banatzea.

Zentzu horretan, talde kohesioa eta prozesuarekiko atxikimendua lantzeari begira, beharrezkoa litzateke aldiro-aldiro ebaluazioak egitea, prozesuarekiko zelan sentitzen garen partekatzea (indarra, gogoia, emozioa...), hobetzekoak identifikatzea, kritika eraikitzaileak egitea eta taldek edo gatazkak kudeatzeko tarreak hartzea.

**Taldean egin
beharreko barne
prozesua
zaintzeko jarrera
duten pertsonak
eta horri begira
formazioan parte
hartzeko eta
eskuzabaltasunez
jokatzeko
prestasuna
dutenak nahastea
komeni da**

**Aktibazio
prozesuen gako
edo giltzarri
honen barruan
aniztasuna eta
ezberdintasunak
modu irekian
kudeatzeko
ahalegin
kontzientea egin
behar da.**

Oinarri teriko-ideologiko landua eta sendoa, intuizioa edota bisioa

Esperientzia guztiek izan dituzte aurrekari batzuk edo testuinguru jakin bat taldea aktibatzearen eta prozesuari ekitearen oinarrian. Aurrekarien araberrako intuizio edo bisio horrek eragin du taldea elkartzea eta zerbait antolatua egiten hastea, batzuetan ibilbide oso zehatza definitu gabe, ideia eta inpultso berriak onartzeko jarrerarekin.

Aztertutako esperientzien sorreran oso garrantzitsua izan da teoria edota ikuspegi ideologikoa lantzea, batzuetan hizkuntzaz kanpoko beste teoriak bereganatuz (antolaketa kolektiboaren dinamizazioa, parte hartze prozesuak, harremanak eta alderdi psikosozialak, komunitatearen artikulazioa eta trinkotzea, emozionaltasuna eta gorputz zapalkuntza harremanetan...).

Funtsezkoa da, bestalde, oinarri teoriko-ideologiko horiek denon eskura egotea (ez gutxi batzuen eskura) eta, praktikarekin lotuz, denok barneratzeko moduan jartzea, baita teoria praktikarekin hornitu eta beste esperientzia arrakastatsuen berri izatea ere, horietatik ikasteko.

- *Ttakunen* kasuan arlo soziolinguistikoak eta Txepetxen teoriak oinarritzko gertatu ziren partaideek lehentasunak zein ziren argitzeko.
- *Astraren* kasuan demokrazia zuzena eta parte hartzeari buruzko teoriak eta praktikak ezinbesteko bihurtu ziren legitimitatea lortzeko herriaren eta botere instituzionalen aurrean. EHUko *Parte Hartuzeko* eta *Joxemi Zumalabe Fundazio*ko kideen laguntza izan zuten horretan.
- *Egiako euskaraz bizi nahi dugulako* ekimenean hizkuntza portaretan eragiteko alderdi psikosozialean oinarritutako TELPa jaso zuten (Ferran Suay eta Gemma Sanginés). Hori ardatz hartuta, aholkuen liburuxka egin zuten.
- *Herri-olan* hainbat aditurekin solasaldiak egin zituzten gai batzuen inguruan gogoeta egiteko (euskalduntasuna, berdintasuna, demokrazia parte hartzailea, krisi energetikoa, eta abar).
- *Emakumeen mundu martxan* teoria feministak eta norberaren esperientzia eta ezagutza trukatzeko egiturak jarri zituzten.

Oinarri teorikoa funtsezko izan bada ere, kasu guztietan **ibilbidea bera izan da hezitzailea arlo teorikoan zein praktikokoan**. Parte hartzaileek ekintzak garatu bitartean harremanak sortu dituzte eta esperientzia trukearen bidez ezagutzak osatzen joan dira. **Pertsonen, ideien, ezagutzen eta ekintzen mugimendua sortu da**, eta hori bera

hezitzailea izan da, emaitzak eurak baino gehiago. Prozesua bera da emaitzetako bat, alegia.

Norberaren zirkulutik haratago irekitzea, begirada urrunago zabaltzea eta bestelako praktikak eta etiketak dituztenekin bidea egitea eskatzen du halako prozesu batek. Hori bizitzeak aukera ematen du norberaren deserosotasunak, erresistentziak, mugak eta kontraesanak ikusteko eta lantzeko. Hazkunde pertsonalaren (eta kolektiboaren) aldetik aberasteko, osatzeko eta ahalduentzeko aukera zabaltzen du; betiere, ekintza eta ekintzaren gaineko hausnarketa orekatuz eta, norbera izateari utzi gabe, gure identitatea modu poliedrikoago batez antzemanaz aktibazioa beste espazio eta sektoreekin partekatu ahal izateko.

Antolaketa ireki egitura irekiak eta horizontalak sortzeko borondatea

Norbanako eta eragile ezberdinen parte hartzea sustatu behar da eta, horretarako, erabakiguneak ireki eta prozesuan ari diren edo prozesura gehitzen diren kide guztiek parte hartzeko aukera zabaltzea behar da, aniztasunean eta osagarritasunean oinarrituz.

Hierarkiarik gabeko funtzionamendu horizontala eraikitzeari begira, funtsezkoa bilakatzen da bileren metodologia aldeztu aurretik prestatua eta ondo dinamizaturik egotea, guztiok elkarpenak egiteko aukera berdina izan dezagun eta, horrela, guztiok ekimena geure egiteko joera nagusitu dadin. Hori lor daiteke zereginak, funtzioak eta ardurak banatuz ere, ardura partekatua eraikitzen joateko eta adostutako konpromisoak betetzen direla errazteko.

Era berean, egitura ireki horren baitan konpromiso eta dedikazio maila ezberdinak egon daitezke, parte hartze zirkulu ezberdinak. Zenbait esperientziatan gaitzesak jotzen da diferentzia horiek negatiboki ez ikustea (presiorik eta kulpabilizaziorik ez sortzeko), elkarpen txikien garrantziaz jabetu eta horiek ere eskertu, ospatu eta indartzera animatzeko. Zeregin eta arduren ikuspegitik, garrantzizkoa da denbora edo epe jakin baterako bakoitza zein parte hartze espaziotan eta arduratan kokatzen den agertzea eta gainerakoan aurrean konpromiso hori hartzea, betiere libreki erabakita, baina kontuan hartuta norberak, taldeak eta prozesuak dituen beharrak.

Antolaketa ireki eta horizontal horretan, adostutako helburu eta gida-lerroen baitan, erabakigune ezberdinak egon daitezke, jende gehiagok eduki dezan prozesuan eragiteko aukera (eta boterea). Horrek ekimenarekiko identifikazio eta konpromiso emozional handiagoa dakar.

Oinarri teoriko-ideologiko landua eta sendoa, intuizioa edota bisioa.

**Aztertutako
esperientzien
sorreran oso
garrantzitsua
izan da teoria
edota ikuspegi
ideologikoa
lantzea.**

— Astran kultur eta gizarte eragileetako hainbat ordezkari ere badaude. Herritar guztiek dute erabakigune guztietan parte hartzeko aukera.

— *Egian* euskaraz bizi nahi dugulako egitasmoan ahalegin handia egin zen inguruko elkarteak egitaspora batzen. Norbanakoak ere inplikatu dituzte.

— *Emakumeen mundu martxan* norbanakoak eta talde eta elkarte feministak daude. Ez da erakunde ofizialen plataforma.

— *Herri-olan* sektore ekonomikoko agenteak sartzeko asmoa zegoen baina ez da lortu. Bestalde, Herri-ola batzordean arduradun politikoak ere badaude. Herritar guztiek dute erabakigune guztietan parte hartzeko aukera.

— *Ttakumen* herriko elkarteekin harreman handia dute baina ez daude egituraren barruan. Bazkideek dute batzar orokorrean erabakitze ahalmena.

Beheraldiak edo krisi garaiak egon direnean ondorengo alderdiak izan dira lagungarri prozesuari eusteko:

— Astran pertsona batzuen pertseberantziari esker proiektuari eutsi zaio momentu kritikoetan.

— Ekintzak martxan jarrita jendea erakartzea errazagoa gertatzen da. Are eta gehiago ekintza horrek eguneroko jardunarekin zerikusia baldin badu: *Egian*, erosketak egitean euskaraz bizitzeko egindako ahalegina esaterako. Ekintza horiek, gainera, norberaren interesekin eta zaletasunekin zerikusia baldin badute, partaidearentzat zentzuzkoa bihurtzen da ekintza horretan parte hartzea (*Herri-ola*).

— Baliabiderik ez duten pertsonen (etorri berriei esaterako) parte hartzeko baliabideak emateak erraztu egiten du partaide-tza: garraiorako dietak (*Emakumeen mundu martxan*).

— Parte hartzea erabakitzaileria izan behar da, ez dekoratiboa. (*Astra*).

— Parte hartze maila ezberdinak onartu eta sustatu behar dira, karga negatiboa eman gabe. *Astran* konpromiso maila ezberdinak daude eta guztiak errespetatzen dira. Konpromiso maila guztien beharra aldarrikatzen da; horien arteko oreka da helburu. Konpromiso mailak ez dio inori ahotsik edo erabaki ahalmenik kentzen, erabakiguneak irekiak baitira.

— Bestalde, herritarren babesa lortzeak proiektuari legitimitatea ematen dio. Proiektuek sinesgarritasuna eta erreferentzialtasuna lortu behar dute herritarren artean. Ardura eta inplikazio

gehiago duten pertsonentzako garrantzitsua da herritarrek ekin-
tzetan parte hartzen dutela ikustea.

— Gazteak erakarri nahi dira, euren parte hartzea lortu nahi
da. Halere, kudeaketa burokratikoa egiten zaie gazteei eta egi-
tura horietan parte hartzea nekeza egiten da. Kudeaketa egin-
beharrei jare egitea eta espazioa eskaintzea izan liteke irtenbide
bat (*Astra*).

— Esperientziak partekatzean ekimena bere egitea lortu da
(*Egian euskaraz bizi nahi dugulako*).

— Bazkideen partaidetza lortzeko barne komunikazioa ondo
elikatu behar da (*Ttakun*).

Herritarren arteko artikulazio komunitarioa protagonista izateak funtsezko
ezaugarria da aktibazio eta eraldaketa prozesuetan. Auzolanerako eta
parte hartzeko kultura ahulduta badago, tokian tokiko herri identitatea-
rekin eta memoria historikoarekin loturiko lanketa izango dugu atariko
lana, aktibaziorako ezinbestekoak diren baldintza sozialak gerta daitezen.

Gainera, elementu garrantzitsua da auzolanaren eta herri ekimenaren
aitortza eta zilegitasuna baieztatzea. Izan ere, herritarren parte hartzeak
instituzioen politikak auzitan ipintzeko izan dezakeen funtzio demo-
kratikoa ere aitortu beharra dago eraldaketa sozialaz ari garenean. Are
gehiago, disidentzia, aldarrikapena, desobedientzia eta, instituzioen
zain egon barik, ekitea eta aurreratzea funtsezkoak izan dira euskara-
rentzako alternatiben eraikuntzan historikoki (hezkuntzaren arloan, ko-
munikabideetan, kultur jardueretan...).

Administrazioaren babesa, egiten uzten duelako edota babes politikoa eta laguntza ekonomikoa eskaintzen duelako

Erakunde publikoak bultzatzaile izan dira aztertu ditugun herritarren ak-
tibazio esperientzietan, eredu edo harreman mota ezberdinekin eta ba-
tuetan itzalean egonda ere bai.

Eremu bakoitzaren autonomia errespetatuz (ez da nahitaezkoa den-
dena elkarrekin egitea), eta herri mugimendu eta instituzioen artean
kritikak eta aldarrikapenak sortzen duen tentsioa eta gatazka demo-
kratikoki onartuz, administrazioak eragile sozialen ekimenari trabarik
ez jartzea eta babesa eskaintzea funtsezkoa izan liteke herri aktibazioari
begira. Elkarrekin jarduteko aukerak bilatzea ere komeni da hizkuntza-
ren inguruko aktibazio prozesuetan.

***Ibilbidea bera
izan da
hezitzailea arlo
teorikoan zein
praktikoan. Parte
hartzaileek
ekintzak garatu
bitartean
harremanak
sortu dituzte eta
esperientzia
trukearen bidez
ezagutzak
osatzen joan
dira.***

**Herritarren
arteko
artikulazio
komunitarioa
protagonista
izateak funtsezko
ezaugarria da
aktibazio eta
eraldaketa
prozesuetan.**

Euskararen aldeko hizkuntza-aktibazioaren inguruan desadostasunak sortu daitezkeela onartuz ere, herri askotan beharrezkoa eta egingarria da oinarrizko orube komuna eta etorkizuneko agertoki desiragarria zein den adostasunez formulatzea. Etorkizunaren eraikuntza horretan ekimen eta egitasmo batzuk partekatzeko modukoak dira: alderdien arteko lehia politikotik blindatu daitezkeen egitasmoak, aurkaria desgastatzeko edo etekin elektorala lortzeko erabiltzen ez diren hizkuntza-egitasmoak eta guztion babes politiko-instituzional osoa dutenak.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu etorkizunera begira oso kontuan izatekoak direla legeek sor ditzaketen eta dagoeneko sortzen dituzten ondorioak auzolana eta herrigintza bultzatu nahi direnean. Hauek dira elkarriketetan jaso ahal izan ditugun kezkak:

— Legeriak herri ekimena oztopatzen du batzuetan. Izan ere, boluntarioen lana aurrera eramateko arazo legalak daude, esaterako, aseguruak trabak jartzen baitituzte boluntarioen lana babesteko (*Astra*).

— Europatik datozen diru-laguntzak banatzeko irizpideak kalte egin diezaioke ehun asoziatiboari, hitzarmenak egiteko aukerak mugatu eta lehiaketen betekizuna ezartzen baitu (*Ttakun*).

Alderdi hauek oztopo izan litezke hizkuntza aktibazioan. Legeak aktibazioa ito ez dezan, beharrezkoa dirudi hausnarketa egin eta konponbiderako formulak aztertzea.

6. HEMENDIK AURRERAKOAK

I Esan bezala, proiektu hau oraindik ere abian dago. Arrasate eta Tolosaldeko esku-hartzeak bukatuko dira 2018an eta Eibarko informazioa ere jasoko da. Horko ondorioekin herrietan eta eskualdeetan herritarrak euskararen alde aktibatzeke jorratu beharreko bideari buruzko gomen-dioak argitaratu eta hedatuko dira.

Gainera, Soziolinguistika Klusterraren beste proiektu batean Euskaraldiari buruzko ikerketa egingo da eta bertan aztertuko den gaietariko bat antolatzaileen bizipenei eta ekarpenei buruzkoa izango da. Zalantza barik, Tokian tokiko aktibazioari buruzko ikerketaren eta *Euskaraldiari* buruzko ikerketa proiektu horren arteko loturak nabarmenak dira eta ahalegin berezia egingo da biak lotzeko. ●

OHARRAK

1. <http://www.garabide.eus/blogak/allartean/2017/04/05/parte-hartzea-birpentsatu/>
2. “El doble movimiento, la rotación sobre el propio eje y el traslado sobre el plano, son los dos modos complementarios de entender el cambio social: desplazamiento y retorno. En efecto, no alcanza con moverse, desplazarse del lugar material y simbólico heredado; hace falta, además, un movimiento como la danza, circular, capaz de horadar la epidermis de una identidad que no se deja atrapar porque cada giro la reconfigura” Zibechi, Raúl. (2007) *Autonomías y emancipaciones*. Programa Democracia y Transformación Global. Facultad de Ciencias Sociales, Universidad Nacional Mayor de San Marcos. Lima, Peru. (16. or.)
3. <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/aktualitatea/albisteak/kooperatibagintza-4-topaketa-2016>

BIBLIOGRAFIA

- Dañobeitia Ceballos, Olatz eta Zesar Martínez García, Joxemi Zumalabe Fundazioa. (2014-2015) *Ikusmiran egoeraren azterketa. VII eranskina* (2). Euskaltzaleen Topagunea. Topaldia 2016 “Euskaltzaleen aktibazioa XXI. mendean; autoeraketa, ahalduntzea eta performatibitateak”.
- Zibechi, Raúl. (2007) *Autonomías y emancipaciones. Programa Democracia y Transformación Global*. Facultad de Ciencias Sociales, Universidad Nacional Mayor de San Marcos. Lima, Peru.

Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan-munduan

Pello Jauregi

*EHU/UPV- Euskal Herriko Unibertsitatea**

pello.jauregi@ehu.eus

Pablo Suberbiola

*Soziolinguistika Klusterra***

p.suberbiola@soziolinguistika.eus

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. *Eusle metodologia* euskararen erabilera areagotzea ekar dezakeen dinamika bat da, kide guztiek gutxienez euskarazko ulermen on bat duten taldeetan aplikatzeko sortua. 2012an sortu genuen tresna, Aldahitz Ikerketa-proiektuan, hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak ikertzeko garatzen ari garen lan-ildoaren baitan. Lan honetan, 2013 eta 2016 artean hamahiru lantegitan egindako esperientzien emaitzak eskaintzen dira. Tresna sinplea eta eraginkorra suertatzen ari da metodologia hau euren hizkuntza-ohiturak euskararen aldera aldatu nahi dituzten taldeentzat eta, hala, metodologia aplikatu den kasu guztietan euskararen erabilerak gora egin du modu adierazgarrian. Erabilerari ikuspegi kolektibo batetik begiratzen diogu lan-ildo honetan, eta aztertutako esperientzietan taldea da erreferentzia, ez banakoa. Hala, metodologia horren bitartez, eratzen da dinamika berri bat non, talde-borondatea oinarri, lankide batzuen euskarazko erabilera berriak zentzua eta zilegitasuna dituen, modu horretan ohituren aldaketari atea zabalduz. • **Hitz gakoak:** hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-erabilera, euskara, ikuspegi sistemikoa, zilegitasuna.

Abstract. The Eusle methodology is a dynamic system that can increase the use of Basque and has been created for the application by all the members in groups with a minimal understanding of Basque. We came up with the tool in 2012, in the Aldahitz Research project, as a part of a line of work we have been developing to study changing language habits. In this paper, the results of experiences in thirteen workshops between 2013 and 2016 are offered. This methodology is a simple and efficient tool for groups that wish to shift their language habits towards Basque and, in any case, the use of Basque has increased in a significant way. In this angle of research work, we take a look at usage from a collective point of view, and the experiences analyzed are referred on a group basis, not on an individual basis. Thus, by using this methodology, a new dynamic is formed, in which the basis of the group's determination and new uses of Basque by some members make sense and gain legitimacy, thus opening the way to changing habits. • **Key words:** linguistic habits, language use, Basque, systemic approach, legitimacy.

* UPV-EHuko ikerlari eta irakaslea da, eta Klusterreko Aldahitz proiektuko zuzendari gisa ari da 2010az geroztik.

** Soziolinguistika Klusterreko ikerlari-teknikaria da, eta Aldahitz proiektuko arduraduna 2010ean sortu zenez geroztik.

1. SARRERA

I

Lan honetan aurkezten den *Eusle metodologiaren* garapena eta ikerketa Aldahitz proiektuaren baitan ari gara egiten azken urteotan Soziolinguistika Klusterrean, EHUrekin lankidetzan. Eta gai nagusi baten inguruan garatzen dugu Aldahitz Ikerketa: hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa. Zehatzago esan, finkatuta dauden harremanetan, gaztelaniatik euskarara gertatzen diren aldaketa-prozesuen ezagutzaren inguruan ardaizen da proiektua.

Aldahitz Ikerketaren baitan aurretik eginiko beste lan batzuen ondoren, 2012. urtean sortu genuen *Eusle metodologia*.¹ Behin tresna sortuta, 2013az geroztik, urtero antolatu eta ikertu izan ditugu lantokietan metodologia horren araberrako esperientziak eta haien emaitzak. Eta argitara ere eman izan ditugu, 2015 eta 2017. urteetan, ondorengo bi lanetan: hurrenez hurren, *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan* eta *Aldahitz Ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016*. Artikulu honetako informazioa osatu nahi izatera, beraz, irakurleak nahi adina xehetasun aurkituko du bi lan horietan.

Oro har, ekintza-ikerikuntza paradigmaren baitan garatzen da, gehienbat, Aldahitz Ikerketaren lana, eta *Eusle metodologia* bete-betean da ikerketa aplikatua. Aplikatua, eta lankidetzan garatua. Soziolinguistika Klusterrean beste hainbat proiektutan bezala, Aldahitzen kasuan ere erakunde eta eragile ezberdinen arteko lankidetzak da proiektu hau garatzeko oinarrietako bat, besteak beste, hausnarketa teorikoa eta aplikazio praktikoa ongi uztartzeko egitura oso egokia eskaintzen diguna.²

Hemen aurkezten diren emaitzak 2013 eta 2016 urteen artean –biak barne– garaturiko esperientziei dagozkie. Hamahiru lantoki ezberdinetan lankide-taldeekin garaturiko esperientziak dira. Horien antolaketa eta jarraipenak, aipatu berri dugun lankidetzaren sarearen laguntza eskatu du, baina ez harena soilik: beharrezkoa izan da gune bakoitzeko lankideen prestutasuna eta laguntza ere. Beherago metodologiaren atalean kontsulta liteke zein diren lantoki horiek, eta lerro hauek ere baliatu nahi ditugu partaide izan ziren lankideei gure eskertza adierazteko.

2. OINARRI TEORIKOAK

I

Gure ikerbidean hizkuntza-jokaeraz hitz egiten dugunean, ulertu behar da funtsean ikuspegi sistemiko batetik hitz egiten ari garela. Askok zor diegu zentzu horretan Sistemen Teoria Orokorriari (Von Bertalanffy,

Aldahitz Ikerketa finkatuta dauden harremanetan, gaztelaniatik euskarara gertatzen diren aldaketa-prozesuen ezagutzaren inguruko azterketa da.

**Aurkezten diren
emaitzak 2013
eta 2016 urteen
artean –biak
barne-
garaturiko
esperientziei
dagozkie;
hamahiru lantoki
ezberdinetan
lankide-taldeekin
garaturiko
esperientziak.**

Ashby), eta, era berean, Watzlawick bezalako konstruktibisten giza komunikazioari buruzko ikuspegi sistemikoari. Humberto Maturana ere inspirazio iturri da guretzat. Konplexutasun eremu berrietara eraman baitu ikuspegi sistemiko klasikoa, objektibotasunaren kontzeptua auzitan jarritz. Azkenik, Edward de Bonori zor diogu prozesu mentalen ikuspegi dinamiko eta sistemikoa ere, bereziki sistema auto-erregulatuei buruz ematen duen ikuspegia.

Hizkuntza-jokaera gizarte sistema bat da, non subjektu batzuek elkarrekiko jokatzan duten hizkuntza-arau baten eraginpean (Jauregi, 1999). Elkarrekintzan diren subjektuek beraiek eraikitzen dute hizkuntza-araua, eta denboran zehar hari eusten diote jokaera errepikatzen duten neurrian. Hizkuntza-arau batek biltzen du subjektuentzat desiragarri, egingarri eta eramangarri den jokaera. Harreman zirkular batean, subjektuek eraikitzen dute hizkuntza-araua, eta, atzera, hizkuntza-arauak erregulatzen ditu subjektuen beraien hizkuntza-jokaerak.

Hizkuntza-ohitura da subjektu batzuek komunean duten hizkuntza-arau baten araberrako jokaera automatikoa. Eta hizkuntza-ohituraren aldaketa da subjektu batzuek hizkuntza-araua moldatzeko edo iraultzeko komunean egiten duten saiakera. Aldaketa honek badakar berekin sistemaren berregituraketa sakona, kideen jokaera erregulatzen duen araua bera ezabatu eta berria eraiki behar delako, kideen arteko harremanak bestelakoak izateko bidean.

2.1 Sistema baten berregituraketa

Beraz, sistema bat berregituratzen ari gara hizkuntza-ohitura aldatzen ari garenean. Prozesu horrek sistemako kide guztiak astintzen ditu, hizkuntza-araua ukitzerakoan kide guztien jokaera erregulatzen duen euskarri nagusia ukitzen ari delako.


Sistema bat ez da aske eta zabala den eremu bat, baizik eta araututa, mugatuta eta determinatuta dagoena. Sistemak definizioz antolamendu eta egitura dituzten eremuak dira. Antolamendu eta egitura haiek logika jakin bat ematen diote sistemari. Haiek errealitate-eremu bat sortzen dute, non jokaera batzuk ahalbidetzen diren, eta beste batzuk baztertzen diren.

Hizkuntza-araua da sistema komunikatibo baten egiturazko alderdi nagusia. Hizkuntza-arauak “itxi” egiten du jario askea, elkarrekintzari forma jakin bat emateko. Hizkuntza-arauak zehazten du zein hizkuntza-jokaerak diren onargarri eta zeintzuk baztergarri. Honek sistemari oreka eta egonkortasuna ematen dizkio. Kideen jokaerak hartara mol-

datzen dira, eta behin eta berriz errepikatzen dira (“bertako mugimendua”³). Kideek jada ez dute pentsatu behar nola jokatu, ez dute erabaki behar une bakoitzari zer dagokion hoberen. Hizkuntza-jokaerak automatiko bihurtzen dira.

Sistema orok joera du orekarako. Eremu batek egonkortasuna eskuratu behar du, sistema izango bada. Eta behin oreka lortuz gero (hizkuntza-araua esaterako mamituz gero) uzkur agertzen da aldaketen aurrean. Buru egiten dio bere iraupena kolokan jar dezakeen orori. Bere burua defenditzeko mekanismoak abiatzen ditu. Bere funtzionaltasunari heldu nahi dio. Ez du bere erosotasuna aztoratzerik nahi.

1. irudia. Bertako eta aurrerako mugimendua



Baina saiatu arren, sistema batek ezin ditu ezusteak guztiz saihesti. Sistema baten egonkortasunerako arriskuak beti dira presente neurri desberdinetan.

1. Ezusteek era ugartan eragin dezakete sistemen funtzionamendua.
2. Honako lau egoera hauek, behinik behin, eman daitezke:
3. Ezusteak ez du kilikatze-atarira eramaten sistema, eta, beraz, ez da egokitze mekanismoa abiatzen. Sistemaren egiturak ez du aldaketa abiatu beharrik.
4. Ezusteak egokitze edo moldatze txikiak eragiten ditu sisteman, sistemaren egituraren eta logikaren ildo nagusia ukitu gabe, bere horretan jarraituta.

Ezusteak egokitze saio handia eragiten du sisteman, egituraren oinarritzko osagai batzuk errotoz eraldatu beharra dakarrelarik.

Ezusteak hain bortizki jotzen du sistema baten bihotzean, hura ezin barneraturik desegin egiten baita. Haren hondakinak beste sistema batzuk osatzeko erabiliko dira gero.

Hizkuntza-araua da sistema komunikatibo baten egiturazko alderdi nagusia: zehazten du zein hizkuntza-jokaerak diren onargarri eta zeintzuk baztergarri.

**Sistema orok
joera du
orekarako.
Eremu batek
egonkortasuna
eskuratu behar
du, sistema
izango bada. Eta
behin oreka
lortuz gero
(hizkuntza-araua
esaterako
mamituz gero)
uzkur agertzen
da aldaketen
aurrean.**

Ezusteek “aurrerako mugimendua”⁴ eragiten dute sistema batean, intentsitate gradu desberdinetan. Bertan sortzen da sistema berrantolatzeko beharra.

Sistema orok baditu elkar truke etengabeak inguruarekin. Ingurua izaten da sarritan ezusteen iturri nagusia, sistematik kanpoko osagai batzuek alertan jartzen dituztelarik sistemaren defentsa mekanismoak. Ezaugarri hau gogoan harturik, hona hemen ezusteen iturriei buruzko behin-behineko sailkapen bat:

1. *Kide berriak* barneratu zaizkio sistema bati.
2. Kide zaharrek *aldagai berriak* garatu dituzte beren baitan beste sistema batzuen parte diren neurrian ere.
3. Inguruko *sistema berri* batek zuzenean eragin du beste sistema batean.
4. Sistemen arteko hartu-emanak arautzen dituzten *baldintza berriak* ezarri dira.

Bai, bide hauetan guztietan barrena etor daiteke ezustea eta sistemaren orekarako arrisku potentziala. Oreka eta ezustea, ezustea eta oreka, biak ala biak dira sistema baten funtzionamenduaren oinarritzko ezaugarriak.

Hizkuntza-arauak adierazten du egoera orekatu eta egonkorra sistema batean. Hizkuntza-araua aldatzeak, ordea, adierazten du sistema berregituratzen ari dela faktore berrietara egokitu ahal izateko. Berregituratze prozesuak normalean aztoragarriak izaten dira, ahalegina, arreta, esperimentatzea, probatzea edo arriskatzea eskatzen baitute. Aldi ez-egonkor samarrak izaten dira. Hizkuntza-arau berria mamitzerakoan, ordea, berriz eskuratzen du oreka hizkuntza-sistema batek, oraingoa bestelako logika baten barruan bada ere.

2.2 Funtzioen osagarritasuna

Hizkuntza-arauaz entitate objektibo gisa hitz egiten badugu ere, funtsean ezin da kideen jokaeratik guztiz bereizi. Kideek beraiek sortu dute hizkuntza-araua beren elkarrekintzen ondorioz, eta kideek beraiek hauspotzen dute etengabe haren egitekoa beren jokaerarekin. Era berean, kideek dute ardura hizkuntza-arau berria eraikitzeko, zirkunstantziek hartara behartzen dituztenean.

Hiru faktorek laguntzen dute hizkuntza-arau berria eraikitzen eremu jakin batean kokatzen garenean:

1. Jokaera urratzaileen zilegitasuna ziurtatzea.
2. Jokaera eragozleen neutralizazioa lortzea.
3. Jokaera egokitzaileen hazkundera bizkortzea.

Jokaera urratzaileak hizkuntza berria erabiltzen du lehen hizkuntza zaharra erabiltzen zen harremanetan. Jokaera urratzaileak hizkuntza berria erabiltzerakoan hizkuntza-arau zaharra auzitan jartzen du. Ezarritako mugak gainditzen ditu. Arrotz zena bertara ekartzen du. Aldi berean, aukera berri bat plazaratzen du. Beste hizkuntza-arau baterako bidea seinalatzen du. Jokaera urratzailea da sistema berregokitzeko motorra⁵.

Jokaera urratzailea kontrakotasun handiko eremu batean agertzen denean, berehala dira lehia, borroka eta gatazka. Indar-deman ebatziko da orduan jokaera urratzaileak dirauen edo etsi behar duen. Aldiz, jokaera urratzaileak taldekideen oniritzia eta zilegitasuna eskuratzen dituenean, elkarlanak eman egiten ditu bere fruituak. Orduan, taldearen indar guztiak hizkuntza-arau berria eraikitza bideratzen dira, eta jokaera urratzaileak gidatu egiten du egoera berrirako ibilbidea.

Guk adostasun handiko eremuak bilatuko ditugu gure jardunean. Talde batean hartutako erabaki kualifikatuek⁶ emango dute horren neurria. Adostasun zabal horrek murriztu egingo ditu aldi berean aldaketarako erresistentziak. Izan ere, jokaera urratzaileen zilegitasuna eskuratzea bat dator jarrera eragozleen murriztearekin. Bata gertatu gabe ezin da bestea eman. Erabaki kualifikatu hori aldiro berretsi beharrak handitu besterik ez du egingo zilegitasunaren eragina⁷.

Taldeak emandako zilegitasunaz baliatuta, jokaera urratzaileak ausarta, sendoa eta iraunkorra izan behar luke, sistemaren berregituraketa bururaino eramango bada. Ausarta, zeren arau baten edozein urraketak berekin baitakar deserosotasuna, bai eta zailtasun berriei aurre egin beharra ere. Lehen erabilera-baliorik ez zuen hizkuntzari erabilera-balioa ematean astindu egiten ditu kide guztien hautemateak, sentimenduak eta jokaerak. Ausardia puntua behar da zama horri guzti horri eusteko. Sendoa, hizkuntza-jokaera berria eremuaren funtzio guztietara eta pertsona guztiengana eramateko. Sendotasun horrek koherentzia ematen dio jokaera urratzaileari. Bere eragina zabalago eta sakonago hedatzen da sistema osoan zehar, hizkuntza-arau berriaren eraikuntza bizkortuz. Eta, iraunkorra ere izan behar du, zeren aski denbora eman behar baitzaio sistema bati egoera berrira egokitzeko.

Jokaera eragozleen neutralizazioa aipatu dugu bigarren faktore gisa. Adostasunaren ifrentzua bera da puntu hau. Jokaera eragozleak dira hiz-

**Hizkuntza-
arauak
adierazten du
egoera orekatu
eta egonkorra
sistema batean.
Hizkuntza-araua
aldatzeak, ordea,
adierazten du
sistema
berregituratzen
ari dela faktore
berrietara
egokitu ahal
izateko.**

**Hiru faktorek
laguntzen dute
hizkuntza-arau
berria eraikitzen
eremu jakin
batean kokatzen
garenean: 1)
Jokaera
urratzaileen
zilegitasuna
ziurtatzea, 2)
Jokaera
eragozleen
neutralizazioa
lortzea eta 3)
Jokaera
egokitzaileen
hazkundera
bizkortzea.**

kuntza-arauari eusteko sortzen diren defentsak mekanismoak. Indar kon-
tserbatzaileak dira, dagoenari eusten diotenak, eta, ondorioz, aldaketari
traba jartzen diotenak. Oso erraza da jokaera eragozleak sortzea, talde
bati eskatzen zaionean ongi funtzionatzen duen hizkuntza-arau baten
ordez zailtasunak (alditxo batez bederen) ekarriko dizkion beste hiz-
kuntza-arau bat hartzeko. Horregatik, kontu estrategikoa da jokaera
eragozleen agerpena murriztea. Bi tresna erabiltzen ditugu *Eusle meto-
dologian* hori lortzeko. Batetik, demokraziaren balioa: taldearen nahi
kualifikatuta, taldearen ahala eta kontrola, erabakitze gaitasuna eten-
gabe aplikatuta. Bestetik, kide gehienei aukera ematea hizkuntza-joka-
bide zaharrek jarraitzeko⁸. Jokabide zaharrek aritu nahi duenari
hala jokatzeko eskubide osoa ezagutzen zaio, eta horrek murrizten du
halakoen jokaera berriarekiko balizko eragozpena. Ez daude jokabide
berrian aritzera behartuta. Bakarrik egingo dute hartarako gogoak ematen
badie. Kontrol sententzio erreala ematen die horrek kideei. Seguru
sentitzen dira. Badakite ez dutela egingo nahi ez duten ezer. Segurtasun
horrek murrizten du jokaera eragozleen agerpena.

Kideen funtzioen mapa osatzen da *jokaera egokitzaileen* hazkunderarekin.
Jokaera urratzaileak onartuta eta jokaera eragozleak neutralizatuta,
giron sortzen da kideak egoera berrira modu natural, aske eta oharka-
bean moldatzeko. Are gehiago, beste ezaugarri bat gehitzen badiogu
eremuari: kide guztiek gauza izatea hizkuntza berria ulertzeko⁹. Eza-
garri hori dela medio, kideen arteko komunikazioa ziurtatzen da, baita
funtzio urratzailea duten kideek hizkuntza berria erabiltzen dutenean
ere. Kideen arteko komunikazioa ahalbidetzea da hizkuntza-arau ororen
funtzio nagusia. Hizkuntza zaharrak jada ez du funtzio horren mono-
poliorik. Hizkuntza berriak ere funtzioa bera bete dezake orain, batzuek
hizkuntza berria erabiltzen dutelako (jokaera urratzailea dutenek) eta
beste batzuek hura ulertzen dutelako (jokaera egokitzailea dutenek).

Prozesua, hala ere, oso asimetrikoa da. Hizkuntza-arau zaharra aplika-
tzea guztiz eroso den bitartean, hizkuntza-arau berria gauzatzea era-
gozpenez beterik dago. Bien artean aukeratu behar izatekotan, erosota-
sunaren alde egiten da normalean, biderik zailena alboan utzita. Hala
iragartzen du behinik behin disonantzia kognitiboaren teoriak (Festinger,
1975; Aronson, 2007; Beauvois eta Joule, 1981).

Teoria honen baieztapen nagusietako batzuk honako hauek dira:

1. Kognizio ugari osatzen du gure hautemate-eremua. Kognizioa
da zerbaiti buruz dugun ezagutza, hots, horri buruz dakiguna.

Oharmenaren edukiak dira finean. Kognizioak dira, beraz, gure buruari buruz, besteei buruz edo egoerari buruz ohartuki dakizkigun gauzak. Horren barruan sartzen da nola hautematen ditudan nire aldarteak, nire zirrarak, nire gogoetak, nire balioak, baina baita nire jokaerak ere. Ohartu egiten naiz egiten dudana, eta hori kognizio gisa gordetzen dut nire hautemate-eremuan.

2. Kognizio batzuen arteko harremana gatazkatsua denean edo haien arteko adostasuna galtzen denean –bereziki, kognizio horiek nork beretzat garrantzizkotzat hartzen dituen kognizioak direnean, eta bere buruaren definizioarekin edo balio nagusiekin zerikusia dutenean–, orduan disonantzia kognitiboa sumatzen da gorputz-gogoan, halako sentiera ezkor, atsekabe, eta gatazkatsua.

3. Disonantzia kognitiboa sentitzean, berezko beharra sortzen zaio gizakiari hartatik aldenitu eta kontsonantzia (barne-adostasuna) berreskuratzeko. Disonantziak, beraz, gosea premia fisikoaren antzera jotzen du; hau da, gosearen hozka sumatuta gosea berdintzeko berezko grina agertuko zaio gizakiari. Disonantziak, beraz, berezkoa du eragin motibatzailea.

4. Disonantzia ideia baten eta jokaera baten artean denean, esaterako, hiru modu nagusi daude barne-adostasuna berreskuratzeko.

- a. Ideia aldatu jokaerarekin bat egiteko
- b. Jokaera aldatu ideiarekin bat egiteko
- c. Beste kognizio bat asmatu aurreko bi kognizioen aurkakotasuna arintzeko

Teoria honek, funtsean, aurretik aipatu ditugun bi printzipio sistemikoak (orekaren printzipioa eta ezustearen printzipioa¹⁰) gogoan hartzen ditu. Hala, Festingerren aburuz, sistema batean ordena, oreka eta koherentzia galtzen denean, bere hitzetan “kontsonantzia”, (ezustearen printzipioak azal lezake sistema batek tarteka zergatik galtzen duen kontsonantzia), orduan halako desatsegina, halako egonezina sortzen da kideen artean edo kide bakarraren baitan (Festingerrek honi “disonantzia” esaten dio). Disonantziak indarra, motibo eta grina sorrarazten du berrirori kontsonantzia eskuratzeko (orekaren printzipioa). Disonantzia baztertzeak eta kontsonantzia eskuratzeko moduei buruz, Festingerrek kontuan hartzen du osagaien arteko indar-jokoa, eta hala kideak edo kideek beti aukeratuko dute lehian diren osagaietako indartsuena, eta ahulena baztertuko, kontsonantzia eskuratzeko. Beraz, osagairik indartsuena lehenetsita eta ahulena baztertuta berreskuratzen dute kideak eta kideek oreka berrirori. Izaten denean disonantzia uste baten eta jokaera baten artekoa, normalean jokaera da alderdirik indartsuena eta ustea ahulena.

**Jokaera
eragozleak dira
hizkuntza-
arauari eusteko
sortzen diren
defentsak
mekanismoak.
Oso erraza da
jokaera
eragozleak
sortzea, talde
bati eskatzen
zaionean ongi
funtzionatzen
duen hizkuntza-
arau baten ordezkari
zailtasunak
(alditxo batez
bederen)
ekarriko dizkion
beste hizkuntza-
arau bat
hartzeko.**

**Hizkuntza-arau
zaharra
aplikatzea guztiz
erosoa den
bitartean,
hizkuntza-arau
berria gauzatzea
eragozpenez
beterik dago.
Bien artean
aukeratu behar
izatekotan,
erosotasunaren
alde egiten da
normalean.**

Ohikoagoa da usteak jokaerara moldatzea, jokaera usteetara baino.

Indar-joko baten aurrean gaude. Elkarri egokitzeke garaian, alderdirik indartsuenak bereari eutsiko dio (neurri desberdinetan bada ere), eta alderdirik ahulenak etsi egingo du (neurri desberdinetan bada ere). Ahula indartsuari egokituko zaio. Beraz, funtsezko dugu jakitea eremu batean zein diren alderdi indartsuak eta zein alderdi ahulak, egokitze sistemikoaren norabidea aurreikusteko.

Aurretik esana dugu hizkuntza-arau zaharraren eta berriaren arteko elkarbizitzak izaera asimetrikoa duela. Arau zaharrak du posizio indartsua: bere alde ditu erosotasuna, historia, esperientzia, erraztasuna. Arau berria, ordea, posizio ahulean dago: zailtasunak, ahalegina, arazoak. Beraz, oso litekeena da arau berriaren gauzapenak dakarren disonantzia gainditzeko (eta disonantzia graduren bat ezinbestekoa da beti edozein arau sistemiko aldatzerakoan) kideak berriz ere arau zaharraren aterpe gozora makurtzea. Horregatik, beharrezko egiten da neurri sistemikoak hartzea alderdi ahulak jokaleku berrian alderdi indartsu bihurtzeko, eta horrela egokitzearen indarra bere alde jartzeko.

Bi neurri sistemiko aplikatu ditugu *Eusle metodologian* alderdi ahula indartsu bihurtzeko. Lehena da taldeak onartzea kide gutxi batzuek hizkuntza berrian ariko direla kide guztiekin eta jarduera guztietan (horixe bera da jokaera urratzailea), eta, ondorioz, ezin dutela komunikazio helburuak eskuratzeko, hizkuntza zaharraz baliatu. Era berean, ez die inork ere kide horiei eskatuko hizkuntza zaharrean aritzeko. Beste hitz batzuetan esanda: taldeak onartu du kide batzuek (jokaera urratzailea izango dutenak) ezin dutela komunikatzeko hizkuntza zaharraren eta berriaren artean aukeratu, ezinbestean hizkuntza berrian aritu behar dutela. Ordea, gainerako kide guztiek aukeran izango dute hizkuntza zaharrean ala berrian aritzea. Zer gertatuko da harremanetan hasten direnean? Oso ohikoak izan daitezke, esate baterako, ele biko elkarriketak. Eusleak (kide urratzaileak) hizkuntza-arau berria aplikatzen du, baina gainerako kideek ohituraren eraginez hizkuntza-arau zaharra aplikatu dezakete maiz. Egoera ez da samurra. Arrotza eta disonantea izaten da ele biko elkarriketa. Zer gertatuko da? Zein norabide hartuko dute kideek disonantzia gainditzeko eta kontsonantzia eskuratzeko? Espero izatekoa da, disonantzia kognitiboaren teoriaren arabera, hizkuntza-arau berrira makurtuz berreskuratuko dutela kontsonantzia. Orain “ezin” du kide urratzaileak (eusleak) hizkuntza zaharraz baliatu disonantzia saihesteko, baina gainerako kideek bai erabil dezakete hizkuntza berria hori lortzeko. Beraz, hizkuntza berria alderdi indartsu

bihurtzen da, bera baita disonantzia ekiditeko bide bakarra, bera baita erosotasun eta oreka berreskuratze bide bakarra. Egoera honek kide gehienek jokaera egokitzailerik bizkortzen du modu naturalean, beren baitan disonantzia bizi eta hura gainditzeko irtenbidea beren esku dutelako.

Bigarren neurria, alderdi ahula indartsu bihurtzeko, da jokaera urratzailea izango dutenak (eusleak), ez beren erabakiz hala jokatzeko, baizik eta taldeak berak aukeratuak izan direlako hala jokatzeko. Bestela esanda: jokaera urratzaileari kentzen zaio konnotazio pertsonala, eta kolektiboa ematen zaio. Eusle bat, jokaera urratzailea erakusten duenean, ez da izen propioz ari, taldearen enkargu bat betetzen ari da. Eusle batek hizkuntza zaharrari heltzen ez badio, ez da nahi ez duelako, baizik eta taldeak emandako funtzioa betetzearen ondorioz ezin duelako. Beraz, bere jokaera ez da erantzukizun pertsonala, kolektiboa baizik. Horrela jakituta are indartsuago bihurtzen dugu eusleen posizioa. Atribuzioaren teoriak (Heider, 1958; Weiner, 1971; Moskowitz, 2005) ongi azal lezake kontu hau. Haren arabera, joera edo beharra izaten dugu gizakiok beste gizakideen ekintzen atzean dauden arrazoiak, motiboak edo asmoak antzemateko. Etengabe galdetzen diogu geure buruari: halako ekintza bat pertsona horrek egin duenean, zergatik egin du? Asmo onez ala txarrez egin du? Kalte egin nahi dit edo ez? Badirudi, hurkoari egozten dizkiegun asmoek geure baitan oso aldarte desberdinak sorrarazten dituztela. Kontsideratzen badugu solaskideak guregana egokitzen ahal duela baina ez dela egokitzen NAHI EZ duelako, baliteke gure baitan harekiko erresistentziak eta gaitzespen sentipenak erraz ernatzea. Era berean, kontsideratzen badugu solaskideak guregana ez dela egokitzen benetan EZIN duelako, orduan harekiko enpatia eta uste ona nagusituko zaigu, eta ez dugu arazorik izango ahal izanez gero gu harengana egokitzeko, bera guregana egokitu ezinean dabilenez. Lehenengo kasuan agian ez dugu egokitzea beste erremediorik izango baina egokitze horretan amorrua eta eragozpena izango dira nagusi. Bigarren kasuan, ordea, era gozo, natural, adiskidetsu eta ahaleginik gabean egokituko gara.

Beraz, eremua berregokitu nahi dugunean, baldintza sistemikoak sortu behar dira jokaera eragozleak neutralizatu, jokaera urratzaileak abiatu eta jokaera egokitzailerik bizkortzeko. Hori lortzeko, neurri batzuk aipatu ditugu aurreko lerroetan.

2.3 Energia iturriak

Mugimendua energiaren hornitu behar da, geldituko ez bada. Bertako mugimenduetan gastu energetikoa txiki izaten da, funtsezko mekanismoak

**Arau berria
posizio ahulean
dago:
zailtasunak,
ahalegina,
arazoak. Beraz,
oso litekeena da
arau berriaren
gauzapean
dakarren
disonantzia
gainditzeko
kideak berriz ere
arau zaharraren
aterpe gozora
makurtzea.**

**Aldaketa prozesu
arrakastatsu
batek, ondo
bidean, bi indar
motibatzaile
ahaltsu ernatzen
ditu.**

**Batetik,
jardutearen
atsegin, jardutea
bere baitan
aintzat hartuta,
eta, bestetik,
erabilera-balioa,
jardutearen
edukiaren
funtzionaltasu-
nari begiratuta.**

era automatikoan gertatzen baitira. Hala, esaterako, gure jokaera ohitura batek gobernatzen duenean apenas dagoen gastu energetikorik, ez baitugu pentsatu behar, ez baitugu saiatu behar, ez baitugu aukeratu behar. Ordea, sistema bat berregituratzen denean (eta izaera horretakoa da kide batzuen arteko hizkuntza-ohitura aldatzea), energia hornitze handiagoa behar izaten da, *aurrerako mugimenduak* bere zereginean behar baititu inertzia zaharrak gainditu, eta eremu berrietan sendo ibili.

Uste izatekoa da berregituratze-prozesu batek zenbat eta gastu energetiko handiagoa eskatu, orduan eta prozesua bera abiatzea nekezagoa izango dela. Estrategia energetiko batek bilatu beharko luke, lehendabizi, abiatzeko lehen urratsa ahalegin txikikoa izatea. Horixe bilatzen du *Eusle metodologiak* eginkizun sinple eta zehatza eskatuz, jarduera espazioan eta denboran argi mugatuz, eta kontrola eta erabaki-ahalmena taldearen esku utziz.

Behin talde bat berregituratze zereginean abiatuz gero, estrategia energetikoaren bigarren zutabea da prozesuak berak bere garapenean, eta esperientzia arrakastatsu txikiak metatuz, barne motibazioa sortu behar duela, prozesu osoari etengabe eutsiz.

Aldaketa prozesu arrakastatsu batek, ondo bidean, bi indar motibatzaile ahaltsu ernatzen ditu.

Batetik, *jardutearen atsegina*¹¹, jardutea bere baitan aintzat hartuta, eta, bestetik, *erabilera-balioa*, jardutearen edukiaren funtzionaltasunari begiratuta. Bi indar motibatzaile hauek, bestelakoak izan arren, batera gertatzen dira, txanpon beraren bi aldeak bailiran. Prozesuari lotutako indar motibatzaileak izanik, euren ziztada hasieratik bertatik hasten da nabaritzen, eta, egia esan, prozesu osoaren eusle nagusi izatera iristen dira. Bidean zehar bizi izandako tarteko emaitza txikien aseak lorpen handiagoak eskuratzeko zirika eta elikagai bihurtzen dira.

Jardutearen atsegina esperimentatzen da arizaleek *jario* esperientziak bizi dituztenean. Jarioaren kontzeptua Mihaly Csikszentmihalyi-k plazaratu zuen 90ko hamarkadan adierazteko nolakoa den pertsonen esperimentatzen duten zoriontasuna erronka bati heltzeko gai sentitzen direnean. Haren ustez hiru dira, nagusiki, jardute jarioitsu batek eskatzen dituen baldintzak: lehenik, erronka bat behar da, eta erronka horrek helburu argia eduki behar du; bigarrenik, erronkaren zailtasunaren eta arizaleen gaitasunaren arteko proportzioak orekatua izan behar du; eta, azkenik, arizaleek lorpenei buruzko etengabeko *atzera-informazioa*¹² eduki behar dute (Csikszentmihalyi, 1997). Baldintza hauek ematen direnean

sarri bizi ditugu jario-egoerak. Handiak dira onura emozionalak. Aurrena, eta ez munta gutxikoa, arreta sakonki biltzearena da. Matazaren hari guztiak ehuntzen direla ematen du, pieza guztiek bat egiten dutela dirudi, eta arizaleen gogoan ordena, kontsonantzia edo negentropia halako sentiera atsegin bat zabaltzen da. Bestaldetik, arizaleek lorpen-suma dute, eta zerbait berria ikastearen, erronka bat gainditzearen edo bide interesgarri batean barrena aurrera egin izanaren poza eta harrotasuna sentitzen dute. Auto-estimua sendotzen da¹³.

Era berean, erabiliaren erabiliaz, azkenean jardutearen edukiak berak arizaleen estimua irabazten du. Eduki horrek erakusten du baduela praktikan funtzionaltasuna, baduela erabilia izateko balioa. Erabilera-balioa esan geniezaioke horri. Badu erabilera-balioak eragin motibataileak. Erabiltzen denak funtzioa du, balioa du, praktikotasuna du, zentzua du. Atxikitzen zaizkio gogotik arizaleak erabiltzen dutenari. Erabilera handitu ahala neurri berean handitzen da haren balioa erabiltzailearentzat. Zentzu horretan esan daiteke erabilerak berak baldintza egokiak sortzen dituela are gehiago erabilia izateko. Baldintza horien artean aipa daitezke: sisteman zentraltasuna eta funtzionaltasuna eskuratzea, arizaleen trebetasunak handitzea, eta, azkenik, arizaleen atxikimendu afektiboa areagotzea.

2.4 Laburpen gisa

Harremanen eremu sistemiko baten berregituratzeaz ari gara hizkuntza-arau baten aldaketaz ari garenean. Kideen arteko harremanak birmoldatu behar dira, hizkuntza-arau berriaren funtzionaltasuna eskuratzeko prozesua abiatzen denean. Ikuspegi horrek garamatza gizarte-eremuak bere osotasunean kontsideratzera, haien barnean dau-den harreman sistemikoak aintzat hartuz.

Bereziki, hiru harreman mota, hiru jokaera mota eta haiei lotutako zer-reginak hartu behar ditugu gogoan: 1) Hizkuntza-arau berria abiaraziko duten jokaera urratzaileek zentraltasuna eskuratzea, taldeak emandako zilegitasuna dela medio, 2) hizkuntza-arau berriarekiko jokaera eragozleen neutralizazioa lortzea, balio demokratikoen aplikazioen bidez, eta hizkuntza-arau zaharraren aplikazioa onartuz, eta 3) hizkuntza-arau berriarekiko jokaera egokitzaileen areagotzea, taldeak jokaera urratzaileari onartutako zentraltasuna dela medio.

Estrategia energetiko batek eutsi behar dio sistema baten berregituratzeari. Bi gako azpimarratu ditugu. Batetik, prozesua abiaraziko duen lehen urratsa eman ahal izateko erronka sinple, zehatz eta mugatuak

Metodologiaren ezaugarri nagusiak zazpi oinarriren bitartez deskriba ditzakegu. 1) esperientzien helburua: langile-sail jakinetan euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika bat sortzea; 2) Borondatezkoa izatea 3) Eusleak izatea (beti egingo dute euskaraz lantegi barruko harreman guztietan, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan, bai formaletan bai informaletan).

4) Ezagutzarena da: taldeko lankide guztiek euskarazko gutxienezko ezagutza izatea;
5) Jardun naturalarena: lantegi horietako eguneroko lan naturalaren baitan eta 6) sinpletasunarena: ahalik eta metodologiarik sinpleena baliatzea.

plazaratzearen beharra, kostu energetikoa handiegia izan ez dadin. Baina bestetik azpimarratu dugu, lehen urratsa eman ondoren, prozesuak behar duen energia prozesuak berak bere garapenean sortu behar duela. Esperientzia arrastatsu txikiak metatzerakoan bi indar motibataile sortzen dira prozesuan bertan: jardutearen atsegina eta erabilera-balioa. Indar hauek eutsi behar diote, barrutik, prozesu osoari.

3. EUSLE METODOLOGIAREN EZAUGARRIAK

I Aurreko uste teorikoak oin hartuta, *Eusle metodologia* sortu genuen 2012. urtean. Metodologiaren ezaugarri nagusiak zazpi oinarriren birtartez deskriba ditzakegu.

Lehen oinarria esperientzien *helburua* bera da: langile-sail jakinetan euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika bat sortzea izan da helburua. Dinamika berri horri erronka kutsua eman zaio, taldeak onartu behar izan duelako kide batzuen euskara hutsezko jokaera “urratzailea” denbora mugatu batez (bi hilabetez). “Posible al litzateke zuen arteko harremanetan kide batzuk euskara hutsez aritzea (euskal elebakar gisa alegia) eta laneko dinamikari kalterik ez egitea?” Horra hor erronka. Eta ondoren konbitea: “Prest al zaudete hori probatzeko?”

Bigarren oinarria *borondatezkoa* izatearena da. Esperientzia hauek tokian tokiko langile-taldean borondatez garatu dira, eta langile horien erabaki kolektiboa izan da haien abiapuntua eta oinarria. Baina erabaki horrek gehiengo kualifikatua behar zuen. Zehazki, esperientziak garatu diren sailletako langile guztien hiru laurdenen (%75) baiezkoa finkatu da baldintza modura, eta irizpide horren arabera erabaki da gune hauetan esperientziak abian jartzea. Erabaki kolektibo hau, gainera, ez da abiapuntua bakarrik izan: astero berretsi da. Esperientziek iraun duten bitartean, langileek astero erantzun behar izan dituzte lerro bateko bi galdera labur, eta horietako bat esperientzia jarraitzeari buruzkoa izan da. Horrela, esperientziek aurrera egiteko baldintza izan da, gune bakoitzean, langileen gehiengo kualifikatuak astero berrestea jarraitu nahi zuela. Hasieratik planteatu da horrela: uneren batean, dena delako arrazoiagatik, aldeko gehiengo hori galduko balitz, esperientzia bertan behera geldituko litzateke.

Hirugarren oinarria *eusleak* izan dira. Metodologia honetan *eusle* deitu dugun jokatzeko modu bat baliatu dugu, eta *eusle* gisa aritu diren lankideen eta gainerakoen artean eratzen den dinamika izan da aldaketarako hazia edo motorra. Horrela definitu dugu *eusle* gisa aritu den lankideak bete beharreko hizkuntza-araua:

Eusleek beti egingo dute euskaraz **lantegi barruko harreman guztietan**, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan, bai formaletan bai informaletan (dokumentu idatzietan, kontuan hartuko da dokumentuen ibilbidea). Hizkuntza-arau hori ez da aplikatuko **lantegi kanpoko harremanetan** (bezeroekin, hornitzaileekin, eta abarrekin) edo lantegi barruan bilerak kanpoko¹⁴ kideekin batera direnean. Kasu horietan, euslearen esku geldituko da zein hizkuntzan diharduen.

Eta honako baldintza hau ezarri zaie gainerako kide guztiei:

Eusleek baldintza horren arabera jardun ahal izateko, gainerako lankideek beste baldintza bat beteko dute: **ez diete eusleei eskatuko –ez formalki, ez informalki- euskaraz esan edo idatzitakoa gaztelaniaz jartzeko**. Bai eska dezakete euskaraz beste modu batean azaltzea, baina ez gaztelaniaz egitea. Era berean, lankideren batek beharko balu eusle batek euskaraz sorturiko dokumenturen bat (edo zati bat) itzultzea, ez dio eusleari berari eskatuko; beste lankideren bati eskatuko dio laguntza. Gainerakoan, eusle izateko hautatuak izan ez diren lankideek ez dute zertan eusleei euskaraz egin (beren esku egongo da).

Eusleak ez dira bere ekimenez eusle, taldeak berak aukeratu behar baititu. Eusleen aukeraketak hilabeterako balio du. Esperientzia luzeago izanez gero (gure kasuan esperientzia guztiak bi hilabetekoak izan dira), hurrengo hilabeterako taldeak beste eusle batzuk aukeratzeko dituzte. Une bakoitzean eusleen kopuruak taldekide guztien %20aren ingurukoa da (bost lankidetik bat).

Behin eusleak hautatuta eta hizkuntza-jokaera “berrituari” ekinda, horren jarraipena egin da esperientzia hauetan, asteroko jarraipenaren bitartez. Jarraipen horretan sumatu denean zailtasunak zeudela euskarazko jokaerari eusteko, zailtasun horiek nolakoak ziren zehatzago jakiteko saioa egin da koordinatzailearen bitartez. Saioa xume izaten da, eta eusleak esaldi bakar batean zehaztu behar izan du non izan duen zailtasuna, eta beste esaldi batean idatzi zer eskatzen dion taldeari laguntza gisa berak zailtasuna gaindi dezan. Euslearen eskaera hori taldekide guztiei jakinarazten zaie.

Laugarren oinarria **ezagutzarena** da. Esperientzia hauek garatzeko baldintzetako bat izan da gune horietan taldeko lankide guztiek euskarazko gutxienezko ezagutza izatea; zehazki, guztiak euskara ulertzeko gai izatea. Horrela definitu genuen ezagutza-maila hori, esperientzia hauen berri emateko dokumentazioan:

**Hizkuntza-
erabileraren hiru
neurketa egin
ditugu.
Lehenengo
neurketa
esperientzia hasi
baino lehen
Bigarren
neurketa
esperientzia
bukatzean
hirugarrena,
esperientzia
bukatu eta
handik hiru
hilera.**

**Batez beste,
%60,8ko
euskarazko
erabilera neurtu
genuen abiatu
aurreko unean
(Erabilera 1). Bi
hilabete geroago,
esperientziak
amaitu berritan
(Erabilera 2),
%76,1ekoa zen.
Esperientziak
amaitu eta hiru
hilabeteko
“atseden”
tartearen
ondoren
(Erabilera 3),
%71,4koa izan
zen.**

Euskarazko ezagutza edo ulermen-maila langile guztiek izatea. Esperientzia garatuko den lan-taldean edo sailean lankide guztiek izango dute euskarazko gutxieneko ezagutza bat; hau da, ez da sailean lankiderik egongo ahoz elkarriketa arrunt bat edo idatziz testu erraz bat ulertzeko gai ez dena. Horrek ez du esan nahi lankide guztiek euskaraz maila ona edo erraztasun handia izan behar dutenik, baina bai guztiak izatea euskara ahoz eta idatziz nahiko ongi ulertzeko gai.

Bosgarren oinarria *jardun naturalarena* da. Esperientzia hauek lantegi horietako eguneroko lan naturalaren baitan garatu dira, aparteko saiorik, bilerarik edo ikastarorik egin gabe, eta elkarrekin hurbileko harremana duten langile-sail naturalen testuinguruan.

Seigarren oinarria *sinpletasunarena* izan da. Bai proposatutako dinamikaren irizpideetan, bai datu-bilketarako sisteman eta bai asteroko jarraipenean, ahalik eta metodologiarik sinpleena baliatzea izan da esperientzia hauen ahalegina. Esperientzia martxan jarri edo ez erabakitze bilerak bana egin da gune bakoitzean, eta beste bat amaieran baloratzeko. Horrez gain, esperientziak iraun duen asteetan, langile bakoitzak astearen amaieran galdetegi bat bete du, baina minutu batean betetzeko modukoa. Galdetegi hori jarraipen sistema gisa erabili dugu, eta bi galdera xume baino ez zizkien egiten kideei: 1) eusleak bete al du bere egitekoea? (erantzunak: bai, erdipurdi, ez) eta 2) beste astebez jarraitzeko gogoak? (erantzunak: bai, ez). Saileko lankideetako batek koordinatzaile-lanak egin ditu, lankide guztien erantzunak jaso eta ikerketa-taldeari bidaltzeko. Eta horrez gain, hizkuntza-erabileraren bilakaera neurtzeko hiru une egon dira, non langileek galdetegiak bete dituzten. Baina hori izan da gune horietako langileei esperientziak eskatu dien guztia antolaketaren eta dedikazioaren aldetik.

Azkenik, zazpigarren oinarria ikuspegi soziologikoarena izan da, *talde-ikuspegiarena*. Esperientzia hauen arreta-gunea eta unitatea ez da langile bakoitza izan (norbanakoa), taldea baizik. Horretarako ezinbesteko baldintza bat izan da esperientziaren gunea, langile-taldea, zehatz definitzea. Departamendu edo sail bat izan da kasu guztietan esperientzia garatu den gunea, elkarrekin harremana maiz izaten duten lankideek osatutako gune ez oso handi bat, eta hasieratik ongi definitu da kasu guztietan talde edo gune hori osatzen zuten lankideen zerrenda. Modu horretan, esperientzian parte hartzen zuten lankideek garbi izan dute uneoro zein lankide zeuden sartuta dinamika horretan (eta zeintzuk ez, enpresa edo erakunde berekoak izan arren).

Bestalde, proposatutako dinamikan eta arauetan ere, oinarria taldea izan da. Taldeak erabaki du Aldahitz proiektutik proposatu edo eskaini zaion dinamika horren helburua bere egitea. Nolabait esateko, taldeak jarri dio erronka moduko bat bere buruari. Helburu kolektibo horren gauzapenean bai, hor langile bakoitzak bere rola edo egitekoa izan du, baina taldearen ikuspegia galdu gabe, eta langile bakoitzaren hizkuntza-bilakaeraren xehetasunak aztertzen saiatu gabe.

4. GARATUTAKO ESPERIENTZIAK

Artikulu honetan aurkezten diren emaitzak, 2013-16 aldian eginiko hamahiru esperientziei dagozkie. Guztira, 166 langilek hartu du parte hamahiru esperientzia horietan. Zehazki, honako lantoki hauetan egindako esperientzia hauek:¹⁵

- JMA lan kooperatiba
- Tolosako Udaleko Zerbitzuetako Saila
- Tolosako Udaleko Hirigintza Saila
- Zarauzko Udaleko Diruzaintza Saila
- Fagor Markina lan kooperatiba
- Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kultura Saila
- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Saila
- Lemoako Udala
- Oñatiko Udala
- Donostiako Trafiko Saila
- Iurretako Udala
- Basquetour
- Danobat Isparter lantegia

Aldahitz egitasmoa osatzen duten erakundeak arduratu dira lantoki hauek bilatzeko lanez (ikus gorago, sarreran, erakunde horiei buruzko xehetasunak). Aurre-lokalizaziotik esperientziak martxan jarri bitartean, hiru urrats hauek eman dira gunetako bakoitzean:

1. Aldahitz proiektutik, enpresa edo erakunde publikoko ardura-dunekin harremanetan jarri eta esperientzia hauek garatzeko aukera eskaini.
2. Lantegietako ardura-dunen balorazioa eta oniritzia jasotzea (alkate eta zuzendariena, administrazio publikoko guneen kasuan, eta kudeatzaile edo sail-ardura-dunena enpresa pribatuen kasuan).
3. Guneko lankideekin bilera egin, informazioa eman eta haien baiezkotzea erabakia jaso (*gehiengo kualifikatuz*).

**Abiapuntuak
askotarikoak
izan arren
aztertutako kasu
guztietan
euskarazko
erabileraren
igoera bat neurtu
da
esperientziaren
hasieratik
amaierara.**

**Lortu eta
finkatu” zuten
bikoteen artean,
%80 esperientzia
abitutakoan
“euskaraz
gaztelaniaz baino
gehiago”
kategorian
zegoela. Lankide
horiek, hortaz,
koska bat egin
dute gora gure
eskan.**

5. IKERKETARAKO DISEINUA

I Metodologiak bezala, ikerketak ere berariaz eredu sinple bati heldu dio. Metodologiaren aplikazioaren une desberdinetan kideen hizkuntza-erabilerari buruzko daturik oinarritzkoena besterik ez dugu jaso.

Hizkuntza-erabileraren hiru neurketa egin ditugu esperientzia bakoitzean partaideen datu aitortuetan oinarrituta. Lehenengo neurketa esperientzia hasi baino lehen egin dugu (datu hau normalean egitasmoa onartzeko bileran bertan jaso da, behin taldeak esperientzia abiatzea erabaki ondoren). Bigarren neurketa esperientzia bukatzean egin dugu (ondorengo astean). Eta azkenik, hirugarrena, esperientzia bukatu eta handik hiru hilera.

Hiru neurketetan “Mintzagrama” izeneko galdetegia erabili dugu. Funtsen, galdetu egiten zitzaizen lankide bakoitzarekin aurreko egunetan izandako hizkuntza-jokaeraz. Galdetegiak egitura bikoitza du erabileran datua jasotzeko: norbere ustez, “nik berari” nola egiten dion, eta norbere ustez, “berak niri” nola egiten dion.

Bigarren mintzagramarekin batera, kideen arteko harreman-maiztasunaren datua ere jaso da.

Lehenengo mintzagrama kasu gehienetan modu presentzialean bete da, esperientzia onartzeko egindako bileran bertan. Bigarren eta hirugarren neurketen kasuan posta bidez egin dugu jasoketa. Lantokiko koordinatzaileak galdetegia kideei postaz bidali eta emaitzak bildu ondoren, ikerketa taldeari igorri izan dizkio datuak, gure ardura izan delarik kide guztien informazioa jaso dela bermatzea.

Mintzagramaz gain, eusleen hizkuntza-arauaren betetze mailaz astez asteko datuak ere bildu ditugu.

Informazio guztia bi formatutan prozesatu dugu, banakako datuak bate-tik, eta binakako datuak bestetik (“bikote” deitu diogu gero, datu azterketan, bi lankideren arteko konbinaketa bakoitzari). Banakako datuen bidez kide bakoitzaren hizkuntza-erabileraren bilakaera ilustratu dezakegu. Datu hori da banako bakoitzaren harreman guztien batez bestekoa. Esaterako, A kidearen hizkuntza-jokaeraren batez bestekoa kalkulatzeko kontu egin diogu gainerako kide guztiek A kideari buruz emandako iritziari, eta ez A kideak bere buruari buruz emandakoari. Zehazki, gainerako kide guztiek mintzagraman A kidearen lerroan eta “berak niri” atalean jarritako datuak hartu ditugu. Horrela jakatuta, norbere buruari buruzko iritziek eman dezaketen makurtzea zertxobait leundu nahi izan dugu.

Binakako datuek bikoteak hartzen dituzte unitate gisa. Datu horiek baliatuko ditugu biko harremanen erradiografia egiteko, bai eta tipologia ezberdineko bikoteek esperientzian zehar ezagutu duten hizkuntza-erabileraren bilakaera antzemateko ere. Bikote baten hizkuntza-jokaera zehazteko lau datu hartu eta haien batez bestekoa egin da. Esaterako, A eta B kideek osatutako bikotearen hizkuntza-jokaera kalkulatzeko honako lau datu hauek erabili ditugu:

- A kidearen ustez, berak B kidearekin zein hizkuntza-jokaera duen.
- A kidearen ustez, B kideak berarekin zein hizkuntza-jokaera duen.
- B kidearen ustez, berak A kidearekin zein hizkuntza-jokaera duen.
- B kidearen ustez, A kideak berarekin zein hizkuntza-jokaera duen.


6. EMAITZAK

I

Euskarazko erabileraren bilakaera

2013 eta 2016 artean egindako *Eusle metodologia*-ren hamahiru esperientzietako langileen datuak kontuan hartuta, 1. grafikoak laburbiltzen du zein izan den bilakaera orokorra lankideen arteko euskarazko erabilerari dagokionean. Batez beste, %60,8ko euskarazko erabilera neurtu genuen gune horietan esperientziak abiatu aurreko unean (*Erabilera 1*). Bi hilabete geroago, esperientziak amaitu berritan (*Erabilera 2*), neurtutako batez besteko euskarazko erabilera hori %76,1koa zen, hau da, 15,3 puntu altuagoa. Azkenik, esperientziak amaitu eta hiru hilabeteko “atseden” tartearen ondoren (*Erabilera 3*), neurtutako batez besteko erabilera %71,4koa izan zen, aurreko erabileratik 4,7 puntu jaitsiz.

1. grafikoa. Hizkuntza-erabileraren bilakaera. Euskarazko erabilera batez beste (%).



Euskarazko ohitura “lortu eta finkatu” duten bikoteak abiapuntu altua zuten euskaraz (%80k “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” egiten zuten), eusleen presentzia izan dute, baina ez – nolabait esan– muturrekoa, eta kasurik gehienetan (%68), bi kideek hasterako bazuten beste lankideren batekin (gutxienez) euskarazko ohitura

Esperientzia hauen inguruan neurtutako euskarazko erabileran, bila-kaera orokorra hau izan da, beraz: 15,3 puntuko igoera, batez beste, es- perientzietan, eta 4,7 puntuko jaitsiera atsedeen-aldian, guztira *Erabilera 1etik Erabilera 3* artean 10,6 puntuko igoera egonik. Igoera eta jaitsiera horiek portzentajeetan kalkulaturaz gero, berriz, bilakaera hau izan da (*Erabilera 1ekiko*): %25,2ko igoera euskarazko erabileran esperientzian zehar, ondoren atsedenean %7,7ko jaitsiera, eta guztira (esperientzia + atsedena) %17,4ko igoera.

Batez besteko euskarazko erabileraren datu hauek guneka bereizita ikus ditzakegu jarraian 1. taulan. Gune hauetan esperientziak garatu ahal izateko ezaugarri komun batzuk betetzen ziren arren, lankideen arteko euskarazko erabilerari dagokionez, aniztasuna handia da, datuetan ikus daitekeenez. Muturrak aipatzearren, baziren esperientziak abiatu au- rretik euskarazko erabilera oso apala zuten gunek (esate baterako, L gunea, %22,9ko erabilerarekin) eta baita lankideen artean euskaraz ari- tzea joera nagusia zen gunek ere (I gunea adibidez, non erabilera %84,8koa zen).

1. taula. gune bakoitzeko euskararen erabileraren bilakaera (%), neurtutako hiru uneetan.

Lantokiak	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1 Erab. 2 -Erab. 1	Aldea2 Erab. 3 -Erab. 2	Aldea3 Erab. 3 -Erab. 1
A gunea	74,1	85,5	87,9	11,4	2,3	13,8
B gunea	45,8	67	58,2	21,2	-8,8	12,4
C gunea	79,8	89,6	86,5	9,7	-3	6,7
D gunea	44,6	85,2	63,7	40,5	-21,5	19,1
E gunea	71,4	83	80,3	11,6	-2,8	8,8
F gunea	49,4	68,8	62,4	19,4	-6,3	13,1
G gunea	33	61,8	43,8	28,8	-18	10,8
H gunea	59,3	71,2	69,2	11,9	-2	9,9
I gunea	84,8	95	91,1	10,2	-3,9	6,4
J gunea	65,3	77,2	78,5	11,9	1,3	13,2
K gunea	78,2	83,9	80,2	5,7	-3,6	2
L gunea	22,9	37,5	25,3	14,6	-12,2	2,5
M gunea	76,4	85,3	84,2	8,8	-1	7,8
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,3	-4,7	10,6

Abiapuntuak askotarikoak izan arren, nolanahi ere, aztertutako kasu guztietan euskarazko erabileraren igoera bat neurtu da esperientziaren hasieratik amaierara. Igoera hori, muturretara joanaz berriz ere, kasurik txikienean 5,7 puntukoa izan da (K gunea) eta handienean 40,5 puntukoa (D gunea). Orokorrean, euskarazko erabileraren igoerak handiagoak izan dira abiapunturik baxuenak zituzten guneetan, ulertzekoa den moduan, bestalde.

Atsedean-aldian, esperientzia ia guztietan egin du zer edo zer behera euskarazko erabilerak (salbuespena A eta J guneak dira, non atsedean-aldian ere euskarazko erabilerak gora egin duen, puntutxoren bat soilik bada ere). Aztertutako aldi osoa kontuan hartuta, berriz, (*Erabilera 1* eta *Erabilera 3* arteko aldea) gune guztietan eman da, albuespenik gabe, lankideen arteko euskarazko erabileran igoera bat. 2 puntukoa izan da igoera hori, kasurik txikienean (K gunea) eta 19,1 puntukoa kasurik handienean (D gunea).

Laburtuz, esan genezake, euskarazko erabileran izandako bilakaera gunea aztertuta, batez besteko datuetan deskribatutako joera orokorra ia kasu guztietan betetzen dela, baina gune batetik bestera igoera eta jaitiera horien intentsitatea edo puntu-kopurua dezente aldatzen dela.

Jarraian, hizkuntza-erabileran izandako eragina beste ikuspegi batetik azalduko dugu. Lankideen arteko harremanak binaka hartuta, “bikote” horietako bakoitzaren harremana bost kategoriatan sailkatuta ageri da 2. taulan. Bertan ikus dezakegunez, esperientziak hasi aurreko unean (“Bikoteak hasieran (%)” zutabea), aztertutako bikote guztien artean %29,2 *nagusiki gaztelaniaz* aritzen zen euren arteko harremanean [“Beti edo ia beti gaztelaniaz” (10,8) + “Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” (18,4)]. Eta *nagusiki euskaraz* aritzen ziren lankide-bikoteen proportzioa berriz, %57,8koa zen [“Beti edo ia beti euskaraz” (42,1) + “Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” (15,7)].

**Esperientziak
hasterako
jadanik elkarren
artean
“euskarazko
ohitura” zuten
lankide-bikoteen
artean salbu,
gainerako
kategoria
guztietan egiten
du gora
euskarazko
erabilerak,
hasieran “beti
edo ia beti
gaztelaniaz”
aritzen
zirenetatik hasi
eta “euskaraz
gaztelaniaz baino
gehiago” aritzen
zirenetara.**

2. taula. Lankide-bikoteen proportzioak hizkuntza kategoriaka. Hasieran, bukaeran eta atsedeen-aldiaren ondoren.

Hizkuntza kategoriak	Bikoteak hasieran (%)	Bikoteak bukaeran (%)	Bikoteak bukatu eta hiru hilera (%)	Aldea1 Bukaera - Hasiera	Aldea2 Hiru hilera - Bukaera	Aldea3 Hasiera - Hiru hilera
Beti edo ia beti gaztelaniaz	10,8	4,9	7,6	-5,9	2,7	-3,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	18,4	9,7	11,5	-8,7	1,8	-6,9
Bietan berdin	13,0	11,3	11,9	-1,7	0,6	-1,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	15,7	18,1	17,2	2,4	-1,0	1,5
Beti edo ia beti euskaraz	42,1	55,9	51,9	13,8	-4,1	9,7
Guztira	100	100	100	0	0	0

Bost hilabete geroago (esperientzia + atsedena), agerikoak dira aldaketak aipatu bikoteen hizkuntza-kategorietan (ikus goiko taulan “Bikoteak bukatu eta hiru hilera (%)” zutabea): *nagusiki gaztelaniaz* aritzen ziren bikoteen proportzioak 10,1 puntu egin du behera (aurreko kategoria berdina batuz, %29,2tik %19,1era) eta 11,3 puntu egin du gora, aldiz, *nagusiki euskaraz* aritzen ziren bikoteenak (%57,8tik %69,1era).

“Euskarazko ohitura” eskuratzera iristea

“Bikoteak” hartuko ditugu orain ere erreferentzia gisa, emaitzak beste ikuspegi batetik aurkezteko. Guneetan esperientzia hauek abiatzeko proposamena egin zenean, “euskaraz gehiago egitea erraztu dezakeen dinamika” gisa aurkeztu ziren. Sozialki egoera ahulean dagoen hizkuntza baten –gure kasuan, euskararen– inguruko hizkuntza-ohiturei dagokionean, dena den, euskaraz “gehiago” egite hori aztertzeke garaian, funtsezko puntuetako bat da ea euskarazko ohitura, alegia, eguneroko harremana nagusiki edo beti euskaraz bideratzeko joera, lankideen artean finkatzen den edo ez jakitea.

3. taulak irizpide horren arabera sailkatzen ditu hamahiru esperientzia hauetan parte hartu zuten lankideek osatzen zituzten 1.026 bikoteak. Lankide-bikote horiek haien arteko harremanean aritzean “euskarazko ohitura” zutela ebatzi dugu, haiek aitortutako erabileren arabera “beti edo ia beti euskaraz” aritzen zirenen kasuan. Eta, “euskarazko ohitura” izatearen edo ez izatearen irizpide horri, bigarren bat gehitu diogu lankide-bikoteak 3. taulako bost kategorietan sailkatzera iristeko: euskarazko

erabilera neurtu dugun hiru uneetan irizpide horrekiko izan duten bila-kaera (*Erabilera 1, Erabilera 2 eta Erabilera 3* uneetan, hain zuzen).

3. taula. Lankide-bikoteen kopuruak eta proportzioak “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera sailkatuta

Esperientziak hasterako “euskarazko ohitura”	Tipologia	Bikote kopurua	% (bikote guztiekiko)	% (ohitura BAZUTENekiko)
BAZUTEN	Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	415	40,4	96,1
	Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	17	1,7	3,9
		432	42,1	100
				% (ohitura EZ ZUTENekiko)
EZ ZUTEN	Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	117	11,4	19,7
	Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	64	6,2	10,8
	Euskarazko ohitura berria lortu ez	413	40,3	69,5
		594	57,9	100
	Guztira	1.026	100	100

Horrela sailkatuta, 3. taulako datuak ondorengo ikerketa-galderari emandako erantzuna lirateke, neurri batean: “Nolako eragina izan dute *Eusle metodologia* esperientziek lankideen artean “euskarazko ohitura” sortze edo finkatzeari begira?”

Datu zehatzei erreparatuz, ikusten dugu, aztertutako 1.026 bikoteetatik 432 bikotek (%42,1) BAZUELA esperientziak hasi aurretik dagoeneko “euskarazko ohitura” hori haien arteko harremanean. Bost hilabete pasata (esperientziaren biak eta atsedenek hirurak), bikote horietako gehien-gehienek bere horretan mantentzen zuten ohitura hori (432tik 415 bikotek, %96,1; taulako lehen kategorian ageri diren bikoteak). Bikote horietako gutxi batzuk, aldiz, euskarazko erabilera hori “zertxobait jaitsi” dute bost hilabete horien buruan (432tik 17 bikotek, %3,9; taulako bigarren kategoria).


3. taulan ageri diren hurrengo hiru kategorietako lankide-bikoteak dira esperientziak hasterako haien artean “euskarazko ohitura” hori EZ zutenak, eta beraz esperientzien testuinguruan halakorik eskuratzeko aukera izan zezaketenak (594 bikote, aztertutako guztien %57,9a). Zein bi-

lakaera izan dute bikote horiek esperientzia hauetan? Bost hilabete tartean dituzten bi uneak alderatuz, guztira 181 bikote izan dira “euskarazko ohitura” hori eskuratu dutenak. 117 bikote (taularen hirugarren kategoria, eta hasieran ohitura ez zutenen artean %19,7) “lortu eta finkatu” egin du “euskarazko ohitura berri” hori. Beste 64 bikote (laugarren kategoria, eta ohitura ez zutenen %10,8), iritsi egin ziren esperientzien amaieran “euskarazko ohitura” eskuratzera, baina ez gero atsedean aldian berau finkatzera. Horrenbestez, ikusten dugu, esperientzia hauetan, hasieran euskarazko ohitura ez zuten bikoteen artean, %30,5 iritsi egin dela halako ohitura eskuratzera, eta horietatik gehienak ohitura finkatzera ere bai.

Azkenik, taulako bosgarren eta azken kategorian ditugu gainerako 413 bikoteak, esperientzien hasieran “euskarazko ohitura”rik izan gabe, ez esperientzia amaieran eta ez hiru hilabeteko atsedean ostean ere, ohitura hori eskuratu ez zutenak (hasieran euskarazko ohitura ez zuten 594 horien artean %69,5 izan dira halakoak). Bikote hauek guztiak, beraz, ez dira iritsi aipagai dugun “euskarazko ohitura”ren irizpide horretara. Horrek ez du esan nahi, ordea, esperientzietan zehar azken multzo horietako bikoteen euskarazko erabilera aldatu ez denik, ondorengo datuek erakusten dutenez.

2. grafikoan esperientzietan “Euskarazko ohitura eskuragai” zuten bikoteak ageri dira (3. taulako azken hiru kategorietako 594 bikoteak horiek), eta grafikoak adierazten du nolakoa izan den, batez beste, bikote-multzo horietako bakoitzaren euskarazko erabileraren bilakaera aztertutako hiru uneetan (*Erabilera 1, 2 eta 3*).

2. grafikoa. Euskarazko hizkuntza-ohitura eskuragai zutenen hizkuntza erabileraren bilakaera.



Grafikoaren beheko aldean ageri den lehen bilakaera euskarazko ohitura “lortu ez” dutenena da (goraxeago aipagai genituen 413 bikote horiek, hain zuzen). Datuetan ikus daitekeenez, bikote horien artean gora egin du euskararen erabilerak esperientzia hauetan: *Erabilera 1* unetik *Erabilera 3* unera, batez beste, %29,1etik %40,1era pasa da erabilera hori, 11 puntuko igoera, beraz. Kontuan hartzen badugu, esperientzia hauetan erabileraren igoera orokorra 10,6 puntukoa izan dela, ikusten dugu kategoria honetako lankideek besteek adina aurreratu dutela euskarazko erabileran (eta igoera horiek portzentajeetan neurtzen baditugu berri, batez bestekoa baino igoera nabarmen handiagoa).

2. grafikoan ageri diren beste bi kategorietako bikoteei dagokionez, bestalde, ikusten dugu euskarazko ohitura “lortu eta galdu” duten bikoteek oso igoera nabarmena izan dutela esperientzian zehar: %54,7tik %100era. Aldiz, atsedean aldian euskarazko jokaera hori ez da erabat finkatu eta %69,5eraino jaitsi da (*Erabilera 1*etik 3ra, 14,8 puntuko igoera). Ohitura “lortu eta finkatu” duten bikoteei dagokionez, azkenik, ikusten dugu euren abiapuntua ere altuagoa zela: esperientzia abiatzerako, batez beste, %67,7ko erabilera zuten euskaraz.¹⁶

“Euskarazko ohitura” eskuratzearekin loturiko ezaugarriak

Emaitzen azpialal honetan, jarraituko dugu *Erabilera 1* unean (esperientzia hastean) “euskarazko ohitura ez” zuten bikoteen azterketarekin (ikus, gorago, 3. taula), lankide-bikote horiek baitziren, azken finean, ohitura hori eskuratzeko edo hartara iristeko aukera izan zezaketenak, eta beraz ikerketa honetan interes berezikoak.

Eusle metodologia esperientzietan lankideen hizkuntza-portaerari buruz jasotzen dugun informazioa oso mugatua da, besteak beste, “sinpletasuna” delako metodologiaren ezaugarri garrantzitsuetako bat (ikus gorago 3. atalean metodologiaren ezaugarriak). Bestalde, jakitun gara, euskaraz eta gaztelaniaz dakiten bi lankideren artean, gaztelaniazko ohituratik euskarazko ohiturara aldaketa gertatzearen edo ez gertatzearen fenomeno gai konplexua dela, aldagai asko eta askotarikoen eragina izan dezakeena. Hori horrela, ez da hemen gure asmoa halako gai konplexu baterako azalpen orokor eta erraz bat bilatzea. Bai saiaturako gara, ordea, ikerketan jaso ditugun datu hautatuen bidez, aztertutako bikoteen arteko alderaketak egiten, gaiaren konplexutasun horretan pista interesgarriak eskaini ditzaketelakoan.

Ondorengo hiru tauletan (4., 5. eta 6. taulak) esperientzietan “euskarazko ohitura” eskuratu zezaketen bikoteak aurreko puntuan bezala sailkatu

**Gure ustez,
euslearen
figuraren
bitartez,
metodologia
honek lortzen du
zilegitasuna eta
zentzua ematea
euskarazko
jokaera berriei.**

ditugu, hau da: ohitura hori “lortu eta finkatu” dutenak, “lortu eta galdu” dutenak eta “lortu ez” dutenak. Eta alderatu egin ditugu bikote-multzo hiru aldagaitan dituzten datuak.

Lehenik, 4. taulan, hiru bikote multzo horien “abiapuntuko egoera”ren proportzioak laburtzen dira; hau da, *Erabilera 1* unean, bikote horien erabilera nolakoa zen, azterketan baliatutako kategorien arabera. Bertan ikusten dugu, “lortu eta finkatu” zuten bikoteen artean, %80 esperientzia abituta-koan “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian zegoela. Lankide horiek, hortaz, koska bat egin dute gora gure eskalan, aztertutako epean. “Lortu eta galdu” duten bikoteen kasuan, aldiz, proportzio hori nabarmen baxuagoa da: %45. Bigarren multzo horretako bikote gehienek hortaz (%55), bi edo hiru koska egin dituzte gora gure eskalan “euskarazko ohitura”ra iristeko. Bere aldetik, ohitura “lortu ez” duten bikoteen abiapuntuko egoeran gaztelaniaz egiteko joera zuten bikoteak nagusitzen dira (“gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” (%42) eta “beti edo ia beti gaztelaniaz” (%26)), eta beraz euskarazko ohituratik urrutien zeuden bikoteak dira.

4. taula. Bikoteen abiapuntuko egoera. Bikoteak, “euskarazko ohitura” lortzearen aldetik izan duten bilakaeraren arabera sailkatuta.

Bikoteen abiapuntuko egoera	Euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteak	Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteak	Euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteak
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	%80	%45	%10
Bietan berdin	%14	%31	%22
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	%5	%21	%42
Beti edo ia beti gaztelaniaz	%1	%3	%26

5. taulan “Eusleen presentzia”ri erreparatuko diogu, bereiziz ea bikoteko kideak “eusle” lanetan aritu diren edo ez. Datuetan ikusten dugunez, aztertutako hiru multzoetan proportzio oso baxuak dira “biak eusle” izan diren bikoteenak (%4 eta %8 artean). Ulertzekoa da hori, bestalde, esperientzia hauetako eusleen proportzioak kontuan izanik (ikus gorago 3. atalean metodologiaren ezaugarriak). Beste bi kategorietako datuetan, aldiz, ezberdintasun interesgarriak ageri dira aztertutako bikote-multzoen artean. Batetik, nabarmentzekoa da, “bata eusle/bestea ez” motako bikoteen proportzioa altuagoa izan dela “lortu eta galdu” duten bikoteen artean (%81), “lortu eta finkatu” dutenen artean baino (%66). Bestalde, oso adierazgarria da, “lortu eta finkatu” duten bikoteen artean, kasuen %30 batean

“euslerik ez” dela egon bikotean, hau da, ez kide bat eta ez bestea esperientzian zehar eusle izan gabe pasa direla euskarazko ohitura finkatzera.

5. taula. Eusleen presentzia bikoteetan. Bikoteak, “euskarazko ohitura” lortzearen aldetik izan duten bilakaeraren arabera sailkatuta.

	Bikoteak, “euskarazko ohitura” lortzearen aldetik izan duten bilakaeraren arabera sailkatuta		
Eusleen presentzia	Euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteak	Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteak	Euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteak
Biak eusle izan dira	%4	%8	%3
Bata eusle izan da, bestea ez	%66	%81	%43
Euslerik ez	%30	%11	%54
GUZTIRA	%100	%100	%100

Informazio interesgarria eskaintzen digu 6. taulako aldagaiak ere. Bertan zehazten da ea esperientziak abiatzeko unean bikotea osatzen zuten kideek ba ote zuten beste “norbaitekin”¹⁷ euskarazko ohitura hori. Taulan nabarmendu beharreko lehen datua da, esperientzietan euskarazko ohitura “lortzera” iritsi diren bikoteen artean, izan “lortu eta finkatu” dutenak edo izan “lortu eta galdu” dutenak, bi kasuetan, %0 direla bikoteko bi kideak “inorekin” “euskarazko ohitura”rik ez zutenak. Halako kasuak, euskarazko ohitura “lortu ez” duten bikoteen artean soilik ageri dira (%19). Badirudi, beraz, esperientzia hauen denbora eta efektu mugatua gogoan hartuta, epe labur horretan euskarazko ohitura “lortu” edo “lortu eta finkatu” ahal izateko, gutxienez bikoteko bi kideetako batek behar zuela halako harremana esperientzia hasterako norbaitekin izan. Horrez gain, aipatzekoa da, “lortu eta finkatu” duten bikoteen artean, altuagoa dela “biek” halako ohitura zutenen proportzioa (%68), “lortu eta galdu” dutenen artean baino (%55).

6. taula. Bikotekideek norbaitekin “euskarazko ohitura”rik bazuten esperientziak abiatzean. Bikoteak, “euskarazko ohitura” lortzearen aldetik izan duten bilakaeraren arabera sailkatuta.

Ea euskarazko ohiturarik baduten norbaitekin	Euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteak	Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteak	Euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteak
Biek dute norbaitekin euskaraz egiteko ohitura	%68	%55	%22
Batek du norbaitekin euskaraz egiteko ohitura	%32	%45	%59
Inork ez du norbaitekin euskaraz egiteko ohitura	%0	%0	%19

Azpi-atal hau ixteko, eta hiru aldagaien ikuspegia batuz, esango genuke, esperientzia hauetan euskarazko ohitura “lortu eta finkatu” duten bikoteak, batetik, abiapuntu altua zutela euskaraz (%80k “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” egiten zuten), eusleen presentzia izan dutela, baina ez –nolabait esan– muturrekoa, eta kasurik gehienetan (%68), bi kideek hasterako bazutela beste lankideren batekin (gutxienez) euskarazko ohitura hori. Bere aldetik, euskarazko ohitura “lortu eta galdu” dutenek, batetik abiapuntu baxuagoa zuten euskaraz, eta beraz kasu askotan “jauzi” handiagoa egin behar izan dute euskarazko ohituraraino. Bestalde, eusleen presentzia oso handia izan dute –nolabait esan, aurrekoek baino presio handiagoa– eta, beste lankideekin euskarazko ohitura, bai, baina aurrekoek baino neurri apalagoan. Azkenik, ohitura “lortu ez” duten bikoteak, hiru parametro horietan euskarazko ohiturara iristeko baldintzarik urrunenetan zeuden.

Eusleen jokaeraren eragina

“Eusleak” dira metodologia honetan taldeko hizkuntza-erabilera euskararen aldera “astintzen” duten elementu berritzaileak; ordura arteko hizkuntza-harremanen oreka “urratzen” dutenak, oreka berri baten bila. Esperientzia gune bakoitzean lankide proportzio txiki bat aritu da *Eusle* lanetan (batez beste, bost lankidetik bat) (ikus, gorago 3. atala), eta nolabait bi txandatan banatu dira eusleak, esperientziaren erdian eusleak aldatuz. Guztira, hamahiru esperientzia hauetan aztertu diren 166 lankideetatik, 63 izan dira bi txanda horietako batean eusle (gehienak txanda bakarrean), eta gainerako 103 lankideak ez dira une batean ere eusle gisa aritu.


Hori jakinik, jarraian aurkezten diren datuen bitartez, aztertu nahi genuke, taldearen babesarekin edo onarpen zabalarekin hizkuntza-jokaera aldatzen duten lankide horien –eusleen– eragina nolakoa den talde guztian. Beste hitz batzuetan, zenbateraino jokaera-aldaketa horren erdigune diren eusleetatik kutsatzen edo zabaltzen ote den eragina talde osora.

Jarraian 7. taulan eta 3. grafikoan aurkezten da nolakoa izan den euskarazko erabilera (batez beste) esperientzietan eusle izan diren eta izan ez diren lankideentzat.

7. taula. Eusle izan diren eta izan ez diren lankideen batez besteko euskarazko erabilera neurketa bakoitzean (%) eta neurketen arteko aldeak (puntuak, gora edo behera).

Tipologia	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
Ez da eusle izan	55,3	69,7	66,7	14,3	-2,9	11,4
Eusle izan da	69,8	86,5	79,0	16,7	-7,5	9,1
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,2	-4,7	10,5

3. grafikoa: Eusleen eta ez-eusleen hizkuntza erabileraren bilakaera. Euskarazko erabilera (%), batez beste.



Ulertzekoa denez, abiatzeko unean eusle izan direnen erabilera altuagoa zen (%69,8), eusle izan ez direnena baino (%55,3). Baina bilakaerari erreparatuta, ikusten dugu oso antzekoa izan dela bi taldeentzat eta, esperientziaren aldi osoa kontuan izanda, eusle izan ez direnen euskarazko erabilerak eusleenaren neurri berean edo handiagoan egin duela gora (11,4 puntu ez-eusleenak eta 9,1 eusleenak).

Zentzu horretan, datu esanguratsua da gorago 5. taulan eskaini dugunetako bat. Esperientzia hauetan euskarazko ohitura “lortu eta finkatu” duten bikoteei erreparatuta, ikusten dugu horien artean %30 direla “euslerik ez” dutenak. Hau da, bikote horiek igaro dira esperientzia hauen testuinguruan haien artean euskarazko ohitura “lortu eta finkatzera”, ez kide bat eta ez bestea esperientzian zehar eusle rolean aritu gabe. Gure ustez, datu horrek argi adierazten du eusleen jokaera-aldaketa zabaldu edo kutsatu egiten dela –nolabait– esperientzia garatzea erabakitzen duen talde osora.

Euskarazko erabileran aurreratu zitekeena eta aurreratu dena

Emaitzen atal honekin amaitzeko, esperientzia hauek aztertutako taldeen hizkuntza-erabileran izandako efektua beste ikuspegi batetik azalduko dugu. Horretarako gune hauetan euskararen erabileraren aldetik “hobetu” edo au-

rreratu zitekeena eta aurreratu dena alderatuko ditugu. Nolabait esan, halako esperientzien *eraginkortasunaren* erreferentzia bat lirateke datuok.

Aurrez esan behar da, dena den, lankide-taldeek *Eusle* esperientziak egitea erabaki zutenean, ez zela haiekin adostu edo ezarri helburu kuantitatiborik, euskararen erabileran X puntu igotzea edo euskarazko erabileraren %ko jakin batera iristea bezalakorik (ez zen adostu ikerlarie-kiko, eta, dakigun arte, ezta haien artean ere). Besterik gabe, euskaraz “gehiago egitea” ekar dezakeen dinamika bat abiatzea adostu zen, go-rago aipatu dugunez. Ondorengo hau, beraz, ikerketaren ikuspegitik “a posteriori” egiten dugun ariketa da, baina gure ustez esanguratsua esperientzien emaitzak aztertzeke garaian.

8. taulako datuak kalkulatzeko, esperientzien gune bakoitzean *Erabilera 1* unean neurturiko batez besteko euskarazko erabilera oinarri gisa hartu eta, hortik %100eko balizko euskarazko erabilera batera artean geratzen dena tarte hori hartu da “hobe zitekeena” bezala. Esate baterako, hasie-ran %60ko euskarazko erabilera neurtu den gune batean, hortik %100 arte geratzen diren 40 puntuak lirateke “hobe daitekeena”.

Lantokiak	Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (<i>Erabilera 2</i>) (%)	Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (<i>Erabilera 3</i>) (%)
A gunea	44	53,3
B gunea	39,1	22,9
C gunea	48	33,2
D gunea	73,1	34,5
E gunea	40,6	30,8
F gunea	38,3	25,9
G gunea	43	16,1
H gunea	29,2	24,4
I gunea	67,2	41,8
J gunea	34,3	38
K gunea	26	9,4
L gunea	19	3,2
M gunea	37,4	33
Batez beste	%39	%27

Hala, 8. taulako ezkerreko zutabeko kopuruak adierazten du, esperientziak amaitu berritan (*Erabilera 2*) teorian “hobe zitekeen” horretatik %ko zenbat hobetu edo aurreratu den esperientzietan (aipatutako 40 puntuko adibidean, 20 aurreratu balira, ezkerreko zutabea “%50” genuke). Taulako eskuineko zutabeak, berriz, datu berdina eskaintzen du, baina atseden tartearen ondoreneko erabilera-datua aintzat hartuz (*Erabilera 3*).

Datuek erakusten dute, batez beste, gune hauetan balizko euskarazko %100eko erabilera bitartean hobe zitekeen horren %39 aurreratu dela esperientzietan, eta %27koa izan dela aurrerapen hori, atseden osteko unean.

7. ONDORIOAK

1. 2013 eta 2016 artean lantokietan eginiko *Eusle metodologiaren* hamahiru esperientzien azterketatik ateratzen dugun lehen ondorioa da aipatu metodologiak modu sinple eta eraginkor bat eskaintzen duela lankideen artean euskararen erabilera areagotzeko. Borondatezko esperientzia laburrak izan arren, aztertutako kasu guztietan gora egin du aipatu erabilerak. Batez beste, igoera hori 15,3 puntukoa izan da esperientziak irauten duen bi hilabeteetan, ondoren 4,7 puntuko jaitsiera eman da atseden-aldian, eta guztira, esperientzia- + atseden-aldia harturik, igoera 10,6 puntukoa izan da.

2. Metodologiak taldeko kideen euskarazko erabileran duen efektua orokorra da hizkuntza-kategoriei dagokionean. Esperientziak hasterako jardanak elkarren artean “euskarazko ohitura” zuten lankide-bikoteen artean salbu, gainerako kategoria guztietan egiten du gora euskarazko erabilerak, hasieran “beti edo ia beti gaztelaniaz” aritzen zirenetatik hasi eta “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” aritzen zirenetara. Batez beste, esperientzien ziklo osoan (esperientzia + atsedenaldia), “nagusiki gaztelaniaz” aritzen ziren lankide-bikoteen proportzioak 10,1 puntu egin du behera, eta 11,3 gora, aldiz, “nagusiki euskaraz” aritzen direnenak.

3. Esperientzien ezaugarriak kontuan izanik, esan genezake nahiko eraginkortasun altua erakusten duela metodologia honek. Gune bakoitzeko esperientziak egin aurreko abiapuntua kontuan harturik, eta euskarazko %100eko erabilera hipotetiko batera bitartean legokeena hobetu edo aurreratu litekeena bezala hartuta, batez beste esperientzia hauetan aurreratu zitekeenaren %39 aurreratu da esperientzian zehar. Eta, esperientzia + atsedenaldia kontuan harturik berriz, %27 da aurreratu eta finkatu dena.

4. Metodologia honen sorrerako galderetako bat honako hau zen: “possible al da lankideen artean “euskarazko ohitura” gerta dadin erraztea,

“Euskarazko ohitura” hori urrunago duten edo arrotzago zaien bikoteentzat, hainbat kasutan bi hilabete nahiko epe izan liteke ohitura hori eskuratzen hasteko, baina kasu askotan, ez nahikoa finkatzera iristeko.

edo horretarako aukerak sortzea?” Esperientzia hauen emaitzek erakusten digute baietz, eta, gure ustez, oso aintzat hartzeko moduko neurri batean, gainera: esperientzien hasieran “euskarazko ohitura” hori ez zuten lankide-bikoteen %30,5 iritsi da esperientzia hauetan halako ohitura eskuratzera, eta, eskuratu dutenetatik, gehienek finkatu ere egin dute atsedean aldian euskarazko ohitura hori.

5. Era honetako metodologiaren egingarritasuna edo eramangarritasuna zen, ikerketa abiatzerakoan gogoan genuen beste galderetako bat. Esperientzia hauetan, taldearen borondatea da oinarri lankideen arteko hainbat hizkuntza-ohitura gaztelaniatik euskararen aldera mugitzeko edo aldatzeko. Eta “eusle” bezala jokatzeko duten lankideek ematen diote bide borondate horri. Gehiegizkoa al da taldeentzat, eta bereziki, eusleentzat, metodologiak suposatzen duen erronka? Jasotako datuen arabera, esan genezake ez dela gehiegizkoa, kasu gehienetan; erronka da, baina oro har eramangarria.

Egingarritasunarekin jarraituz, beste galdera bat zen ea laneko dinamikarekin bateragarria den halako ekimen bat, edo alderantziz, oztopo handia bihurtzen den. Kasu honetan ere, erantzun nagusia da ekimena bateragarria dela laneko dinamikarekin. Egingarritasunarekin loturiko bi puntu hauen frogak argiena taldeen asteroko berrespena da, aldiro erabaki baitute esperientziekin jarraitzea. Eta berrespenez gain, ildo beretik doaz ere lankideen eta teknikarien esperientzien amaieran jaso izan ditugun lekukotzak.

6. Aipatutako goiko ondorio horiek kontuan izanik, gogoan hartuko dugu, aldaera ezberdinekin, euskararen erabileraren harira maiz errepikatzen den ideia bat: “eske gu gaztelaniaz ohitu ginen, eta...”, edo “behin gaztelaniaz ohitu bazara, ia ezinezkoa da euskarara aldatzea”. *Eusle metodologiaren* inguruan garatzen ari garen ikerketak eta esperientziak halako baieztapenak zalantzan jartzeko oinarri bat eskaintzen dute. Are gehiago, erakusten dute, sozialki egoera ahulean dagoen hizkuntza baten aldera ere –gure kasuan, euskararen aldera– posible dela hizkuntza-ohiturak aldatzea. Eta, ideia hori zalantzan jartzeaz bat, bestelako galdera-sorta bat zabaltzen dute. Esate baterako: nolako baldintzak behar dira harreman jakin batean/batzuetan hizkuntza-ohitura(k) gaztelaniatik euskarara aldatzea posible izan dadin? Zein egoeratan da bideragarria halako aldaketa-prozesu bat abiatzea? (eta zeintzuetan ez?) Zein elementu berritzaileak eta nola sor ditzake baldintza egokiak talde batean hizkuntza-jokaera berri eta urratzaile bat onartua izan dadin? eta abar.

7. Eta, nolatan lortzen du ba metodologia honek aldaketak abiaraztea? Zein da gakoa gaztelanian finkatuta egon diren hainbat hizkuntza-ohitura euskarara aldatu ahal izateko? Laburtuz, bi elementu aipatuko genituzke. Lehen partaideen borondatea da. Gogora dezagun esperientzia hauek lankideen erabakiz abiatzen direla; eta ez hori bakarrik: astero berretsi behar dela borondate hori. Nahi hori egon ezean, nekez abiatuko da halako prozesurik. Baina bigarren elementua da, behar bada, berri-tzaileagoa: gure ustez, euslearen figuraren bitartez, metodologia honek lortzen du zilegitasuna eta zentzua ematea euskarazko jokaera berriei. Esperientziak abiatzeak dakar eusle hautatu horiek lehen gaztelaniaz egiten zieten lankideei euskaraz egiten hasteko aukera. Ez aukera ba-karrik; nolabait, derrigortasuna ere bai. “Borondatezko derrigortasun” bat, esango genuke. Hala, esperientzia hauek, modu sinplean, posible egiten dute, eusleak tartean daudenean behintzat, “defektuzko araua” euskaraz egitea izatera pasatzea, eta hori, halako ekimen edo erabakirik gabe, oso kasu jakinetan baino ez da gertatzen euskararen aldera.

8. Esperientzia hauek bi hilabeteko iraupena dute. Nahikoa al da den-bora hori gaztelaniazko ohituretatik euskarazkora aldaketa egiteko? Bai eta ez, lankide-bikoteen ezaugarrien arabera. Emaitzen atalean euska-razko ohitura “lortu eta finkatu” duten bikoteen eta “lortu eta galdu” duten bikoteen datuekin eginiko azterketa argigarria da zentzu honetan, gure ustez. Lehendik beste lankideekin jadanik “euskarazko ohitura” baduten lankideentzat, halako esperientziak aukera oso ona dira ohitura hori lehendik finkatua ez zuten lankide gehiagotara zabaltzeko. Era ho-rretako aldaketetarako epe nahikoa izan daiteke, datuen argitan, bi hi-labetekoa. Aldiz, “euskarazko ohitura” hori urrunago duten edo arro-tzago zaien bikoteentzat, hainbat kasutan bi hilabete nahiko epe izan liteke ohitura hori eskuratzen hasteko, baina kasu askotan, ez nahikoa finkatzera iristeko; eta, esperientzia amaituta, berriz gaztelaniaren aldera egin dezake erabilerak, edo tarteko maila batean geratu. Esango genuke, beraz, joera orokor modura, bikotearen lehengo ohiturara esperientzia-ren ondorioz iritsi den aldaketa zenbat eta handiagoa izan, tarte gehiago beharko dela gero hura sendotzeko eta arrunt bilakatzeko.

9. Eusleak esperientzia hauetako elementu aktiboa izanik, zabaltzen edo kutsatzen al da haien jokaera-aldaketa talde osora? Neurri handi batean, bai. Emaitzetan ikusi dugunez, esperientzietan eusle izan ez di-ren kideek, batez beste, eusleek adina edo gehiago egin dute gora euren euskarazko erabileran. Eta hainbat dira euren artean “euskarazko ohi-tura” finkatzera iritsi diren bikoteak, bietako bat ere eusle izan gabe. Esango genuke, esperientziek taldean sortzen duten egoera berrian,

**Metodologia
honek egokitze-
mekanismoa
euskararen
aldeko
norabidean
jartzeko aukera
ematen du.**

euslearen jokaera urratzailea taldeak berak eskatua dela, nolabait. Jokaera berriak zentzua du, eta taldearen onarpena. Horrek, eusle ez diren hainbat lankidek euren erabilerak egokitzea dakar, hainbat kasutan, euskararen aldera. Euskararen egungo gizarte-egoeran, euskaldunok oso ohituta gaude egunerokoan kontrakoa egiten, hau da, euskaraz egiten ez digutenetara gure jokaera egokitzen. Metodologia honek egokitzeko-mekanismoa euskararen aldeko norabidean jartzeko aukera ematen du. Hala, eusle ez diren hainbat lankidek euskaraz egitearen aldeko indar bat sumatzen dute, bai eusleen jokaera elebakarrera egokitzeko behar naturalagatik, eta bai beste lankideen euskarazko urrats berriek kutsatuta. Modu horretan, lankide gutxi batzuei jarritako baldintza adostuak talde osoko kideen erabilerara zabal dezake bere eragina. ●

OHARRAK

1. Ikus xehetasunetarako Soziolinguistika Klusterreko webgunean Aldahitz Ikerketaren atala: <http://www.soziolinguistika.eus/aldahitz>
2. Gorago aipaturiko Klusterrarekin eta EHUrekin batera, sei dira proiektuan zuzenean parte hartzen duten erakundeak, zerrendako azken biak, partaide aktibo ez ezik, proiektuaren finantzatzaileak ere izanik: Ahize-AEK, Artez, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Gipuzkoako Foru Aldundia (Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza) eta Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza).
3. Jarioak, bere aritzean, toki berdintura eramaten gaituenean, sistema ia-egonkor baten aurrean gaude. Biribila da higidura mota hori. Mugimenduak bestelako puntu batera eraman beharrean ohiko tokira garamatza, biribiltasunean, egoera egonkor samarrak sortuz, eta sortu ondorenean ere haiei behin eta berriz eutsiz. *Bucles de estabilidad* adigaia erabili zuen De Bonok gertakari hau adierazteko (De Bono, 1992). Nolabait, higidura biribilak egoera egonkor samarrak sortzen ditu. *Bertako mugimendua* adierazpidea erabiliko genuke guk honetaz mintzatzeko, era adierazgarrian aditzera ematen baitu mugitu arren bertan jarraitzen dugula. Kurt Lewin gizarte-psikologiaren sortzailetarikoak ere harreman-eremuak sistema ia-egonkor gisa definitu zituen (Lewin, 1997).
4. Oztopo gaindiezin batek sorrarazten duen mugimenduak hausten du sistema baten higidura biribila eta aurrera bultzatzen du mugimendua bestelako antolamenduak erakitzeke. Mugimendu mota honi *aurrerako mugimendua* deitzen diogu, eta sistema baten eraldaketari eta berregituraketari ematen dio bide oso era nabarmenean. Kontzeptu honek asko zor dio Gendlinen lan filosofikoari (Gendlin, 1997).
5. Oso nabarmen ageri da jokaera urratzaileen garrantzia gai honen inguruan egin genuen lehen ikerketan, bikote afektiboen hizkuntza-aldaketaren fenomeno eta esperientzia arrakastatsuen azterketan (Jauregi eta Suberbiola, 2009). Eta baita ondoren lan eremuan egin genuen ikerketan ere, non aztertu genituen zortzi kasu arrakastatsu, zeinetan pertsonak horiek euskara ikasteaz gain lankiderekin batekin hizkuntza-ohiturak iraultzea lortu baitzituzten (Jauregi eta Suberbiola, 2011).
6. *Eusle metodologia*n, kideen %75 alde izatea da erabaki kualifikatua.
7. *Eusle metodologia*n kideek astero berretsiz behar dute esperientziarekin jarraitu nahi duten ala ez.
8. *Eusle metodologia*n, eusle gisa jardungo duten kideei eskatzen zaie euskaraz egiteko, gainerako kide guztiek askatasuna dute nahi duten hizkuntzan aritzeko. Eusle kopurua taldearen %20 izaten da.
9. Ohar bedi irakurlea, ez dugula eskatzen kide guztiek hizkuntza berrian hitz egiteko gauza izatea, baizik eta ulertzeko gaitasuna izatea.
10. Orekaren printzipioa honetara labur daiteke: "sistema orok orekarako joera du". Hizkuntza-arau bat finkatzerakoan, esaterako, eremu batek aurkitzen du oreka edo egonkor-

tasun puntua. Ezustearen printzipioa ondokoa da: “sistema batek ezin ditu guztiz saihezi ezusteak”. Sistema bat kolokan jartzen duten ezusteak beti daude presente intentsitate gradu desberdinetan. Horrek aldaketarako edo moldaketarako beharra sortzen du.

11. Kontzeptua hau Wagensberg-en irakurketan dago inspiratuta (Wagensberg, 2008)

12. Atzera-informazioaren bidez ingelezko feed-back adigaia adierazi nahi izan dugu. Horrek aditzera eman nahi du sistema baten barrura itzultzen den informazioa, sistemaren jardutearen emaitzaren berri emanez. Informazio horri esker sistemak berak bere burua erregula dezake.

13. Erronkaren eta gaitasunen arteko korrespondentzia ideia hau, beste iker-eremuetan ere erdiguneko kontzeptua da. Hala esaterako, ikaskuntzaren teoria psikologikoan (Garapen Hurbileko Eremua: Vygotsky, 2010), edo bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren teoria psikolinguistikoa (“i+1” kontzeptua: Krashen, 1985)

14. Hemen “kanpoko”ak esperientzia parte hartzen ez duten lantegiko gainerako kide guztiak dira. Esperientzia hauek talde jakinetan garatu dira, haien arteko harremanetan, eta eusleen hizkuntza-araua talde horretako kideen arteko harremanei aplikatu zaie soilik.

15. Hemen aztergai ditugun hamahiru esperientzia hauez gain, 2013 eta 2016 urteen artean, izan ditugu beste lau esperientzia, antolatuta eta abiatu bai, baina arrazoi ezberdinegatik, aurreikusitako bi hilabeteko epe hori osatu ez dutenak. Lan honen xedea eusle metodologiaren ezaugarriak eta lortzen diren emaitzak azaltzea izanik, dena den, ez gara hemen arituko osatu gabe geratu diren esperientzien xehetasunez. Gainera, eusle metodologiaren ikerketarako darabilgun informazio sinple eta mugatua kontutan izanik, oso oinarritzko eta zeharkako informazioa baino ez dugu ongi garatu ezin izan diren esperientzia horiei buruz.

16. Ohitura “lortu eta finkatu” duten kategoriako bikoteen grafikoan bada argitzea komeni den xehetasun tekniko bat. Darabilgun terminologian, bikote hauek *Erabilera 2* unean “ohitura lortu”a zuten, euren erabilera-datuak %100 beharko zuen (*Erabilera 3n* den moduan), eta ez grafikoan ageri den %94,2. Katetria honetan dauden 117 bikoteetatik 90 bai zeuden “beti edo ia beti euskaraz” kategorian. Aldiz, multzo honetako beste 27 bikoteren datua hurrengo mailan zegoen: “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago”. Ez zuen gure ustez xehetasun horrek eta bikote kopuruak nahiko entitate aparteko katetria bat sortzeko, eta horrez gain, baloratu dugu 27 horien kasuan ere ohitura lortze bidean zela ordurako, eta beraz katetria bakarrean bildu ditugu guztiak (117). Horren ondorioz, multzo horretakoan *Erabilera 2* uneko erabilera, batez beste, %94,2 da eta ez %100.

17. “Norbaitekin” hori hemen esperientzia parte hartu duten –eta beraz datuak bete dituzten– lankide-taldeko kideetara mugatzen da, ez baitugu jaso lankide horiek talde horretatik kanpo dituzten hizkuntza-erabilerei buruzko daturik. Baliteke, beraz, aztertutako lankide batek bere taldean “inorekin” euskaraz egiteko ohiturarik ez izatea, baina bai aldiz bere familiako edo auzoko norbaitekin.

BIBLIOGRAFIA

Aronson, E. (2007). *Social psychology*. New Jersey: Prentice Hall.

Ashby, W.R. (1972). *Introducción a la Cibernética*. Buenos Aires: Nueva Visión.

Beauvois, J.L. eta Joule, R. (1981). *Soumission et idéologies: psychosociologie de la rationalisation*. Paris: Presses Universitaires de France.

Csikszentmihalyi, M. (1997). *Fluir: una psicología de la felicidad*. Barcelona: Gedisa.

Csikszentmihalyi, M., Donaldson, S.I. eta Nakamura, J. (2011). *Applied positive psychology: improving everyday life, health, schools, work and society*. New York: Psychology Press.

De Bono, E. (1992). *Yo tengo razón, tú estás equivocado*. Barcelona: Ediciones B.

- De Bono, E. (1996). *Lógica fluida: la alternativa a la lógica tradicional*. Barcelona: Paidós.
- Festinger, L. (1975). *Teoría de la disonancia cognoscitiva*. Madrid: Instituto de Estudios Políticos.
- Gendlin, E.T. (1997). *A process model*. New York: Focusing Institute.
- Jauregi, P. (1999). *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas-estrategia*. Bilbo: EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2009). "Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean. Ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak", *BAT aldizkaria* 71, 177-191 or.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2011). *Aldahitz ikerketa: Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituraren aldaketak lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2015). *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2017). *Aldahitz ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Krashen, S. (1985). *The input hypothesis: issues and implications*. London: Longman.
- Maturana, H. eta Dávila, X. (2008). *Habitar humano en seis ensayos de biología-cultural*. Santiago de Chile: J.C. Sáez.
- Moskowitz, G. B. (2005). *Social cognition: Understanding self and others*. New York: Guilford Press.
- Lewin, K. (1997). *Resolving social conflicts: Field theory in social science*. Washington: American Psychological Association.
- Von Bertalanffy, L. (1993). *Teoría general de los sistemas: fundamentos, desarrollo, aplicaciones*. Madrid: FCE.
- Vygotsky, L. (2010). *Pensamiento y lenguaje*. Barcelona: Tusquets.
- Wagensberg, J. (2008). *El gozo intelectual: teoría y práctica sobre la inteligencia y la belleza*. Barcelona: Tusquets.
- Watzlawick, P., Weakland, J.H. eta Fisch, R. (1985). *Cambio: formación y solución de los problemas humanos*. Barcelona: Herder.
- Watzlawick, P., Bavelas, J.B. eta Jackson, D. (1997). *Teoría de la comunicación humana: interacciones, patologías y paradojas*. Barcelona: Herder.
- Weiner, B. (1995). *Judgments of Responsibility: A foundation for a Theory of Social Conduct*. New York: Guilford Press.

uztaro

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

2018 - 104

Uztaro aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2018. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

☐ Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoak markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus

Bermeo eta Ondarroa Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak

Eneritz Albizu Lizaso

Euskara teknikaria. UEMA

ealbizu@uema.eus

Goizane Arana Arexolaleiba

Euskara teknikaria. UEMA

arnasguneak@uema.eus

Sarrera-data: 2017-12-15 / Onartze-data: 2018-01-19

Laburpena. Udalerrri euskaldunetan euskararen gaitasunak eta erabilera sozialak azken urteotan izan duten bilakaera aztertzea beharrezkoa da, batez ere, bilakaera horretan beheranzko joera oso nabarmena duten herrietan. Kale neurketek eta azterlan soziolinguistikoek erakusten digute joera hori duten udalerrietako bat Bermeo dela. Hori dela eta, Bermeoko Udalak hala eskatuta, beherakada horren atzean egon daitezkeen arrazoiak edo faktoreak aztertzea du helburu azterlan honek, ondoren neurri zuzentzaileak iradokitzeko. Bestalde, hizkuntzaren gaitasunari zein erabilerari eutsi dion udalerri bat ere aztertuko da: Ondarroa. Ondarroa aukeratu da joera oso desberdina izan duelako udalerri horrek, eta biak direlako arrantzari lotutako Bizkaiko udalerri euskaldunak. • **Hitz gakoak:** *hizkuntza ohiturak, identitatea, estatusa, erreferenteak, mugikortasuna eta herri bizitza.*

Abstract. In Basque municipalities, it has been necessary to analyze how Basque language skills and social use in recent years have evolved, especially in those towns with a downward trend in this area. Street measurements of language use and sociolinguistic studies show that one of the municipalities where there has been a declining trend is Bermeo. Therefore, at the request of the City Council of Bermeo, the objective of this study is to analyze the reasons or factors behind this drop and to suggest corrective measures. On the other hand, there will also be a comparison with municipality that has maintained the ability to use the language: Ondarroa. Ondarroa has been chosen because it has undergone a very different trend and because both are Basque-speaking towns are closely tied to fishing. • **Key words:** *language habits, identity, status, references, mobility and town life.*

1. SARRERA

I

Itsasoa, mareak eta olatuak. Mareek bezala jokatu du azken urteetan hizkuntzaren ezagutzak. Itsasertz batzuetan gora egin du, eta besteetan behera. Dena den, badugu logika bat hori azaltzeko: gune erdaldunenetan gorantz doa hizkuntzaren ezagutza; beherantz, ordea, udalerri euskaldunenetan. Erabilerak, baina, olatuek bezalako jarrera du. Ez dakizu zer hondartzetara iritsiko den, eta uste ez duzun lekuan leher daiteke. Haren jokabidea ez da horren homogenea eta iragarkorra. Saia-tuko gara fenomeno horri erantzunen batzuk aurkitzen.

Itsasoari lotuta bizi izan diren bi udalerri dira Bermeo eta Ondarroa. Kostako bizitza bezala, euskara izan dute bereizgarri Bizkaiko bi txoko horiek. Ikerlan honen helburua da aztertzea zergatik izan den horren desberdina Bermeoko eta Ondarroako euskararen garapena. Izan ere, Bermeon azken hamar urteetan, 27 bat puntu egin du behera kaleko erabilerak, eta bere horretan eutsi diote Ondarroan. Behin lan hori eginda, identifikatuta izango ditugu zer aldagaik izan dezaketen eragina, oro har, herritarren hizkuntz hautuetan. Horrela, bi udalerrietan proposatuko dugu zer lan-ildo jarrai daitezkeen hizkuntzaren normalizazioari begira.

HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondorako eginiko sakontze egitasmoaren laburpena da honako hau. Bertsio luzean jasota daude ikerketako datu guztiak, baliabideak, eranskinak eta gainontzeko informazio guztia. Esku artean duzun txostenean, zertzelada garrantzitsuenak ageri dira.

2. GAIAREN KOKAPENA ETA MARKO TEORIKOA

I

Datozen lerroetan azalduko dugu zer testuingurutan kokatzen dugun ikerketa-lan hau, nola justifikatzen dugun azterketaren planteamendua eta zer oinarri teoriko izango ditugun abiapuntu. Bestalde, orain artean eginiko ikerketek eta teorizazioek zer bidezidor irekitzen dizkiguten aurkeztuko dugu.

2.1 Gaiaren kokapena

Bermeo eta Ondarroa Bizkaiko kostaldeko bi udalerri euskaldun dira. Busturialdean dago kokatuta Bermeo, eta Lea-Artibai eskualdean, berriz, Ondarroa. Udalerri horiek euskaldunak direla esaten dugu biek dutelako %70etik gorako euskararen ezagutza indizea.

Jakina da euskararen ezagutzak ez duela erabileran bermatzen, ezta inguru euskaldunenetan ere. Azken urteetako datu soziolinguistikoek erakutsi dute udalerri euskaldunenetan behera egin duela hizkuntzaren ezagutzak; eta, batik bat, erabilerak.

**Fishmanek
arnasguneei.
Physical
breathing space
[arnasa hartzeko
espazio fisikoak]
deitu zien:
“Demografia
aldetik hizkuntza
bere habian
sentitzen den
bilgunea, inork
xaxatu eta eraso
gabe etxeko jaun
sentitzen den
eremua”
(Fishman, 1991).**

UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide dira biak. Dena den, jakina da euskararen ezagutzak ez duela erabilerara bermatzen, ezta inguru euskaldunenetan ere. Azken urteetako datu soziolinguistikoek erakutsi dute udalerri euskaldunenetan behera egin duela hizkuntzaren ezagutzak; eta, batik bat, erabilerak.

Ildo horretan, adierazgarria da Iñaki Iurrebaso soziologoak UEMAren-tzat eginiko ikerketa lana: *Udalerrri euskaldunak EAEn, egoera eta bilakaera 1981-2011* (2014, Soziolinguistika Klusterra). Bertan, soziologoak azaltzen du nola 1981-2011 bitartean, euskararen ezagutzak gora egin duen %0 eta %70 arteko indizea zuten udalerrietan; eta, batik bat, %0 eta %40 arteko tartean. Hortik gorako indizea duten udalerrietan, ordea, behera-kada pairatu dute. Honela azaldu du:

Hamar multzoen artean erdaldunena (euskaldunak %10era iristen ez ziren udalerriena) desagertu egin da. Dagoeneko ez dago ezaugarri horietako udalerri bakar bat ere EAEn. (...) [Iurrebaso, 2014]

Aurkako muturrean, multzo euskaldunenak (euskaldunak %90-%100 bitartean dituzten udalerriek osatzen zutenak), atzera egin du izugarri. 1981. urtean 56 udalerri zeuden multzo horretan eta 33.605 biztanle bizi ziren horietan. Azken 30 urteotan agortzen joan da habitat hori, eta gaur egun 13 udalerri txikik besterik ez dute ezaugarri hori, eta 4.003 biztanle bakarrik bizi dira horietan.

Testuinguru horretan, esan dezakegu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskararen ezagutza homogeneizatzen ari dela. Hau da, ezagutzaren batez bestekoa orekatzea dela joera, eta muturreko gune erdaldunak zein euskaldunak desagertzea. Hori dela eta, udalerri euskaldunak zaintzeko politika berezituak aldarrikatzen dituzte erakunde zein elkarte batzuek, udalerri euskaldunek Euskal Herriko gainontzeko guneetan ere eragin estrategikoa dutela sinetsita.

Dena den, datuetara itzulita, ikusten dugu euskararen ezagutzak gure mapan duen joera nahikoa garbia dela. Ez dugu, ordea, pertzepzio bera erabilerari dagokionez. Egia da, oro har, oraindik eta nabarmenagoa dela hizkuntzaren erabilerak gune euskaldunetan izan duen beherakada. Iurrebasok erabili dituen datuei erreparatuta, 1991n 35 udalerritan hitz egiten zuten euskaraz etxean herritarren %90ek edo gehiagok; 2011n ez dago ehuneko horretara iristen den herririk. Hala ere, erabileraren kasuan izandako beherakadak ez dio joera orokor bati erantzuten, ezagutzaren kasuan azal daitekeen bezala. Horren atzean egon daitekeena aztertu nahi izan dugu ikerketa-lan honekin.

2.2 Marko teorikoa

Ikerlana euskarri teorikoan murgiltzeko, udalerri euskaldunen izaera eta funtzioa hizkuntz ekologiaren ikuspegitik azalduko dugu. Izan ere, ikuspegi edo ideologia horretan kokatzen da arnasmuneen diskurtsoa, baita ikerlan honek landu nahi duen ideia ere.

Hizkuntza-ekologia

Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko teknikariak *Bat Soziolinguistika* aldizkarirako idatzitako artikuluan, honela aurkezten du ekologia kontzeptuaren azalpen orokorra: “Ekologia izaki bizidunen arteko harremanak eta eurek inguruarekin dituztenak aztertzen dituen zientzia da”. Bide horretatik abiatzen gara, hain zuzen, zientzia hori hizkuntzara ekartzeko.

Ernst Haeckel (1837-1919) zientzialari alemanak erabili zuen ekologia kontzeptua lehen aldiz, eta Einar Haugen (1906-1994) hizkuntzalari estatubatuarrek ekarri zuen hizkuntza-ekologia definizioa, 1972an argitaratutako *The Ecology of Languages* liburuan. Haugenek ekarpenaren aurretik bi zientzia bezala ulertzen ziren ekologia eta hizkuntzalaritza, eta hark harremanetan jarri zituen. Honela definitu zuen:

“Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginen azterketa da” (Haugen, 1972).

Kontzeptua bera plazara irten zenetik gaur artean, hamaika autorek landu dute hizkuntza-ekologiaren gaia. Hala ere, honako hau da ikuspegi partekatuetako bat diziplina horren inguruan:

“Hizkuntzen prozesu sozialek inguruarekin duten harremana aztertzen duen esparrua da hizkuntza-ekologia, eta horretarako ekologiaren metafora erabil daiteke; alegia, izaki bizidunak bezala hizkuntzak ere elkarrekin bizi direla eta hizkuntza arteko eremu geografiko batean elkarri eragiten diotela” (Vork eta Alwin, 2014).

Arnasmuneak

Hizkuntza-ekologiaren kontzeptua erditu eta bi hamarkadetara, 1991n, Haugenek teorizazioari jarraiki, Joshua Aaron Fishman hizkuntzalari estatubatuarrek arnasmune kontzeptua ekarri zuen, *Reversing Language Shift* argitalpenarekin. Esan gabe doa, ekologiaren ikuspegitik begiratzen diela Fishmanek arnasmuneei. *Physical breathing space* [arnasa hartzeko espazio fisikoak] deitu ziren hizkuntzalariak, eta honela definitu zituen:

**Udalerri
euskaldunak eta
euskararen
arnasmuneak
parean jarri izan
badira ere, ikusi
dugu udalerri
euskaldun
guztiak ez direla
arnasmune.**

**Hipotesia:
hizkuntza baten
garapenean
erabakigarriak
dira udalerriaren
kokapen
geografikoa,
biztanleriaren
aldaketa
demografikoak,
ekonomia-eredua
eta herritarren
bizi-ohiturak.**

“Demografia aldetik hizkuntza bere habian sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe etxeko jaun sentitzen den eremua” (Fishman, 1991).

Kontzeptu hori euskarara ekartzen badugu, Mikel Zalbide pedagogo eta euskaltzainak landu du gehien *euskararen arnasguneak* kontzeptua.

Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasmune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean segurtatzen duena. [Zalbide, 2008]

Bestalde, Zalbidek dio gunek horiek “lehentasuna” dutela hizkuntza normalizaziorako prozesuan:

Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza (Zalbide, 2008).

Eusko Jaurlaritzak egindako *Euskara 21* txostenean ere nabarmentzen da hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusi den esparruak behar dituela:

“Arnasmune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasmuneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan” (Eusko Jaurlaritza, 2008).

Udalerri euskaldunak eta arnasmuneak

Udalerri euskaldunak eta euskararen arnasmuneak parean jarri izan badira ere, ikusi dugu udalerri euskaldun guztiak ez direla arnasmune. Udalerri euskaldunek betetzen dituzte arnasmune izateko baldintza soziolinguistikoak, hau da, badute hiztun masa nahikoa inguru horietan euskaraz bizitzeko. Dena den, hainbat faktore soziologiko tarteko, herri guztiek ez diete berdin erantzuten izaera horri. Gainera, arnasmuneak, oro har, hauskorrak dira oso, txikiak direlako eta edozer aldaketak eragiten dielako nortasunean.

Arestian esan bezala, azterlan honen helburuetako bat izango da ikerlerro bat irekitzea gai honen inguruan: zer faktorek eragiten duten hiz-

kuntzaren erabileran eta zergatik euskaldun indize bertsua izanda, udal-
lerri batzuk arnasmuneak diren eta besteak ez.

3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerlan honek helburu orokorrak eta zehatzak ditu, eta horien azalpena
egingo dugu zati honetan. Helburu orokorrak dira aurrerantzean eus-
kararen erabileraren gorabeherak aztertzeke patroi komun batzuk aur-
kitzen lagunduko dutenak; zehatzak, berriz, ikergai diren bi udalerrien-
gan eragina izango dutenak.

Helburu orokorrak:

- Udal-lerri batean hizkuntza gutxituaren garapenean eragiten duten
faktoreak identifikatzea.
- Hizkuntza plangintza diseinatzerakoan zehaztu beharreko lehen-
tasunak ezartzea.

Helburu zehatzak:

- Bermeon eta Ondarroan euskarak izan duen joeraren oinarrian
dauden arrazoiak identifikatzea eta aztertzea.
- Bermeoko egoera aldatzen hasteko neurriak proposatzea.

Ikerlan honen oinarrian honako hipotesi hauek nabarmendu daitezke:

- Hizkuntza baten garapenean erabakigarriak dira udalerriaren
kokapen geografikoa, biztanleriaren aldaketa demografikoak,
ekonomia-eredua eta herritarren bizi-ohiturak.
- Bermeoko eta Ondarroako bizilagunek inguruko udalerriekin
dituzten harremanak eragin zuzena du herri horietan euskarak
izan duen joeran eta herritarren hizkuntza hautuetan.
- Azken 30 urteetako turismoaren eta demografiaren aldaketak eragin
negatiboa izan dute euskararen ezagutza eta erabileran Bermeon.
Ondarroan ez horrenbeste, ez delako hazkunde nabarmenik izan.

4. IKERKETAREN IBILBIDEA

Ikerlan hau osatzeko, lau bide erabili ditugu nagusiki. Alor bakoitzetik
atera dugun informazioan gehiegi sakondu gabe, teknika bakoitza nola
eta zergatik aukeratu dugun azalduko dugu. Ikerlan honen bertsio lu-
zean aurki daitezke zati bakoitzeko xehetasun guztiak. Dena den, in-
formazio garrantzitsuena datuen interpretazioaren eta ondorioen atalean
ekarriko dugu artikulu honetara.

**Hipotesia: Azken
30 urteetako
turismoaren eta
demografiaren
aldaketak eragin
negatiboa izan
dute euskararen
ezagutza eta
erabileran
Bermeon.
Ondarroan ez
horrenbeste, ez
delako hazkunde
nabarmenik izan.**

**Herritarren uste
eta pertzepzioak
ezagutu nahi
izan ditugu. [...]
haien jarrera,
ohitura,
eguneroko joera
eta baita horien
arrazoiak biltzea
ere. Horretarako,
udalerri
bakoitzean hiru
eztabaida-talde
egin ditugu:
gazteak (16-24),
helduak (25-50)
eta adinekoak
(51tik gora).**

4.1 Datuen bilketa

Batetik, datuen bilketa egin dugu. Bertan jaso ditugu Bermeoren eta Ondarroaren inguruko datu soziolinguistikoak, geografikoak, demografikoak, ekonomikoak, turistikoak, zerbitzuen ingurukoak eta hizkuntza politikari dagozkienak. Horretarako, Bermeoko eta Ondarroako udaletatik, datu estatistikoen bankuetatik eta bestelako webguneetatik jaso dugu informazioa: EUSTAT, INE eta Lanbidetik, besteak beste.

4.2 Teknika kuantitatiboa: inkesta

Bestalde, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili ditugu. Kuantitatiboek dagokienez, inkesta erabili dugu. Inkestako lagina ateratzeko, unibertsoa zehaztu dugu lehenbizi. Gure kasuan, Bermeoko eta Ondarroako bizilagunek osatzen dute unibertsoa: Bermeoko 17.145 pertsonen eta Ondarroako 8.617k. Unibertso finitua da, beraz, eskuartean duguna. Hori horrela, formula honen bitartez atera dugu lagina:

$$n = \frac{Z^2 \cdot p \cdot q \cdot N}{(E^2 \cdot (N-1)) + Z^2 \cdot p \cdot q}$$

Errore tarte bost puntukoa izanda, eta konfiantza maila %95ekoa, Bermeoren kasuan, 345 inkesta egin behar izan ditugu datuak unibertsalizatzeko; eta Ondarroan, 332 inkesta. Laginketaren izaerari dagokionez, elur bolaren laginketa metodoa erabili dugu. Hau da, Interneten zintzilikatu dugu galdetegia, eta sare sozialen bidez zabaltu dugu bi udalerrietan. Horrez gain, herriko elkarteei eta norbanakoei eskatu diegu beraien inguruan galdetegia betetzeko eta zabaltzeko. Horrela, laginean ateratako gutxiengoa baino inkesta gehiago lortu ditugu: 526 Bermeon eta 498 Ondarroan.

Jakitun gara elur bolaren teknika ez dela egokiena lagin bateko parte-hartzaileak aukeratzeko. Izan ere, inkestak zabaltzen eta betetzen dituzten pertsonen eta elkarteek izaera eta eragin-eremu zehatz bat dute, eta horien informazioa iristen da bueltan. Horrez gain, galdetegia, batik bat, Internet bidez egiteak ere baditu bere mugak. Dena den, gure denbora eta baliabide ekonomikoak kontuan izanda, horixe da ondoen zertorkigun teknika, eta gabeziak gabezia, uste dugu datu esanguratsuak biltzea lortu dugula.

Unibertsoa eta lagina alderatzen baditugu, Bermeoren kasuan, ikusten dugu unibertsoan laginean baino adineko gehiago daudela. Izan ere, Bermeoko bizilagunen %48 50 urtetik gorakoak dira, eta lagina bete duten herritarretatik %17,30 soilik dira adin-tarte horretakoak. Gazteei

eta helduei dagokienez, adierazgarria da lagina; izan ere, bat egiten du, gutxi gorabehera, unibertsoaren eta laginaren osaerak.

Ondarroaren kasuan, antzeko egoera dugu. 50 urtetik gorako bizilagunak erdiak baino gehiago dira, %55,4; eta laginean jaso ditugun inkestetik, %23,1 dira adin-talde horretakoak. Gainontzeko adin-multzoak ondo daude ordezkatura.

4.3 Teknika kualitatiboak: elkarrizketak eta talde dinamikak

Teknika kualitatiboan bitartez, herritarrekin hitz egin eta gaiari heltzeko argudioak, arrazoiak, sentsazioak, justifikazioak eta abar bildu nahi izan ditugu.

4.3.1 Elkarrizketa sakonak

Udalerri bakoitzean lau herritar elkarrizketatu ditugu, euskararen alor soziolinguistikoaren ezagutza dutenak. Herriaren errealitatea ezagutu eta hura ulertzeko gakoak bildu nahi izan ditugu horrela, interpretazio osoagoak egiteko. Gidoi jakin bat jarraitu da elkarrizketa bideratzeko, unean-unean moldatzeko aukera zabalik utzita. Bermeon begirada euskaraz ez egiteko arrazoietan jarri da, batik bat; eta, Ondarroan, arrakastarako gakoetan.

Bermeon, bi euskara teknikari eta herriko bi eskolako zuzendari elkarrizketatu ditugu.

Ondarroan, berriz, bi euskara teknikari, euskalgintzako kide den zinegotzi bat eta zinegotzi ohi batekin hitz egin dugu. Pertsona horiek elkarrizketatu ditugu ondo ezagutzen dituztelako beraien herriak, herritarak, euakraren inguruko diskurtsoak eta haren egoera.

4.3.2 Talde eztabaidak

Talde eztabaidei dagokienez, herritarren uste eta pertzepzioak ezagutu nahi izan ditugu. Hainbat egoeraren aurrean dituzten portaerak ezagutzea da helburuetako bat, baita haien jarrera, ohitura, eguneroko joera eta horien arrazoiak biltzea ere. Horretarako, udalerri bakoitzean hiru eztabaida-talde egin ditugu: gazteak (16-24), helduak (25-50) eta adinekoak (51tik gora).

Bermeon, 21 lagunek parte hartu dute eztabaidetan: 16 eta 24 urte arteko lau lagunek, bi emakumek eta bi gizonek; 25 eta 50 urte arteko bederatzi pertsonak, bost emakumek eta lau gizonek; eta 51 urtetik gorako beste

**Ondarroan,
euskararen
erabilera
indartsu dagoen
sentipena dute
elkarrizketatutako
eta talde
eztabaidatan
parte hartutako
guztiak. [...]
Ondarroarrek
gastelaniarako
saltoa horren
erraz ez dutela
egiten aipatu
dute, eta jarrera
hori belaunaldiz
belaunaldi
transmititu dela
iritzi diote.**

**Bermeon,
gaztelaniaz
egiteko ohitura
aspaldikoa dela
aipatu dute
elkarrizketatuek,
nahiz eta azken
urteetan
euskararen
beheranzko joera
nabarmen
areagotu den.**

bederatzi pertsonak, lau emakumek eta bost gizonek. Tartean daude euskaldun zaharrak eta berriak, ikasleak, langileak, langabetuak, gurasoak, aitona-amonak, Bermeon sortutakoak eta kanpotik joandakoak, hala nola, Euskal Herriko beste txoko batzuetatik zein Espainiako herrialde batzuetatik. Guztiek partekatzen duten ezaugarria da Bermeon bizi direla.

Ondarroaren kasuan, 19 lagunek parte hartu dute orotara: 16 eta 24 urte arteko bost lagunek, lau emakumek eta gizon batek; 25 eta 50 urte arteko bost pertsonak, lau emakumek eta gizon batek; eta 51 urtetik gorako beste bederatzi pertsonak, lau emakumek eta bost gizonek. Tartean egon dira, ikasleak, langileak, langabetuak, gurasoak eta aitona-amonak. Euskaldun zaharrak izan dira gehienak, baina tartean euskaldun berriak ere egon dira. Jaiolekuari dagokionez, gehientsuenak Ondarroan jaioak dira. Guztiak Ondarroan bizi dira egun, bat izan ezik.

5. DATUEN KONPARAZIOA ETA INTERPRETAZIOA

Zati honetan egin dugu aurrez jasotako datu guztien interpretazioa. Horretarako, hemezortzi ataletan banatu dugu informazio guztia. Atal honetan oinarrituko gara, gero, ondorioak ateratzeko. Lanaren bertsio luzean daude jasota orrialde hauetan ikusiko ditugun baieztapenen oinarri diren datuak, xehe-xehe.

5.1 Datu soziolinguistikoak


Datu soziolinguistikoei heltzen badiegu, ezagutzari dagokionez, euskaldun tasa altua dute bi herriek, %70etik gorakoa, hain zuzen. Euskaldun dentsitate handiko herriak dira biak eta, alde horretatik, ezaugarri bat partekatzen dute, udalerrri euskaldunaren izaera, hain zuzen.

1991tik 2011ra izandako bilakaera aztertuta, joera desberdina izan dutela ikus daiteke: Bermeok ia 4 puntuko jaitsiera izan du ezagutzari dagokionez, eta Ondarroan zertxobait (+0,7) gora egin du, EUSTATen datuen arabera. Lehen hizkuntzari eta etxeko hizkuntzari erreparaturaz, Ondarroan zertxobait behera egin dute datuek, puntu bat eta bi punturen inguruan, hurrenez hurren. Bermeon, aldiz, beherakada 11 eta 12 punturen bueltakoa izan da. Ezagutza datua baino dezente beherago kokatzen dira lehen hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren indizeak.

Azkenik, kale erabilerari begiraturaz gero, oso bestelako joerak ikus ditzakegu batean eta bestean; izan ere, Ondarroan azken hamabost urtetan kale erabilera da indartsuen dagoena; eta Bermeon, aldiz, kale era-

bilera beste datu guztien azpitik kokatzen da, 2001az geroztik gora egin ezinik dabil.

1 GRAFIKOA: Ondarroako eta Bermeoko bilakaera soziolinguistikoa 1991-2016



ITURRIA: EUSTAT (2011) eta Soziolinguistika Klusterra (2016).

5.2 Pertzepzioak eta datuak

Bi udalerrietan ezagutza mantendu egin dela edo gora egin duela pentsatzen dute bertako herritarrek. Haien arabera, D eredua zabaltzea izan da arrazoietakoa bat. Erabilerari dagokionez, ostera, oso bestelako pertzepzioa dute batean eta bestean. Ondarroan, euskararen erabilera indartsu dagoen sentipena dute elkarrizketatutako eta talde eztabaidatan parte hartutako guztiek. Euskaraz hitz egitea joera orokorra dela adierazi dute, normalena hori dela. Ildo horretatik, ondarroarrek gaztelaniarako saltoa horren erraz ez dutela egiten aipatu dute, eta jarrera hori belau-naldiz belaualdi transmititu dela iritzi diote. Bermeon, aldiz, gaztelaniaz egiteko ohitura aspaldikoa dela aipatu dute elkarrizketatuek, nahiz eta azken urteetan euskararen beheranzko joera nabarmen areagotu den. Herritarrek, gainera, ez dituzte kontzientziatuta ikusten.


Adin-taldee dagokienez, Ondarroan haurrak eta nagusiak izan dira aipatuenak euskara gehien hitz egiten dutenen artean; batzuek gazteak ere aipatzen dituzte talde euskaldunen artean. Guztiek oso garbi dute

**Elkarrizketa
sakonetan aipatu
dute
ondarroarrek
euskaraz
gaztelaniaz baino
hobeto egiten
dutela, eta
gaztelaniaz
gaizki egitearen
konplexua
dutela. Horrek
euskararen
erabilera
handitzea
dakarrela [...].
Euskara
erabiltzen dute
egoera guztietan,
gaztelaniaz
deseroso
sentitzen baitira.**

helduak direla gutxien hitz egiten dutenak, adin tarte horretan askotariko egoerak ikusten baitituzte. Bermeen, umeen artean euskaraz egiten dutenen kopurua nabarmen jaitsi dela uste dute, batik bat, nerabeen artean; baina beste adin-taldeetan ere bai.

Pertzepzioetatik nahikoa gertu daude datu errealak. Dena dela, Ondarroan nagusien erabilerari buruz duten pertzepzioa datu errealak baino hobea da, eta horrekin harrituta gelditu dira. Garai batean Espainiako estatutik lanera joandakoak jada multzo horretan daudela eta horren eragina izan daitekeela aipatu dute. Bermeoren kasuan normaltzat ikusten dute erabileran izandako jaitsiera, batez ere, haurren erabileran izandakoa; gainerako adin-taldeetan izandako joerari begiratuta, transmisioan hutsune bat izan dela ikusten dute. Askok nabarmentzen dute gurasoek erdararako joera handia dutela eta horrek zuzenean eragiten duela haurren erabileran.

2. Grafikoa: Ondarroako eta Bermeoko kale-erabileraren datuak, adin-taldeka, 2016 (%)




ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra (2016).

5.3 Hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta jarrera

Hizkuntza-gaitasun erlatiboari erreparatzen badiogu, emaitza oso adierazgarria da; izan ere, Ondarroako galdetegia bete dutenen %75,7k esan du euskaraz hobeto moldatzen dela, eta %22,3k bietan berdin. Aitzitik, %1,2k baino ez du erantzun gaztelaniaz hobeto moldatzen dela. Bermeoren kasuan, egoera bestelakoa da, erdiak esan du —%50,3k— bi hizkuntzetan berdin moldatzen dela, eta %38,5ek euskaraz hobeto; bestetik, %10,8k gaztelaniaz hobeto moldatzen dela erantzun du.

3. Grafikoa: Bermeoko eta Ondarroako hizkuntza-gaitasun erlatiboa, 2017 (%)



ITURRIA: Ikerlan honetako galdetegia (2017).

Gaitasunari lotuta, elkarrizketa sakonetan ere aipatu dute ondarroarrek euskaraz gaztelaniaz baino hobeto egiten dutela, eta horrekin batera, gaztelaniaz gaizki egitearen konplexua dutela. Horrek euskararen erabilera handitzea dakarrela aipatu dute. Hori dela eta, euskara erabiltzen dute egoera guztietan, gaztelaniaz deseroso sentitzen baitira.

Bermeoko bizilagunen kasuan, bi hizkuntzak berdin menderatzen dituzte, eta horrek hizkuntza batetik bestera salto egiteko erraztasuna ematen die; euskaraz egitea norbere esku geratzen da, beraz.

Adin-taldeari dagokionez, aldeak nabariak dira herri batetik bestera: zenbat eta gazteago orduan eta gaitasun handiagoa dute euskaraz aritzeko bi herrietan, baina euskaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa askoz altuagoa da Ondarroan adin-tarte guztietan. Gazteen eta helduen ehuneko oso altuak dio euskaraz hobeto moldatzen dela. Adinekoen artean, baxuagoa da emaitza, baina kontuan hartu behar da 50etik gorako populazio zabalaz ari garela hizketan. Bermeon gazteen erdia inguruk esan du euskaraz hobeto moldatzen dela, baina helduen eta nagusien taldeetan euskaraz hobeto moldatzen direnen kopurua %40tik beherakoa da.


Jarrerari dagokion galdetegiko datua aztertzen badugu, Ondarroako laginaren %81,7k esan du euskaraz egiten duela beti; eta, Bermeoko laginaren kasuan, %51,7k erantzun du euskaraz egiten duela beti. Aldea nabarmena da, hortaz.

Adin-taldeetan arreta jartzen badugu, helduek eta adinekoek euskarari hobeto eusten diotela ondoriozta dezakegu; gaztelaniaz aritzeko erraztasun bera edo handiagoa izan arren, euskarazko hautua egiten dute

**Bermeon gazteen
erdia inguruk
esan du euskaraz
hobeto moldatzen
dela, baina
helduen eta
nagusien
taldeetan
euskaraz hobeto
moldatzen
direnen kopurua
%40tik
beherakoa da.**


askok, bai Ondarroan bai Bermeon. Gazteek, baina, euskaraz hobeto moldatu arren, egoera erosoagoa bada, errazago amore ematen dute.

4. Grafikoa. Bermeon eta Ondarroan euskaraz hobeto moldatzen direnak, 2017 (%)



ITURRIA: Ikerlan honetako galdetegia (2017).

5. Grafikoa. Bermeon eta Ondarroan euskaraz ahal duten guztietan egiten dutenak, 2017 (%)



ITURRIA: Ikerlan honetako galdetegia (2017).

Gaitasuna erabileran eragiten duen faktore bat bada ere, ez da bakarra, motibazioak ere eragina baduela proba baitezakegu datuen bidez.

5.4 Hizkuntza ohiturak

— Etxean

Etxeko kideen gaitasunari eta erabilerari erreparatuta, Ondarroako laginaren %93,3 etxetan denak euskaldunak dira, eta %94,4k euskara du hizkuntza nagusia bertan. Bermeori dagokionez, erantzun dutenen artetik %86,7 etxetan dira denak euskaldunak eta %69,3k euskara du hiz-

kuntza nagusia etxean. Datu horiekin ondoriozta dezakegu Ondarroako etxebizitzetan hobeto eusten diotela euskarari. Bermeon ikus daiteke etxeko kide guztiak euskaraz jakinagatik, gaztelaniaz aritzeko joera handiagoa dela; eta Ondarroan, aldiz, alderantzizkoa, kideren bat erdalduna izanagatik, etxeko hizkuntza nagusia euskara dute.

— Eskolan eta lanean


Ondarroako galdetegiko laginaren %84,1ek esan du euskaraz aritzen dela lanean edo eskolan, eta %6,4k esan du gaztelaniaz aritzen dela nagusiki. Bermeon, aldiz, %43,7k esan du euskaraz aritzen dela nagusiki, eta %28,7k gaztelaniaz. Arlo honetan ere aldea nabaria da, beraz. Kontuan hartzen badugu lanean eta eskolan egunero pasatzen dugun ordu kopurua, pentsatzekoa da eguneroko gainerako hizkuntza ohituretan eragina izango duela.

— Lagunartean

Ondarroako galdetegia erantzun dutenen %97,6k esan du lagunartean euskaraz aritzen dela; eta Bermeon, %56,8k. Kasu honetan ere, galdetegiko erantzunek Klusterreko kale-erabileraren emaitzen joera berresten dute, nahiz eta datuak dezente baikorragoak izan.

Adin taldeei dagokienez, Ondarroaren kasuan adierazi dute hiru adin-tarteetan euskararen erabilera %95etik gorakoa dela, euskararekiko fidelotasun handia erakutsiz. Bermeon, inkesten arabera, gazteek erabiltzen dute gehien euskara, kale-erabilerako datuen (%14,8) dezente gainetik.

6. Grafikoa. Bermeon eta Ondarroan euskaraz nagusiki aritzen direnak, adin-taldeka, 2017 (%)



ITURRIA: Ikerlan honetako galdetegia (2017).

Ondarroako laginaren %93,3 etxetan denak euskaldunak dira eta %94,4k euskara du hizkuntza nagusia bertan. Bermeon %86,7 etxetan dira denak euskaldunak eta %69,3k euskara du hizkuntza nagusia etxean.

**Liburuei
dagokienez,
bereziki
gaztelaniaz
irakurtzen
dutenak gehiago
dira Bermeon
(laginaren
%63,5)
Ondarroan
(%43,8) baino.
Alderantziz,
Ondarroan
gehiago dira
bereziki euskaraz
(%15) irakurtzen
dutenak Bermeon
(%6,6) baino.**

Talde-eztabaidetan aipatutako ideiek ere bat egiten dute datu horiekin. Ondarroarren kasuan, adibidez, lagun-taldean euskaraz aritzen dira talde eztabaidetan parte hartu duten ia denak; bat izan ezik, azken hori ia-euskaldunen perfilekoa baita. Erdaldunen bat taldean dagoenean, erdaraz egiten saiatu arren, euskararako joera dutela eta elkarriketak erdaraz mantentzea kostatu egiten zaiela aitortu dute gehientsuenek, bai gazteen, bai helduen taldean. Erdaldunek, luzera, Ondarroan geratu nahi izanez gero, euskara ikasi beharko dutela uste dute.

Bermeoren kasuan, talde-eztabaidatan parte hartutako asko euskaltzaleak izan arren, beraien ingurune hurbilenean ere gaztelaniarako joera badagoela esan dute, eta kostatu egiten dela horrelakoetan etengabe euskarari eusten aritzea.

5.5 Kultur kontsumoa

Musikari dagokionez, euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan maila berean entzuten dutenen ehunekoa antzekoa da bi herrietan; izan ere, Ondarroako laginaren %59k eta Bermeoko laginaren %60,2k erantzun du aukera hori. Nagusiki euskarazko musika kontsumitzen dutenak, ordea, gehiago dira Ondarroan (%24,7) Bermeon (%8,9) baino. Azkenik, atzerriko musika gehiago entzuten dute bermeotarrek (%27,7) ondarroarrek (%15) baino. Horrek erakusten du ondarroarrak euskarazko musikarekin identifikatuago sentitzen direla bermeotarrak baino.

Liburuei dagokienez ere, antzeko zerbait gertatzen da: bereziki gaztelaniaz irakurtzen dutenak gehiago dira Bermeon (laginaren %63,5), Ondarroan (%43,8) baino. Alderantziz, Ondarroan gehiago dira bereziki euskaraz (%15) irakurtzen dutenak Bermeon (%6,6) baino.


Nahiz eta gaztelaniazko liburuen kontsumoa altua den bi udalerrietan, datu horiek erakusten dute ondarroarrek euskarazko produkzioa gehiago kontsumitzen dutela bermeotarrek baino.

5.6 Sare sozialak eta komunikabideak

Arlo honetan ere, herri batetik bestera dauden aldeak nabarmenak dira. *Whatsapp*-eko euskararen erabilera bereziki altua da Ondarroan, gehienak euskaraz aritzen baitira, lagunarteko ahozko erabilera datuek erakusten duten bezala. Gainerako arloetan dezente jaisten da erabilera; aipatzeko da, bereziki, euskarazko telebistaren kontsumo apala. Bermeoren kasuan, erabilera dezente baxuagoa da arlo guztietan, eta kasu

honetan ere nabarmendu behar da euskarazko telebistaren kontsumoa, apenas inork ikusten baitu telebista euskaraz.

7. Grafikoa. Bermeon eta Ondarroan sare sozialak eta komunikabideak euskaraz kontsumitzen dituztenak, 2017 (%)



ITURRIA: Ikerlan honetako galdetegia (2017).

5.7 Mugikortasuna, herritik kanporakoa

— Lana eta ikasketak

Galdetegiko datuei helduta, lana edo ikasketak direla eta, ondarroarren %60k eta bermeotarren %58k erantzun du kanpora ateratzen dela. Bai Ondarroan, bai Bermeon, kopuru handiena Bilbora joaten da, %19,8 eta %32,5, hurrenez hurren.

Ondarroan aipatu diren beste herri batzuk Gasteiz, Markina-Xemein, Donostia, Elgoibar eta Eibar dira. Bermeon, berriz, Gernika, Leioa, Mundaka, Zamudio eta Zornotza aipatu dituzte gehien.

Ondarroako elkarriketetan datu adierazgarri bat ere eman dute: Ondarroan, oro har, ikasketa-maila baxuagoak dituztela esan dute, eta joera handiagoa egon dela herrian bertan geratzeko, inguruko herrietara joateko baino.

Bermeoko elkarriketetan eta eztabaidetan, aldiz, aipatu da Bilbo Handira jende asko joaten dela lanera; han, oro har, gaztelaniaz aritzen direla, eta handik erdara ekartzen dutela. Dena dela, Bermeon bertan ere lan mundua erdalduna dela esan dute.

**Bermeoren
kasuan, talde-
eztabaidatan
parte hartutako
asko
euskaltzaleak
izan arren,
beraien ingurune
hurbilenean ere
gastelaniarako
joera badagoela
esan dute, eta
kostatu egiten
dela
horrelakoetan
etengabe
euskarari eusten
aritzea.**

Hizkuntzaren jarrerei dagokienez, ondarroarren %51,2k esan du euskaraz egiten duela beti, eta %49k ahal duen guztietan. Bermeon, haatik, %10,5ek soilik esan du euskaraz egiten duela beti, eta %61,8k ahal duen guztietan; %11,6k gastelaniaz egiten du.

Datu horiek adierazten dute ondarroarren erdiek ez dutela arazorik euskaraz egiteko lanera edo ikastera ateratzen direnean; bermeotarrek, aldiz, euskaraz aritzeko oztopo gehiago aurkitzen dituzte.

— Erosketak eta aisia

Erosketak egitera edo aisialdiaz goatzera kanpora ateratzeko joera dute bai Ondarroan bai Bermeon, galdetegiko laginaren arabera. Bermeoren kasuan, hala ere, asko ateratzen direnen kopurua altuagoa da. Inkestako datuen arabera, Ondarroan erosketak egitera %34,7 askotan ateratzen da herritik, eta Bermeon %40,3; aisiaz goatzera Ondarroan asko ateratzen direnak %22,3 dira, eta Bermeon %30,6.

Datu horiekin bat eginez, elkarrizketa sakonetan ere antzeko joera aipatu dute. Ondarroan uste dute jendea ez dela horrenbeste irteten herritik. Bermeon, aldiz, beste leku batzuetara mugitzeko joera aipatu dute: zina, kontzertuak ikustera edo antzerkira asko Bilbora joaten direla aipatu dute, herrian aukera hori izan arren. Horrenbestez, datu kuantitatiboen eta kualitatiboen arabera, esan dezakegu Bermeon sarriago ateratzen direla kanpora.

Jarrerari dagokionez, ondarroarrek euskarari gehiago eusten diote bermeotarrek baino, datuen arabera, lehen hitza euskaraz egiten baitute, batez beste, Ondarroako laginaren %62,7k eta Bermeokoaren %39,5ek. Talde eztabaidetan zein elkarrizketetan ere aipatu dute ondarroarrek, doazen lekura doazela, euskara beraiekin eramaten dutela, eta galdetegiko datuak irudipen horrekin bat egiten du.

5..8 Mugikortasuna, kanpotik barrurakoa

— Bisitariak

Turismoak herriko euskararen egoeran duen eraginari buruz, bermeotarren %24,9k uste du eragin handia duela; ondarroarren kasuan, %19k uste du eragin handia duela. Aitzitik, ondarroarren ia erdiak —%49,2k— uste du ez duela ia eraginik, eta bermeotarren %41,8k.

Datu kualitatiboei erreparatuz, Ondarroan turista gutxi joaten den sentsazioa aipatu dute elkarrizketa eta talde eztabaidetan. Aipatu duten arrazoiak turistentzako baliabide falta izan da: aparkaleku falta, lotarako toki gabe-

zia... Ermutik hondartzara joaten den autobusa aipatu dute behin baino gehiagotan, eta horrek hondartza erdaldundu egiten duela esan dute.

Bermeon nabari dute turismoak gora egin duela azken urteetan, tele-sailak-eta tarteko. Kopuruz altua izan arren, egun bateko turismoa dela diote. Iritzi ezberdinak dituzte gaiak duen pisua dela-eta.

Datu objektiboetara etorrira, herrira doazen bisitarien bilakaerari erreparatzen badiogu, Bermeoko kopuruak askoz ere altuagoak direla ikus dezakegu. Ondarroan, 2016an, eskuratutako datuen arabera, 7.398 bisitari pasatu ziren turismo bulegotik. Bermeon, aldiz, 38.067. Aipatzekoa da, gainera, azken bost urteetan 10.000 pertsona gehiago jaso dituztela Bermeon; %56 hazi da kopurua. Egoera oso ezberdinak bizi dituzte bi herriek turismoari dagokionez: Bermeoko bisitarien etorrera etengabe-koa da Ondarroakoarekin alderatuta.

Bestalde, Ondarroan, herritik kanpo jaiotakoekin ere joera orokorra euskarari eustea dela esan dezakegu, lehenengo hitza euskaraz egiten dutela baitio %77,7k. Kasu honetan ere, Bermeoko datua —%58— baxuagoa da, erditik gora badago ere. Bermeok kezkatzeko arrazoi gehiago izatea normalizat jo daiteke, hortaz.

— Etorri berriak

Etorri berriek herriko euskararen egoeran duten eraginari dagokionez ere, aurrekoaren iritzi bertsua dutela baieztatu dezakegu. Ondarroarren %21,7k eta bermeotarren %41,6k erantzun du neurri handian eragiten duela. Aitzitik, ondarroarren %33,9k eta bermeotarren %18k uste du ez dutela ia eraginik.

Datu kualitatiboetara joaten bagara, Bermeon, neurri batean, migrazioak eragina izan duela diote elkarriketatuek. Dena den, uste dute etorkinek ez ezik, bermeotarrek ere badutela horren ardura, ez dutelako jakin haien aurrean euskarari balioa ematen. Ondarroaren kasuan, etorritakoen adinean jarri dute arreta; esan dute helduaroan joan direnentzat zailagoa izan dela euskalduntzea, baina gaztetxoek ez dutela inongo arazorik izan. Atzerritik etorri direnei dagokienez, kulturalki ezberdintasun handiagoa dute, eta integrazioa zailagoa izaten da. Dena dela, seme-alabek euskaraz ikasteko inongo arazorik ez dute, eta erraz integratzen dira. Datuetara joaten bagara, Euskal Herritik kanpokoen proportzio bera dute bi herrietan, %17a, hain zuzen.

Etorri berriekin izaten dituzten hizkuntza ohiturei dagokienez, euskaraz egiten dute, haien gaitasuna kontuan hartuta, ondarroarren %63,4k eta

**Whatsapp-eko
euskararen
erabilera bereziki
altua da
Ondarroan,
gehienak
euskaraz aritzen
baitira,
lagunarteko
ahozko erabilera**

**Ondarroan, oro
har, ikasketa-
maila baxuagoak
dituztela esan
dute, eta joera
handiagoa egon
dela herrian
bertan geratzeko,
inguruko
herrietara
joateko baino.**

bermeotarren %29,7k. Etorri berriak, berriz, Ondarroan, herrikideekin euskaraz aritzen dira ahal duten guztietan, %85,7an; eta Bermeon, %71n.

Kasu honetan, beraz, egoera bertsua izan arren, Bermeok ezkorrago ikusten du etorri berriek herriko errealitate soziolinguistikoan duten eragina. Aldi berean, bermeotarrek beraiek erdararako joera handiagoa dute etorri berriekin ondarroarrek baino, eta beraiek ere horrela aitortu dute.

5.9 Hirigintza eta demografia

Biztanleriaren bilakaerari erreparatuz, bi kasuetan biztanle kopuruak behera egin duela ikus dezakegu, neurri ezberdinean bada ere: Ondarroak 25 urtean 1.944 biztanle galdu ditu, eta Bermeok 778. 1981. urtean goia jo eta gero, Ondarroa etengabe joan da biztanleak galtzen. Bermeon neurri txikiagoan gertatu da beherakada: 1991n biztanle kopuruak goia jo zuen, eta hurrengo hamarkadan beherakada handia izan zuen. Azken bi hamarkadetan mantendu egin da bizilagun kopurua.

Horrekin lotuta, herritik kanpora bizitzera joan direnen eta hil direnen kopurua altuagoa izan da bi udalerrietan bertara bizitzera joan direnen eta jaio direnen kopurua baino. Bermeoren kasuan, joan-etorri horiek euskararen kalterako izan dira; Ondarroan, aldiz, ez du apenas eraginik izan.

Datu esanguratsuen bila, jaiolekuei erreparatu diegu. Dena den, kasu honetan ere, oso joera antzekoak ikusi ditugu; izan ere, gehienak Hego Euskal Herrian jaioetakoak dira, Ondarroan %81,54 eta Bermeon %82,63 (azken honetan Nafarroa salbu). Horietatik Bizkaian jaioak dira %75,6 Ondarroan, eta %81,54 Bermeon. Hego Euskal Herrikan kanpokoak (Bermeoren kasuan EAetik kanpokoak) %17 bat dira bi kasuetan. Horrekin ondoriozta dezakegu, bi herrietara hurbileko jendea joan dela bizitzera, batez ere.

Galdetegiko laginera jotzen badugu, bermeotarren %76,3k erantzun du herrian bertan jaioak direla, eta %12k Bilbon sortu zirela; gero, neurri txikiagoan Gernika, Barakaldo, Irun, Mundaka, Ondarroa eta Mutriku aipatu dituzte. Ondarroarren kasuan, %82,7k erantzun du herrian jaioetako dela, eta beste batzuek Durangon, Bermeon, Mutrikun, Donostian, Azkoitian edo Usurbilen. Datu horien arabera, esan dezakegu Bermeora eremu erdaldunagoko herritarrek joan direla bizitzera, eta Ondarroara eremu euskaldunagokoak.

5.10 Kokapen geografikoa

Kokapen geografikoari erreparatzen badiogu, egoera soziolinguistiko ezberdineko ingurunea dute biek. Ondarroa udalerri euskaldunez inguratuta dagoen herria da. Mutriku, Lekeitio eta Markina-Xemein %80ko ezagutzaren bueltan dabilta, eta erabilera %70 ingurukoa da. Bermeoren kasuan, inguruko herriek ezagutza indize baxuagoa dute, guztiek %70etik beherakoa; Gernikakoa %67,6koa da, Busturikoa %64,8koa eta Mundakakoa %62,2koa. Erabilerari dagokionez, Gernikakoa da eskuratu ahal izan dugun bakarra: %49,4koa. Erabilera datuak kontuan hartuta, harreman hizkuntza, hein handian, gaztelania izateak logika dauka, eta horrek herriko hizkuntza ohituretan ere eragina izatea ohikoa da.

Bermeon, bestalde, aipatu dute euskal lurgunearen mugan egoteak euskararen erabileran eragina baduela. Eremu erdaldunagoa, Bilbo bera, gertuago izateak eragiten duela esan dute; Ondarroan, aldiz, inguruko herri denak euskaldunak direla eta horrek euskara bera babestu egiten duela diote.

5.11 Ekonomia eta lan mundua

Ekonomiari dagokionez, antzekotasun handia duten herriak dira. Biak arrantzaile herriak izan dira, eta ekonomia lehen sektorean oinarritu izan da. Gaur egun, aldiz, bi herrietan zerbitzuen sektorea da indartsuen dagoena. Ondarroaren kasuan, %56,95ek lan egiten du zerbitzuen sektorean; eta Bermeon, herritarren %69,96k. Industriari dagokionez, Ondarroak berak ez du apenas industriarik, bertakoak inguruko herrietako lantokietara joaten dira lanera, Berriatuara eta Markina-Xemeinera, batez ere. Aipatu dutenez, lan-harreman informalak euskaraz izaten dira. Bestetik, askok aipatu dute, lana dela eta, kanpora joan direla bizitzera; eta lanlekua urruti gelditzen bazaie, herri horretara mugitzen direla bizitzeko.

Ondarroan lan-mundua gune erdalduntzat jotzen dute. Portuak gaztelaniaz funtzionatzen duela diote. Hala ere, aipatu dute ondarroarrak laneko harreman informaletan euskaraz aritzen direla.

Bermeoren kasuan, adierazi dute asko Bilbo Handira joaten direla lanera, eta azaldu dute eremu erdaldunagoetan lan egiteak ondoren Bermeon erabiltzen duten hizkuntzan eragina duela. Dena dela, lan mundua Bermeon bertan ere eremu erdalduna dela diote. Datu kuantitatiboek ere hala berresten dute.

**Lehen hitza
euskaraz egiten
dute, batez beste,
Ondarroako
laginaren %62,7k
eta
Bermeokoaren
%39,5ek.**

**Ondarroan,
2016ko datuen
arabera, 7.398
bisitari pasatu
ziren turismo
bulegotik.
Bermeon, aldiz,
38.067.
Bermeoko
bisitarien
etorrera
etengabekoa da
Ondarroakoarekin
alderatuta.**

5.12 Identitatea eta herri izaera

Ondarroan euskara ondarroarren identitatearen ezaugarri nagusitzat jotzen dute; hizkuntza beraiei nortasunarekin uztartuta dagoela diote, ezaugarri nagusi moduan sentitzen dute. Euskalduntasuna harrotasunez bizi dutela aipatu dute behin baino gehiagotan. Bermeoren kasuan, aldiz, euskalduntasuna edo identitatearekiko atxikimendua galdu egin dela sentitzen dute.

Transmisioari dagokionez, oso bestelako egoerak gertatu dira batean eta bestean. Ondarroan garbi ikusten da euskararekiko atxikimendua belaunaldiz belaunaldi transmititu dela; eta Bermeon, aldiz, nabari da etena egon dela.

5.13 Herri hizkera eta estatusa

Kasu honetan ere oso bestelako pertzepzioak dituzte herri batean eta bestean. Ondarroan herri hizkera harrotasunez bizi dute, oso berena sentitzen dute eta hizkera hori erabiltzen dute ahal duten guztietan. Erregistro informala oso garatua dute, eta horrela aritzen dira eguneroko egoera anitzetan: barre egin, burla egin, negar egin... Herritarrek diote beren hizkera garatzeko balio izan diela herriko izaerak; lotsagabeak, burlatiak direla diote, eta horrek lagundu diela.

Bermeon, aldiz, hizkuntzaren estatusa eta herri hizkera nahikoa ahul sentitzen dituzte. Ikusten dute euskaraz hitz egitea gaztelaniaz jardutea baino xumeagoa dela; eta, bestetik, bi kontu nabarmendu daitezke euskalkiari dagokionez. Batetik, euskara batua eta euskalkiaren arteko gatazka; eta, bestetik, herriko hizkeraren belaunaldiz belaunaldiko galera.

5.14 Erreferenteak

Ondarroan herriko eragile aktiboak, lanean ari diren taldeak, jarduerak... dira ondarroarrentzako erreferente nagusiak. Elkartegintza bizia behin baino gehiagotan errepikatutako gaia izan da, eta horrek guztiak euskaraz funtzionatzen du. Herrian bertan euskara da arau soziala eta, alde horretatik, ez dute arazorik ikusten erreferente horiek euskaraz aritzeko.

Bermeora etorrira, erreferente indartsuen falta sumatzen dute. Kirola aipatzen dute gune estrategiko bezala, baina, une honetan, oso erdal-duna den eremua dela ikusten dute. Futbola jarri dute erdigunean guztiek. Hori dela eta, aurrera begira, landu beharreko gai bezala ikusten dute erreferenteena, batik bat, "erreferente domestiko" deritzenena: ira-

kasleak, begiraleak, gurasoak... halako pertsonak. Erreferente famatuei dagokienez, ikusten dute herrian ez dela “erabateko izarrik”.

5.15 Herri bizitza

Herri bizitzari lotuta, Ondarroa herri bizitzat eta dinamikotzat dute, kalean asko ibiltzen direla esaten dute; eta, horren eraginez, hizkera bizi-bizi mantendu dela. Aipatu dute bertako etxeak txikiak izateak eragin dezakeela kalean bizimodua egitea.

Bermeon herri bizitza gero eta makalagoa dela adierazi dute. Besteak beste, Alde Zaharra hustu eta poteoa desagertu egin dela aipatu dute, eta horrek herri bizitza euskaldunaren gainbehera ekarri duela. Horrez gain, jendea mugitzea kostatzen da, eta euskararen mundua pertsona jakin batzuekin identifikatzen da. Zerbait antolatzen denean, jendeak ez du parte hartzen, ez dago ohitura hori. Itsasoarekin lotutako ekitaldiek soilik izan ohi dute arrakasta.

5.16 Euskalgintza

Ondarroan euskalgintzako talde antolaturik ez dago gaur egun, udaleko Euskara batzordeaz gain. Dena dela, ez dute arazo moduan bizi hori; izan ere, herrian euskaltzale ugari dagoela diote, eta taldeetan euskararekiko kontzientzia duten pertsonak badirela. Ondarroarrek, oro har, euskaltzaleak direla sentitzen dute. Gutxiengo ahalegin bat eskatuta-koan, jendeak erantzuten duela diote.

Euskalgintzako taldea izatea ez dute beharrezkotzat jotzen Ondarroan, sarea eratzeari eta eragiteko estrategia garatzeari eman diote lehentasuna. Bermeoren kasuan, euskalgintza eta herrigintza, oro har, nahikoa eskas daudela ikusten dute elkarriketatuek; eta, batik bat, euskalgintzari buelta emateko beharra sumatzen dute. Izan ere, guztiek uste dute beharrezkoa dela euskarari herritik eragitea.

5.17 Hizkuntza politika

Bi herriek hizkuntza politika indartsua dute. Udalean erabilera plana zein euskara sustatzeko ekintza plana garatzen dituzte. Biak UEMAKo kide dira, eta euskaraz aritzea erabateko lehentasuna dute udaletako hizkuntza irizpideetan. Bestalde, aipatzekoa da Bikain ziurtagiriaren urrezko izendapena lortu zuela Bermeoko Udalak.

Aurrera begira jarritz, oso ezberdin begiratzen diote etorkizunari. Ondarroan baikor dira etorkizunean euskararekin gerta daitekeenarekin;

**Bermeon, eremu
erdaldunagoa,
Bilbo bera,
gertuago izateak
eragiten duela
esan dute;
Ondarroan,
aldiz, inguruko
herri denak
euskaldunak
direla eta horrek
euskara bera
babestu egiten
duela diote.**

**Bermeoren
kasuan, adierazi
dute asko Bilbo
Handira joaten
direla lanera, eta
azaldu dute
eremu
erdaldunagoetan
lan egiteak
ondoren
Bermeon
erabiltzen duten
hizkuntzan
eragina duela.**

Bermeon, aldiz, egoera zail ikusten dute.

Ondarroan arreta jarri dute euskararen kalitatean, etorkinengan eta eremu formaletan. Bermeon, aldiz, kontzientzian eta aktibazioan eragin beharra nabarmentzen dute, batik bat. Horrez gain, aurrera begira zeregin handia dagoela ikusten dute: euskarak herrian espazioak irabazi beharra; euskal erreferenteak indartzekoa; herrigintzari, herri-bizitzari bultzada ematekoa; erabaki politiko ausartak hartu beharra eta abar.

Lan hori guztia nola egin pentsatuta, Ondarroan talde bat sortzeari ez diote lehentasuna ematen, pentsatzen dute sare bidez funtzionatuta lortuko dutela indar hori. Bermeon, euskalgintza aktibatu beharra ikusten dute, euskaldunak trinkotu eta ahaldundu beharra.

6. ONDORIO OROKORRAK

Ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren emaitzak jaso eta alderatu ondoren, hainbat ondorio atera daiteke. Lehenengo eta behin, esan behar duguna da euskararen erabileran eragiten duten faktoreak askotarikoak direla probatu dugula, guztiek dutela pisua eta denak lotuta daudela.

Ikerlanaren hasieran proposatu genituen hipotesiak gogora ekarrita, ikusi dugu aipatu genituen faktore batzuk erabileraren garapenean eragiten dutela: kokapen geografikoaren eragina, bizilagunek inguruko udalerriekin dituzten harremanek hizkuntza hautuetan duten eragina eta biztanleriaren aldaketa demografikoa eta turismoaren hazkundearen eragina. Dena dela, faktore horiez haragoko beste hainbatek ere erabileran eragiten duela probatu dugu: herriko erreferenteen pisua, herrian gailentzen diren balioak, hizkuntzaren estatusa, herri bizitzaren indarra eta idatzi gabeko arauen presentzia.

Hipotesi horiei tiraka, ikusi dugu kokapen geografikoak berak baduela eragina herri bateko eta besteko euskararen erabileraren garapenean. Ondarroa herri euskaldunez inguratuta egoteak nolabaiteko babes ematen dio euskarari, inguruko herriekin dituzten harremanak euskaraz izatea bermatuta baitago. Bermeok, aldiz, eremu erdalduna gertuago du, eta hara joateko joera handiagoa dute, Bilbo Handira, batez ere. Datu kuantitatiboek hori berretsi digute, mugikortasunaz eta harreman ohiturez galdetu zaienean. Bermeon, inguruko herrietara ateratzen direnean lanera, aisiaz gozatzeri eta abar, harremanak gaztelaniaz izaten dira gehienetan. Ondarroan, oster, harreman horiek gehienbat euskaraz izaten direla adierazi dute.

Azken hamarkadetan Ondarroan zein Bermeon izandako migrazio mugimenduei erreparatzen badiegu, arestian aipatu bezala, bi udalerriek Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsonen ehuneko bera dute: %17. Hori horrela, euskararen ezagutzak lau puntu behera egin du Bermeon. Ondarroan, ostera, zertxobait gora egin du ezagutzaren datuak. Beraz, ikus dezakegu, ziur aski, eragina ez dela izan Euskal Herritik kanpo sortutako pertsonena, inguruko herrietatik joandako pertsonena baino.

Mugikortasunari lotuta, turismoa ere aipatzekoa da, bisitarien kopuruan dagoen alde nabarmena kontuan hartuta. Bermeon turismoak izan duen gorakada nabarmena izan da: azken bost urteetan, 10.000 bisitari gehiago jaso dituzte. Ondarroan, ostera, ez dago apenas turismorik. Uste dugu gaiaren inguruan bi herriek hausnartu beharra dutela, eta euskara eta herriko identitatea balioan jartzeari lehentasuna emanda, turismoa sustatzeko neurri iraunkorrak zehaztu behar dituztela.

Bestetik, arlo kualitatiboagoetara jota, transmisioaren gaia dugu, batetik. Ondarroaren kasuan ikusi dugu indartsu eutsi zaiola euskalduntasunari; bai erabilerari, bai euskal identitateari. Oso harro eta identifikatuta sentitzen dira beraien hizkerarekin, eta ez dute inongo zalantzarik agertzen, gainera, sentipen hori adierazten dutenean. Belaunez belaun transmititu diren balioak izan dira, aitona-amonengandik eta haien aurrekoengandik datozenak. Bermeon, ordea, haustura gertatu da euskal identitatearen transmisioan.

Historikoki arrantzale herri izaera izan dute biek, eta bietan euskarak indarra izan du eremu horretan; errepertorio handia garatu dute bi herrietan arrantza munduaren bueltan. Itsasoko munduaren gainbehera bizi izan dute bi herriek, baina euskararengan izan duten ondorioak oso bestelakoak izan dira. Ondarroak eutsi egin dio euskal izaerari, indartsu; Bermeon, aldiz, haustura egon da. Ondarroan euskaraz aritzen ez zirenak; alegia, estatus handiagoko lanbidetan aritzen zirenak, ere euskaraz jarduten dute egun; Bermeon, aldiz, ez da lortu euskal identitatearekiko atxikimendua zabaltzea.

Gaitasunari dagokionez, ondarroarrek euskaraz errazago egiten dute gaztelaniaz baino; ordea, ikus daiteke bermeotarrek bi hizkuntzak berdin menderatzen dituztela edo gaztelaniaz hobeto moldatzen direla. Logikoa ere bada, erabilerak berak gaitasuna hobetzea baitakar, eta erabilerarik ezean, nekez lortuko baita ahozko gaitasuna hobetzea eta garatzea.

Ondarroan euskaraz egiteko motibazioa handia da; bai afektiboa, bai pragmatikoa. Euskal identitatearekin duten lotura afektiboa handia da; eta alde pragmatikotik begiratuta ere, lotura afektiborik ez dutenek,

**Ondarroan
herriko eragile
aktiboak, lanean
ari diren taldeak,
jarduerak... dira
ondarroarren-
tzako erreferente
nagusiak.
Herrian bertan
euskara da arau
soziala.**

**Ondarroan
arreta jarri dute
euskararen
kalitatean,
etorkinengan eta
eremu
formaletan.
Bermeon, aldiz,
kontzientzian eta
aktibazioan
eragin beharra
nabarmentzen
dute, batik bat.**

adibidez, kanpotik etorritakoek, euskaraz egiteko beharra sentitzen dute. Bermeon alderantzizkoa gertatzen da, motibazio afektiboa ahula dela ikusi dugu; eta, bestetik, beharra ere ez dute sentitzen euskaraz aritzeko, ez bada eremu formal zehatz batzuetan, eskolan, herri administrazioarekin harremanetan eta abar.

Euskaraz egiteko hautuari indartsu eusten diote Ondarroan, eta ahul Bermeon. Zentzuzkoa da; izan ere, transmisioak, gaitasunak eta motibazioak eragin zuzena dute hizkuntza bat edo bestea aukeratzerakoan.

Horrenbestez, ondorioztatzen dugu gai sakon horietan badagoela zeregina. Hainbat arlotan (etxean, eskolan eta eragileen artean) lana egin beharra nabarmenduko genuke, herri hizkerari balioa emanda, ereduak eskainita, herritarrak ahaldunduta eta abar.

Aurrera eginez, herri bizitzaren gaia lerrootara ekartzea ezinbestekoa da; izan ere, aurrera begirako gakoek ildo horretatik ere joan behar dute. Oso esanguratsua iruditu zaigu gai horien inguruko iritziak eskatutakoan jaso dugun informazioa. Ondarroaren kasuan, jakin dugu herri bizitza aktiboa eta dinamikoa dela; kalean bizitza handia egiteko joera izan dute ondarroarrek, harreman-sarea trinkoa da, eta horiek guztiak euskaraz egiten dituzte.

Bermeon, oster, ahulduta sumatzen dute herri giroa zein mugimendua. Batetik, Alde Zaharra husteak eta poteoa desagertzeak herri bizitza euskaldunaren gainbehera ekarri duela diote Bermeon; bizimodu ohituretan aldaketak izan dira, eta horrek ondorioak ekarri ditu. Bestetik, arestian aipatu dugun bezala, adierazi dute jendea mugitzea kostatu egiten dela, eta euskararen mundua pertsona jakin batzuekin identifikatzen dela.

Erreferenteei dagokien, Ondarroan pertsona jakinak baino herri eragileak, elkarteak dituzte erreferentetzat eta denek euskaraz funtzionatzen dute. Inori ez zaio bururatzen gaztelaniaz aritzea, arau soziala oso barneratuta dago eta eredu hori da. Bermeko erreferenteek, aldiz, ez dute euskaraz funtzionatzen. Kirol mundua izan da aipatuena, 'futbola, batik bat, eta hor eredu gaztelaniazkoa da. Euskaraz lan egiten duten taldeek ez dute erreferentzialtasunik herrian.

Arlo honetan ere badago zer egina, elkarteak, eragileak, norbanakoak euskarazko erreferente bihurtzeko. Herri mugimendua eta herri bizitza indartu beharra premiazkoa da, eta indartze hori ezinbestez euskaratik

egin behar da. Gazte talde erreferenteak sortzeari eta indartzeari lehen-tasuna ematea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Hizkuntza bat erabiltzeko bete beharreko bermeak azaltzen dituen eredu teorikoa (Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163-195) oinarri hartuta, hainbat ideia aipatu nahi genuke. Ondarroari dagokionez, esan daiteke norbanako maila, hau da, gaitasun erlatiboa eta motibazioa, erabat euskararen aldekoa dela. Maila mikrosozialean ere euskararen egoera osasuntsua da: euskaldunen harreman sarea trinkoa da, euskarari eusteko jarrera nagusia da eta agerikoa da euskaraz egiteko gaitasuna badutela herritarrek. Arazoak maila makrosozialean aurkituko ditugu, hizkuntza politika orokorraren edo bestelako politiken ondorioz etor daitezkeenak. Horri lotuta aipatuko genuke, adibidez, telebista euskaraz horren pertsona gutxik ikustea edota euskarazko kultur kontsumoa datu orokorrak baino baxuagoak izatea... Maila honetan kontuan hartzekoak diren hainbat neurri aurreikusi beharrekoak direla iruditzen zaigu Ondarroak arnagune izaera indartsu manten dezan.

Bermeori dagokionez, gaitasun erlatiboa badute herritarrek, euskaraz dakitenak gehienak baitira herrian. Motibazioa, ordea, ahul dago, nahiz eta ezin den aipatu gabe utzi kontzientzia duen jende kopuru esanguratsua (ikusi besterik ez dago galdetegia erantzun duen bermeotar kopurua). Maila mikrosozialera jotzen badugu, egoera ez da baikorra. Euskarazko harreman sareak ez dira trinkoak, nahiz eta egon badauden, baina ez dira orokorrak. Eta arazoa ez da gaitasun falta, euskarazko hautua egiteko motibazio falta baizik. Maila makrosozialean, herri mailako hizkuntza politika euskararen aldekoa da erabat, baina plano nazionalera jotzen badugu, Ondarroan gertatzen den bezala, zer hobetu badagoela esan behar dugu arnaguneetan gertatzen ari dena aztertzen jarraituta eta galera ematen ari den lekuetan esku hartze bereziak eginda.

Horiek guztiak kontuan hartuta, hurrengo atalean Bermeorako zein Ondarroarako aurrera begirako hainbat proposamen egingo dugu.

7. HIZKUNTZA PLANGINTZAN KONTUAN IZATEKO LEHENTASUNAK

I Ondorioetan jasotako ideia nagusiak oinarri hartuta, aurrera begira kontuan izateko lehentasunak jaso ditugu lerrootan, begirada, batik bat, Bermeon jarrita.

Ondarroan zein Bermeon izandako migrazio mugimenduak kontuan hartuz, bi udalerriek Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsonen ehuneko bera dute: %17. Halere, euskararen ezagutzak lau puntu behera egin du Bermeon eta Ondarroan zertxobait gora.

**Bermeon
ahulduta
sumatzen dute
herri giroa zein
mugimendua [...] herri bizitza
euskaldunaren
gainbehera.**

7.1 Bermeora begirako proposamenak

Azterketan zehar behin eta berriro aipatu den gaia da bermeotarren euskaraz aritzeko motibazio falta. Horregatik, uste dugu euskaltzaleak biltzeak eta trinkotzeak erabateko lehentasuna duela. Kontuan izan behar dugu motibazioa duen jendea egon badagoela herrian. Bada, herrian izatez badagoen herri-gogo horri heldu behar zaio, hori izango baita etorkizuneko aldaketa ematen lagunduko duen motorra. Euskaltzaleen bilgune horren zereginak izan behar du Bermeon euskararen erabilera-
ren inguruan hausnarketa partekatua egitea eta euskarak herrian espazioak irabazteko pausoak zehaztea. Talde autonomo zabala izan behar lukeela uste dugu, gainera; herritarrez zein eragileetako ordezkariez osatua egongo dena, udaletik eta talde politikoetatik bereizia. Euskaltzaleen herritarren bilgunea egotea ezinbestekoa iruditzen bazaigu ere, udalaren egitekoaren garrantzia ez dugu alde batera utzi nahi, biek elkarren osagarri izan behar baitute.

Nabarmentzekoa da udaleko Euskara zerbitzuak egiten duen lana euskararen normalizazioan. Bide hori jorratzen jarraitu behar da, baina euskara zerbitzuetatik egiten den lanaz harago zeregin handia dago. Euskararen gaia zeharkakoa dela ondorioztatu ahal izan dugu lan honetan; izan ere, erabilera eragiten duten faktoreak askotarikoak dira eta horien ardura ez dago Euskara Sailaren esku soilik. Horrenbestez, politika publiko guztietan euskara erdigunean jarri behar da, udaleko hainbat sailetan plangintzak diseinatzeko direnean.

Askotan aipatu den gaia izan da herri bizitzarena, eta, oro har, ahul samar sumatu da. Herri bizitza indartsu batek erabilera ere areagotu egiten du, komunitate sarea trinkotzea ekartzen baitu. Horrenbestez, pentsatzen dugu herri bizitza indartzeko baliabideak jarri behar direla Bermeon.

Herriko talde eragileak, izan kulturakoak, kirol arlokoak, aisialdiari lotutakoak, gazte taldeak, herri mugimenduko taldeak... indartu eta sustatu beharra dago, egiten duten lana nabarmenduz, beraien plangintza gauzatzeko baliabide ekonomikoak eta bestelakoak emanez, elkarteen arteko sarea indartuz eta abar. Hori guztia euskaratik egingo dela ziurtatzea ezinbestekoa izango da, emaitza euskararen erabilera aldekora izango dela bermatu nahi badugu.

Bide honetan, gazte talde erreferenteak indartzeak berebiziko garrantzia du, oro har, gazte mugimendua zentzu zabalenean ulertuta, ahul dagoela sumatu baita. Kontuan hartu behar da gazte horiek izango direla gaz-

tetxoagoen eredu; horregatik garrantzitsua da euskararentzat positiboak izango diren gazte taldeak sortzea eta dagoeneko martxan daudenei indarra ematea.

Gazteengandik gertu dauden helduak ere aipatu behar dira, kultura arloan dabilzan helduak, kirol arloan dabilzanak... Gazteentzat eredu izan daitezkeen pertsonekin edota talde erreferenteekin lan egin beharra dago. Kirola aipatu da gune estrategiko moduan, futbola, batez ere. Bada, kirolaren bueltan dabilzanak ahalduntzea eta euskararen aldeko eragile bihurtzea estrategikoa da. Horrez gain, "erreferente domestikoak" deritzenei ere indarra eman behar zaiela ondorioztatu dugu, hau da, gurasoei, begiraleei, irakasleei eta abarrei.

Jakitun gara herritar taldeak ez direla aktibatzen egun batetik bestera, emaitzak lortzeko bidea konplexua izaten delako. Uste dugu prozesuan zehar egingo diren harremanak ondo zainduak izan behar dutela, eta merezi duela horretan indarra jartzea.

Herri bizitza indartzera bidean, kale giroa ere aipatu nahi dugu. Izan ere, Alde Zaharreko giroaren gainbehera aipatu da; horregatik, Alde Zaharra biziberritzea ere kontuan izatekoa da. Herritarrak elkartuko diren espazioak sortzea ezinbestekoa izango da; eta, plangintza horretan, hizkuntza irizpideak ere kontuan hartzekoak izango dira.

Bestetik, turismoa ere kontuan izatekoa da. Izan ere, bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora azken urteetan. Gai honek hausnarketa merezi du, sustatuko den turismoak herriko balioak eta hizkuntza kontuan hartu behar dituelako.

Horiek esanda, hizkuntzari lotuago dauden beste puntu hauek ere aipatu nahiko genituzke:

Euskal identitatearen transmisioan egon den etena askotan aipatu den gaia izan da; eta, horregatik, uste dugu transmisioari heldu egin behar zaiola. Haurren sozializazioan eragiten duten agente guztiak inplikatu behar dira egiteko honetan, lan guztia familiaren esku utzi gabe. Etxetik hasi, eta gainontzeko eragileetan ere lana egin behar da, eskoletan eta aisialdiko taldeetan, kasu. Elkarlana ezinbestekoa izango da gaiari behar bezala heldu nahi bazaio. Ildo horretan, haurrekin lanean ari diren eragile guztiekin lanketa egin beharra ezinbestekoa izango da, horiek ahaldundu behar lirateke, egoeraren jabe eginarazi eta euskararentzako eredu positibo bihurtu.

**Ondarroari
dagokionez, esan
daiteke
norbanako maila,
hau da, gaitasun
erlatiboa eta
motibazioa,
erabat
euskararen
aldekoa dela.**

**Bermeon, gazte
talde
erreferenteak
indartzeak
berebiziko
garrantzia du [...]
Gazte horiek
izango dira
gaztetxoagoen
eredu; horregatik
garrantzitsua da
gazte taldeak
sortzea eta
dagoeneko
martxan
daudenei indarra
ematea.**

Aurreko gaiari tiraka, aisialdiko eskaintza guztia euskaraz izan dadin neurriak hartu behar dira, hor garatzen baitituzte haurrek hein handi batean beraien arteko harremanak, eta, horrez gain, bizipen positibo asko eremu horren bueltan izaten baitituzte. Horregatik, haurren aisialdia ardatz, herriko eskaintza guztia euskaraz izateko neurriak hartu beharko lirateke.

Bestalde, herriko erreferenteekin batera, herri hizkerari balioa ematea ere lehentasunezko neurrietako bat da. Bermeok herri hizkera bereizia duen arren, ez da nabarmena herritarrak horren jabe direnik. Herri hizkera barneratzeak eta haren aldaketa prozesuan eragile izateak motibatzen ditu herritarrak eremu informalean erdararen ondoan euskara hautatzera. Garbiñe Bereziartua Pedagogian doktoreak honako hau ondorioztatu zuen bere tesian:

“Euskalkia ez duten gazte askok gaztelaniara jotzen dute, ez dutelako nahi ‘eskolako hizkuntzarekin’ saretu beraien harremanak. Lagun artean, ‘guaia’ izateko, ez dute euskara batura jo nahi. Euskalkiaren jabe ez diren gazteek ez dute baliabiderik modu jatorrean euskaraz hitz egiteko, eta, sarri, erdara hautatzen dute”. (Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo, BEREZIARTUA, 2014).

Beraz, herri hizkerari garrantzia ematea izan daiteke bide bat gazteek zein gainerakoek gaztelaniaren ondoan euskara aukeratzeko. Dena den, euskara batuarekiko ere ikusten da errezelo bat, eta beharrezkoa da bi aldaerak, batua zein euskalkia, balioan jartzea eta bakoitzaren eginkizunak ulertzea. Hor, beraz, badago lanketarako tartea.

Bukatzeko, esan nahiko genuke, euskararen erabilera areagotzeko azken gakoa norbanakoak euskararen aldeko hautua egitea lortzea dela. Helburu hori lortzeko motibazio afektiboa izatea aldagai garrantzitsua bada ere, ez zaigu iruditzen ezinbestekoa denik. Noski, motibatuta egongo den herritar talde bat egotea beharrezkoa izango da, baina horiek inguruan eragitea izango da gakoa. Motibatuta dagoen herritar talde hori indartzea eta prestigioa ematea garrantzitsua izango da. Bide horretan, 2018rako planteatuta dagoen EUSKARAK 365 EGUN egitasmoa Bermeon ere egiteak garrantzia izango du. Herriko harreman sareak euskaraz izan daitezen bidea egiten lagundu dezake.

Jakin badakigu, euskararen garapenean beste dozenaka esparru identifikatu direla lan honetan. Hala ere, gehien errepikatu direnak eta gure aburuz estrategikoak direnak jaso ditugu proposamen labur honetan. Izan ere, une honetan, ikusten dugu lehentasunezkoa dela hizkuntzari balioa ematea, motibazioa indartzea, herritar taldeak saretzea, egoeraren

jabe izatea eta aldaketarako testuingurua sortzea. Ondoren, ziur aski, beste lan batzuk etorriko dira.

7.2 Ondarroara begirako proposamenak

Ondarroari dagokionez, herritarrek euskararen alde egiten duten lana eredugarria da. Izan ere, Ondarroa bezalako arnasguneen ekarpena handia da euskararentzat, eta ikerlanean probatu dugu herrian bertan eta herritik kanpora egiten duten euste lana ikaragarria dela. Horregatik, bada, bertatik euskararen zabalpenean egiten den lana kontuan izateko premia nabarmendu nahi dugu.

Hori esanda, askotan errepikatu diren bi gai aipatuko ditugu: etorkinena, bata; eta hizkuntzaren kalitatearena, bestea. Etorkinen eta euskaldunen komunitateen artean etena dagoela jaso da; eta, beraz, etorkinak euskara erakartzeko plangintza zehatza egin beharra dago. Bestalde, bertako hizkera zaintzeko eta balioan jartzeko lanean jarraitzearen garrantzia aipatuko genituzke, eredu egokiak eskainita. Dena den, kalitatearen gaiari lotuta, kontuan izan behar da hizkuntza batek, bizia denean, berezkoa duela garapena eta aldaketa, eta horri bide eman behar zaio. Honekin lotuta, *ahuakemonala*ⁱ bezalako egitasmoen balioa nabarmendu nahi genuke.

Bukatzeko, kanpotik etor daitezkeen faktoreetan jarri behar da arreta, batez ere; maila makrosozialean, hain zuzen ere. Ondarroarrek euskaraz egiten dute, oro har, beraien esku dauden egoeretan, eta horrela egiten ez badute, kanpo-faktoreengatik izan ohi da. Hutsune moduan honako hauek aipatu dira: kultur kontsumoa, lan mundua eta hainbat eremu formal, besteak beste. Espazio horiek irabaztea izango da gakoa, baina, horretarako, Ondarroa bezalako arnagune indartsuak zaintzeko politiken beharra aldarrikatu nahiko genuke azken lerrootan. Egiten diren politika guztietan euskara kontuan izatea premiazkoa da, arnaguneetan atzera-kadarik gerta ez dadin eta euskarak eremuak irabazten jarrai dezan. ●

OHARRA

1. Ondarroako hitz eta esapideak biltzen dituen webgunea:
<https://www.ahuakemonala.eus/>

BIBLIOGRAFIA

- ABOITIZ, J. (2014). *Bermeoko gazteak eta euskara*. HIZNET Hikuntza Plangintza Graduondokoa.
- AZTIKER (2014), *Ondarroarren jaiotza lekuaren mapa eta biztanleriaren bilakaera, azterlan kuantitatiboa*. Andoain.

**Ondarroarrek
euskaraz egiten
dute, oro har,
beraien esku
dauden
egoeretan, eta
horrela egiten ez
badute, kanpo-
faktoreengatik
izan ohi da.
Hutsune moduan
honako hauek
aipatu dira:
kultur
kontsumoa, lan
mundua eta
hainbat eremu
formal, besteak
beste. Espazio
horiek irabaztea
izango da gakoa.**

- BENGOETXEA, X.(2012). Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa. BAT soziolinguistika aldizkaria. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Xabier%20Bengoetxea.pdf> (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- BEREZIARTUA, G. (2014). *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo*. EHU.
- EUSKO JAURLARITZA (2009). *Euskara 21, itun berri baterantz*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FISHMAN, J. (1973). *The Ecology of Languages: Essays by Einar Haugen*. American Anthropologist, 75 (4), 1078-1080.
- (1991). *Reversing Language Shift*. Clevedon: Multilingual Matters.
- GABABIDE ELKARTEA (2009). *Euskararen berreskuratzeko. Hizkuntza biziberritzeko gako batzuk*. Agirrezabal, L. (koor.). Eskoriatza.
- HAUGEN, E. (1972). *The Ecology of Languages*. Stanford: Stanford University Press.
- IURREBASO, I. (2014). *Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011*. UEMA. <http://www.uma.eus/azterketak/> (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2001). *Euskal herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzearen eredu orokorraren proposamena*. Bat Soziolinguistika Aldizkaria 40 (47- 66).
- MARTÍNEZ DE LUNA, I., SUBERBIOLA, P. eta BASURTO, A. (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza- Gobierno Vasco.
- SEGUROLA, M. (2015). *Udalerri euskaldunen garrantzia euskararen normalizazio prozesuan*. (Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldietako hitzaldia; antolatzaileak GFA, UEU, Kontseilua eta UEMA). <https://www.youtube.com/watch?v=FJvvMNI4B-E> (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011), *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale- neurketa*, 2011. Andoain. Txosten osoa Interneten eskuragarri, esteka honetan: <http://www.bermeo-euskaraz.eus/fitxategiak/files/Kale-neurketa-2011.pdf> (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- (2016), *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2016. Andoain. Emaizten laburpena Interneten eskuragarri, esteka honetan: http://www.soziolinguistika.eus/files/bermeo2016_laburpen-txostena_1.pdf (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- (2011), *Euskararen Erabileraren Neurketan Ondarroan*, 2011. Andoain. Emaizten laburpena Interneten eskuragarri, esteka honetan: [BAT Soziolinguistika Aldizkaria 107, 2018 \(2\) | 133-164 | Andoain \(Gipuzkoa\)
ISSN: 1130-8435 | Lege gordailua: S5120/90](http://www.ondarroa.eus/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/Docu-</p></div><div data-bbox=)

- ments/2011_euskararen-kale-erabilera- neurketa.pdf (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- (2016), *Ondarroako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2016. Andoain. Emaizten laburpena Interneten eskuragarri, esteka honetan: http://www.soziolinguistika.eus/files/ondarroa_-_laburpen-txos-tena.pdf (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- URANGA, B. (2011). *Hizkuntza-ekologia. Ekologia-biologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak*. Bat soziolinguistika aldizkaria, 81, 25-50.
- (2011). *Zergatik hizkuntza ekologiarekin bat? Azpeitia*. (Hizkuntza ekologia eta lurralde euskalduna jardunaldietako hitzaldia; antolatzailea UEMA). <http://www.soziolinguistika.eus/ganbara/bideo/player5.php?id=3> (2017ko irailaren 12an kontsultatua).
- VORK, S. eta ALWIN, F. (2014). *Ecolinguistics: the state of the art and future horizons*. *Language Sciences*, 41, 6-25.
- ZALBIDE, M. (2012). *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa (1.3 ikasgaia). EHU eta Asmoz fundazioa.

Webguneak

Ahuak emon ala, Ondarruko berbakeraren inguruko webgunea. Ondarroako Udalak, Bizkaiko Foru Alduniak, Eusko Jaurlaritzak, *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitzak*, Radixu iratiak eta Turrune! euskara elkarteak lagunduta. <https://www.ahuakemonala.eus/> (2017ko irailaren 12an kontsultatua).

bat

Soziolinguistika

aldizkaria

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZA: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUOPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/TXEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZA HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZA PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERROKKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGIKA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLINGUISTIKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAIONA EUROHORIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRESKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAKO ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAIN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLINGUISTIKAREN IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGI BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011). (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKARAREKIKO


102/IX. HAUSNARTU. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK (II) ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

105/X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

106/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN 2016KO DATU ESTATISTIKOAK



bat aldizkariaren 2018ko **dossierak**

106. ZENBAKIA

EUSKAL SOZIOLOGIA 2016ko

DATU ESTATISTIKOAK

~

107. ZENBAKIA

EUSKARA ERABILTZEAREN BILA, AKTIBAZIOA

~

108. ZENBAKIA

OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

~

109. ZENBAKIA

XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

